

KEREXETA-ZUGAZTI

---

**JESUKRISTO  
GURE JAUNAREN  
BERRI ONA**

**(EBANJELIOA)**

## EGILLEAREN BESTE ZERBAIT

- 1.—ORBELAK (1958).
- 2.—BITARGI (1960).
- 3.—JESUKRISTO GURE JAUNAREN BARRI ONA (1960-1961).
- 4.—APOSTOLUEN EGINAK (1961).
- 5.—EGUNEROKO MEZA (1963).
- 6.—GOGARTEAK (1963).
- 7.—DIDAJE (Amabi Apostoluen Irakaspena). — APOSTOLUEN SINISKITZA (1965).
- 8.—APOSTOLUEN EGINAK ETA IDAZKIAK (1965).
- 9.—ALKARTASUN BARRIKO ITZAK ETA GAIAK (1965).
- 10.—ARGI-BIDE TXIKIA (Zugazti-Kerexeta). (1965).
- 11.—JESUKRISTO GURE JAUNAREN BERRI ONA (Ebanjelioa gipuzkeraz. Kerexeta-Zugazti). (1965).

✱

*Zuzenbide onetara egin  
zure eskabideak:*

**Jaime de Kerexeta**  
ELORRIO (Bizkaia)

*edo-ta,*

E D I L I, S. A.  
Alda. Mazarredo 12 bis  
Tel. 23 80 03  
BILBAO.

R/60

1978

Euskal Biblioteka Labayru



1016243  
RELIGIÓN / N. 41

ANO

JESUKRISTO  
GURE JAUNAREN  
BERRI ONA

(EBANJELIOA)

---

**KEREXETA'TAR JAIME'K** BIZKAIERAZ EGIÑA,  
ETA  
**ZUGAZTI** APAIZAK GIPUZKERARA BIURTUTA

---

(Lau Ebanjelioetatik itzez-itzez atera  
ta  
laurak alkartuta)



*Nihil obstat:* Lic. JUAN DE ARRIOLA, S. I.  
Censor Eccles. — *Imprimatur:* ✠ PAULUS,  
Episcopus Flaviobrigensis.  
Bilbao, 30 Septembris 1965.

Núm. Registro: BI - 123 - 65  
Depósito Legal: BI - 1868 - 65

EDILI'k argitaratua  
Alda. Mazarredo, 12 bis  
Tel. 23 80 03 - Bilbao

## ITZAURREA

*Aspaldi batean, Kerexeta'tar Jaime, bizkaitar apaiz jauna etorri zan gurera, berak bizkaieraz argitara emandako JESU-KRISTO GURE JAUNAREN BARRI ONA eskuan zuala. Eta ola esan zidan: «Gipuzkeraz argitara nai nuke. Aldatuko al didazu zuk bizkaieratik gipuzkerara?» Baietz, esan nion.*



*Eta orain, egiña dago Kerexeta jaunak eskatutakoa ta nik agindutakoa.*

*Gipuzkoar kristauen onerako izango al da!*

*Donostia'n, 1965-VII-15.*

**ZUGASTI apaiza**





### JESUKRISTO'REN BERRI ONA

1.—*Lukas Deunaren sarrera* (Lk. 1, 1-4).

Asieratik ikusle ta itz-erakusle izan diranak azaldu digutenez, gure artean gertatutakoen azalpena osatzen ainbatek egiñalak egin dituzte. Beraz, asieratik guztiak zeatz aztertuta gero, nik ere zuri, Teofilo bikain orri, craz idaztea erabaki det, artu dezun erakutsiaren egia etzuten artu.

2.—*Eta Itza aragi egin zan* (Jon, 1, 1-18).

Asieran Itza <sup>(1)</sup> ba-zan, eta Itza Jaungoikoagan zan, eta Itza Jaungoiko zan. Asieran *Itza* Jaungoikoagan zan. Guztia Berak egiña da <sup>(2)</sup>, ta egindakorik Bera gabe ez da egin. Bizitza beragan zan, eta bizitza au gizonen argia zan; eta argiak illunetan argi egiten du ta illunak <sup>(3)</sup> etzuten artu.

Jaungoikoak bialdutako gizon bat izan zan, Juan zeritzana. Au sinispidetzat (testigutzat) etorri zan, argi-aitorle, onen bidez guztiak sinistu zezaten <sup>(4)</sup>. Bera etzan argia; argiari sinispidea eman bear ziona baizik.

Egiazko argia zan, lur ontara datorren edozein giza-

(1) Itza: Jaungoikoaren Seme.

(2) Itza, bizitzaren iturburu da.

(3) Illunak: okerkeria, gaiztakeria, ezjakitea.

(4) Kristoren testigu Juan izan zan, Mesias eta Jaungoikoaren Semea zala judutarrai erakutsiaz.

kume argitzen duan argia. Lurrean zan (5), eta lurra Berak egiña da, ta lurrak etzuan Bera ezagutu.

Bereengana etorri zan eta bereak etzuten artu (6). Baño, Bera artu zuten guztiai, Jaungoikoaren seme biurteko eskubidea eman zien (7); auek ez dira odoletik sortu, ez aragi-griñatik, ez gizonaren naitik, Jaungoiko-agandik baizik.

Artzaz Juan'ek aitortzen du, deadarka esanaz: «Auxe da nik niona: nere ondoren datorrena, nere aurrean jarria izan da, ni baño lenago Bera ba-zan-da. Eta guztiok Aren betetasunetik artzen degu, graziaren ondoren grazi (8). Legea Moises'en bidez emana izan zan, eta grazia ta egia Jesukristo'ren bitartez ekarriak. Jaungoikoa ez du inork beñere ikusi; Jaungoiko-Seme Bakarrak, Aitaren altzokoak, ontxek ezagutu erazi digu.



(5) Izakiak egiten eta zaitzen.

(6) Bereak ere ez, «bere erriak», judutarrak.

(7) Graziaren bidez Jaungoikoaren seme-ordeko egiten gera.

(8) Itzak goi-esker betea ta gaiñezka du Beragan, eta Arengandik artzen degu guk.

## Lenengo zatia

### JESUKRISTO'REN AURTZAROA

3.—*Juan Batayatzallearen sorrera* (Lk. 1, 5-25).

Judea'ko Erodes erregearen egunetan, Abia'ren salleko apaiz bat zan, Zakarias izenez; ta onen emaztea, Aaron'en alabetakoa zan, Ixabel izenez. Biok Jaungoikoaren begietan zintzoak ziran, eta Jaunaren agindu ta zuzenbide guztietan ondo zebiltzan. Eta umerik etzuten, Ixabel agorra zan-da; eta biak urteetan aurreratuak.

Bere sallaren txanda zala-ta (9), Jaunaren aurrean apaiz-eginkizunetan ari zan batean, apaizen artean oi zanez, zotz egin zuten (10), eta intsentsulurriña eskeintzeko Jaunaren etxean sartu zan; eta erriko jende guztia otoitzean ari zan kanpoko aldean. Eta Jaunaren aingerua agertu zintzaion lurrin-aldareko eskuialdean zutik. Eta ua ikusita, Zakarias larritu egin zan, eta bildurrak artu zuan. Baña, aingeruak ala esan zion: «Zakarias, ez bildurtu, zure otoitza entzuna izan da-ta; zure emazte Ixabelek seme bat egingo dizu, ta izena Juan ipiñiko diozu. Atsegiñez eta pozez izango zera, ta aren jaiotzaz asko alaituko dira, Jaunaren aurrean aundia izango da-ta; ardorik eta sagardorik ez du edango; eta bere amaren sabelean bertan Espiritu Santuz beteko da. Israel'go seme asko beren Jaungoiko Jaunagana biurtuko

(9) Apaiz-sail bakoitzak Jaunaren etxeko egikizunak aste guztian bete bear zituan, txandaka.

(10) Goiz eta arratsero sartzen zan apaiz bat elizan, Jaunari intzentzia eskintzera ta erretera; eta zein apaizek joan bear zuan jakiteko, zotz egiten zuten.



ditu. Elias'en kemenez eta indarrez Aren aurrean joango da, «gurasoen biotzak semeengana ta sinisgabeak zintzoen senera ekartzera (11), Jaunari erri bikain bat prestatzera».

Eta Zakarias'ek aingeruari esan zion: «Ori nondik ezagutuko det nik? Zarra naiz ni, ta nere emaztea urteetan naikoa aurreratua».

Aingeruak erantzun eta ala esan zion: «Ni Gabirel naiz, Jaungoikoaren aurrean egoten naizena, ta zuri itz egin eta berri on au ekartzera bialdua izan naiz. Eta begira: nere itzak garai egokian beteko dira: bete bitartean, ordea, mutu egongo zera, sinistu ez didazulako, itzik egin eziñik» (12).

Bitartean, erria Zakarias'en zai zegon, Jaunaren etxean ain luzaro zegola-ta, arriturik, Irten zanean, ezin itzik egin zien. Ura, ordea, kiñuka ari zitzairen, eta mutututa gelditu zan.

Eta elizako lan-egunak bete zituanean, etxera biurtu zan. Eta andik laster, Ixabel, aren emaztea aurdun gelditu zan, eta bost illebetez ezkutuan egon zan, esanaz: «Auxe egin dit Jaunak egunotan, nere lotsakizuna gizar-tetik kentzeko, bere begiak nigan ipiñirik».

4.—*Aingeruak Maria'ri Jesus'en jaiotza iragartzen dio.*  
(Lk. 1, 26-38)

Seigarren illebetean, Jaungoikoak Gabirel aingerua Nazaret deritzan Galilea'ko errira bialdu zuan, neskakta bategana. Neskakta au, Jose izeneko Dabid'en jatorriko gizonezko bati ezkontzeko itza emon ziona zan, eta neskakxaren izena Maria. Eta onegana sarturik, aingeruak esan zion: «Agur!, graziaz bete ori; Jauna da zurekin; bedeinkatua zu emakumeen artean».

Itz auek entzunda, Maria larritu egin zan, eta alako agurra zer izan zitekean zerabilen buruan.

Baño, aingeruak esan zion: «Ez bildurtu, Maria, Jaungoikoaren gogoko zera-ta; begira: sabelean semea sortu, ta egingo dezu, ta izena Jesus ipiñiko diozu. Aundia

(11) Malk. 4, 5-6.

(12) Aingeruak esana sinistu etzualako, Zakarias Jaungoikoak zigortu egin zuan.

izango da Bera, ta Altsuaren seme dei egingo diote, ta Jaungoiko Jaunak Aita Dabid'en aulkia emango dio. Jakob'en etxeko buru igango da betiko; ta Aren agintaritzak ez du bukaerarik izango».

Maria'k aingeruari esan zion: «Ori nola izan diteke, gizonezkorik ez det ezagutzen-da?» (13).

Eta aingeruak erantzunaz, esan zion: «Espiritu Santua etorriko da zugana, ta Altsuaren indarrak bere itzalpean artuko zaitu. Eta, orregatik, zugandik jaioko dana Jaungoikoaren Seme deituko dute (14). Eta ara, zure aide Ixabel ere: zartzaroan seme bat sortu du, ta agorra zana, aurra egiteko seigarren illebetera eldu da; Jaungoikoarentzat eziñik ez dago-ta».

Orduan Maria'k esan zuan: «Ona emen Jaunaren mirabea; egin bedi nigan zuk diozunez».

Eta aingeruak arengandik alde egin zuan.

5.—*Maria'k Ixabel'i egin zion ikustaldia* (Lk. I, 39-45).

Egun aietan Maria altxa ta mendiruntz arin joan zan, Juda'ko erri batera: ta Zakarias'enean sartuaz, Ixabel'i agur egin zion.

Eta ara!, Maria'ren agurra Ixabel'ek entzunaz batera, sabalean aurra poz-jauzika asi zitzaion, eta Ixabel Espiritu Santuz bete zan, eta deadarka ala esan zuan: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko umea ere. Nor naiz ni, baño, nere Jaungoikoaren Ama etorri dakidan? Begira, bada: zure agur-deia belarrietara iritxi danaz batera, aurtxoa nere erraietan poz-jauzika asi zait. Zorionekoa, berriz, zu, Jaunaren izenean Zuri esanak beteko dirala sinistu dezun ori! (15).

6.—*Andre Maria'ren abestia* (Lk. I, 48-55).

Eta Maria'k esan zuan: «Gogotik goratzen det Jauna, ta biotza pozik daukat Jaungoikoa osasungarri zaidalako. Bere mirabe onen txikitiasuna begiratu daulako, gizaldi guztiak zorionsua deituko naute. Benetan, nigan

(13) Maria'k etzuan zalantzarik izan; baño, bere garbitasun-eskeintzaren arduraz zegon.

(14) Ebreatarren esaera, *izango da* adierazteko.

(15) Maria'ri zorionak emanaz, Zakarias'en zalantza adierazten du.

arrigarriak egin ditu guztiz altsuak; eta Aren Izena Santua da, Aren errukia gizaldiz-gizaldi bildur diotenenzat (16). Bere besoaren indarra erabili du; biotz arrokoak ondatu ditu. Altsuak aulkitik lurreratu, ta apalak gora jaso ditu. Bere serbitzari Israel bere babespean artu du, bere errukia gogoraturik, gure gurasoai, Abraan'i ta onen ondorengoai betiko alaxe agindu zien-da».

7.—*Juan Bataiatzallearen jaiotza* (Lk. 1, 56-66).

Eta iru illebeta arekin (Ixabel'ekin) egonda, Maria bere etxera biurtu zan.

Aurra egiteko ordua eldu zitzaionean, Ixabel'ek seme bat egin zuan. Eta Jaungoikoak ain erruki aundiak egin zizkiola jakinda, bere auzoko senideak zorion-agurrak ematen zizkioten.

Zortzigarren egunean, aurra erdaintzera (17) eraman zuten, eta aitaren izena, Zakarias, ipifii nai zioten.

Baño, amak esan zien: «Ez orixe! Juan izango du izena». Eta erantzun zioten: «Baño, zure senitar-tean ez da ifior izen ori duanik!».

Orduan aitari kiñuka galdetu zioten, umeari nola deitzea nai zuan. Onek, berriz, idazteko ola eskaturik (18), ala idatzi zuan: «Juan da orren izena». Ta guztiak arri-tu egin ziran. Eta bat-batean ao-mingañak askatu egin zitzaizkion eta Jauna goratzen asi zan.

Orduan auzoko guztiak bildurrak artu zituan eta Judea'ko mendi-alde guztietan berrri auk zabaldu ziran, eta entzuten zituzten guztiak, biotz-barruan ausnartzen zituzten, alkarri esanaz: «Nor ote degu ume au?». Jaunaren eskua bere alde bait-zegoan.

8.—*Zakarias'en abestia* (Lk. I, 67-80).

Eta Zakarias aren aita, Espiritu Santuz bete zan, eta onela iragarri zuan (19): «Bedeinkatua Jauna, Israel'en Jaungoikoa, bere erria agurtu ta birrerosi dualako. Eta

(16) Jaungoikoaren errukiak ez du mugarik.

(17) Erdaindu: gizonetzkoen gorputz-zati berezian ebaki egitea.

(18) Len ol txikietan idazten zan orain peperean bezela; ol-gaiñcan argizai zabaldu ta ezten batekin idatzi.

(19) Iragarri zuan: Jaungoikoaren argiz aurrez esan zuan.

bere morroi Dabid'en etxean osasun-indarra sortu digu. Bere igarle santuen bidez aspaldietatik esan zigunez, gure etsai ta gorrotatzaille guztiengandik aterako ginduala. Gure gurasoai errukia agertuko ziela, ta gogoratu-tuko zuala bere alkartasun santua. Gure Aita Abraan'i eman zion ziñ-itza (agindutakoa) beteko zigula. Bildurrik gabe, gure etsaien eskuetatik aterata, Bera serbi dezagun. Gure bizitzako egun guztietan Aren aurrean zintzo ta zuzen ibilliaz.

Eta zu, umetxo ori, Altsuaren Igarle deituko zaituzte (20); Jaunaren aurretik joango zera-ta, Ari bidea gertatzen. Aren erriari osasun-jakintza erakusten, beren pekatuen barkamen-bitartez; gure Jaungoikoaren errukiari esker, goitik etorri zaigu-ta, artizarra bezela. Illunpetan eta eriotz-itzaletan daudenai argi egitera, guroniak pake-bidetik zuzentzeko.

Eta umea aundi egiten eta gogoz indartzen ari zan; eta basoan bizi izan zan, Israel'i agertzeko egunerarte.

9.—*Jesus'en Sortzea* (Mt. I, 18-25).

Kristo'ren sorrera, berriz, onela izan zan. Maria, Aren ama, Jose'ri ezkontzeko itza emanda zegoala, alkarrekin bizi izan baño len, Espiritu Santuaren egiñez aurdun arkitu zan. Aren senar Jose'k, zuzena izanik, salatu nai ez-ta, ixillean utzi nai izan zuan. Baño, asmo auetan zebillela, Jaunaren aingerua agertu zitzaion ametsetan, esanaz: «Jose, Dabid'en seme, ez bildurru Maria emaztetzat artzen: beragan sortu dana, Espiritu Santuagandik du-ta. Seme bat izango du, ta izena JESUS ipiñiko diozu (21): bere erria pekatuetatik Aretxek aterako du-ta».

Guzti au, ordea, Jaunak igarlearen aoz esandakoa bete zedin gertatu zan: «Ara, birjiña batek sabelean semea sortu ta argitara ekarriko du; ta Aren izena Emmanuel izango da» (22). Izen onek «Jaungoikoa gurekin» esan nai du-ta.

Beraz, Jose'k, ametsetatik jeikita, Jaunaren aingeruak

(20) Edo-ta, berdin dana: izango zera.

(21) JESUS itzak «Salbatzaille» adierazten du.

(22) Emmanuel: Jaungoikoa gurekin.



agindu zionez egin eta bere amaztea beragana artu zuan (23). Eta onek, Josek ezagutu baño len, semea egin zuan (24). Eta izena JESUS ipiñi zion.

10.—*Jesukristo'ren jatorria* (Mt. I, 1-17).

Abraan'en belauneko Dabid'en seme dan Jesukristo'ren jatorri-idaztia. Abraan'ek Isaak sortu zuan; Isaak'ek Jakob sortu zuan; Jakob'ek Juda ta onen anaiak sortu zituan. Juda'k Tamar'egandik Pares ta Sara sortu zituan; Pares'ek Esron sortu zuan; Esron'ek Aram sortu zuan; Aram'ek Aminadab sortu zuan; Aminadab'ek Naason sortu zuan; Naason'ek Salmon sortu zuan; Salmon'ek Errahabengandik Booz sortu zuan; Booz'ek Errut'engandik Obed sortu zuan; Obed'ek Jese sortu zuan; Jese'k Dabid erregea sortu zuan; Dabid erregeak Uria'ren emazte izan zanagandik Salomon sortu zuan; Salomon'ek Erroboan sortu zuan; Erroboan'ek Abia sortu zuan; Abia'k Asa sortu zuan; Asa'k Josapat sortu zuan; Josapat'ek Joram sortu zuan; Joram'ek Ozia sortu zuan; Ozia'k Joatam sortu zuan; Joatam'ek Akaz sortu zuan; Akaz'ek Ezekias sortu zuan; Ezekias'ek Manases sortu zuan; Manases'ek Amon sortu zuan; Amon'ek Josia sortu zuan; Josias'ek Jekonias eta onen anaiak sortu zituan, Babilonia'ko atzerrialdian. Eta Babiloni'ko atzerrialdi-ondoren, Jekonias'ek Salatiel sortu zuan; Salatiel'ek Zorobabel sortu zuan; Zorobabel'ek Abiud sortu zuan; Abiud'ek Eliakim sortu zuan; Eliakim'ek Azor sortu zuan; Azor'ek Sadok sortu zuan; Sadok'ek Akim sortu zuan; Akim'ek Eliud sortu zuan; Eliud'ek Eleazar sortu zuan; Eleazar'ek Matan sortu zuan; Matam'ek Jakob sor-

(23) «Beragana artu zuan», au da: agiriko ezkontza eginda, Jose'k bere etxera eraman zuan.

(24) «Jose'k Maria ezagutu baño len», au da: etzuten aragizko artu-emanik beñere izan, ez aurrerago egin baño len, ez egin-da gero ere: Maria beti neska garbia izan zan: birjiña. «Ezagutu baño len» esakerak, ez du gero ezagutu zuanik adierazten, beste au baizik: Liburu Santuak (Egilleak, alegia) egin etzana agertzen du (Jeronimo Doneak). Jose'k etzuan iñoiz bere emaztea erruduntzat euki; eta Maria'gan gertatu zan miraria ikusirik, ixilpean bialtze-ko asmotan zebillen. Baño, Aingeruak agertu zion guztia.

tu zuan; Jakob'ek Maria'ren senar Jose sortu zuan. Eta Maria'gandik Kristo deritzan JESUS jaio zan (25).

Beraz, Abraham'engandik Dabid'enganaño amabi belaunaldi (26): ta Dabid'engandik Babilonia'ko atzerrialdiraño, amalau belaunaldi; ta Babilonia'ko atzerrialditik Kristo'ganaño, amalau belaunaldi.

11.—*Jesukriso gure Jaunaren jaiotza* (Lk. II, 1-17).

Egun aietan, Kaisar Augusto'k lurralde osoa izendatzeko agindu zuan. Lenengo izendatze au Siria'ko agintari Kirino'k egin zuan. Eta, an joan ziran guztiak, bakoitza bere errira, izena ematera.

Dabid'en ondorengo ta jatorriko zan-eta, Jose ere Galilea'ko Nazaret erritik Betlen errira igo zan, izena ematera, bere emazte Maria aurdunarekin (27).

Eta an zeudela, aurra egiteko egunak bete zitzaizkion Maria'ri. Eta lenen-semea izan zuan (28), eta aur-zapietan bildurik, estalpe batean etzan zuan, ostatuan ez baitzuten tokirik aientzat.

12.—*Aingerua ta artzaiak* (Lk. II, 9-14).

Alde aietan artzai batzuk zeuden izarpean, txandaka esna, bere artaldea gabaz zaitzen. Eta bat-batean Jaunaren aingerua agertu zitzairen, eta Jaungoikoaren argitasunak inguratu zituan, eta oso bildurtuta utzi. Baña, aingeruak ala esan zien: «Ez larritu; erri osoaren pozgarri izango dan berria ematera natorkizute: Salbatzallea, Kristo Jauna, gaur jaio zaizute Dabid'en errian. Eta ona emen zuentzat ezaugarria: aurra zapietan bildua, estalpean ipiñita arkituko dezute».

Eta bereala, zerutar talde aundia aigeruarekin bildu zan, Jaungoikoa goratzen, onela ziela: «Aintza Jaungoiko-

(25) KRISTO itzak griegoen izkuntzan *gantzutua, igurtzia* esan nai du; ebrotarrenean MESIAS'ek bezela.

(26) Izan, ipiñi dituan belaunaldiak baño geiago dira. Eta obeto gogoratzeko, amalauana jarri ditu, iru salletan. Jose, berez aitordeko izan arren, Legearen aurrean Jesus'en Aita da. Eta Jose'k damaio Dabid'en seme izena.

(27) MESIA BETLEN'EN JAIOKO ZALA, iragarrita zegon-da, Jaungoikoaren ardurak ortarako bideak zabaltzen ditu.

(28) Lenengo semea, au da: lenen jaoa esaten dan semea.

ari zeru-goietan, eta pakea lurrean gogo oneko gizonai» (29).

13.—*Artzaiak Jesus gurtzera* (Lk. II, 15-20).

Eta aingeruak zerura alde egin zutenean, artzaiak al-karri onela esan zioten: «Goazen Betlen'eraño, ta Jaunak jakinerazi digun gertaera miragarri au ikusi dezagun».

Lenbaitlen joan ziran, eta Maria ta Jose arkitu zituzten, aurtxoa askan etzanda zeukatela. Au ikusirik, aurtxoaz esan zitzaiena egia zala ezagutu zuten; eta entzuten zuten guztiak artzaiak ziotenaz arritu egiten ziran. Maria'k, berriz, gorderik zeuzkan itz guztiok, bere biotz-barruan ausnartzen zituala.

Eta artzaiak, ikusi ta entzundakoaz, Jaungoikoari aintzaka ta goraka biurtu ziran.

14.—*Jesus'en erdaintzua* (Lk. II, 21).

Aurra erdaintzeko zortzi egunak bete ziranean (30), izena JESUS ipiñi zioten, amaren sabelean sortu baño len aingeruak emandakoa.

15.—*Jesus'en elizan-sartzea*. (Lk. II, 22-24).

Eta Moises'en legez, Maria'ren garbikuntza-egunak bete ziranean, Jesus Jerusalem'era eramane zuten, Jaunari aurkezteko, Jaunaren legean idatzita danez (31): Amaberriaren gizakumea Jaunarentzat berezia izango da, ta oparizat tortollo pare bat, edo usakume bi eskeñiko dira (32), Jaunaren legeak dionez (33).

16.—*Simeon zaarra* (Lk. II, 25-28).

Simeon izeneko gizon bat bizi zan Jerusalem'en, gizon zintzo ta Jaungoikozalea, Israel'en pozemallearen zai; eta

(29) Edo.ta, «pakea lurrean Jaungoikoak maite dituan gizonai», edo.ta, «Jaungoikoaren begiko diran gizonai».

(30) Erdaintzua Israel'dar mutikoai egiten zieten zeremoni mingarri bat zan: larru mutur bat ebakitzen zieten, aurrari izena ipintzerakoan.

(31) Ex. XIII, 2; 12; 15.

(32) Lev. XII, 8; V, 11.

(33) Emen Mariak bi lege bete zituan: 1) bere buruaren garbitzea; ta 2) Jesus Aurraren eskeintzea.

Espiritu Santua zegon argan. Eta Espiritu Santuak adierazi zion etzala ilko Jaunaren Kristoa ikusi baño len. Eta elizara etorri zan Espirituaren eragiñez, Jesus'ekin legeak agindutakoak betetzera. Aren gurasoak elizan sartzean, Simeon'ek bere besoetan umetxoa arturik, Jaungoikoa bedeinkatu zuan esanaz:

17.—*Simeon'en abestia* (Lk. II, 29-35).

«Orain, Jauna, zure morroi au pakean uzten dezu, itz eman zenduanez; Zugandik datorren osasuna nere begiak ikusi dute-ta, erri guztiaren aurrean agertu dezuna. Atzerriak argitzeok argizuzi ta zure erri Israel'en aintzarako».

Arriturik zeuden Jesus'en gurasoak, Artzaz ziona entzunda. Simeon'ek biak bedeinkatu egin zituan, eta aurraren ama Maria'ri esan zion: «Entzun: askoren ondamen-dirako ta askoren osasunerako dago ipiñia Ume au Israel'en; baita ukatuko dutenen ezaupiderako ere. Zure biotza, berriz, ezpata batek zulatuko du, askoren biotzak dituzten asmoak agertu ditezen» (34).

18.—*Ana emakume igarlea* (Lk. II, 36-39).

Emakume igarle bat ere ba-zan, Ana, Patuel'en alaba, Aser'en jatorrikoa. Oso zaarra zan, ezkontuta zazpi urtez bere senarrarekin bizi izan zan eta larogei ta lau urteteraño alargun zegona, elizatik alde egin gabe, barau ta otoitz, gau ta egun Jauna goratzen bizi zana. Eta ordu artan etorririk, Jauna goratzen asi zan, eta Israel'en Salbatzallearen zai zeuden guztiai Umetxoaz itz egiten.

Eta Jaunaren legeak agintzen zuan guztia bete ondoren, Galilea'ra biurtu ziran, beren uri Nazaret'era.

19.—*Errege jakintsuen adorantza* (Mat. II, 1-12).

Erodes erregearen egunetan, Juda'ko Betlen'en JESUS jaio zanean, jakintsu batzuk etorri ziran Jerusalem'era eguzki-sortaldetik (35), esanaz: «Non da judutarren errege

(34) Kristo guztiak salbatzarren etorri da; baño, Ari jarraitu nai diona bakarrik salbatzen da: jarraitu ezik, ordea, au da: Aren erakutsiak bete ezik, betiko galdu. Onegatik amaren oñaze ta ezpata.

(35) Itxuraz, azti auek persitarrek ziran; aundiki-artekoak. Izar-gaie-



jaioberria? Eguzki-sortaldetik Aren izarra ikusi degu ta gurtzera gatozkio».

Au entzunik, larritu egin zan Erodes erregea ta Jerusalen osoa berarekin. Ta apaiz nagusi ta erriko idazlari guztiak bildu-erazirik, Jesus non jaiotzekoa zan galdetu zien. Eta aiek esan zioten: «Juda'ko Betlen'en; igarleak onela idatzita daukanez: «Eta zu, Betleen, Juda'ko baztar ori, etzera inola ere Juda'ko nagusietan txikiena: zungandik sortuko da-ta Israel nere erria zuzenduko duan gidaria» (36).

Orduan Erodes'ek, aztiak ixillean dei eginda, izarra noiz agertu zitzaizen jakin zuan aiengandik. Eta Belen'era bialtzen zituala, esan zien: «Zoazte ta jakin zazute umea non dagon; eta arkitu dezazutenean, agertu idazute neri, nik ere ara joan eta gurtu dezadan».

Aiek, bada, erregearen itzak entzunda, joan egin ziran. Eta sortaldean ikusitako izarra aurretik zijoakien, Umea zegon toki-gañean gelditu arte. Izarra ikusirik, pozez bete ziran. Eta etxean sartuta, Umea arkitu zuten bere Ama Maria'rekin; eta lurrean auzpezturik, gurtu egin zuten, eta beren kutzak idekirik, opariak eskeñi zizkioten: urrea, kedatza (intzentsua) ta mirra.

Eta, lo zeudela, Erodes'engana ez biurtzeko albistea artuta, beste bide batetik berriro beren errialdera joan ziran.

## 20.—Ejipto'ra iges (Mat. II, 13-15).

Aiek joan ziranean, Jaunaren aingerua Jose'ri agertu zitzaion, esanaz: «Jaiki zaitez, Ama-Semeak artu ta Ejipto'ra iges egizu, ta zaude an, nik esan arte: Umea gal-tzearren, Erodes bere billa ibilliko da-ta».

Jose, beraz, jaikirik, Umea ta onen Ama artu gabaz, eta Ejipto'ra baztertu zan. Eta antxe egon zan Erodes'en

tan asko jakiñak: baño, etziran, noski, erregeak, ezta sorgiñak ere. Eguzki-sortaldean ikusitako izarra, gertakizun miragarria zan eta ala aitortzen dute aztiak goi-graziaren indarrez, jaioberriaren ezaugarritzat. Persian salbatzalle baten itxaropenetan bizi ziran, eta ba-zekiten, gañera, Israeldarrak ere itxaropen antzekoa zutela.

(36) Mik V, 2.

eriotza arte; Jaunak igarlearen aoz esandakoa bete zedin: «Nere Semeari Ejipto'tik dei egin diot» (37).

## 21.—Umetxo errugabeen iltzea (Mat. II, 16-18).

Erodes'ek orduan, aztiak iruzur (engaño) egin ziotela konturatuta, asarre gorritan jarri zan, eta Betlen'en eta inguruetan ziran urte biz beerako ume guztiak iltzeko agindu zuan, aztiak esandako sasoi gogoan artuaz. Orduan bete zan Jeremias igarleak esan zuana:

«Aotsa Errama'n entzun da negar ta karraxi ugari; Errakel bere umeagatik negarrez, eta ez du pozbiderik nai, ez dira bizi-ta» (38).

## 22.—Jose Nazaret'era biurtzean da (Mt. 2, 19-23).

Eta Erodes il zanean, Jaungoikoaren aingerua Ejipto'n Jose'ri ametsetan agertu zitzaion, esanaz:

«Jaiki zaitez, Ama-Semeak artu itzazu ta zoaz Israel-aldera: Umea il nai zutenak il egin dira-ta».

Beraz, Jose jeikirik, Umea ta bere Ama artu, ta Israel-aldera joan zan. Bafia Erodes'en ondorengo Arkelao, aren semea Judea'n errege zala entzunda, bildurdu egin zan, eta ametsetan albistea artuta, Galilealdetara baztertu zan. Eta ara ezker, Nazaret izeneko errian bizilagun gelditu zan, igarleen esana bete zedin:

«Nazaretarra dei egingo diote» (39).

## 23.—Jesus irakasle-arte. — Ixilleko bizitza.

(Lk. II, 40-52)

Eta Umea azi ta gogortzen ari zan, senaz beterik, eta Jaungoikoaren grazia zegon Argan.

Pazko-jaietan, Jesus'en gurasoak urtero Jerusalem'era joaten ziran. Eta amabi urteko zala, aiek ara (Jerusalem'era) joan ziran, jai egun aietako oitura zanez (40). Jai-

(37) Os. XI, 1.

(38) Jer. XXXI, 15.

(39) Jesus jai, Betlen'en jai, zan; baño, gero Nazaret artu zuten erriztat: Nazaret'eko bizilagun egin ziran. Andik aurrera beti Nazaretarra deitzen zioten.

(40) Amabi urtetik gorakoak urtean iru bider Jerusalem'era joan bear izaten zuten; eta arrezker, mutikoak askatasun pixka baten gai egiten ziran.

gunak bukatuta, etxerakoan, Jesus Aurra Jerusalem'en gelditu zan, gurasoak jakin gabe. Beste lagunen artean izango zalakoan, egun bateko bidea egin ondoren, senide ta ezagunen artean Aren billa asi ziran. Baña, arkitu etzutenean, Aren billa berriro Jerusalem'era biurtu ziran. Iru egunen buruan, eliza nagusian arkitu zuten maixuen artean exerita, batean ayei entzuten, bestean galdezka; entzule guztiak arrituta zeuden, Aren jakinduri ta erantzunez.



Ala ikusirik, Aren gurasoak ere arritu egin ziran, eta Amak esan zion:

«Seme!, zergatik egin diguzu au? Begira, zure aita ta ni estu ta larri ibilli gera zure billa».

Eta erantzun zien: «Zertarako nere billa ibilli? Ez al zenekiten Nere Aitaren lanetan jardun bear dedala?» (41).

Baña aiek ez zuten ulertu esan ziena. Eta alkarrekin Nazaret'era jetxi, ta bere gurasoen menpean bizi izan zan. Aren Amak, berriz, itz guzti auek biotz-barruan gorde zituan.

Eta Jesus geroago ta beteago agiri zan jakituriz, adimenez eta graziz, Jaungoikoaren eta gizonen aurrean.



(41) Itzok azalez, gogorregien itxura ba-dute ere, Jesus'en esaerak eta irri-parrak gozatuko zituan, noski.



## Bigarren zatia

### BERRI ONA ERAKUSTEA

#### PRESTAERA-ALDIA

24.—*Juan Batayatzallea Jordan'en agertzen da.*  
(Luk. 3, 1-6; Mat. 3, 1-6; Mark. 1, 1-6)

Jaungoikoaren Seme Jesu-Kristo'ren Berri Onaren asiera.

Tiberio Zesar'en agintaditzako amabostgarren urtean, Judea'n Pontzio erri-buru zala, Galilea'n agintari Erodes, onen anai Pilipo agintari Iturea'n eta Trakontida-aldean, Abilen'en Lisantias agintari, Anas eta Kaipas apaiz-nagusien agintaritzaldian, Zakarias'en seme Juan'i basoan Jaunak itz egin zion.

Eta etorri zan Juan Jordan-inguruko errietara, pekatuen barkamena irixteko damu-batayoaren bearra agertzera, esanaz: «Damu zaitezte, zeruko erreinua bertan dago-ta:» (42), Isaias Igarlearen liburuan idatzi-ta dagonez: «Ara, nere aingerua bialtzen det zure aurrean, bidea zure aurretik gertatu dezaizun» (43). «Basamortuan ojuka ari danaren aotsa; gerta ezazute Jaunaren bidea; zuzendu bide-zidorrak. Sakon guztiak beteko dira, ta mendi ta mendi-bizkar guztiak zapalduak izango dira. Bide okerak zuzenduak eta bide latzak berdinduak; eta gizon

(42) Juan Batayatzallearen itzaldiko lenengo itzak auxe adierazten dute: «zuen pentsakera aldatu egin bear dezute». Lenen, barruko garbiketa; gero —agiriko agerbidez— pekatuen aitorketa ta batayoa. Batayo ark etzuan grazi-donetzallea ematen; ori artzeko gertatu egiten zuan, bakarrik.

(43) Mal. 3, 1.

guztiak Jaungoikoaren Osasuna (Salbatzallea) ikusiko dute» (44).

Eta Jordan-aldeko guztiak eta Jerusalem aldeko guztiak arengana (Juan Batayatzallearengana) irteten ziran, eta beren pekatuak aitortuta, Jordan ibayan arengandik batayoa artzen zuten. Eta Juan bera kamelu-illez jantzita zebillen, eta gerrian larruzko gerrikoa eta aren janaria basa-langostak eta basa-etzia ziran.

25.—*Damurako deya* (Luk. 3, 7-9; Mat. 3, 7-10).

Pariseo ta saduzeotar asko bere batayoa artzera etorri zirala ikusirik, ala esan zien: «Nork erakutsi dizute zuei, subekumeoi, etortzeko dan asarreaki iges egiten? Ekarriz itazute, beraz, damuzko frutu onak. Eta etzazute esan zuen barruan: Abraham degu aita. Nik esaten dizutet, bada: orko arri oyetatik ere Abraham'i semeak ateratzeko aña ba-da Jaungoikoa. Aizkora, onezkero, zugaitz-zuztarrean ipiñia dago-ta; frutu onik ez dakarren zugaitza, ebaki ta sutara botako dute».

26.—*Maitasuna ta zuzentasuna eskatzen ditu.*

(Luk. 3, 10-14)

Eta gizataldeak galdetzen zion, esanaz: «Zer egin bear degu, bada?». Ta arek, erantzunik, esaten zien: «Soñeko bi dituanak, ez daukanari eman bezayo, ta jatekoa daukanak ere, egin beza berdin».

Zerga-biltzalle batzuek ere, batayoa artzeko inguratu ta ala esan zioten: «Maixu! Zer egin bear degu guk?»

Eta arek erantzun zien: «Agindutakoa baño geyago ez kendu».

Baita gudari batzuek ere galdetu zioten, esanaz: «Eta guk zer egin bear degu?»

Ta esan zien: «Gogorregi ez iñori egin, ezta iñor gezurrez salatu ere, eta zuen irabaziaz naiko izan».

27.—*Juan'ek Kristo nolakoa dan agertzen du.*

(Luk. 3, 15-18; Mat. 3, 11-12; Mk. 1, 6-8)

Baño, Juan'engatik erriko guztiak ea Kristo ote zan buruausten zebiltzala, Juan'ek erantzun eta esan zien:

(44) Is. 40, 3-5.

«Nik, bai, urez batayatzan zaituztet damurako; baño nere ondoren datorrena, ni baño altsuagoa da, ta Aren oñeta-koak askatzeko ere ez naiz ni diña; Berak batayatuko zaituzte Espiritu Santuz eta suaz<sup>(45)</sup>. Baya eskuan dakar, eta bere uzta garbituko du, ta bere garia mandioan bilduko du; lastoa, berriz, itzali ezin diteken sutan erreko du»<sup>(46)</sup>.

Esan aukin eta beste askorekin erriari Berri Ona azaltzen zion.

### 28.—*Jesus'en batayoa.*

(Mat. 3, 13-17; Lk. 3, 21-23; Mk. 1, 9-11)

Egun ayetan, erri guztia batayoa artzen ari zan bitartean, Jesus Galilea'ko Nazaret'etik Jordan'era etorri zan Juan'engana, onek batayatu zezan. Juan'ek, berriz, debekatu egiten zion, esanaz: «Ni naiz ni Zuk batayatu bear nautzuna; ta neregana zatoz Zu?»

Baño, Jesus'ek erantzun eta esa zion: «Uztazu, orain goz; guri, zuzenbide osoa onela betetzea dagokigu-ta».

Orduan, Juan'ek utzi egin zion. Batayoa artu-ta berealaxe, Jesus uretatik irten zan; eta zerua zabaldu zan, eta Jaungoikoaren Espiritua uso-irudian jeisten eta Aren gañera etortzen ikusi zuan<sup>(47)</sup>. Eta aots bat zerutik esaten entzun: «Nere Seme kutuna Zu zera; Zuzan det nik nere atsegin betea».

Eta Jesus agertzen asi zanena, ogei ta amar urteko zan, eta Jose'ren semetzat zeukaten.

### 29.—*Kristo'ren barau ta zirikaldiak.*

(Mat. 4, 1-11; Mk. 1, 12-13; Lk. 4, 1-13)

Jesus Jordan'dik Espiritu Santuz beterik biurtu zan; eta Espirituak basamortura eraman zuan<sup>(48)</sup>, etsayak

(45) Juan'en batayoa etzuan pekatuak barkatzen. Gorputza garbitzen zuan, damurako prestaera adierazteko. Espiritu Santuak, berriz, gogoak sutu, garbitu ta santutu egingo dituala.

(46) Munduan onak eta gaiztoak nastuta gaude; azken-auzi-egunean bereziko ditu: batzuk mandiorako (zerurako), besteak sutarako (inpernurako).

(47) Irutasun Deuna agertzen da emen: Aita, Semea ta Espiritu Santua, iru notin edo persona ezberdiñak eta Jaungoiko bakarra.

zirikatu zezan. Basamortuan berrogei egunez eta berrogei gauz pistien artean egon zan, etsayaren zirikaldiak eraman zan. Aldi guzti artan etzun ezer jan; azkenik, berrogei egunak igaro ziranean, gosetu egin zan<sup>(49)</sup>. Eta an urreratu zitzayon tentatzallea (etsaya) ta esan zion: «Jaungoikoaren Semea ba'zera, arri aukin ogei biur ditezela esan zazu».

Jesus'ek erantzun eta esan zion: «Idatzita zegok: Ez dek gizona ogei utsez bizi, Jaungoikoa'ren aotik irteko edozein itzez baño»<sup>(50)</sup>.

Orduan etsayak Erri Santura (Jerusalen'era) eramanda, eliza nagusiko gallurrean jarri zuan, eta esan zion: «Jaungoikoa'ren Seme ba'zera, amildu zaitez goitik bera: idatzita dago-ta: «Bere aingeruai agindu die zaitu zaitzaten; eta eskuetan artuko zaituzte, arriren batek oña mindu ez dezaizun»<sup>(51)</sup>.

Jesus'ek esan zion: «Baita ere idatzita zegok: Ez dek ire Jaungoiko Jauna zirikatuko»<sup>(52)</sup>.

Berriro ere etsayak mendi-go batera eraman zuan, eta lurreko alderdi guztiak eta ayen edertasunak erakutsi zizkion, eta esan: «Guzti oyek emango dizkitzut, auzpezturik gurtzen ba'nauzu».

Jesus'ek esan zion: «Ken akit ortik urrutira, Satanas; idatzita zegok-eta: Ire Jauna gurtuko dek, eta ura beste Jaunik ez dek izango»<sup>(53)</sup>.

Orduan etsayak utzi egin zuan orduko; eta aingeruak etorri ta mirabetzen asi zitzaizkion.

### 30.—*Batzar Nagusiaren ordetzakoak Juan'engana. Juan'en aitormena* (Jon, 1, 19-29).

Eta auxe da Juan'en aitormena, judutarrak Jerusalem'dik apaiz eta lebitarrak bialdu zizkionean, «nor zera

(48) Jerusalem'en eta Itxaso Illa'ren artean basamortua dago. Etzan toki paketsua, noski; piztiak ere ba-ziran bertan.

(49) Moises'en eta Elias'en barauaren antzeko etengabea izan zan, mirariz egindakoa. Etsayari zirikatzen uztean, pekatuan izan ezik, gizonez gu bezelakoxea zala adierazten digu Jesus'ek.

(50) Deut. 8, 3.

(51) Eres. (Ps.) 90, 11-12.

(52) Deut. 6, 16.

(53) Deut. 6, 12.



zu?» galdezka. Eta aitortu zuan, bai, ta ukatu gabe aitortu ere: «Ez naiz ni Kristo'a».

Eta berriro ayek: «Nor zera, bada? Elias ote zera? Eta ark: «Ez».

«Igarlea ote zera?»

Eta Ark: «Ezta».

Ayek esan zioten: «Beraz, nor zera zu, bialdu gaituztenai erantzun dezayegun? Zer diozu zere buruaz?»

Orduan esan zien: «Basamortuan ojuka ari dan aotsa naiz ni: Zuzendu itzazute Jaunaren bideak, Isaias igarleak esan zuanez» (54).

Bialdutako ayek, berriz, pariseotarrak ziran, eta galdetu zioten: «Zer dala-ta ari zera, ba, batayatzten, ez Kristo, ez Elias, Igarle ere ez izanik?»

Juan'ek erantzun zien: «Nik urez batayatzten det, baña zuen artean dago zuek ezagutzen ez dezuten bat. Bera da nere ondoren datorrena, ni baño len sortua, ta aren oñetakoen lokarria askatzeko ere ni ez naiz diña».

Auek guztiak Betania'n, Jordan'en aruzko aldean gertatu ziran, Juan batayatzten ari zala.

31.—*Juan'en beste aitormen batzuk* (Jon, 1, 29-34).

Biaramonéan, Juan'ek Jesus beragana etortzen ikusi ta ala esan zuan: «Orra, gizonen pekatuak kentzen dituan Jaungoikoaren Bildotsa. Orretxegatik esan nuan nik: Nere ondoren dator aurretik jarri zaidan gizona, ni baño lenago bazan-da. Ta nik ez nuan ezagutzen; baña Israel'i ezagutarazteko urez batayatzera etorria naiz ni».

Eta Juan'ek aitortu zuan esanaz: «Uso-irudian Espiritu Santua zerutik jeisten eta Aren gañean gelditzen ikusi det. Ura (Jesus) nik ez nuan ezagutzen; baño, urez batayatzera biali nauanak Berak esan zidan: «Norbaitengana Espiritua jexten eta aren gañean gelditzen ikusiko dezu. Uraxe da Espiritu Santuz batayatzten duana». Eta

(54) Is. 40, 3. Juan Batayatzallearen eginkizuna auxe da: Kristo'ri, Mesias'eri bidea gertatu. Ortarako auxe egin bear zuten: lenengo, beren pentsakera aldatu ta barruko garbitasuna egin; gero, agirizko ezaugarritzat, pekatuen aitorketa egin eta batayoa artu. Juan'en batayoa etzuan grazi donetzallerik ematen, ura artzeko prestatu baizik.

neronek ikusi det, eta aitortu det Uraxe dala Jaungoikoaren Semea».

32.—*Jesus'en lenengo ikasleak* (Jon, 1, 32-40).

Biaramonéan ere, Juan'ek, bere ikasleetako birekin zegola, Jesus an zijoala ikusirik, esan zuan: «Orra Jaungoikoaren bildotsa». Itzok entzunda, ikasle biak Jesus'i jarraitu zioten.

Jesus'ek atzera biurtuta, jarraitzen ziotela ikusirik, esan zien: «Zeren billa zatozte?»

Ayek erantzun zioten: «Rabi (au da: Maixua!), non bizi zera?»

«Atozte ta ikusi» esan zien.

Joan ziran, bada, ta non bizi zan ikusi zuten; eta egun ayetan Arekin gelditu ziran. Amargarren ordua-edo zan (55). Juan'en itzak entzunda jarraitu zioten bietako bat Andres zan, Simon Pedro'ren anaya.

33.—*Pedro'k Jesus lenengoz ikusten du* (Jon, 1, 41-42).

Andres'ek lenengo arkitu zuana Simon bere anaya izan zan, eta esan zion: «Mesias (edo Kristo'a) arkitu degu».

Eta Jesus'engana eraman zuan. Jesus'ek arengan begiak ipiñirik, esan zion: «Simon zera zu, Jonas'en semea; zure izena, berriz, Kepa (Pedro) izango da», arria, nonbait.

34.—*Felipe'ri ta Natanael'i dei* (Jon, 1, 43-51).

Biaramonéan, Galilea'ra joatea erabakitzen du; ta bi-dean Felipe arkitzen du, ta esaten dio: «Jarraitu idazu».

Felipe au Betsaidakoa zan, Andres eta Pedro'ren erri-tarra.

Felipe'k Natanael arkitzen du, ta esaten dio: «Moises' en Legean eta igarleak idatzi zutena arkitu degu: JESUS, Jose'ren Semea, Nazaretarra».

Eta Natanael'ek esan zion: «Nazaret'etik ezer onik atera diteke?»

Felipe'k diotsa: «Atoz eta ikusi!»

(55) Arratsaldeko laurak.

Jesus'ek Natanael beragana etortzen ikusi zuanean, ar-  
taz esan zuan: «Orra maltzurkeririk ez duan isaraeldar  
jator bat».

Natanael'ek esan zion: «Nondik ezagutzen nazu?»

Jesus'ek erantzun eta esan zion: «Felipe'k zuri dei egin  
baño len, pikopean zeundela ikusi zaitut».

Natanael'ek erantzun eta esan zion: «Rabil; Jaungoi-  
koaren Semea zera Zu; Israel'en Errege zera Zu».

Jesus'ek erantzun eta esan zion: «Pikondoan ikusi zai-  
tut» esan dizudalako sinisten dezu? Aundiagoak ikusteko  
zaude».

Eta esan zion: «Bene-benetan dizutet: Zerua zabalik  
laxter ikusiko dezute, ta Jaungoikoa'ren aingeruak Gi-  
zasemea'ren gainera igotzen eta jeisten».

35.—*Kana'ko eztayak* (Jon, 2, 1-11).

Eta iru egun geroago, Galilea'ko Kana'n eztayak ziran,  
eta Jesus'en Ama antxe zan. Jesus eta bere ikasleak ere  
eztayetara deituak izan ziran.

Eta ardoa bukaturik, Jesus'i bere Amak diotsa: «Ar-  
dorik ez dute».

Eta Jesus'ek esaten dio: «Emakume! Zuri ta Neri  
zer? (56). Ez da oraindiño nere garaya».

Orduan Aren Amak morroyai esaten die: «Egin eza-  
zute esaten dizutena».

Judutarrak garbiketarako oi dutenez, sei arrizko on-  
tzi zeuden bertan (57), bakoitzak bi edo iru neurri artzen  
zituztenak. Jesus'ek esaten die: «Bete itzazute urez ontzi  
auek».

Eta muturreraño bete zituzten. Gero esaten die:  
«Orain atera ta eraman zayozute mai-zaitzalleari».

Ta eraman zioten. Mai-zaitzalleak ardo biurtutako ura  
txaskatu (proatu) zuanean, nondik atera zan etzekian-da,  
(bai, ordea, morroyak), senar berriari dei egiñaz, esaten

(56) Itz auek azalez gogortxuak dirudite; baño, Jesus'ek esandako  
eraz, samurrago biurtuko ziran, noski. Andre Maria'k ez du itxa-  
ropenik galtzen, eta aurrera dioa, bere eskaria iritxi arte. Beraz,  
Jesus'ek etzion ezezkorik eman.

(57) Ontzi oyeak, «metretak» ziran: bakoitzak 40 litro artzen zituan.

dio: «Ardo ona, aurrenean ateratzen dute guztiak; ta,  
gero, bazkaldarrak berotuta daudenean, txarra. Zuk,  
berriz, ardo ona oraintxe arte gorde egin dezu».

Orrela eman zien asiera mirariai Jesus'ek Galilea'ko  
Kana'n, bere aintza erakutsiz; eta arrezkero Aren ikas-  
leak sinistea Beragan ipiñi zuten.

36.—*Jesus Kaparnaun'era* (Jon, 2, 12).

Gero, bere Amarekin, senide ta ikasleakin Jesus Ka-  
parnaun'era jetxi zan, naiz-ta egun gutxirako.





## Lenengo urtea

### I.—JERUSALEN'EN ETA JUDEA'N

37.—*Eliza nagusiko salerosleak* (Jon, 2, 13-22).

Judutarren Pazko-jaya laxter zan, eta Jesus Jerusalem'era igo zan. Eliza nagusian idi, ardi ta usoen saltzaille ta diru-aldatzalleak exerita ikusirik, lokarrik zigor bat eginik, guztiak elizatik bota zituan, ardi ta idia-kin batera, diru-aldatzalleen txanponak lurtean zabalduaz eta maiyak irauliaz. Eta uso-saltzalleai esan zien: «Ken emendik auek guztiak, ta ez egin nere Aitaren etxea salerosketa-etxe».

Aren ikasleak gogoratu zuten idatzita zegoana: «Zure etxeaganako garrak kixkaltzen nau» (58).

Judutarrak, erantzunaz, ala esan zioten: «Orrela egiteko eskubidetzat, zer ezaugarri erakusten diguzu?»

Jesus'ek erantzun eta esan zien: «Eliza au bota ezazute, ta nik iru egunean jasoko det» (59).

Judutarrak erantzun zioten: «Berrogei ta sei urtean jasoa da eliza au, ta iru egunean zuk jaso?».

Baño, Jesus'ek bere gorputz-elizaz itz egiten zien.

Aren ikasleak, illen artetik piztu zanean gogoratu zuten ori esan zuala: ta idatzirik zegoana sinistu zuten, baita Jesus'ek esandakoa ere.

(58) Ps, 68, 9.

(59) Eliza au egiten 46 urtez ari ziran, eta oraindik bukatu gabe zegoan.

38.—*Jesus'entzat judutar askoren sinismen otza.*

(Jon, 2, 23-35)

Pazko-jayetan, Jesus Jerusalem'en zan artean, Aren izena askok sinistu zuten, egiten zituan mirariak ikusirik. Baña, Jesus bera etzitzayen guztiz zabaltzen, guztiak ondo ezagutzen zituan-da; gañera, gizonaren berri jakiteko, etzuan iñoren aitormen-bearrik; gizabarrua berak ondo ezagutzen zuan-da.

39.—*Nikodemo'rekin ikustaldia* (Jon, 3, 1-21).

Pariseotarren artean Nikodemo izeneko gizon bat zan, judutarren nagusienetakoa. Onek, Jesus'engana gauaz etorrita, esan zion: «Rabi, (Maixua): ba-dakigu Jaungoikoa'gandik Maixu legez zatozela; Zuk egiten dituzun mirariok, Jaungoikoa berekin ez ba'du, iñork ezin egin ditzake-ta».

Jesus'ek erantzun eta esan zion: «Bene-benetan diotzut: Jaungoikoaren Erreiñua iñork ezin ikus dezake, berriro jayo gabe».

Nikodemo'k esaten dio: «Baño, aguretu ta gero, nola jayo? Amaren sabelean iñor berriro sartu ta jayo al ditekete?»

Jesus'ek erantzun zion: «Bene-benetan diotzut: Urez eta Espirituz berriro sortzen ez danik, Jaungoikoa'ren Erreiñuan ezin sartu ditekete (60). Aragitik jayotakoa, aragi da. Aizeak nai duan tokira egiten du aize, ta bere otsa entzuten dezu, ta ez dakizu nondik nora dijoan. Alakoxea da Espirituagandik jayo dana».

Nikodemo'k erantzun eta esan zion: «Ori nola izan ditekete?»

Jesus'ek erantzunik, esan zion: «Israel'en irakasle izan zu, ta gauza auen berri ez dakizu? Bene-benetan diotzut: dakiguna diogu ta ikusi deguna aitortzen degu; ta ez dezute gure aitormena artzen. Lurreko gayak azalduta, ez dizkidazute sinisten; ta nola sinistuko, zeruko gayetzaz itz egiten ba'dizutet? Eta ez da iñor zerura igo, zerutik

(60) Jaungoikoa'ren erreñua, zeruko erreñua, Kristo'ren erreñua edo agintarritza edo jabetza..., guztiak bat dira; ta geyenetan Jesu-kristo'ren Eliza adierazten dute.

jetxi dana baizik, zeruan dagoan Gizasemea. Eta subea Moises'ek basamortuan gora jaso zuan bezela, Gizasemea ere gora jaso-bearra da <sup>(61)</sup>, sinistedun gizon guztiak, Aren bitartez, betiko bizitza iritxi dezaten, iñor ere galdu gabe. Izan ere, Jaungoikoa'k gizadia oso maite duala-ta, Bere Seme bakarra eman dio, Argan sinistea duanik galdu ez dedin, baizik eta betiko bizitza izan dezan. Jaungoikoa'k bere Semea lurrera ez du lurtarrak epaitzeko bialdu; ez baña, Aren bitartez gizadia gaizkatu (salbatu) dedin <sup>(62)</sup>. Argan sinisten duana, ez da galduko; sinisten ez duana, berriz, galdua da, Jaungoikoa'ren Seme bakararen izenean sinisterik izan ez dualako. Galbidea au da: lurrera argia etorri da, ta gizonak argia baño illuna maiteago izan dute, beren egintzak okerrak ziran-da. Gaiztakeria egiten duten guztiak, argiari gorroto diote-ta; ez datoz, ordea, argitara beren egiñak gaitzetsiak (txartzat artuak) ez ditezen. Egiaren bidetik dabillena, berriz, argitara dator, aren egintzak Jaungoikoa'gan egiñak izan dirala agertu dedin».

40.—*Jesus Judea'n Berri Ona erakusten. Juan'en azken aitormena* (Jon, 3, 22-35)

Onen ondoren, Jesus bere ikasleakin Judea alderdira joan zan, eta an bizi izan zan ayekin batayatzan. Juan'ek ere Aion'en, Salim-aldean, batayatzan jarraitzen zuan, an ura ugari zalako. Eta askok araxe joan, eta batayoa artzen zuten, oraindik ez bait-zuten Juan giltzapean sartu.

Batayoa zala-ta, Juan'en ikasleak eztabaidan asi ziran judutar batzuekin. Eta Juan'engana etorri, ta esan zioten: «Rabi (Maixua): Jordan'ez beste aldean zurekin zegoala, bere aldeko aitormena eman zenion ura batayatzan ari da, ta guztiak Arengana dijoaz».

Juan'ek erantzun eta esan zien: «Iñork ezin dezake beretzat ezer artu zerutik ematen ez ba'zayo. Zeurok zerate nik esandakoaren testigu: «Ez naiz ni Kristo'a, aren aurretik bialdua baizik». Emaztea duana, senarra da; senarraren adiskidea, berriz, onen laguntzalle ta esanaren

(61) Gurutzeko eriotza artuko duala adierazten du, guztiak salba ditezten.

(62) Beren eskuan dute gizonak betiko galtzea ta betiko salbatzea.

zain dagoana, poz-pozik gelditzen da senarraren aotsa entzunda. Ona, ba: nere poza orain bete-betea izan da. Ari aunditzea dagokio; neri, berriz, txikitzea. Goitik datorrena guztien gañean dago; lurretik sortua, lurrekoa da, ta lurrekoetzaz mintzo da. Zerutik etorri zaiguna, guztien gañean dago, ta ikusi ta entzun duanaren aitormena dakar; eta, ala ere, iñork ez du Aren aitormena artzen. Aren aitormena artzen duanak, berriz, Jaungoikoa egitia dala aitortzen du. Jaungoikoak bialdu duanak, Jaungoikoaren itzez mintzatzen da; Jaungoikoak ez dio Bere Espiritua neurritz ematen-da. Aitak Semea maite du, ta dana eskuan ipiñi dio. Semearen sinistea duanak betiko bizitza du; baño, Semearen sinistea ukatzen duanak, ez du bizitarik ikusiko; Jaungoikoaren asarrea arengan dago, ordea».

## II.—BERRI ONAREN ZABALTZEA GALILEA'N

41.—*Juan espetxean; eta Jesus Galilea'ra biurtzen da.* (Lk. 3, 19-20; Id. 4, 14; Jon, 4, 1-3; Mk. 1, 14; Mt. 4, 12)

Erodes erregeak, bere anayaren emazte Erodias'engatik eta berak egindako gaiztakeri guztiagatik Juan'ek gogor egin ziola-ta, gaiztakeri berri bat lengoai erantsi zien, Juan espetxean sarturik.

Juan'ek baño Jesus'ek ikasle geyago beraganatzen ta batayatzan zituala jakin zuten pariseotarrak. (Batayatzan zutenak ikasleak ziran, ordea, ez Jesus bera). Berri au entzun eta Juan giltzapean sartu zutela Jesus'ek jakin zuanean, Judea utzirik, Espiritua Santuaren eragifiez, Galilea'ra baztatu zan.

42.—*Jesus eta samariatar emakumea* (Jon, 4, 4-26).

Galilea'ra joateko, Samaria'tik barrena igaro bear zuan. Iritxi zan, bada, Sikar deritzan Samaria'ko erri batera, Jakob'ek bere seme Jose'ri emandako lurraldera.

Antxen zegon Jakob'en iturria. Jesus, bidean nekatuta, iturri-ondoan exeri zan: seigarren ordua-edo zan <sup>(63)</sup>.

(63) Eguerdiko amabiak. Jesus izerditan eta nekatuta dago urzulo-ondoan, anima bat irabazi naican.



Samaria'ko emakume bat ur-billa joan zan, eta Jesus' ek esaten dio: «Ekatzu ura». Ikasleak errira, jateko-billa joanak ziran. Samariar emakumeak diotsa: «Nola zu, judutarra izanik, neri samaritar emakume oni, zatozkit ur-eske?» (Judutarrak ez bait-dute artu-emanik samaritarrakin).

Jesus'ek erantzun eta esan zion: «Jaungoikoaren doaya ezagutuko ba'zenu, ta «ura ekatzu» esan dizuna nor dan ba'zeneki, zuk eskatuko zenioke ur bizia, ta Arek eman egingo lizuke! (64).

Emakumeak esaten dio: «Jauna, ezer ez dezu ura ateratzeko, ta ur-zuloa sakona da; nondik dezu zuk ur bizi ori? Jakob gure aita baño aundiagoa ote zaitugu? Ur-zulo au ark emana degu, ta ark eta bere semeak eta abereak emendik edan zuten».

Jesus'ek erantzunik, esan zion: «Ur au edaten duten guztiak berriz egarrituko dira; baño, nik emango diodan uretik edaten duana, ez da sekulan egarrituko (65); ta Nik emango diodan ura, betiko bizitzaraño txurrua darion ur-iturri izango zayo».

Emakumeak diotsa: «Jauna, ekatzu ur ori, egarri izan ez nadin, eta ur-billa onera etorri-bearrik izan ez dezadan».

Jesus'ek diotsa: «Zoaz, zure senarrari dei egiozu ta atoz onera».

Emakumeak erantzuten dio: «Ez det senarrik».

Jesus'ek diotsa: «Ondo esan dezu «ez det senarrik»; bost gizon izan dituzu, ta orain dezuna, berriz, ez dezu senar; orretan egia esan dezu».

Emakumeak esaten dio: «Jauna! Ikusten det igarle zerala. Gure gurasoak Jaungoikoa mendi onetan gurtu zuten; zuek, berriz, Jerusalem'en gurtu bear dala diozute».

Jesus'ek diotsa: «Emakume, sinistra zadazu; ez mendi onetan, ez Jerusalem'en Jaungoikoa gurtuko ez dan garaya ba-dator. Ez dakizutena gurtzen dezute zuek; dakiguna gurtzen degu guk: osasuna judatarretatik da-ta. Baño,

(64) Ur bizia: grazi donetzallea.

(65) Ur onek, grazi donetzaille onek bakarrik kentzen ditu biotzeko gogo txarrak.

ba-dator garaya, ta auxe da, gurtzaille jatorrak Aita gogoz eta egiz gurtuko dute-ta. Jaungoikoa Espiritua da; ta gogoz eta egiz gurtu bear dute Aren gurtzalleak».

Emakumeak diotsa: «Ba-dakit Kristo'a deritzan Mesias etortzeko dana. Etortzen danean, Berak erakutsiko digu dana».

Jesus'ek diotsa: «Ni naiz; itz egiten dizudan au».

43.—Samaritar askok Kristo sinisten dute (Jon, 4, 27-42).

Ikasleak une artan etorri ziran, eta emakumearekin izketan ari zalako arritu egin ziran. Ala ere, etzion inork esan: «Zer galdetzen diozu?», edo «zertaz ari zera orrekin izketan?»

Emakumea, ursulla utzita, errira joan zan eta angoai esan zion: «Atozte! Ikus ezazute egin dedan guztia esan didan gizon bat. Kristo ote da?»

Beraz, erritik irtenda Arengana joan ziran.

Bitartean, ikasleak ziotsaten: «Rabi, jan zazu».

Baño, Ark esan zion: «Ba-det Nik jateko, zuek ez dakizuten janari bat».

Ikasleak alkarri esaten zioten: «Norbaitek ekarri ote dio janaria?»

Jesus'ek esan zion: «Nere janaria auxe da: bialdu naumaren naya egin eta Aren asmoa betetzea. Ez al dezute esaten zuek: lau illebeta barru, gari-ebakitzea? Ona, berriz, nik esaten dizutedana: Jaso begiak eta ikus soroak ebakitzeke orituak. Itaridunak egunsaria artzen du, ta betiko bizitzarako frutua biltzen, ereillea ta itariduna, biak batera poztu ditezen. Ontan ere, egia da esaera au: bat erelle ta bestea biltzalle. Landu ez dezutena biltzera bialdu zaituztet; besteak lan egin, eta zuek ayen soro landuetan sartu zerate».

Bitartean, erri artako samaritar askok, emakumeari «egin dedan guztia esan dit» aitormena entzunda, Jesus' en sinisterra jo zuten, eta Arengana urreraturik, ayekin gelditzeko esaten zioten; eta bi egunetan an gelditu zan.

Ari entzunaz, sinismena asko geiagok artu zuten, eta emakumeari esaten zioten: «Orain ez degu zure esanagatik sinisten, gizadiaren Salbatzaillea Auxe dala geurok entzun eta ikusi degu-ta».

44.—*Jesus Galilea'n* (Jon, 4, 43-45).

Egun biak igarota, andik irten eta Galilea'ra joan zan, igarleak bere errian entzute onik ez duala Jesus'ek berak esan zuan-da. Galilea'ra eldu zanean, bada, gali-learrak arrera ona egin zioten, jai-egunean Jerusalem'en Ark (Jesus'ek) egindako guztia ikusi zutelako; berak ere jayetara joan bait-ziran.

45.—*Jesus'ek aundiki baten semea sendatzen du.*  
(Jon, 4, 48-54)

Jesus, ura ardo biurtu zuan Galilea'ko Kana'ra iritxi zan, ba. An arkitzen zan Kaparnaun'en semea gaixorik zeukan aundiki bat. Jesus Judea'tik Galilea'ra eldu zala entzun zuanean, Arengana joan zan, eta semea sendatzera jeixteko esan zion, il-zorian zegola-ta. Jesus'ek esan zion: «Mirari ta egintza arrigariak ikusi ezik, ez dezute sinisten» (66).

Aundikiak diotsa: «Jauna! jetxi zaitez, nere semea il baño len».

Jesus'ek diotsa: «Zoaz, semea bizi dezu».

Jesus'ek esandakoa sinisturik, ba-zijoan gure gizona. Eta bidean zijoala, morroyak arengana etorri ta berri au dakarkiote: «Zure semea bizi da». Zein ordutan bizkortu zan galdetu zien; eta esan zioten: «Atzo zazpiretan» (67) utzi zion sukarrak».

Orrela igerri zion aitak, ordu artan bertan esan ziola Jesus'ek: «Zoaz, semea bizi dezu».

Orduan, bera ta etxeko guztiak fededun biurtu ziran.

Jesus'ek, Judea'tik Galilea'ra biurtu zanean, egindako bigarren miraria da au.

46.—*Jesus Jaungoikoaren Erreïñua zabaltzen asten da.*  
(Mt. 4, 13-17; Mk. 1, 14-15; Lk. 4, 14-15)

Eta Nazaret utzita, Itxasaldeko Kaparnaun'era joan zan, eta an Zabulon eta Neptali'ren mugetan gelditu zan, Isaias igarleak esandakoa bete zedin: «Zabulon lurraldea ta Neptali lurraldea, Jordan aruzkoa, itxasaldea, atzerri-

(66) Jesus'ek sinismen bizi-gartsua eskatzen du.

(67) Eguerdiko ordu batetan.

tarren Galilea. Illunpetan zebillen erriak argi aundi bat ikusi du; eriotz-itzalpeko lurrean bizi ziranai argia sortu zaye» (68).

Arrezkero, Jesus Jaungoikoaren Erreïñuaren Berri Ona zabaltzen asi zan, esanaz: «Denborak bete dira, ta Jaungoikoaren Erreïñua laxter dator: damu zaitezte ta Berri Ona sinistra zazute».

Eta Jesus'en izen ona lurralde osoan zabaldu zan. Bera, berriz, ayen sinagogetan erakusten (69) ari izan zan, eta guztiak goratu egiten zuten.

47.—*Lenengo ikasleak.* — *Arrantza arrigarria.*

(Mt. 4, 18-22; Mk. 1, 16-20; Lk. 5, 1-11)

Jesus'ek Galilea'ko itxasondoan zebilela, anai bi ikusi zituan, Pedro zeritzan Simon eta onen anai Andres, sarea itxasora botatzen, arrantzaleak ziran-da. Aurrera jarraituta, andik laxter, beste bi anai ikusi zituan, Zebedeo'ren Santiago ta onen anai Juan, aitarekin txalupan sareak prestatzen.

Eta Jenesaret'eko zingira-ondoan zutik zegola, jendea inguratu zitayon, Jaungoikoa'ren itza entzutera. Ontan, Jesus'ek txalupa bi ikusi zituan; arrantzaleak, ayetatik aterata, sare-garbitzen ari ziran. Bat, Simon zan; eta ontzira igota, lego'retik pixka bat aldentzeko eskatu zion. Eta exeri, ta txalupatik erriari itz egiten asi zan.

Itzaldia bukatu zuanean, Simon'i esan zion: «Itxaso zabalera jo ta bota itzazute sareak».

Simon'ek erantzun eta esan zion: «Jauna, gau osoa igaro degu lanean, eta ez degu ezer atera; baño, Zuk esan ezkerro, botako det sarea».

Au eginda, arrai-pilla aundia bildu zuten, eta sarea puskatu egiten zitayen. Beraz, beste txalupako gizonai kiñuka laguntzera etortzeko eskatu zieten. Etorri ziran, eta txalupa biak ondatzeko zorian bete zituzten.

Au ikusirik, Simon Pedro Jesus'en oñetan auzpeztu zan, esanaz: «Alde egin zazu, Jauna, nigandik, gizon

(68) Is. 9, 1-2.

(69) Larunbatero erria sinagogetan biltzen zan. Legeko ta Igarleen zerbait irakurtzen zan. Orduko izkuntzara biurtu ta azalpena maixu-erakusleak egiten zituzten.



pekataria naiz-ta». Ainbesteko arrantzaz, bera ta bere lagunak arrituta zeuden; alaberean Santiago ta Juan Zebedeo'ren seme ta Simon'en lagunak ere.

Jesus'ek, ordea, Simon'i esan zion: «Ez ikaratu; emendik aurrera gizon-arrantzale izango zera».

Gero, oni eta onen anai Andres'i esan zien: «Jarrai zadazute, ta Nik gizon-arrantzale egingo zaituztet». Eta bertanbera, txalupak legorrera atera, eta dana utzita, jarraitu egin zioten. Baita Santiago'ri ta Juan'i ere dei egin zien; eta ayek ere, sareak, ontzia ta aita bertan utzita, jarraitu egin zioten.

48.—*Kaparnaun'go sinagogan erakusten.* — *Etsayak artu-tako bat sendatzen du* (Mk. 1, 21-28; Lk. 4, 31-37)

Eta Kaparnaun'era joan ziran; eta larunbatetan sinagogetan sartuta, erakusten asi zan. Aren erakusketaz arriturik zeuden, eskubidea duanak bezela erakusten bait-zien, ez idazlariak (iskribauak) bezela.

Espiritu zikiña beragan zeukan gizon bat zegoen sinagogan eta deadar egin zuan, esanaz: «Jesus Nararetarra! Zer guri ta zuri? Gu galtzera etorri al zera? Ba-dakit nor zeran: «Jaungoikoaren Santua».

Jesus'ek aginduaz esan zion: «Ago ixilik!, eta irten adi gizon orrengandik».

Ta deabru zikiña, gizona lurrera botata, astindurik eta orru aundiak egiñaz, arengandik irten zan, kalterik egin gabe. Eta guztiak arriturik, alkarri ala ziotsaten: «Zer da au? Zer erakusbide berri da au? Deabru zikiñai ere eskubidez eta indarrez agintzen die, ta ayek, esana egiñik, iges!»<sup>(70)</sup>.

Ta Aren izena Galilea'ko baztar guztietara laxter zabaldu zan.

49.—*Jesus'ek Pedro'ren amagiarreba sendatzen du.*  
(Mt. 8, 14-15; Mk. 1, 29-31; Lk. 4, 38-39)

Eta bereala altxa ta sinagogatik irtenda, Santiago'rekin eta Juan'ekin, Simon'en eta Andres'en etxera joan zan. Simon'en amagiarreba sukarrez oyezan zegoen, eta

(70) Etsai-deabruak Jesus'en jaungoikozko indarra ta aginpidea aitortzen ditu.

bereala guztiak aren alde otoitz egin zioten. Eta aren-gana urreraturik, eta aldamenean zutik, eskutik artu ta jaso egin zuan; eta sukarrari agindurik, sukarrak bere-alaxe utzi zion; eta emakumea, bereala jeikirik, mirabelanetan asi zitzaion.

50.—*Beste sendaketa batzuek.*

(Mt. 8, 16-17; Mk. 1, 32-34; Lk. 4, 40-41)

Arratsaldean, eguzkia sartu ondoren, edozein gaitzez gaxoren bat zeukaten guztiak Jesus'i ekarri zizkioten; eta Onek, bakoitzari eskuak gañean ipiñita, guztiak sendatu zituan. Isaias igarleak esandakoa bete zedin: «Ark artu zituan gure nekeak, eta eraman gure oñazeak»<sup>(71)</sup>.

Baita deabrudun asko ere ekarri zizkioten, eta deabruak itzaren indarrez botatzen zizkien, ateratzean ojuka ziotela: «Jaungoikoaren Semea zera Zu». Eta Ark gogor-rean ixillerazten zituan, Bera Kristo'a zala bazekitenda<sup>(72)</sup>.

51.—*Kaparnaun'dik irten eta otoitz egitera basamortura dijoa* (Mt. 1, 35-38; Lk. 4, 42-43).

Eguna argituta gero, goiz jeiki zan Jesus; eta erritik irtenda, basamortura joan zan, eta an otoitzari ekin zion. Simon eta onekin ziranak, Aren billa irten ziran; eta arkitu zutenean, esan zioten: «Guztiak zure billa dabil-tza».

Jesus'ek esaten die: «Goazen emendik basa-erri ta inguruko errietara, ayetan ere erakutsi dezadan, ortarako etorria naiz-ta».

Baita jendea ere Jesus'en billa zebillen, eta Arengana joanda, berakin gelditzeko eskatzen zioten. Baño Jesus'ek esan zien: «Beste erriai ere erakutsi bear diet; ortarako bialdua izan naiz-ta».

(71) Is. 53, 4.

(72) Jesus'ek etzuan nai Bera Kristo zala jendeak oraindik jakiterik; ez bait-zegoan egi orretzaz jabetzeko oraindik gertu. Gañera, deabruaren aitormenik ezertarako eztu bear.

52.—*Jesus Galilea'n zear erakusten.*  
(Mt. 8, 1-4; Mk. 1, 40-45; Lk. 5, 12-16)

Eta Jesus Galilea'n zear zebillen <sup>(73)</sup>, ango sinagogetan erakusten eta zeru-erreñurako Berri Ona zabaltzen eta erritarren gaitz eta gaxo guztiak sendatzen eta deabruak botatzen.

53.—*Lepraduna sendatzen du.*  
(Mt. 8, 1-4; Mk. 1, 40-45; Lk. 5, 12-16)

Jesus Galilea'ko erri batean zegoala, lepraz jositako gizon bat urreratu zitzaion; eta belaunikaturik, gurtu egin zuan esanaz: «Nai ba'dezu, sendatu nazakezu».

Artzaz errukiturik, Jesus'ek eskua luzatuaz, gizona ikutu zuan, ezanaz: «Nai det; garbi zaitea». Eta bat-batetan lepraz garbi arkitu zan. Eta bereala, Jesus'ek bialdu zuan, aginduz esanaz: «Begira gero, ñori esan! Baño, zoaz apaizengana, ta Moises'ek agindutako oparia eskeñi zaiezu, sinistu dezaten» <sup>(74)</sup>.

Baño, aldendu zaneko, goraka esaten eta gertatutakoa zabaltzen asi zan. Eta arrezkero, Jesus urietan ezin zitekean agirian sartu, ta baso ezkutuetan gelditzen zan. Eta Bere izena gero ta geyago zabaltzen ari zan; eta jendetzak, taldeka zetozkion entzutera ta gaxoen osasuna iristera.

Bera, berriz, baso ezkutuetan bazterturik, otoitzean aritzen zan.

54.—*Kaparnaun'go elbarria sendatzen du.*  
(Mt. 9, 1-8; Mk. 2, 1-12; Lk. 5, 17-26)

Egun batzuek geroago, Jesus bizi-toki zuan errira, Kaparnaun'era biurtu zan <sup>(75)</sup>. Eta arako egun batean erakusten ari zan. Etxean zegoala jakiñik, lagun asko

(73) Kodize batzuek, JUDEA dakarte; beste batzuek, GALILEA. Ba-diteke JUDEA Palestina osotzat artzea.

(74) Moises'ek «Apaiz-idaztian» (Leviticum) agindutakoa betetzeko esan dio. Jesus'ek legeari ta apaizai itzala ta begirunea zien. Apaizak eman bear zioten sendatuari osasun-agiria, gizarteko artu-emanetan berriro sartu zedin. Gañera, onela apaizak Jesus'en nortasunaren ezaupidea artzen zuten: onartu ezkero, beren onerako; Jesus'en aurka jarri ezkero, barriz, beren ondamendirako.

(75) Jesus'ek bizitzeko aukeratutako erria Kaparnaun zan.

bildu ziran, ataria ere ayentzan txiki zala. Ba-ziran an pariseotar eta lege-gizonak ere, Galilea'ko eta Judea'ko erri guztietatik etorriak, baita Jerusalem'dik ere. Eta Jaunak gaxoak sendatzeko indarra agertzen zuan. Ontan, elbarri bat aurkeztu zioten, zerraldoan lau gizonak ekarria; ta barrura sartu ta Jesus'en aurrean ipiñi nai zuten. Baño, jendetza zala-ta, sarbiderik ezin arkiturik, sapai-gañera igo ta tellartetik zerraldoan jexi zuten erdira, Jesus'en aurrera <sup>(76)</sup>.

Jesus'ek gizon ayen sinismena ikusirik, elbarriari esan zion: «Seme, barkatzen dizkitzut zure pekatuak».

Orduan, eskribau ta pariseotarrak bere baitan asma-ketan asi ziran, esanaz: «Nor da biraoka ari dan ori? Jaungoikoak bestek, nork barka ditzake pekatuak?»

Baño, Jesus'ek, ayen asmakeriak ezaguturik, esaten die: «Zer dala-ta darabilzkizute asmakeri oyek zuen biotzetan? Zer da errezagot, «pekatuak barkatzen dizkitzut» elbarriari esatea, ala «jaiki zaitea, zure zerraldoa artu ta zoaz» esatea? Beraz, pekatuak barkatzeko esku-bidea Gizasemeak lurrean ba-daukala ikusi dezazuten, —elbarriari diotsa—: Zuri esaten dizut; jaiki zaitez, oya artu ta zoaz etxera».

Eta berealaxe, gizona ayen aurrean jeikirik, zerraldoa artu ta bere etxera joan zan, Jaungoikoa goretsiaz.

Orduan, guztiak arrituta, ainbesteko eskubidea eman zion Jaungoikoa goresten zuten, eta bildurrez beterik, zioten: «Arritzekoak ikusi ditugu gaur; beñere ez degu orrelakorik ikusi».

55.—*Mateo'ri deya* (Mt. 9, 9-13; Mk. 2, 13-17; Lk. 5, 27-32).

Oyen ondoren, berriro itxasaldera irten zan, eta jende guztia Arengana biltzen zan eta erakutsi egiten zien. Eta an zebilela, Mateo edo Lebi zeritzan gizon bat ikusi zuan zerga-etxe ondoan exerita, eta ala esan zion; «Jarraitu zadazu» <sup>(77)</sup>.

(76) Palestina'ko etxeen gaña lur zapalduz egiten zuten. Gañera igo-tzeko, kanpokaldetik eskallera zeukaten. Etxeak txikiak ziran, geyenetan.

(77) Pariseotarrak, zerga-biltzalea agiriko pekataritzat zeukaten, eta



Eta dana utzita, jaiki ta jarraitu egin zion.  
Mateo'k bere etxean bazkari aundi bat eman zion, eta zerga-biltzalle ta gizon gaizto asko maikide ziran Jesus'ekin eta bere ikasleakin, jarraitzalleak asko ziran-da.

Zerga-biltzalleakin eta pekatariakin bazkaltzen ari zala ikusita, iskribau ta pariseotarrak Aren ikasleai esan zieten: «Zergatik jaten eta edaten dezute zerga-biltzalle ta pekatariakin?»

Jesus'ek au entzunda, esan zien: «Osasuntsuak eta sendoak ez dute osagille-bearrik, aulak eta makalak baizik. Zoazte, ba, ta ikasi zazute arako ura: «Errukia nai det, ez oparirik; (78) ez naiz damu-eske zintzoengana etorri, pekatariengana baizik».

56.—*Baraua zala-ta* (Mt. 9, 14-17; Mk. 2, 18-22; Lk. 5, 33-39).

Juan'en ikasleak eta pariseotarrak barau egiten zuten; eta Jesus'engana joan eta ala esan zioten: «Zergatik egiten ditugu guk eta pariseotarrak sarritan barauak eta otoitzak, ta zure ikasleak jaten eta edaten ari dira?»

Eta Jesus'ek esan zien: «Eztayetan bildu diranak, ezkonberria ayekin dagon bitartean, baraurik eta negarrik egin ote dezateke? Ezkonberria beren artean dagoa-la, ezin diteke baraurik egin. Ezkonberriak alde egingo dien eguna etorriko zaye; eta egun artan, bai, barau egingo dute».

Beste ipui au ere esan zien: «Iñork ez dio soñeko zarrari oyal gogorrezko adabakirik ipintzen; ipiñitako puskak soñekoa urratu, ta oni tarratada aundiagoa egingo zayo bestela-ta. Eta zagi zarretan ere ez dute ardo berririk sartzen; bestela, zagia lertuta, ardo ixuri ta zagiak galdu egiten dira. Ardo berria zagi berrietan sartzen dute, ta biak irauten dute. Eta ardo zarra edanda bereala, ez du iñork ardo berririk nai: «zarra ohea da» esaten bait-da».

etzuten nai izaten ayekin artu-emanik, zikindu egiten bait-ziran. Zikindu ez, baña, Jesus'ek sendatu egiten zituan. Errukia nayago du opariak baño.—Zerga: kontribuziyoa.—Zerga-biltzalle: publikanoak.

(78) Os. 6, 6.

## Bigarren urtea

### I.—JERUSALEN'EN

57.—*Jesus'ek ur-zulo-ondoan elbarria sendatzen du.*  
(Jon, 5, 1-8)

Judutarren jaya zala-ta, Jesus Jerusalem'era igo zan. Jerusalem'en, Ardi-ate ondoan, ebreetarrez Betesda (79) deritzan ur-zulo bat dago, bost aterpe dituana.

Aterpe auetan ainbat gaxo, itxu, erren eta elbarri egon oi ziran ura noiz mugituko zan begira.

Jaungoikoaren aingeruak, ur-zulora noizean bein jetxirik, ura astintzen zuan, eta plastaka zebillen uretan lenen sartzen zana, zeukan gaitza zeukala, sendatu egiten zan.

Ayetako gizon bat, an zeukan bere gaitzak ogeita emezortzi urtetan.

Jesus'ek, gizon ura lurtean etzanda ikusirik eta aspal-ditik egoera artan zegola jakinda, esaten dio: «Sendatu nai al dezu?»

Gaxoak erantzun zion: «Jauna, ura mugitzean, uretara eramango nauan gizonik ez det; eta ni ara orduko, ni baño len besteren bat jeixten da».

Jesus'ek diotsa: «Jeiki zaitetz, zure zerraldoa artu ta zabiltza».

Ta bat-batetan sendatu zan gizon ura; ta zerraldoa arturik, an zebillen. Egun ura larunbata zan; eta judutarrak sendatuari esaten zioten: «Larunbata da; ez zaizu libre zerraldoa eramatea».

(79) Betesda (beste batzuek «Betzata» eta «Bezata» irakurtzen dute); olaxe zeritzaten abereak oparirako igaro bear zuten ateari.

Ark erantzun zien: «Sendatu nauanak esan dit: artu zure zerraldoa ta ibilli zaitetz».

Ta galdetu zioten: «Nor da «zure zerraldoa artu ta ibilli zaitetz» esan dizun gizon ori?»

Baño sendatutakoak etzekin nor zan; ango jende-artetik Jesus ezkutatu egin zan-da.

Geroago, Jesus'ek gizona eliza nagusian arkitu ta esan zion: «Entzun: sendatu zera; aurrerantzean ez pekatu egin, okerragoren bat gertatu ez dakizun».

Orduan gizona judutarrengana joan zan sendatu zuana Jesus zala esatera.

Larunbatez olakoak egiten zitualako bere aurka asi zitzaizkion Jesus'i judutarrak.

Baño, batez ere, Jesus'ek, Jaungoikoari Aita esanaz, bere burua Jaungoikoarekin berdintzen zualako, ta larunbata austen zualako bakarrik ez, judutarrak bizia berari kentzeko amorratuta zebiltzan.

58.—*Jesus'ek bere buruaren alde egin zuan itzaldia.*  
(Jon, 5, 19-47)

Beraz, Jesus'ek erantzun eta esan zien: «Bene-benetan esaten dituzet: Semeak, bere buruz, ezin ezer egin dezake, Aita egiten ikusten duana baizik<sup>(80)</sup>; Onak egiten duana bera, Semeak ere egiten du-ta. Aitak Semea maite du, ta Berak egiten duan guztia erakusten dio; aundiagoak ere erakutsiko dizkio, zuek ikaratu zaitetzten: Aitak illak piztu ta bizia ematen dienez, Semeak ere nai dituanak pizten ditu-ta<sup>(81)</sup>. Izan ere, Aitak ez du inor epaitzen; epaibide guztia Semeari eman dio, Semea guztiak goratu dezaten, Aita goratzen duten bezela. Semea goratzen ez duanak, Bera bialdu duan Aita ere ez du goratzen. Bene-benetan diotzuet: nere itza entzun eta Ni bidali nauana sinisten duanak, betiko bizitza du, ta orlakoarengana epaibiderik ez dator; eriotzatik bizira aldatzen da, baizik. Benetan diotzuet: Jaungoikoaren itza illak entzungo

(80) Beraz, Aitaren egintzak Semearenak ere ba-dira; izate bat dute biak.

(81) Gizasemea: Mesias, Kristo, Jaungoikoaren Semea egiña. Berari dagokio epaitzeko eskubidea, Eroskudearen egintzari amaia emateko.

duten garaya eldu da, ta oraingo auxa da; ta entzuten dutenak bizi izango dira. Aitak bizia Beragan duan bezela, Semeari bizia Beragan izatea eman dio-ta. Baita, Gizasemea dan ezkerro<sup>(82)</sup>, epaitzeko eskubidea ere eman dio. Ez ikaratu onekin; illobietan dauden guztiak, Jaungoikoaren Semearen deira irtengo diraneko garaya bator-ta; eta zuzen ibilli diranak, bizi izateko piztuko dira; oker ibilli diranak, berriz, galduak izateko. Nere buruz ezin ezer egin dezaket. Entzun dedanez, erabakitzen det; eta nere epaya zuzena da; ez det nere naya billatzen-eta, bialdu nauanarena, baizik. Nitzaz Nik aitormen egingo ba'nu, nere aitormena ez litzake sinistagarri. Nitzaz aitormen egiten duana beste bat da, ta ba-dakit Nitzaz egiten duan aitormena sinistagarria dana.

Zuek gizonak bialdu zeniskioten galdezka Joan'i, eta ark egiaren alde aitortu zuan. Nik, berriz, ez det gizonagandik aitormenik artzen; onela mintzo ba'naiz, zuen onerako da. Ura (Juan) argi bat zan gar aundikoa ta dizdiratsua, eta aren argitan zuek pixka batean poza artu nai izan zenduten. Baño, ba-det Nik Juanena baño aitormen altsuagoa: Aitak Nik egiteko utzi zizkidan egintzak, oyek daude nere alde, Aitak bialdu nauala aitortzen. Bialdu nauan Aitak berak egin du aitor Nitzaz. Aren itza zuek ez dezute beñere entzun, ezta Aren arpegia ikusi ere. Ezta Aren itza zuekin izan ere, Ark bialdutakoaren esana ez dezute sinisten-eta. Idaztiak aztertu itzazute, betiko bizitza ayetantxe deztela uste dezuten ezkerro; oyetek dira Nitzaz aitormen egiten dutenak. Zuek, berriz, etzerate Nigana etorri bizitza irixteko.

Ez det gizonak emango lidateken aintzaren ajolarik. Baño, ezagutzen zaituztet: Jaungoikoaganako maitasunik ez dago zuengan. Ni Aitaren izenean etorri naiz, eta ez nazute onartzen; beste norbait bere buruz ba'letor, au onartuko zenuteke. Nola sinistuko dezute zuek, alkarrengandik goramen-billa zabiltzatenok, eta Jaungoikoarengandik bakarrik etorri ditekenez goramen-billa ez

(82) Gizasemea: Mesias, Kristo, Jaungoikoaren Semea gizon egiña. Berari dagokio epaitzeko eskubidea, Eroskudearen egintza burutzeko.



zabiltzatenok? <sup>(83)</sup>. Ez uste Nik Aitaren aurrean salatuko zaituztedanik; ba-da salatuko zaituztena: zuen ustea eman diozuten Moises ber-bera. Moises'ek idatzitakoa sinistuko ba'zenute, Ni ere sinistuko ninduzuteke, noski; ark Nitzaz idatzi zuan-da. Baño, ark idatzitakoa sinisten ez ba'dezute, Nere esana nola sinistuko dezute, ba?» <sup>(84)</sup>.

## II.—GALILEA'N BIGARREN ALDIZ

59.—*Ikasleak larunbatez galburu batzuk artzen dituzte.*  
(Mt. 12, 1-8; Mk. 2, 23-28; Lk. 6, 1-5)

Beste bein, eraindako soroa-zeur larunbatez Jauna igarotzean, Aren ikasleak galburuak artu ta maluskaturik, gari-jaten zijoazen. Pariseotarrak ura ikusita, ala esan zioten: «Begira; zer dala-ta ari dira zure ikasleak larunbatez zillegi (libre) ez dana egiten?»

Jesus'ek erantzun eta esan zien: «Ez al dezute irakurri Dabid'ek premi-aldian egin zuana, berak eta arekin ziranak gose izan ziranean? Apaiz nagusi Abiatar'en egunetan, Jaungoikoaren etxean zegoala, ta apaizak bestek jan ezin zitaketan eskeintz-ogiak jan zituala, ta arekin zeudenai eman zizkiela, pekatuak gabe? Begira, bada: Nik diotzuet: ba-da emen norbait eliza nagusia baño altsuago dana. Ta «errukia nai det, oparirik ez» <sup>(85)</sup> zer dan ba'zenekite, ez zenduteke beñere bere errugabetasuna gaitzetsiko». Eta esan zien: «Larunbata gizonarentzat egiña da; eta ez gizona larunbatarentzat. Beraz, Gizasemea larunbataren jabe ere ba-da» <sup>(86)</sup>.

60.—*Beste larunbat batez gizon esku-igarra sendatzen du.*  
(Mt. 12, 9-13; Mk. 3, 1-5; Lk. 6, 6-10)

Andik alde eginda, beste larunbat batean ayen sinagogan sartu, ta erakusten ari zan. Ain zuzen ere, eskubi-eskua igartuta zeukan gizon bat zan an. Ta iskribau ta

(83) Sinismena griña txarrak eta lur-zalekeriak galerazten dute.

(84) Maite dutela dioten Moises sinisten ez ba'dute, nola sinistuko dute gorroto duten Jesus?

(85) Os. 6, 6.

(86) Larunbatean garia jotzea debekatuta zegoan; ez, ordea, gosea kentzeko galburu batzuk artzea, naiz-ta pariseotarrak baietz esan.

pasiseotarrak Jesus'en atzetik zebiltzan, ea larunbatean sendatzen ote zuan, bera salatzeko aitzaki-billa. Eta galdetu zioten, esanaz: «Larunbatean norbait sendatzea zillegi al da?»

Ark, ordea, ayen asmo txarrak ikusita, gizon esku-igarrari esan zion: «Altxa ta jarri zaitetz erdian zutik».

Gizona zutik jarri zan. Orduan, Jesus'ek esan zien: «Galdera au egiten dizutet: Larunbatean ondo egitea ala gaizki egitea da zillegi? Bizia salbatzea ala galtzea?»

Ayek, ordea, itzik ere ez. Ta Jesus'ek esan zien: «Zuetako batek ardi bat euki ta larunbatez zulora erortzen ba'litzayo, ez ote luke artu ta aterako? Eta ez ote du balio gizonak ardi batek baño geyago? Beraz, zillegi da larunbatez on egitea».

Ta inguruko guztiai zorrotz begiraturik, eta ayen biotz-itxukeriaz naigatuta, gizonari esan zion: «Luza zazu eskua».

Ark zabaldu zuan; eta sendatuta gelditu zitzyon, beste eskua bezin ondo.

61.—*Pariseotarrak Jesus galtzea erabakitzen dute.*  
(Mt. 12, 14; Mk. 3, 6; Lk. 6, 11)

Ayek (pariseotarrak), berriz, zoro-zoro eginda, Jesus' en aurka zer egin zitekean ari ziran alkarrekin. Eta Erodes'tarrakin elkartu ziran eta Jesus galtzeko erabakia artu zuten.

62.—*Jesus Jenesarret'eko zingira-ondoan; sendaketa asko.*  
(Mt. 4, 24-25; 12, 15-21; Mk. 3, 7-12; Lk. 6, 17-19)

Baña, Jesus, au jakinda, itxasaldera joan zan; eta jendetza aundiak jarraitu zion Galilea'tik, baita Judea'tik ere, ta Jerusa-len'dik, Idumea'tik, Jordan'go andikaldetik eta Tiro ta Sidon itxas-aldeetik; eta guztiak Arengana zijoazen, Ark egindakoak entzunda; eta bere izen aundia Siria osoan zabaldu zan.

Eta jendetza ura zala-ta, ontzixka bat Beretzat gertu eukitzeko esan zien ikasleai, bultzaka zapaldu etzezaten; gaxo asko sendatzen zituala-ta, arrapatata bizian zetorkion, Bera ikutu-nairik. Argandik indarra sortu, ta guztiak sendatu egiten zituan-da.

Eta deabru zikiñak, Ura ikusita, auspezturik dea-

darka esaten zioten: «Jaungoikoaren Semea zera Zu». Ta gogorki agintzen zien Bera nor zan jendeak ezagutu etzezan (87). Eta deabru zikiñok mendean larri zebilzkitenak ere sendatu egiten ziran, Isaias igarleak esandakoa bete zedin: «Ona emen aukeratu dedan nere morroya, nere biotzaren atsegin bete. Nere Espiritua bere gañean jarriko det, eta zuzenbidea erriai agertuko die. Ez du eztabaidarik ez deadarrik egingo; ta iñork ez du Aren aotsik enparantzetan entzungo. Kañabera printzaturik ez du apurtuko, ta kea dariola dagoan argi-metxarik ez du itzaliko, zuzentasuna gallen atera arte; ta Aren izenean izango dute itxaropena erriak» (88).

63.—*Amabien aukeratzea.*

(Mt. 5, 1; 10, 1-4; Mk. 3, 13-19; Lk. 6, 12-16)

Egun ayetan, Jesus'ek jendetza ikusita, mendira alde egin zuan otoitz egitera, ta Jaungoikoari otoitzka gau osoa igaro zuan. Eta, eguna argitu zanean, bere ikasleai Beragana dei egin zien, eta Arengana etorri ziran, eta ayenartetik nai zituan amabi aukeraturik, «Bialdu» (edo Apostolu) izena eman zien. Berarekin ibiltzeko aukeratu zituan, eta Berri Ona erakustera bialtzeko. Eta gaxoak sendatu ta etsayak botatzeko eskubidea ta indarra eman zien.

Amabi aukeraturitako enak auetxek dira: Simon (eta oni Pedro izena ipiñi zion), Santiago Zebedeo'rena, Santiago'ren anai Juan (bi auei Boanerges, edo berdindana, trumoi-seme izena ipiñi zien), Andres eta Felipe, ta Bartolome, Tomas ta Mateo zerga-biltzallea, Santiago Alpai'rena, Tadeo, Simon Kananea'koa ta Judas Iskariote, saltzalle izango zana.

64.—*Mendiko itzaldia: prestaera* (Mt. 5, 1-2; Lk. 6, 17-22).

Jesus, bere ikasleakin jetxita, zelai batean gelditu zan. Antxe zeuden bere ikasleak eta jendetza aundia, Judea'tik, Jerusalem'dik eta Tiro ta Sidon itxasaldeetatik etorri ziranak, Jesus'en itza entzun eta beren gaitz

(87) Jesus'ek etzuan oraindik bera Kristo zala jendeak jakiterik nai, erriak ez bait-zuten ulertzen Mesias'en eginkizuna.

(88) Is. 42, 1-4.

eta gaxotasunetatik sendatzera etorri ziranak. Eta Jesus exeri zanean, ikasleak inguratu zitzaizkion. Orduan, bere ikasleengana begiak jasorik eta aoa zabaldurik, erakusten asi zitzaizen, esanaz:

65.—*Zorionak eta zoritxarrak* (Mt. 5, 3-12; Lk. 6, 20-26).

Zorionekoak biotzez beartsuak, zeruetako erreñua berena dute-ta.

Zorionekoak otzanak, lurraren jabe egingo dira-ta.

Zorionekoak negar egiten dutenak, poztuak izango dira-ta.

Zorionekoak zuzentasunaren gose-egarri diranak aseak izango dira-ta.

Zorionekoak erruki orrak, errukia iritxiko dute-ta.

Zorionekoak biotz-garbiak, Jaungoikoa ikusiko dute-ta.

Zorionekoak pake-zaleak, Jaungoiko-seme izena izango dute-ta.

Zorionekoak zuzentasunagatik gaizki erabilliak izan diranak, zeruko erreñua berena dute-ta.

Zorionekoak zuek, Neregatik biraoz beteak eta mardarikatuak, gezurrez zuen aurka nai dezatena esan dezatenean.

Zorionekoak zuek, Gizasemearengatik gizonak begitan artu, berengandik baztatu, gaizki-esaka ta erasoka erabilli zaitzatenean, eta zuen izena gaiztotzat artu dezatenean! Poztu ta alaitu zaitezte egun artan; zuen saria zeruan aundia izango da-ta; ayen gurasoak igarleai ere beste orrenbeste egin zieten.

Zuen zoritxarra, beriz, aberatsok; zuen atsegin-aldia orain ba-dezute-ta.

Zuen zoritxarra aserik zeratenok; gose izango zerate-ta.

Zuen zoritxarra orain parra egiten dezutenok: saminiñez eta negarrez gongo zerate-ta.

Zuen zoritxarra gizonak zuetaz ondo esan dezatenean; sasi-igarleai ayen gurasoak ere orrelaxe egin zien-da (89).

(89) Itzaldi ontan, Jesus'ek bere erakuskizunaren gairik berezianak agertu dizkie bere ikasleai. Inñun ikustekotan, ementxe ikusten da argi ta garbi Kristo'ren erakuskizunak eta munduarenak alkarren







Nik, berriz esaten dizutet: inola ere ez ziñik egin <sup>(98)</sup>; ez zeruagatik, Jaungoikoaren aulkia da-ta; ez lurragatik, Aren ainpekoa da-ta; ez Jerusalem'engatik, Errege aundiaren uria da-ta. Ezta zere buruagatik ere ez egin ziñik, ille bat bera ere ezin zuritu edo beztu zenezake-ta. Zure izkera izan bedi beti: «bai, bai; ez, ez». Orretzaz gañera-koa, berriz, gaiztakeritik dator».

72.—*Artu alako bi emateko legea* (Mt. 5, 38-42; Lk. 6, 29-30)

«Ba-dakizute esan izan dala: «begi-ordain, begia; agin-ordain, agiña» <sup>(99)</sup>. Nik, berriz, diotzutet: gaizkilleari ez egin gogor; eta eskuiko matrallean jo ba'zaitu, ezkerre-koa ere eskeñi zaiozu. Eta soñekoa zuri kentzearren, auzitara eraman nai ba'zaitu, soingañekoa ere emaiozu. Eta soingañekoa kendu dizunari, soñekoa ere ez ukatu. Eta norbaitek milla oinkadako bidea egin erazi ba'dizu, zoaz bi milla berarekin.

Eske datorkizunari, emayozu eta gero ematekotan artu dizunagandik ez zaitetz atzeratu. Eta zerbait kendu dizunari, ez biurtu-erazoz».

73.—*Etsai-maitasuna* (Mt. 5, 43-48; Lk. 8, 27-28; 31-36).

«Entzun dezute esanda dagoala: Lagun urkoa maite ezazu, ta etsaya gorrotatu» <sup>(1)</sup>. Nik berriz, esaten dizutet: zuen etsayak maita itzazute; gorroto dizutenai egiezute on, ta ezesten (despreziatzen) eta iraintzen zaituztenen alde otoitz egizute, bere eguzkia onen eta gaiztoen gañera atera, ta bere euria onen eta gaiztoen gañera ixurtzen duan Goiko Aitaren seme izan zaitezen. Besteak zuei egitea nai dezuten bezela, egin zuek ere ayei.

Baña, maite zaituztenak maite ba'dituzute, zer sari izango dezute? Zerga-biltzalleak eta pekatariak ere ez ote dute ori egiten? Eta senideai bakarrik agur egiten ba'diezute, geiegikorik zer egiten dezute? Jentillak berak ere ez ote dute ori egiten? Eta ondo egiten dizutenai

<sup>(98)</sup> Zinak (jumentuak) bearrrik gabe ez dirala egin bear dio Jesus'ek Lev. 24, 18. — Antziña, sarritan betetzen zan lege au Sortzalde-errietan, baita lengo Erroma'n ere. Zuzentasun-erroa izan ditek, baño ez goi-maitasunezkoa.

<sup>(1)</sup> Lev. 19, 18.

ondo egiten ba'diezute, zer sari irabazi dezute? Pekata-riak ere ori egiten dute. Eta atzera biurtuko dizutenai aurreratzen ba'diezute, zer sari irabazi dezute? Pekata-riak ere aurreratzen die pekatariari, beste arrenbeste artzekotan.

Zuek, berriz, zuen etsayak maita izazute, ta guztiai ondo egin eta aurreratu ezayezute, ordaiñaren itxarope-nik gabe; ta Altsuaren seme izango zerate, eskergabe-koai ta gaiztoai ere ongille agertzen zaye-ta.

Beraz, errukior izan zaitetzte, zuen Goiko Aita errukior dan bezela; onak baño obeak izan zaitetzte, zuen Goiko Aita ona baño obea dan bezela».

74.—*Limosna egitea* (Mt. 6, 1-4).

«Zuen egite onak ez, gero, gizonen aurrean agin, auk ikusi zaitzaten; bestela, zuen Goiko Aitarenean ez dezute saririk izango.

Beraz, limosna egiterakoan, turuta-otsik ez jo aurre-tik, azalutsak (ipokritak) sinagogetan eta kaleetan oi dutenez, gizonak goretsi ditzaten. Benetan diotzutet: artu dute beren saria.

Zuk limosna egiterakoan, berriz, ez dezala jakin zure esku ezkerak, eskuyak egiten duana, zure limosna ixillean geldi dedin; eta ixillean ikusten duan zure Aitak ordafia emango dizu».

75.—*Otoitzkera* (Mt. 6, 5-7).

Eta otoitz egiten dezutenean, azalutsen antzeko ez izan; orrelakoen atsegiña sinagogetan eta kale-buruetan zutik otoitz egitea da, gizonen aurrean agertzeko. Benetan diotzutet: Artu zuten beren saria.

Zu, berriz, otoitzean ari zaitzanean, sar zaitetz zure gelan, eta atea itxi, ta zure Aitari ixillean egiozu otoitz; ta ixillean ikusten duan zure Aitak ordainduko dizu.

Otoitzean, berriz, ez asi gal-gal itz-jarioka, jentillak bezela; itzaren-itzez entzungo zayela uste bait dute. Zuek ez izan orrela: ba-daki zuen Aitak zer bear dezuten-eta, zuek Ari eskatu baño len.





76.—*Aita gurea* (Mt. 6, 9-15).

Zuek, berriz, onela otoitz egizute:

Zeruetan zeran gure Aita, goyan bego zure Izena, bertorkigu zure erreinua, egin bedi zure naya, zeruan bezela lurrean ere. Eman zaiguzu gaur bear degun ogia. Ta barkatu gure zorrak, guk gure zordunai barkatzen dizkiegun bezela; eta ez gaitzazu utzi tentazioan erortzen; baizikan gaitzetik gorde.

Baño, gizonai beren zorrak barkatzen ba'dizkiezute, zuen goiko Aitak ere, zuen pekatuak barkatuko dizkitzute; gizonai parkatzen ez ba'dizkiezute, zuen Aitak ere ez dizkitzute zuen pekatuak barkatuko.

77.—*Barauaz* (Mt. 6, 16-18)

Barau egin dezazutenean, ez ibilli goibel, azaluts-ipo-kritak bezela; gizonen aurrean barauzale agertzeko arpegiak makaltzen dituzte-ta. Benetan diotzutet: artu zuten beren saria.

Zuk, berriz, barau egin dezazunean, zure burua usai-gozotu ezazu ta arpegia garbitu, gizonen aurrean barauzale ez agertzeko, ixillean dan zure Aitaren aurrean baizik; eta ixillean ikusten duan zure Aitak ordaña emango dizu.

78.—*Zeruko ondasunak* (Mt. 6, 19-21).

Ez bildu ondasunik lur ontan; erdoyak eta sitsak ondutzen dituzte-ta, eta lapurrak zulotik atera ta ostu oi dituzte-ta. Zuek, ordea, ondasunak zeruan pillatu itzazute; ez dago an erdoirik, ez sitsik ondartzeko, ezta lapurrik ere zulotik ateratzeko ta ostutzeko.

Zuen ondasunak daukazuten tokian, biotza ere antxe izango dezute-ta.

79.—*Begia, gorputzaren argia* (Mt. 6, 22-23).

Gorputzaren argia begia da. Zure begia garbia ba'da, zure gorputz osoa argitsu izango da. Zure begia lauso ba'da, berriz, zure gorputz osoa illun izango da. Beraz, zugan dagoan argia illunpea ba'da, nolakoa izango ote da illunaldia?

80.—*Jaungoikoa bakarrik mirabetu* (Mt. 6, 24).

Nagusi biren morroi ezin izan diteke iñor. Edo batari gorroto izango dio ta besteari maitasun; edo batari jarraituko dio ta besteari jaramonik (kasorik) ez dio egingo. Jaungoikoaren eta Mammon'en morroi (2) ezin zindezteke izan.

81.—*Jaungoikoak guztion ardura* (Mt. 6, 25-34).

Beraz, Nik diotzutet; ez kezketan ibilli, bizitzeko zer jango dezuten, ezta gorputza zerekin jantziko dezuten ere. Ez al da bizia janaria baño geyago? Ta gorputza jantzia baño geyago?

Orra, ikus goiko egaztiak: ez dute ereiten, ez biltzen, ez aletegian sartzen; eta zuen Goiko Aitak azitzen ditu. Ez ote zerate zuek ayek baño askoz geyago? Nor da zuen artean, asmatuak-asmatu, besabete azi ditekunik?

Eta jantzia, zergatik zabiltzate kezkatu? Orra or zelayetako lirioak; begira nola azitzen diran. Ez dute lanik egiten, ez iruten. Ala ere, ara nik esan; Salomon bera, bere aunditasunik ospetsuenean ere, etzan oietako bat bezin apain jantzi.

Beraz, gaur zelayean bizi ta biar labera botatzen dan belarra Jaungoikoak orrela jazten ba'du, zenbat apañago jantziko zaituzte zuek, sinismen otzeko gizonok? Beraz, ez ardurarik izan «zer jan, zer edan, zer jantziko» degu esanaz. Guzti oyen billa sinismen-gabeak dabilta-ta. Zuen Aitak, berriz, ba-daki guzti oyen bearrean zaudetena.

Beraz, billa ezazute lenen Jaungoikoaren erreinua ta Aren zuzentasuna; ta beste guzti oyek geigarri emango zaizkitzute (3). Eta biarke ez kezkarik izan; biarkeok biar: egun bakoitzari naikoa zayo bere arazoa.

82.—*Juzgu egiteaz* (Mt. 7, 1-6; Lk. 6, 37-42).

Iñor ez epaitu, epaituak izan ez zaitezten. Iñor ez gaitzetsi, ta etzerate gaitzetsiak izango: epaitzen dezuten

(2) *Mammon*: arameotarren artean *aberastasuna* adierazten du.

(3) Mundu ontako ondasunak neurritz artu ta erabili bear dira. Zerura begiratzeko oyetan ustea ipintzea, Jesukristo'k esandakoaren aurka egitea izango litzake.

neurritz epaituak izango zerate-ta. Barkatu, ta zuek ere barkatuak izango zerate. Eman ezazute, ta emango zaitzute: neurri on, astindua, betea ta gainezka emango zaitzute altzora. Neurtzen dezuten neurriaz ber-beraz neurtuko zaitzute-ta».

Ipui au ere esan zien: «Agian itxuak itxuari bidea erakutsi ote dezayoke? Ez ote dira biak zuloan eroriko?

Ikaslea ez da erakuslea baño geyago; baño, ikasle biñaka izango da, bere erakuslea ainbatekoa ba'da.

Zer dala-ta, zure anayaren begian xakarra ikusten dezun orrek ez dezu abea ere ikusten zere begian? Edo, zer dala-ta esaten diozu anayari: utzi zadazu begian daukazun xakarra kentzen, eta zerorrek or zere begian daukazun abea ez dezu ikusten? Azaluts orrek, ken zazu aurrena abea zure begitik, eta orduan ikusiko dezu ongi xakarra, zure anayaren begitik kentzeko.

Ez bota txakurrai gauza santuak; ezta zuen pitxiak ere ez bota txerrien aurrean; pitxi oyek oinpean zapal-duta gero, zuen gañera etorri ta zatitu ez zaitzaten».

### 83.—Otoitzaren indarra (Mt. 7, 7-11).

Eskatu ezazute ta emango zaitzute; ibilli zaitzete billa ta arkituko dezute; atea jo, ta idekiko dizute; eskatzen duanak artu egiten du, ta billa dabillenenak, arkitu ta atea jotzen duanari ideki egiten zayo-ta. Bestela, nor da zuetan, semeak ogia eskatu ta arria emango dionik? Edo arraya eskatu, ta subea emango dionik?

Beraz, zuek, gaiztoak izanarren, semeai gauza onak ematen ba'dizkiezute, zuen Goiko Aitak, ez ote dizkie opari onak areago emango eskatzen dizkienai?

### 84.—Alkar-maitasunaren legea (Mt. 7, 12; Lk. 6, 31).

Beraz, besteak zuei egitea nai dezuten guztia egin zayezute zuek ere besteai: Legea ta Igarleak ortan daude-ta.

### 85.—Bi atea eta bi bideak (Mt. 7, 13-14).

Ate estutik sar zaitzete; ondamendirako atea aundia da, ta ara daraman bidea zabala, ta andik sartzen diranak asko dira. Bizitzarako atea, berriz, bai dala txikia, ta bai estua ara daraman bidea!, ta billatzen dutenak gutxi dira.

### 86.—Sasi-igarleak (Mt. 7, 15-20; Lk. 6, 43-45).

Ernai bizi, barrutik otso lapurrak izanik, ardi-larraz datorzkizuten sasi-igarleai buruz. Ayen frutuetatik ezagutuko dituzute. Elorritik matsa, edo sasitik pikoak bildu ote ditezke? Alaxe, ba; zugaitz onak frutu ona ematen du; zugaitz txarrak, frutu txarra. Zugaitz onak frutu txarrik ezin eman dezake; ezta frutu onik ere zugaitz txarrak. Frutu onik ez dakarren zugaitza, ebaki ta sutara botako dute.

Beraz, orrelakoak beren frututik ezagutuko dituzute: zugaitza frututik ezagutzen da-ta. Gizon onak bere biotzeko ondasundegi onetik ona ateratzen du; ta gaiztoak, bere barru okerretik gaiztakeria ateratzen du. Biotzari gañezka darionetik itz egiten bait-du aoak.

### 87.—Ikasle jatorrak (Mt. 7, 21-23; Lk. 6, 46).

Zertarako zatozkidate «Jauna, Jauna» deika, ta ez dezute nik diodanik egiten? «Jauna, Jauna» esaten didaten guztiak ez dira zeruko erreñuan sartuko; zeruan dagon nere Aitaren gogoia betetzen duana, baizik; ori sartuko da zeruetako erreñuan.

Egun artan askok esango didate: «Jauna, Jauna!, ez al degu, ba, zure Izenean igarletzan egin?; ez ote ditugu zure Izenean deabruak bota, ta zure Izenean mirari asko egin?». Eta Nik, orduan, esango diet: «ez zaitutet iñoiz ere ezagutu; alde Nigandik, gaizkilleok!» (4).

### 88.—Itzaldiaren amaya: etxea arkaitz-gañean eta ondargañean (Mt. 7, 24-29; Lk. 6, 47-49).

Nigana etorri, ta nere esana entzun eta egitez betetzen duana, noren antzekoa dan erakutsiko dizutet. Etxea egiteko, atxurrez ondo sakonduta, oiñarria arkaitz-gañean ipiñi zuan gizon zentzundunaren antzekoa da. Euria egin, eta ibayak atera, ta aizeak indartu ta etxe ura astindu arren, etzan erori ezta mugirarik ere etzioten eragin: arkaitz-gañean ondo gogortua ta sendo egiña zegoan-da.

(4) Ps. 6, 8.



Nere itzak entzun, eta betetzen ez dituana, berriz, bere etxea ondar-gañean, oñarri gogorrik gabe egin zuan gizon burugabearen antzekoa da; euria egin, ibayak azi, ta aizeak jo ta astindu zutenean, bertan bera erori zan, eta bere ondamendia aundia izan zan».

Jesus'ek itzok amaitu zituanean, jendetza ark bere erakutsiaz arriturik zeuden, eskubide-duanari dagokionez erakusten zien-da, ez ayen iskribau ta pariseotarrak bezela.

89.—*Enburuaren morroya sendatzen du.*  
(Mt. 8, 5-13; Lk. 7, 1-10)

Erriaren belarrietan esandako itz guztiak amaitu-ondoren, Jesus menditik jetxi zan; eta jendetza aundia- ren aurretik, Kaparnaun'en sartu zan.

Euntari (5) batek asko maite zuan morroya zeukan, eta au gaxorik, il-zorian arkitzen zan. Jesus'en berri entzunda, judutar zar batzuk Arengana (Jesus'engana) bialdu zituan, bere morroi ura sendatzera etortzeko erreguz, esanaz; «Jauna, nere morroya elbarritu ta oean dago etxean, oñaze gorritan».

Ayek, Jesus'engana etorrita, gartsu erregutzen zioten, esanaz: «Ainbeste Zugandik irixteko diña ba-da; gure erria maite du ta sinagoga bat ere egin digu».

Jesus'ek esan zien: «Joango natzayo ta sendatuko det».

Eta Jesus ayekin joan zan. Eta etxetik bertan zala, eunburuak adiskide batzuk biali zizkion, esanaz: «Jauna! Nekerik ez artu; ni ez naiz iñor Zu nere etxean sartze-ko-ta. Zugana joateko ere, nor ez nitzalakoan negon; baño, esan zazu itz bakar bat, eta nere morroya senda- tuko da. Nik, ere, iñoren menpeko naizen arren, ba- dauzkat mutillak nere mendean; eta bati «oa!» esan, eta joan egiten da; besteari: «ator!» eta etorri egiten da; ta nere morroyari: «egin zak aul!» ta bereala egiten du».

Itz auek entzunda, Jesus arritu egin zan, eta jarrai- tzen zion erriarengana biurturik, ala esan zien: «Benetan

(5) Euntari: eun gudarien buru edo agintari zana. Itxuraz, juduta- rren aldekoa zan, naiz-ta atzerritarra izan. Baño, ori bai, sinis- men bizia ta apaltasun aundia agertzen ditu, gero Jesus'ek esan zuanez.

diotzuet: ez det onenbesteko sinismenik Israel'en bertan ere arkitu. Ta, ara Nik esan; asko ta asko etorriko dira eguzki-sortaldetik eta sartaldetik, eta Abraan'ekin eta Isaak'ekin eta Jakob'ekin exeriko dira mayean zeruko erreñuan; erriko semeak, berriz, kanpoko illunpetara boteak izango dira. An izango da negarra ta ortz- karraska!»

Gero, Jesus'ek euntariak bialdutakoai esan zien: «Zoazte ta esayozute: «Gerta bekizu, zuk sinista bezela».

Eta ordu artantxe sendatu zan morroya.

Eta bialdutako ayek etxera biurturik, gaxo egondako morroya sendatuta arkitu zuten.

90.—*Nain'go alargunaren semea piztutzen du* (Lk. 7, 11-17)

Egun batzuek geroago, Jesus Nain zeritzan errira zijoan, eta Arekin bere ikasle ta laguntalde aundia. Eta erriko ateetara inguratzeaz batera, ama alargunaren seme bakarra zeramaten ilda, eta askoak zijoazen alarguna- rekin batean. Jaunak alarguna ikusi zuanean, artaz erru- kiturik, ala esan zion: «Ez negarrik egin».

Eta urreraturik, il-zerraldoa ikutu zuan, eta zerama- tenak gelditu egin ziran. Orduan, esan zuan: «Mutill! Jeiki zaitez, nik esaten dizut!».

Eta ildakoa jeiki ta itz-egiten asi zan: eta Jesus'ek amari eman zion.

Guztiak ikaratuta, Jaungoikoa goresten zuten, esanaz: «Igarle aundia agertu da gure artean, eta Jaungoikoak bere erriarentzat errukia izan du.

Eta Judea'n eta inguru guztian zabaldu zan mirari onen ospea.

91.—*Juan Batayatzallearen albistariak Jesus'engana.*  
(Mt. 11, 2-6; Lk. 7, 18-23)

Juan'i, berriz, giltzapean zegoala, bere ikasleak Kris- to'ren egintza guztien berri eman zioten. Eta Juan'ek bere ikasleetako biri dei eginda, Jesus'engana bialdu zituan, esanaz: «Zu zera Etortzekoa ala beste baten zai egon bear degu?» (6).

(6) Jesus'ek berak bere buruaz aitormena egin zezan biali zizkion

Orduantxe bertan Jesus'ek ainbat gaxo ta deabrudun sendatu zituan, eta itxu askori ikusmena eman zien. Beraz, bialdutakoai erantzunik, Jesus'ek esan zien: «Zoazte, ta zeok entzun eta ikusi dituzutenen berri eman zayozute Juan'i: itxuak ikusten, errenak ibiltzen, legendar-dunak garbi, gorrak entzuten, illak berpiztuak eta bearsuai berri Ona erakusten zaye. Ta zorionsua da Nigan galbiderik artzen ez duana!».

92.—*Jesus, Juan goratzen* (Mt. 11, 7-15; Lk. 7, 24-30).

Juan'en albistariak joan ziranean, Jesus Juan'i buruz jendetzari itz egiten asi zan: «Zer ikustera irten zerate basamortura? Aizeak darabilkian kañaberaren bat? Zer ikustera irten zerate, bada? Apain jantzitako gizonen bat? Apain jazten diranak, errege-etxeetan bizi oi dira. Zer ikustera irten zerate, ba? Igarleren bat? Bai orixel! Eta Nik esaten dizutet: baita igarle bat baño aundiagoa ere. Oentzat dago esana: «Nere aingerua bialtzen dizut, zure aurretik bidea zabaldu dezaizun» (7).

Benetan diotzuet: emakumeetatik jayotakoen artean ez da Juan baño igarle aundiagorik sortu; ala ere, zeruko erreñuan txikiena, ura baño aundiago da» (8). Eta erri guztiak, baita zerga-biltzalleak ere, Juan'ek esandakoa entzunda, Jauna goratu zuten, aren batayoa arturik. Pariseotarrak eta iskribauak, berriz, Juan'en batayoa ez artuaz, ayenganako Jaungoikoaren asmoa gutxietsi zuten. Juan'en egunetatik oraiñ arte, zeruko erreñua indarka irixten da, ta indartsuak egiten dira aren jabe (9); Juan' enganako Legea ta Igarleak, gerokoaren igarle dira-ta. Eta ulertu nai ba'dezute, berbera da etortzekoa dan Elias. Entzumenik duanak, entzun beza».

Juan Batayatzalleak albistari ayek. Ez ezpai edo zalantzan zegoa-lako, bere ikasleak eta beste guztiak Jesus Mesias zala ezagutu ta aitor zezaten baizik.

(7) Mal. 3, 1.

(8) Mesias'en erreñuan miraririk txikienak, Lege Zarrean aundien diranak baño gorago daude.

(9) Indartsu auk, Juan Batayatzalleari ta Jesus'i jarraiturik, peka-tsun damua ta norbere burua ukatzen dituztenak dira; judutar kaskagorrrak, berriz, etzituzten Igarleen esanak ulertu, ta Erreñua zerga-biltzalleak eta pekatariak kendu zieten.

93.—*Jesus'ek oraingo gizaldiari gogor itz egiten dio.*  
(Mt. 11, 16-19; Lk. 7, 31-35)

Jesus'ek esan zuan: «Gizaldi ontako gizonak, berriz, noren aldean ipiñiko ditut? (10). Eta, noren antzeko dira? Enparantzan eserita dauden mutikoen antzeko dira alkarri deadar egiten dietenean: «Guk soñua jo dizutegu, eta zuek ez dezute dantzarik egin; guk triste-rik kantatu ta zuek negarrik ez!».

Ta, ez jan ez edan egiten etzuan Juan etorri zan, eta zuek diozute: «Deabrua dauka». Gizasemea etorri da, ta jaten eta edaten du, ta ala diozute: «Ori gizon jatuna ta ardo-zalea da; zerga-biltzalleen eta pekatarien adiskidea». Baña, Jakintza zuzen artu zuten bere seme guztiak» (11).

94.—*Emakume pekatari batek Jesus'i oñak garbitzen dizkio* (Lk. 7, 35-50).

Pariseotar batek berarekin bazkaldu zezala eskatu zion; eta pariseotarraren etxean sarturik, mayean eseri zan. Jesus pariseotarrarenean bazkaritan zala erriko emakume batek jakin zuanean, usai gozoz betetako alabastro-ontzi bat eraman zuan eta atzetik Jesus'en oñetan jarri-ta, oñak bere negar-malkoz garbitu, bere ille-adatsez legortu, oñetan musu eman eta usai gozoz igurtzitzen asi zitzaion.

Jesus'i dei egin zion pariseotarrak au ikusita, ala zion bere baitan: «Au igarle ba'litz, ba-lekike nor dan eta nolakoa ikutu ta ikutu ari zayon emakume ori; emakume galdu bat dala».

Jesus'ek esan zion: «Simon, ba-det zerbait zuri esateko».

Eta Simon'ek esan zion: «Esaidazu, ba, Maixu!».

Korrituzale batek bi zordun zituan. Batek bosteun denario zor zizkion; besteak berrogei ta amar. Nola or-

(10) Norekin berdinduko ditut?

(11) Juan Batayatzallearen, Kristo'ren eta Laguntzallen bidez Jakintzari jarraitzen diotenak dira *seme jakintsuak*, Jaungoikoari arrazoi ematen diotenak; dei samur orri entzungor egiten diotenak, berriz, burubageak.



daindu etzutela-ta, biai barkatu egin zien zorra. Bietatik nork maite izango du geyen?».

Simon'ek erantzun eta esan zion: «Nere ustez, geyen barkatu zayonak».

Jesus'ek esan zion: «Ondo erabaki dezu».

Eta emakumearengana bihurturik, ala esan zion Simon'i: «Ikusten al dezu emakume au? Zure etxean sartu naiz, eta ez didazu oñetara urik bota; onek, berriz, oñak bere malkoz garbitu ta bere ille-adatsez legortu dizkit. Ez didazu musurik eman; au, berriz, sartu danetik, nere oñai musuka ez da aspertu. Bururik ez didazu olioiz igurtzi; onek, berriz, oñak usai gozoz igurtzi dizkit. Beraz, entzun diozudana: asko maite izan dualako, pekatu asko barkatu zaizkio; gutxi barkatzen zaizkionak, berriz, gutxi maite du» (12).

Eta emakumeari esan zion: «Barkatzen zaizkitzu zure pekatuak».

Orduan, mai-lagunak alkarri esaten asi ziran: «Pekatuak ere barkatzen dituan au, nor ote da?».

Eta Jesus'ek emakumeari esan zion: «Zure sinismenak salbatu zaitu. Zoaz pakean».

95.—*Emakume on batzuek Jesus'i jarraitzen diote.*  
(Lk. 3, 20-21)

Egun batzuek geroago, erriz-erri zebillen Jesus, Jaungoikoaren erreinuko Berri Ona erakusten; eta amabiak jarraitzen zioten eta deabru zikiñetik eta gaxoetatik sendatutako emakume batzuek ere bai; Madalen zeritzan Maria, zazpi deabru zikin kendu zizkiona, ta Juana, Erodes'en morroi-nagusiaren emaztea, ta Susana ta beste asko, beren ondasunakin Jesus'i laguntzen ziotenak.

96.—*Kaparnaum'en; etxeokak kezketan* (Mk. 3, 20-21).

Eta etxera datoz; baño, jendea berrero bildu zan, jatekorik artzen ere uzten etziela. Au entzunda, bereta-

(12) Gure santutasunaren asiera, beti Jaungoikoagandik datorkigu. Ez dakigu ez nola ez noiz artuko zuan emakume ark lenengo grazia; orain, bere eskerrona agertzen dio Jesus'i, ta mesede ugariagoak artzen ditu.

rrak etorri zitzaizkion, Aren jabe egiteko, «burutik eginda dago», zioten-eta (13).

97.—*Jesus'ek deabrudun itxu-mutua sendatzen du.*  
(Mt. 12, 22-23)

Orduan, deabrudun itxu-mutu bat ekarri zioten, eta osatu egin zuan, iztun eta ikustun utzirik. Eta jendetza guztiak arrituta, ala zion: «Ez ote da au Dabid'en semea?».

98.—*Pariseotarren zitalkeria* (Mat. 12, 24-30; Mk. 3, 22-27)

Jerusalen'dik etorritako pariseotar eta iskribauak au entzunda, esan zuten: «Beelzebul (14) dauka onek, eta Beelzebul deabru nagusiak lagun egin ezik, ez ditu onek deabruak botatzen».

Baño, Jesus'ek ayen asmakizunak igarririk, beregana dei egin eta ipuyetan esan zien: «Satanas'ek nola bota dezake Satanak? Batzuek besteen aurka banatuta dagoan erreinua, ezin zutik egon daiteke; eta bere buruaren aurka zaituta dagoan erriak naiz etxeak ez du iraungo. Eta Satanak'ek Satanak botatzen ba'du, bere buruaren aurka ari da burrukan. Beraz, nola iraungo du zutik aren erreinua? Ezin zutik egon diteke, ta arenak egin du. Eta Nik deabruak Beelzebul'en indarrez botatzen ba'ditut, zuen semeak noren laguntzaz botatzen dituzte? Onela ba, berak izango dira zuen epaille ta juezak. Baño, Nik etsayak Jaungoikoaren indarrez botatzen ba'ditut, Jaungoikoaren erreinua zuen artera etorri dala agirian dago.

Edo-ta, bestela, esan zadazute: Nola sartu diteke inor gizon indartsuaren etxean eta ango gauzak nola ostu, indartsua lenago lotu gabe? Lotu ezkerro, bai, etxea beretzat ustuko du.

Nere alde ez dagoana, nere aurka ari da; ta Nerekin biltzen ez duana, sakabanatzen ari da».

(13) Aren senide batzuek etzuten oraindiño Jesus sinisten eta bere etxera biur zedilla nai zuten.

(14) Beelzebul: simaurraren jauna, deabru guztien burutzat zeukaten.

99.—*Espiritu Santuaren aurkako pekatua.*  
(Mt. 12, 31-32; Mk. 3, 28-30)

Beraz, benetan diotzuet: pekatu ta birao guztiak barkatuko zaizkie gizonai: Espiritu Santuaren aurkako biraoa, ordea, etzaye barkatuko (15). Eta Gizasemearen aurka norbaitek itz egiten ba'du, barkatuko zayo; baño, Espiritu Santuaren aurka birao egiten duanari, ez bitzita ontan, ez gerokoan, etzayo inoiz barkatuko, ta betiko pekatuaren errudun izango da». «Debrua dauka» esaten zuten-da.

100.—*Pariseotarrak beren egintza txarren errudun.*  
(Mt. 12, 33-37)

«Edo zugaitza ta frutua, biak onartu; edo zugaitza ta frutua, biak txarrartu; zugaitza zer dan, frututik ezagutzen da-ta» (16). Subekumeok! Biotzari gañiezka dariona, esaten du aoak. Gizon onak bere biotzeko ondasundegitik, gauza onak ateratzen ditu; ta, gaiztoak, bere barren okerretik, gaiztakeria ateratzen du. Baño, Nik diotzuet: gizonak alperrik esandako itz bakoitzaz ere erantzunbearra izango du auzi-egunean. Zure itzengatik izango zera zintzotzat aukeratua; ta zure itzengatik gaiztotzat ondatua».

101.—*Jesus'en Ama ta senideak.*

(Mt. 12, 45-50; Mk. 3, 31-35; Lk. 8, 19-21)

Jesus'ek oraindiño jendetzari itzegiten jarraitzen zuala, bere Ama ta senideak etorri zitzaizkion itz egitera; eta jendetzarengatik Arengana ezin inguratuta, etxe-aurrean gelditu ziran, eta Berari dei egiten ziotela esan zioten. Eta jendetza aundia Aren inguruan zegoala, norbaitek

(15) Espiritu Santuaren aurkako pekatua, zer da? Jaungoikoak egindako mirariak gaiztakeriz deabruari ezartzea, deabruak egin dituala esatea, alegia. Onelako pekatariak animako begiak itxuturik dauzkate-ta, ezin dezateke sinismenik artu, ta, beraz, ez dute barkamenik eta beren pekatuan iltzen dira (Jaungoikoak mirariren bat egin ezik).

(16) Jesus'en egintzak onak ziran, eta inork etzuan ukatu ala ziranik. Beraz, Jesus bera onartu bear zuten, eta ez deabruaren laguntzat artu. Bestalde, ayek berak ziran gaiztoak, eta, beraz, ezin egintza onik egin.

esan zion: «Ara! Ama ta senideak or kanpoan dituzu; zurekin itzegin nai dute».

Baña, Ark (Jesus'ek) onela erantzun zion: «Nor det Nik Ama ta nortzuk ditut senideak?».

Eta Aren ondoan eserita zeuden ikasleengana eskua zabaldurik eta ingurura begiratuaz, esan zuan: «Ona emen nere ama ta senideak. Izan ere, zeruko Aitaren naya betetzen duana, Jaungoikoaren itza entzun eta egiñaz betetzen duana, uraxe da nere anai, arreba ta ama».

102.—*Ereillea* (Mt. 13, 1-9; Mk. 4, 1-9; Lk. 8, 4-8).

Egun artan, Jesus etxetik irtenda, itxasertzean eseri zan; eta an berrero erakusten asi zan. Eta errietatik etorritako jendetza aundiak bildu zitzaizkion, eta txalupan sartu ta bertan eseri zan itxas-gañean. Jendetza, berriz, ur-ondoan ondartzan zegon; eta gauza asko ipuyen bidez erakusten zizkien, eta bere erakusaldian ala esaten zien: «Entzun zazute: erelle bat ereitera atera zan. Eta ereiterakoan, azi batzuk bide-ondoan erori ziran, eta txoriak etorri ta jan egin zituzten. Beste batzuk, lur gutxi zan arri-artearen erori, ta laxter erne ziran, lurrak sakonik etzuan-da; baño, eguzkia irten zanean, erre egin ziran, eta zuztarrrik eta euririk etzuten, eta igartu egin ziran. Beste batzuk, arantzartearen erori ziran; eta, ayekin batera aundi egin ziran arantzak, ito egin zituzten, eta etzuten fruturik eman. Besteak, berriz, lur onean erori ziran eta azi ta aunditurik, frutua eman zuten, batzuek ogeitamar, beste batzuek irurogei, ta beste batzuek eun».

Au esanda, deadarka esan zien: «Entzuteko belarrik duanak, entzun beza».

103.—*Zergatik itzegiten die Jesus'ek ipuyen bidez?*

(Mt. 13, 10-17; Mk. 4, 10-12; Lk. 8, 9-10)

Eta bakarrik gelditu zanean, amabiak Arengana urreturik galde egin zioten, esanaz: «Zer dala-ta, erakusten diezu ipuyen bidez? Ipui oyek zer adierazten dute?».

Jesus'ek erantzunaz, esan zien: «Jaungoikoaren erriko ezkutua ezagutzeko aukeratuak zuek zerate; besteai, berriz, dana ipuyetan adierazten zaye. Daukanari geyago emango zayo, oso ugaritsu eman ere; ez daukanari, berriz, daukana ere kendu egingo zayo. Onengatik erakus-



ten diet ipuyetan: ikusirik, ikusi ez dezaten, eta entzun arren, ulertu ez dezaten. Eta ayekin betetzen da Isaias igarleak esana: «Zuen entzumenaz jaso ta ez dezute ulertuko; ta ikusmenaz begiratu, ta ez dezute ikusiko. Erri onen biotza gogortu egin da-ta; belarri gorra eta begi itxuak ditu, belarriz ez entzuteko ta begiz ez ikusteko, ta biotzez ez ulertzeko, Nigana biurtuaz, osasuna eman ez dezayodan bildurrez» (17).

Zoriontsuak, ostera, zuen begiok, ikusten dutelako, ta zuen belarriok entzuten dutelako. Benetan diotzuet: zuek ikusten dezutena, igarle ta zintzo askok ikusi nai, ta etzuten ikusi; zuek entzuten dezutena entzun nai, ta etzuten entzun».

104.—*Jesus'ek ereillearen ipuya azaltzen du.*  
(Mt. 13, 18-23; Mk. 4, 13-20; Lk. 8, 11-15)

Eta esan zien: «Ipui au ez dezute ulertzen? Eta, beste ipui guztiak, nola ulertuko dituzute, ba? Beraz, entzun zazute ereillearen ipuya.

Azia, Jaungoikoaren itza da. Jaungoikoaren Erreñuko Berri Ona entzunda, ulertzen ez duanari, etsayak, etorrita, aren biotzean ereindakoa kendu egiten dio, sinistuta, salbatu ez dedin. Orixen da bide-ondoan ereindakoa. Arritartean ereindakoa, itza entzunda bereala, pozik artzen duan entzulea da; baño, zuztarrik ez dauka, ta zirikalain (tentaziyo-orduan) atzera egiten du. Arantzartearen eroritakoa, ongi entzun duan aditzallea da; baño, bizibearrak eta aberastasunak eta atsegiñak ito egiten dute, ta beñiere ez du ezer ematen. Azkenik, lur onean ereindakoa, biotz zintzo ta oneko entzulea da, itza entzun eta gordetzen duana; eta onek, eraman onez, frutua ematen du: naiz ogeitamarrena, naiz irurogeirena, naiz eunena».

105.—*Jaunaren esaera batzuek* (Mk. 4, 21-25; Lk. 8, 16-18).

Eta ala esaten zien: «Inork ez du krisallua piztu ta lakaripean sartzen, edo opean ipintzen; argimutil ba-

(17) Is. 6, 9-10. Ezin zezatekean bat-batean guztia argi jaso. Apurka-

ten gañean ipintzen du etxe guztiari argi egin dezayon. Ixilpekorik ezer ere ez dago, agertuko ez danik; ezta ezkutuan ere ezer jakingo ta argitarako ez danik. Entzuteko belarririk duanak, entzun beza».

Ta ziotsaten: «Entzun dezutena: Neurtzen dezuten neurri beraz, neurtuko zaizute; zuei, berriz, gañezka emango zaizute. Daukanari, eman egingo zayo-ta; ez daukanari, berriz, zeukala uste zuana ere, kendu egingo zayo».

106.—*Berez ernetzen dan aziaren ipuya* (Mk. 4, 26-29).

Eta ala zion: «Jaungoikoaren Erreñua, gizonak soroan erein zuan aziaren antzeko da (18). Gabaz eta egunez, gizona lo egon, naiz jaikita ibilli, azia erne ta azi egiten da, ta ark ez daki. Lurra, berez, lenen gari-belarra dakar, gero, galburua, ta, azkenik, galburuan ale betea. Eta garia eldutakoan, gizonak bereala itaya astintzen dio, ebakitzeke sasoya dalako».

107.—*Sasi-gariaren ipuya* (Mt. 13, 24-30).

Beste ipui bat ekarri zien esanaz: «Zeruko Erreñua, bere soroan azi ona erein zuan gizonaren antzeko da. Baño, morroyak lotan zeudela, aren etsaya etorri ta gariartean sasi-garia erein, eta an joan zan. Garia azi zanean, eta burutu, sasi-garia ere an agertu zan. Orduan, morroyak nagusiarengana joan eta ala esan zioten: «Jauna, ez al zenuan zure soroan azi ona bota? Nondik sortu zayo, ba, sasi-garia?»

Ark erantzun zien: «Nere etsairen batek egin du ori».

Morroyak orduan: «Nai al dezu joanda, sasi-garia bilztea?»

Eta nagusiak erantzun zien: «Ez! Sasi-garia ateratzeko, garia ere atera ez dezazuten. Utzi biai ebakitzeke sasoiaraño azitzen; orduan esango diet itaridunai: «Bil

apurka eman bear zitzayen. Ipuyen bidez ikasten zuten Mesias'en izatea ta eginkizuna. Mesias'i buruz erriaren iritzi ta asmoak bestelakoak ziran-da, zuzenak eta benetakoak izan bearrean.

(18) Ipui au Markos Doneak bakarrik dakar, eta Jaungoikoaren Erreñuaren —Elizaren— bizitasuna adierazten du. Eliza, bere barruko indarrez azi ta zabalduko da, gizaldiz-gizaldi.

zazute lenbizi sasi-garia, ta lotu eskukadak erretzeko; eta garia gorde nere mandioetan».

108.—*Mostaza-aziaren ipuya* (Mt. 13, 31-32; Mk. 4, 30-32).

Beste ipui bat ere ekarri zien, esanaz: «Zerekin berdinduko degu Jaungoikoaren Erreñua? Edo ta, zein ipu-yez adieraziko degu? Zeruko Erreñua gizon batek es-  
kuan artu ta bere soroan erein zuan mostaza-aziaren an-  
tzeko da. Bera da azirik txikiena; baño, jayo ta azitzen  
danean, beste barazki guztiak baño landare aundiagoa  
egiten da, ta zugaitz egiten da, ta zeruko txoriak etorri  
ta aren adarretan jartzen dira».

109.—*Legami-azkarriaren ipuya* (Mt. 13, 33).

Beste ipui bat ekarri zien esanaz: «Zeruko Erreñua,  
emakume batek artu ta ore guztia jaiki arte, iru neurri-  
iriñetan <sup>(19)</sup> sartu zuan legami-azkarriaren antzeko da».

110.—*Jesus'ek jendetzari ipuyetan erakusten dio.*  
(Mt. 13, 34-35; Mk. 4, 30-32)

Berri Ona erriari onelako ipui askoren irudiakin  
azaltzen zion, entzuleak ulertu zezaten; eta ipuirik gabe  
etzien itz egiten. Igarleak esana bete zedin; «Nere aoa  
ipuyetan zabalduko det; eta lurra lur danetik ezkutuan  
daudenak agertuko ditut» <sup>(20)</sup>.

111.—*Sasi-gariaren ipuya azaltzen du* (Mt. 13, 36-43).

Orduan, jendea bialduta, etxera joan zan. Eta ikas-  
leak urreratu zitzaizkion, esanaz: «Azaldu zaiguzu soroko  
sasi-gariaren ipuya».

Ark, (Jesus'ek) erantzun zien: «Azi ona ereiten duana,  
Gizasemea da; soroa, lurbira; azi ona, Erreñuko se-  
meak dira; ta sasi-garia, Gaiztoaren semeak. Sasi-garia  
erein zuan etsaya, deabrua da. Ebakitzeo sasoya, berriz,  
gizaldien amaya; ta itaridunak, aingeruak.

Beraz, sasi-garia bildu ta erretzen dan bezela, gizal-  
dien azkenean ere, orrelaxe izango da. Gizasemeak bere

(19) Neurri bakoitzak 30 litro artzen zituan.  
(20) Ps. 77, 2.

aingeruak bidaliko ditu; ta bere Erreñuan diran gaiz-  
pide ta gaizkille guztiak bildu ta su-labera botako dituz-  
te: an izango da negarra ta ortz-karraska! Orduan, zint-  
zoak beren Aitaren Erreñuan, eguzkiak bezela, argi  
gingo dute. Entzuteko belarririk duanak, entzun beza».

112.—*Diru-poltsa ta arri dizdizaria* (Mt. 13, 44-46).

«Zeruko Erreñua, zelai batean ezkutatutako diru-pol-  
tsa bezelakoa da. Gizon batek arkitu, ta gorde egin zuan,  
eta pozez beterik ba-dijoa, daukan guztia saltzen du, ta  
soro ura erosten du. Eta, berdin, zeruko erreñua arri  
dizdizari billa dabillen erostunaren antzeko da. Arri eder  
bat billatuta, joan zan, eta zuan guztia saldurik, arri diz-  
dizaria erosi zuan».

113.—*Sarearen ipuya* (Mt. 13, 47-50).

«Era berean, zeru-erreñua, itxasora botata, arrai-mota  
guztietako arrayak bildu dituan sarearen antzekoa da.  
Beterik dagoanean, ateratzen dute, ta lur-ertzean ipiñita,  
onak otarrerako aukeratzen dituzte, ta txarrak kanpora  
bota. Alaxe gertatuko da gizaldiaren azkenean: Aingeruak  
irten, eta gaiztoak zintzoen artetik berezi, ta su-labera  
botako dituzte. Ango negarra ta ortz-karraskak!

114.—*Ipuyen amaya* (Mt. 13, 51-52).

«Guzti auek ulertu ta konprenditu al dituzute?»

«Bai, Jauna!», erantzun zioten.

«Beraz —diotsate Jesus'ek—, zeruko erreñuari buruz  
jakintsu dan iskribaua, bere ondasundegitik gauza zarrak  
eta berriak ateratzen dituan etxeko jaunaren antze-  
koa da».

### III.—JERASA'RA JOANALDI LABURRA

115.—*Ekaitza baretuta.*

(Mt. 8, 23-37; Mk. 4, 35-41; Lk. 8, 22-25)

Egun artan bertan, illunabarrean, Jesus'ek esaten die:  
«Goazen zingiraren beste aldera».

Ta jendetza utzirik, zegoan ontzian eramán zuten; ta  
beste ontzi batzuek ere jarraitu egin zioten. Eta bere



ikasleakin ontzian sartuta gero, itxasoratu egin ziran. Eta, ba-zijoazela, bat-batetan izugarritzko ekaitza sortu zan; olatuak ontziaren gañera ateratzen ziran, ontzia urez bete ta estaltzeraño, ta ontzia galzorian zebillen.

Jesus, berriz, ontziaren atzekaldean zegon, lo. Ta ikasleak Arengana joan eta esnatu egin zuten, esanaz: «Maixua! Galduak gera, Jauna! Salba gaitzazu. Ez al zaizu ajolik gu galduta ere?»

Orduan Jesus'ek: «Zeren bildur zerate, sinismen txikiko gizonak?»

Gero, jeikirik, aizeari ta itxasoari agindu zien esanaz: «Ixo ta geldi!»

Ta aizea gelditu zan eta barealdi ederra sortu zan. Eta esan zien: «Zergatik zerate orren bildurti? Non dezute zuen sinismena? Oraindioño ere ez al dezute sinisten?»

Eta gizon ayek, oso arrituta, alkarri ala esaten zioten: «Nor degu, aizea ta itxasoa ere mendean dauzkan au?»

116.—*Jesara'ko deabrudun bi.*

(Mt. 8, 28-34; Mk. 5, 1-20; Lk. 8, 26-39)

Itxasoa igarota, Jerasa'tarren lurraldera iritxi ziran, Galilea'ren aurrez-aurre. Eta ontzitik irten, eta oñak legorreen ipiñi ordukoxe, bi deabrudun, illobietatik irtenda, aurkeztu zitzaizkion; gaiztotzarrak biak; iñork etzuan kemenik bide artatik ibiltzeko, bildurraren-bildurrez. Aspaldian deabru zikiñak artuta, soñekorik eta etxerik gabe, illobietan bizi ziran, eta iñork ezin zituen katez lotuta ere euki. Sarritan, lokarriz eta katez lotuta egonarren, danak autsi ta iñork ezin zitzaizean menderatu. Baño, lokarriak ausita, deabruaren eragiñez, illobietara ta basoetara iges egiten zuten, ta gau ta egun, antsika ta arrika alkar joka ibiltzen ziran.

Eta urrutitik Jesus ikusi zutenean, korrika urreratu zitzaizkion, eta auzpezturik, eta deadarka esan zioten: «Jesus, Jaungoikoaren Seme! Zer ikusteko degu Zuk eta guk alkarrekin? Oñaze- neketan gu jartzera al zatozkigu, bear baño len? Ez gaitzazu, arren, naigabetu!»

«Irten zaitezte gizon oyengandik, deabru lizunok», esan zien Jesus'ek.

Eta galdetu zien: «Nola dezute izena?»

Eta ayek erantzun: «Taldea degu izena, asko gera-ta». Izan ere, ayekan etsai asko sartu ziran. Eta lurralde aye-tatik ez bialtzeko ta amildegira ez botatzeko, erreguz eskatzen zioten.

An inguruan txerri-talde aundi bat zebillen larrean. Eta etsayak eskatzen zioten esanaz: «Emendik botatzen ba'gaituzu, biali gaitzazu txerri-talde orrengana, oyetan sartu gaitezen». Eta baimena eman zien, esanaz: «Zoazte».

Orduan etsayak, gizonengandik irten eta txerrietan sartu ziran, eta txerri-talde osoa aldapa-bera itxasora amildu ta ito egin zan. Txerrizayak, berriz, gertatu zana ikusirik, iges egin zuten, eta inguruko errian dana esan zuten, etsaidunena ere bai.

Eta erriko guztiak Jesus'engana etorri ziran, gertatua zer zan ikastera; ta ikusi zuteneko, beren mugetatik alde egiteko erreguz eskatu zioten. Arenganaño urreratu ziran, berriz, etsai-mendean egonak billatu zituzten, Jesus'en oñetan exerita, jantzita, ta beren senera biurtuta; eta bildurtu egin ziran.

Gertatua ikusi zutenak, berriz, etsaidunena ta txerriena azaldu zieten. Eta beren mugetatik alde egiteko eskatu zioten Jesus'i Jesara-aldeko guztiak, bildur aundiz zeuden-da. Orduan Jesus, ontzira igota, biurtu egin zan. Eta ontzira igotzerakoan, etsaidun izandako batek, Jesus'i lagun egiten uzteko eskatu zion; baño, Jesus'ek etzuan onartu, ta bialdu egin zuan, esanaz: «Zoaz etxera, zure-tarrengana, ta agertu zayezu Jaunak egin dizun guztia ta zurekin izan duan errukia» (21).

Joan zan, bada, ta Jesus'ek egin zion guztia erri guztian eta Dakapoli'n zabaltzen asi zan. Eta guztiak arri-turik gelditzen ziran.

(21) Sendatuak, eskerrona agerturik, Jesus'i jarraitu nai izan zion; baño, beste eginkizunetara bialdu zuan. Bakoitzari bere bizibidea dagokio.

#### IV.—BERRIRO ERE GALILEA'N

##### 117.—*Jairo'ren alaba.*

(Mt. 9, 18-19; Mk. 5, 21-24; Lk. 8, 40-42)

Ontzian Jesus berriro beste aldera igaro zanean, Arengana gizatalde aundia etorri zan, guztiak zai zeuden-da. Jesus itxasondoan zegoan. Eta ba-dator Jairo zeritzan gizon bat, sinagogako nagusienetakoa, ta Jesus ikusirik, ofietara auzpeztu zitzaion, eta gurturik, bere etxean sartzeko eskatzen zion, amabiren bat urteko alabatxo bakarra il-zorian zeukala-ta. Ta erreguz, diotsa: «Jauna! nere alabatxoa azkenetan det; baño, atoz, eta eskua gainean ipiñi zayozu, sendatu ta bizi dedin».

Eta Jesus, altxata, arekin joan zan; eta ikasleak, ere, jarraitu egin zioten.

##### 118.—*Odol-jariodunaren sendaketa.*

(Mt. 9, 20-22; Mk. 5, 24-34; Lk. 8, 42-48)

Eta zijoala, jendetza aundiak jarraitu zion, alde guztietatik Bera estutuaz. Eta amabi urte ayetan odol-jarioz gaxo zegon emakume bat, osagille askorekin aibeste neke pasa, ta zituanak eralgi ondoren, ifioregandik osasuna iritxi gabe, obe bearrean okerrago zebillena, Jesus'en berri entzunda, Arengana atzetik, jendetzaren erditik urreraturik, soñeko-barrena ikutu zion <sup>(22)</sup>. «Soñekoa bakarrik ikutzen ba'diot, sendatuko naiz», bere barruan esanaz.

Ta odol-jarioa bertantxe legortu zitzaion, eta gaitzetik sendatu zala igarri zion, bere gorputzean.

Bere barrutik indarra atera zitzaionela Jesus'ek bere-alaxe ezagutu zuan, eta jendetzarengana biurtuta, zion: «Soñekoa nork ikutu dit?»

Eta guztiak ukatzen ziotela, ikasleak, eta Pedro'k eta onen lagunak ala ziotsaten: «Maixu! Estuka ta ito-bearrean zauka jendeak, eta alare, «nork ikutu nau» diozu?»

Ta Jesus'ek esan zuan: «Norbaitek ikutu nau, Nigan-dik indarra atera dala ezagutu det-eta».

(22) Emakume onen gaitza, legearen aurrean pekatu-kutsukoa zan. Orregaitik, etzion eskatu Jesus'i agirian osasuna, ixillean baizik.

Eta ikutu zuana ikusteko inguruan begira zebillen. Emakumea, berriz, ezkutatzetik ez zegoala oarturik, eta beragan gertatua ezaguturik, bildur-ikaraz etorri ta auzpeztu egin zitzaion, egia oso-osorik aitortzen ziola. Ta erri guztiaren aurrean esaten ari zan zergatik ikutu zuan, eta nola berealakoan sendatu zan azalduaz.

Eta Jesus'ek esan zion: «Uste on izazu, alaba; zure sinismenak sendatu zaitu; zoaz pakean, geldi zaitetz zure gaitzetatik sendatua».

Eta ordutikan emakumea sendatua arkitu zan.

##### 119.—*Jairo'ren alabaren piztuera.*

(Mt. 9, 23-26; Mk. 5, 35-43; Lk. 8, 49-56)

Oraindik itzegiten ari zala, sinagogako nagusiaren etxetik datozkio oni esaten: «Zure alaba il da. Zertarako nekatu bear dezu Maixua?»

Baño, Jesus'ek, ziotena entzun zuanean, neskatxaren aita zan sinagogako nagusiari diotsa: «Ez bildurrik izan; sinistu bakarrik, eta sendatuko da».

Eta iñor etzuan laguntzeko artu nai izan, Pedro ta Santiago ta Juan, Santiago'ren anaya besterik.

Sinagogako nagusiaren etxera iritxi ziranean, guztiak an negarrez eta samiñez zeuden; eta illeta-jotzalleak eta an bildu ziranen zalaparta ikusi zuanean, barrura sarturik, esan zien: «Zertarako aibeste zalaparta ta negar? Alde egin zazute; ez negarrik egin; neska ez dago ilda; lo dago» <sup>(23)</sup>.

Eta parra egin zioten, il zala ba-zekiten-da.

Baño, Bera, guztiai alde eraginda, nes karen aita-amak, ta Pedro, ta Santiago ta Juan, bere lagunak, artuta, neskatxa zegon tokira sartu zan. Ta neskatxari eskutik elduta, diotsa: «Talitha kum», edo berdina dana: «neskatxa! Zuri diotzut: jeiki zaitetz».

Eta arnasa berriro etorri zitzaion, eta berealaxe jaiki zan, eta ibiltzen asi zan, amabi urte zituan-da.

Neskatxaren gurasoak arrituta zeuden, eta beste guztiak ere ikaratuta gelditu ziran. Jesus'ek, berriz, iñori ez

(23) Berez ilda zegonarren, Jesus'entzat lo ba'lego bezela zan. Onegaitik izan zan ayen irri-parra egitea.



esateko ta iñork etzezala jakin gogor agindu zien. Eta neskaxari jaten emateko esan zien.

Baño, gertatutakoaren berria, lurralde guzti artan zabaldu zan.

120.—*Bi itxuren sendaketa* (Mt. 27-31).

Jesus andik irten zanean, bi itxuk jarraitu zioten, dea-darka esanaz: «Erruki zakizkigu, Dabid'en Seme ori!»

Eta etxera eldu ondoren, itxuak inguratu zitzaizkion. Jesus'ek esaten die: «Ori zuei egiteko gauza naizela uste al dezute?»

«Bai, Jauna!», erantzuten diote.

Orduan begiak ikutu zizkien, esanaz. «Sinisten dezuten bezela gerta bekizute».

Eta ayen begiak argituta gelditu ziran; eta Jesus'ek agindu zien: «Entzun! ez dezala, gero, iñork jakin».

Baño, ayek, irtenda, Aren (Jesus'en) izena lurralde guzti artan zabaldu zuten.

121.—*Jesus'ek deabrudun mutua sendatzen du.*  
(Mt. 9, 32-34)

Ayek irten ondoren, gizon mutu deabrudun bat ekarri zioten. Eta deabrua bota orduko mutuak itzegin zuan. Eta jendeak, arrituta, zion; «Ez da engundaño Israel'en orrelakorik ikusi izan».

Baño, pariseotarrak ala zioten: «Deabruen buru dalako botatzen ditu deabruak».

121.—*Jesus Nazaret'en, erakusten ari, ta ez dute onartzen.*  
(Mt. 13, 53-58; Mk. 6, 1-6; Lk. 4, 16-30)

Andik irtenda, Nazaret bere errira joan zan, Bera azi ta bizi izan zan tokira <sup>(24)</sup>; ta ikasleak jarraitu egin zioten. Eta bere errira iritxita, larunbatean sinagogan —oi zuanez— sarturik, erakusten asi zan; eta irakurtzera altxa zan. Isaias Igarlearen idaztia eman zioten. Eta zabalduzik, idatzitako zati au arkitu zuan: «Jaunaren Espiritua nere gañean; Berak bedeinkatu ta bialdu nau

beartsuai Berri Ona ekartzera, biotzgarbiak sendatzera, lotuai erospena (redentzioa) agertzera, itsuai ikusmena, menpekoai askatasuna iristera, ta Jaunaren grazizko urtea ta bidezko saria erakustera» <sup>(25)</sup>.

Eta idaztia bildu ta zaitzalleari biurtuta, eseri egin zan. Eta sinagogako guztiak Ari begira zeuden. Asi zan, bada, ayei esaten: «Gaur bete da or idatzita dagona zuen belarrietan».

Eta ziona guztiak ontzat artzen zioten, eta Aren aotik zerioten itz ederrakin arriturik zeuden; eta entzule askok, Aren erakutsiaz arrituta ala zioten: «Nondik datorkio ori guztia? Zer da orri eman zayon jakituria? Ta zer dira orren eskuz egindako mirari auek? Ez al da au arotza; arotzaren semea, Mariaren semea, Jakob, Jose, Juda ta Simon'en anaya? <sup>(26)</sup>. Onen arrea guztiak, ere, ez ote dira emen gurekin? Nondik datorkio, bada, ori guztia?»

Ta gizon gaiztotzat artzen zuten (gaitzpide ikusten zuten argan).

Jesus'ek ziotsaten: «Esaera zar au esango didazute, agian: «Sendagille!, senda zazu zure gaitza»; Kaparnaum'en egin omen dituzunak, egin itzazu emen zure errian ere».

Ta esan zien: «Benetan diotzuet: ez da igarlerik beñiere onartu bere errian, etxean eta senitartean. Benetan diotzuet: emakume asko ziran Israel'en Elias'en egunetan, iru urte ta sei illebetez zera itxirik zegoala, gosete gorria lurralde osoan izan zanean. Baño, Elias, etzan ayetako iñorengana bialia izan, Sidon'go Sarepta urira baizik, alargun batengana. Baita Eliseo'ren egunetan ere, ba-ziran lepradunak Israel'en; baño, ayetako iñor etzan garbituta gelditu, Naaman Siriatarra izan ezik» <sup>(27)</sup>.

Itz auek entzunda, guztiak sinagogan asarretu egin ziran; eta altxata, erritik kanpora bota, ta errian dagon mendi-tontorreraño eraman zuten, andik amildu-nayean. Bera, ordea, ayen artetik igarota joan egin zan.

(25) Is. 61, 1-2.

(26) Senide ta senitarteko esateko, *anai* itzaz azaltzen zuten. Emen izendatzen diranak, Jesus'en lengusuak ziran.

(27) Reg. 5, 14.

(24) Jesus Betleen'en jayo zan, baño Nazaret'en azi; orregaitik derizayoy Nazaret'i bere erria.

Eta ayen sinisogorkeriagatik, etzuan an miraririk asko egin (28); gaxo gutxi batzuek, orratik, eskuak ipiñita, sendatu zituan. Eta ayen sinisogorraz arrituta zegon. Eta inguruko alderdi guztietan ibilli zan erakusten.

123.—*Jesus'en erakusbidea ta apostoluen eginkizuna.*  
(Mt. 9, 35-38; 10, 1; Mk. 6, 6-7; Lk. 9, 1-2)

Jesus uri ta erri guztietan zebillen, ayen sinagogetan erakusten eta Zeru-erreñuaren Berri Ona zabaltzen, eta gaitz eta gaxo guztiak sendatzen. Eta jendetzak ikusirik, biotza mindu zitzyon, ardiak artzai gabe bezin nekatuak zeudelako. Orduan, bere ikasleai esan zien: «Uzta (29) ugaritsu da; langilleak, ordea, gutxi. Beraz, eska zayozute uzta-jabeari langilleak bere uztera bialdu ditzan».

Eta bere amabi ikasleai dei eginda, deabru guztien kontrako indarra ta eskubidea eman zizkien, ayek bota ta gaxotasun ta min guztiak sendatzeko. Ta binaka bialdu zituan Jaungoikoaren erreñua zabaltzera ta gaxoak sendatzera.

124.—*Amabientzako erakutsiak.*  
(Mt. 10, 5-15; Mk. 6, 7-11; Lk. 9, 3-5)

Jesus'ek amabiak bialdu zituan, agindu ta esaten zela: «Atzerrira ez joan, eta samaritarren errietan ez sartu (30). Zoazte, ordea, Israel'en etxeko ardi galduegana. Eta joan zaiteztenean, erakutsi zayezute, esanaz: «Zeruko erreñua bertan dago». Gaxoak sendatu itzazute; utsean artua utsean eman. Ez artu urrerik zuen gerrikoetan, ez zillarrik, ez txanponik. Etzazute ezer eramán, ez biderako zorrerik, ez ogirik, ez soñeko bi, ez oñetakorik; abarkak eta makilla, nai izan ezkeru, langilleari zor bait-zayo bere janaria». Ta ziotsaten: «Edozein uritan, naiz erritan sartu zaiteztenean, galde ezazute nor dan an aukerakorik; eta zaudete arenean irten arte. Ta etxean sartzean, egiezute agur angoai, esanaz: «Pakea etxe onen-

(28) Ez miraririk egiteko almenik etzualako, mirarien diña etziralako baizik.

(29) Uzta: soroan bildu bear dana: gari-uzta, garagar-uzta.

(30) Jesus bizi dala, lenengo bere erritarrai, judutarrai erakutsi nai die bere Berri Ona, osasuna ayengandik etorri bearra zandá.

tzat»; eta etxe aukerakoa ba'litz, zuen pakea betorkio gañera; baño, ala ez ba'litz, pakea zuengana biurtuko zaizute. Eta agian, norbaitek onartzen ez ba'zaituzte, ta zuen itzak entzun nai ez ba-litu, etxe edo erro artatik irteterakoan, zuen oñetako autsa ere astindu zazute, ayen kontra agerbide izan dedin. Benetan diotsuet: auzi-egunean, ohea izango da Gomorra'ren zoria, arako erriarena baño».

125.—*Lanerako beste erakutsi batzuek* (Mt. 10, 16-23).

«Orra, Nik, ardiak otso-artera bezela bialtzen zaituztet; subeak bezin zuur izan zaitezte, beraz, eta usoak bezin tolesgabe. Gizonen aurrean, zaitezte zuur; batzarretan salatu ta beren sinagogetan zigortu egingo zaituzte-ta; eta nagusi ta erregeengana eramanak izango zerate, ayei ta atzerritarrai nere aitormena emateko. Salatu zaitzate-nean, berriz, ez asi zer ta nola esango dezuten asmatzen; orduantxe agertuko zaizute-ta zer esan; itz egiten duana, ez zerate zuek izango, Aitaren Espiritua baizik zuengan itzegingo duana.

Anayak anaya salatuko du eriotzerako, ta aitzak semea; ta semeak gurasoen aurka altxako dira, ta il ere egingo dituzte. Eta nere Izenagatik guztiak gorroto izango dituzte: baño, azkeneraño iraun dezana salbatuko da. Eta uri ontan erasotzen dizutenean, beste batera iges egin zazute; benetan diotzuet: ez dituzute Israel'go erri guztiak arakatuko, Gizasemea etorri baño len» (31).

126.—*Noiznairako erakutsi geyago* (Mt. 10, 24-42).

«Ez da ikaslea maixua baño geyago; ezta morroya ere nagusia baño geyago; ikasleak naikoa du bere maixua bezelakoa izatea, ta morroyak ere bai nagusia bezelakoa izateko. Etxeko jaunari Beelzebul (deabru) izena ipiñi ba'diote, zenbat geyago aren etxekoai?»

Ez izan, bada, ayen bildur; ezer ere ez dago gordeta, agiriko izango ez danik; ezta ezkuturik ere jakingo ez

(31) Au da: izango dituzte uriak gordetzeko ta erakusteko. Jesukristo'ren etorrera, Jerusalem'go ondamedia dala dirudi. 70'garren urtean gertatu zan.



danik. Illunpean esaten dizutedana, esazute argitan; eta aotik belarrira entzuten dezutena, esan zazute etxegañetik deadarka. Gorputza iltzen dutela, animarik ezin il dutenen bildur ez izan; anima ta gorputza su-leizera bota ditzakenaren bildurrago izan zaitezte. Txori-parea ez al da ardit batean saltzen? Ala ere, ez da oyetako bat ere lurrera eroriko, zuen Aitak nai ezik.

Eta zuei dagokizutenez, zuen buruko ille guztiak ere kontatuak daude. Beraz, ez bildur izan; zuek txori-pilla baño obe zerate. Gizonen aurrean aitortzen nauana, Nik ere aitortuko det zeruko nere Aitaren aurrean. Gizonen aurrean ukatzen nauana, berriz, Nik ere ukatu egingo det zeruko nere Aitaren aurrean.

Ez uste izan lurrera pakea ekartzera etorri naizenik<sup>(32)</sup>; pakea ez, ezpata baizik. Semea aitarengandik, eta alaba amarengandik, eta erraña amagiarrenarengandik banatzera etorri naiz-ta. Eta gizonaren etsayak, bere etxeokak. Aita, naiz ama, Ni baño maiteago duana, ez da Neretzako lain. Eta bere gurutzea artuta, jarraitzen ez didana, ez da Neretzako lain. Bere burua billatzen duanak, galdu egingo du; ta bere burua Nigatik galtzen duanak, arkitu egingo du.

Zuek artzen zaituztenak Ni artzen nau; ta Ni artzen naunak, bialdu nauna artzen du. Igarlea igarletzat artzen duanak, igarle-saria jasoko du; ta zintzoa zintzotzat artzen duanak, zintzo-saria jasoko du. Ta txiki auetako bati, ontzikada ur otz, ikasle antzean ematen dionak, benetan diotzuet: ez du bere saria galduko.

127.—*Jesus eta apostoluak erakustera.*

(Mt. 11, 1; Mk. 8, 12-13; Lk. 9, 6)

Agindu auek bere ikasleai emanda gero, Jesus Berri Ona ango errietan erakustera ta zabaltzera joan zan andik. Baita ikasleak ere, urtenda, erririk erri zebiltzan, Berri Ona zabaltzen, damua erakusten. Eta deabru asko botatzen zituzten nonnai, eta gaxo asko igurtzi ta sendatzen zituzten<sup>(33)</sup>.

(32) Jesus eta bere aldekoak ezetsiak eta jazartuak izango dira lur ontan. Orrexe gaitik dio etzala lurrera bakea ekartzera etorri.

(33) Eguzki-sortzaldean erabiltzen zuten sendakai bat olioa zan. Baño,

128.—*Jesus'en izena Erodos'enganaño.*

(Mt. 14, 1-2; Mk. 6, 14-16; Lk. 8, 7-9)

Aldi artan entzun zuan Jesus'en izena Erodos Erregeak, Ark egiten zuan guztiaren ospea, Jesus'en izena entzutetsu egin zan-da. Erodos'ek, berriz, bere morroyai esan zien: «Juan Batayatzallea da ori; illen artetik piztu da, ta orregatik ari da orrenbeste mirari egiten».

Beste batzuek zioten: «Elias da». Ta beste batzuek: «Igarlea da, antziñako beste igarleren bat bezela». Baño, Erodos'ek au entzunda, zion: «Au Juan Batayatzallea da; lepoa moztu nion Juan ber-bera da, illen artetik piztuta». Baita au ere esan zuan: «Juan'i lepoa nik moztu nion; orrelakoak egiten ari dala entzun dedan ori, ordea, nor da?»

Ta Ura, (Jesus) nondik ikusiko zebillen.

129.—*Juan Batayatzallearen eriotza.*

(Mt. 14, 3-12; Mk. 6, 17-29)

Izan ere, Erodos'ek berak Juan lotu ta giltzapean sartu zuan, bere anai Pilipo'ren emazte Erodias'engatik eta onen ederragatik, «Anayaren emaztea eukitzea etzaizu zillegi (libre)» esaten bait-zion Juan'ek. Orregatik, Erodias azpi-jorran zebilkion bizia kendu-naiean; baño, ezin. Erodos'ek Joan gizon zintzo ta jatortzat zeukan, eta bildur zion; eta il naita ere, erriaren bildur zan, igarletzat zeukatelako; ta bere babesean zeukan; aren burubidez gauza asko egiten zituan eta ark esaten ziona gogo onez entzuten zion.

Baño, egun egokia eldu zan, eta Erodos'ek bere jayotegunean Galilea'ko nagusi ta aundikiak bazkari aundi bat eman zien. Erodias'en alaba an sartu ta erdian dantzan egiñez, Erodos'ek eta maikideak atsegiñez ikusirik, erregek neskari ala esan zion: «Eskatu nai dezuna ta emango dizut». Eta zin egin zion: «Eskatzen didazuna emango dizut, nai eta nere erreñuaren erdia izan».

Neskak, andik irten, eta amari esan zion: «Zer eskatuko diot?».

apostoluak etzuten sendakai bezela, miragille bezela baizik.

Eta amak esan zion: «Juan Batayatzallearen burua». Ta erregearengana joan bizkor, eta eskari au egin zion: «Juan'en burua oraintxe plater batean neri ematea nai det» (34).

Erregea itun (triste) gelditu zan; baño, egindako zibagatik eta mai-lagunagatik, etzuan neska ura atsekabetu nai izan; eta morroi bat bialduta, aren burua plater batean ekartzeko agindu zion. Morroyak, joanda, espetxean lepoa moztu zion, eta burua platerean ekarririk, neskari eman zion, eta neskak amari. Au jakinda, Juan'en ikasleak etorri ta aren gorputza illobira eraman zuten .Eta berria Jesus'i eramatera joan ziran.

130.—*Jesus, apostoluakin Betsaida-ondoko baso batera joaten da* (Mt. 14, 13; Mk. 6, 30-32; Lk. 9, 10; Jn. 6, 1).

Berri auek entzuteaz batera, Apostoluak biurto zitzaizkion, eta berak egin eta erakutsi zutena azaldu zioten. Eta Jesus'ek esaten die: «Atozte zuek bakarrik baso-aldera, atsedean pixka bat artu dezazuten».

Joan-etorri zebiltzanak asko ziran, eta jateko astirik ere etzuten artzen. Eta txalupan sarturik, Betsaida-ondoko baso-arte ezkutu batera baztatu ziran, Tiberiades eta Galilea-itxasoz beste aldera.

## V.—BETSAIDA'KO BASAMORTURA

131.—*Lenengo ogi-banatzte ugaritsua.*

(Mt. 14, 13-23; Mk. 6, 33-46; Lk. 9, 11-17; Jn. 6, 2-15)

Eta askok joaten ikusi zituzten, eta nora zijoazen jakin zuten. Orduan, erri guztietatik oñez ara joanik, Jesus baño len iritxi ziran. Eta jendetza aundiak jarraitzen zion, gaxoetan egiten zituan mirariak ikusirik. Txalupatik irtenda, mendira igo zan, eta an bere ikasleakin exeri egin zan. Judutarren Pazko-jaya laxter zan. Jesus'ek begiak jaso, ta ainbesteko laguntaldeak jarraitu ziola ikusirik, biotza bigundu egin zitzaion, artzai gabeko ardiak bezela zebiltzalako; eta Berak arrera ona egin zien. Eta

(34) Itxuraz, maiko plater bat artu ta burua antxe ekarri zezayola eskatu zion.

ikasleak asko ematen asi zitzaion, eta zeru-erreñuaz itzegiten; eta osasun-bearrean zeudenak sendatu egiten zituan.

Ontan, eguna illuntzen asi zan; eta berandu zala-ta, ikasleak inguratu zitzaizkion esanaz: «Baso artea da leku au, ta berandu da; bialdu itzazu inguruko errixka ta baserrietara joanda, bear duten jateko apur bat erosi dezaten».

Jesus'ek diotse: «Ez dute joan bearrik; jaten zuek eman bear diezute».

Ayek esaten diote: «Goazen, ba, gu berreun denario ogi erostera, auei jaten emateko» (35).

Jesus'ek diotsa Piliperi: «Ogiak non erosiko ditugu auek jan dezaten?»

Ori zirikatzeke esaten zion, bait-zekin Berak zer egin bear zuan.

Pilipek erantzun zion: «Berreun denarioren ogiak ez dira naikoak, bakoitzak ogi puska bana jateko».

Eta Jesus'ek diotsa: «Zenbat ogi daukatzute? Zoazte ta ikusi».

Ikusi-ta gero, ikasleatoko batek, Andres'ek, Simon Pedro'ren anayak esaten dio: «Bost garagar-ogi ta bi arrai daukan mutil bat ba-dago emen; baño, zer dira oyeek orrenbesterentzako?»

Ark esan zien: «Ekarri izkidazute onera». Eta gero: «Agindu zayezute eseri ditezela».

Toki ura belartsua zan (36), eta bost millaren bat gizon eseri ziran, eun da berrogeita amarnaka.

Artu zituan, bada, Jesus'ek bost ogiak eta bi arrayak, eta zerurontz begiak jasorik, bedeinkatu zituan. Eta eskerrak emon ondoren, ogiak ebaki ta bere ikasleai eman zizkien, eta ikasleak gizataldeari, ta eserita zeudenen artean banatu zituzten; eta beste orrenbeste egin zuan arrayakin ere, bakoitzari nai aña emanaz. Eta guztiak jan zuten eta bete ziran.

Eta bete ziranean, bere ikasleai esan zien: «Bildu itzazute gelditu diran puskak, ezer galdu ez dedin».

(35) Denario: pezeta batek baño pixka bat gutxiago balio zuan; berreun denariok, 180 pezeta inguru.

(36) Udaberria zan.



Bildu zituzten, bada, ta ainbeste lagun ase ondoren, bost ogi ta bi arrayen kondarrez, amabi otarkada bete zituzten. Jan zutenak, berriz, bost milla gizon izan ziran, emakumeak eta umeak zenbatu gabe.

Gizon ayek, Jesus'ek egindako miraria ikusirik, alkarri ziotsaten: «Auxe da benetan lurrera etortzekoa dan igarlea» (37).

Baño, Jesus'ek Errege egin nai zutela igarri zionean, bereala ikasleak txalupan sarrerazi, eta beste aldera, Betsaida'runtz, Bera baño len joan zitezela agindu zien, Berak gizataldea etxeruntz bialtzen zuan bitartean.

Gizataldea bialdu zuanean, berriz, bakar-bakarrik mendira iges egin zuan berriro, otoitz egitera. Eta illundu zanean, Jesus bakar-bakarrik zegon an.

## VI.—BERRIRO GALILEA'N

132.—*Jesus itxaso-gañean ibilli. Bigarren aldiz ekaitza baretzen du* (Mt. 14, 24-33; Mk. 6, 47-52; Jn. 8, 16-21).

Arratsaldean, ikasleak itxasora jetsi ta ontzian sartuta, itxasoz beste aldera zijoazen, Kaparnaun'eruntz. Eta illuna etorri zan; baño, Jesus etzan ayengana etorri. Berandu zan eta ontzia itxas-erdian zijoan, eta Jesus bakarrik zegon legorrean. Eta itxasoa, aize aundiz arrotuta, asarretzen ari zan. Ontzia, berriz, olatuak itxas-barruan danbaka zerabilten. Eta aizea aurretik zutela, ta ontzikoak arraunka nekatu rik zeudela Jesus'ek ikustean, laugarren gau-aldian edo (38), ur-gañean oñez etorri zitzaizen, eta atzean uztera bezela egin zien. Ogeitabost-ogeitamar estadio (39) arraunean aurreratu ziranean, Jesus ikusten dute ur-gañean oiñez ta ontzira urreratzen. Ayek, ordea, ur-gañean ibiltzen ikusi zutenean, mamu-zomorroa zala uste izan zuten, eta ala zioten: «Mamua da».

(37) Deuteronomio deritzan liburu santuan aitaturako «Igarlea». Igarlea au zan erriak Mesias'tzat zeukana. Jesus'ek ez du nai erri-goraltzarik eta iges egiten du.

(38) Lau alditan zatitzen zuten len gaua: laugarren gau-aldia goizeko irurak inguruan asten zan.

(39) Estadio: 185 metroko bidea.

Ta dedarka asi ziran: ura ikusirik, guztiak bildurtu egin ziran-da. Bereala Jesus'ek itz egiñaz, esaten die: «Ez ikaratu, Ni naiz; izazute uste on».

Orduan Pedro'k erantzun eta esan zion: «Jauna, Zu ba'zera, agindu idazu ur-gañean Zugana joateko».

Jesus'ek esan zion: «Atoz».

Ta Pedro, ontzitik aterata, ba-zijoan ur-gañean Jesus' engana. Baño, aize zakarra ikusirik, bildurtu egin zan, eta murgiltzen asi zanean, dei egin zion, esanaz: «Jauna!, salba nazazu».

Eta, berealaxe Jesus'ek, eskua luzaturik, eldu ta esan zion: «Zergatik euki dezu zalantza, sinismen otzeko orrek?»

Beraz, ontzian artu zuten; eta igo zanean, aizea gelditu egin zan. Eta, ontzian zeudenak, Arengana urreraturik, gurtu egin zuten, esanaz: «Jaungoikoaren Semea zera Zu benetan!»

Eta, orduan geyago arritu ziran, ogien miraria ez bait-zuten ulertu (40); ayen biotzak itxututa zeuden.

Eta zijoazen lurraldera laxter iritxi zan ontzia.

133.—*Jenesaret'en: ainbat mirari.*

(Mt. 14, 34-36; Mk. 6, 53-56)

Legorrera aterata, Jenesaret'era joan eta an gelditu ziran. Ontzitik irtenda, angoak bereala ezagutu zuten, eta berria lurralde guzti artan ezabaldtu zuten, eta ingurueta-ko gaxoak zerraldoetan ekartzen asi zitzaizkion Bera zegoan tokira. Eta erri txiki, uri, naiz baserriren batera irixten zaneko, gaxoak kaleetara ekartzen zizkioten, besterik ezean, Aren soñeko-barrena ikutzen uzteko erreguz; ta ikutzen zuten guztiak osatu egiten ziran.

134.—*Jendea Jesus'en billa. Bera Kaparnaun'era.*

(Jn. 6, 22-25)

Biamamonean, beste itxasertzeko jendea an ontzi bat besterik etzegoala oartu zan, eta Jesus etzala bere ikasleakin sartu; ikasleak bakarrik joan zirala. Baño, beste ontzi batzuk Tiberiades'tik etorri ziran, Jaunak otoitz eginda ogia jan zuten tokira.

(40) Ogien miraria ta beste batzuk ikusiarren, etzuten Jesus ulertzen.

Beraz, Jesus an etzala, jendea konturatu zanean, eta ikaslerik ere ez, ontzietara igo ta Kaparnaun'era jo zuten, Jesus'en billa.

135.—*Jaungoikoaren ogia* (Jn. 6, 25-33).

Itxasoaren beste aldean billatu zutenean, esan zioten: «Maixua! Noiz etorri zera onera?»

Jesus'ek erantzun eta esan zion: «Bene-benetan diotzuet: ogiak jan eta bete zifiatelako zabilzate nere billa, ez mirariak ikusi zenituztelako (41). Lan egizute, ez alperrik galtzen dan janariagatik, Gizasemeak emango dizutenagatik baizik: auxe da Jaungoiko Aitak bere ezaugarritz izendatua-ta (42). Esan zioten, beraz: «Jaungoikoaren bideetan sartzeko, zer egin bear degu?»

Jesus'ek erantzun eta esan zien: «Auxe da Jaungoikoaren eginbidea: Berak bialdu duana sinistu dezazutela.»

Eta ayek esan zioten: «Baño, zer mirari egiten dezu Zuk, ikusi ta sinistu dezagun? Zer egiten dezu? Gure aurrekoak basamortuan mana jan zuten idatzita zegoenez: «Zerutik jetxitako ogia eman zien jateko» (43).

Jesus'ek esan zien: «Bene-benetan diotzuet: zerutik jetxitako ogia etzizuten Moises'ek eman; zerutik datorren benetako ogia nere Aitak ematen dizute: zerutik jetxi ta gizonari bizia ematen diona; auxe da-ta Jaungoikoaren ogia».

136.—*Jesus Bera da Jaungoikoaren Ogia* (Jn. 6, 34-47).

Orduan esan zioten: «Jauna, eman iguzu beti ogi ori».

Eta Jesus'ek esan zien: «Bizitza-Ogia Ni naiz: Nigana datorrena ez da gose izango; ta sinisten didana ez da bein ere egarri izango. Baño, esan dizutet: ikusi nauzute ta ez dezute sinisten. Aitak eman didan guztia, Nigana etorriko da, ta Nigana etortzen dana, ez det baztarrean utziko, ez naiz zerutik nere gogoa egiteko jetxia-ta, biali nauanarena egiteko baizik. Ta auxe da biali nauan Aita-

(41) Ogien banaketa ugaritsua dala-ta, Jesus'ek Eukaristia iragartzen du.

(42) Mirarien ezaugarritz eta Jordan'eko zerutar abotsez berezia ta izendatua izan zan.

(43) Ps. 77, 24.

ren gogoa: eman didan guztitik, Nik ezertxo ere ez dezadala galdu, azken-egunean berpiztu dezadala baizik. Nere Aitaren asmoa auxe da-ta: Semea ikusi ta Onen sinismena duanak, betiko bizitza izan dezala, ta Nik berpiztu dezadala azken-egunean».

Judutarrak, ordea, Artzaz mar-marka ari ziran, «Ni naiz zerutik jetxitako Ogia», esan zualako. Eta ala zioten: «Ez ote da au Jesus, Jose'ren semea, ta onen aita ta ama ez ote ditugu guk ezagutzen? Nolatan dio, ba: «Zerutik jetxi naiz?»

Baño, Jesus'ek erantzun eta esan zien: «Ez egin mar-mar alkarrekin. Ezin etorri diteke ifior Neregana, biali nauan Aitak ekartzen ez ba'du; eta Nik berpiztuko det azken-egunean. Igarleetan idatzita dago: «Jaungoikoaren ikasle izango dira guztiak (44). Aitari entzunda, Aren erakutsiak onartzen dituana, Nigana dator. Aita ez du ifiorik ikusi, ez; Jaungoikoagandik sortuak baizik: Onek, bai, Aita ikusi du. Bene-benetan diotzuet: Nigan sinisten duanak, betiko bizitza du».

137.—*Eukaristia agirian agintzen du* (Jn. 6, 48-59).

«Bizitza-Ogia Ni naiz. Zuen aurrekoak basamortuan mana janda ere, il egin ziran; auxe da zerutik jetxitako ogia, jaten duana il ez dedin. Ni naiz zerutik jetxitako ogi bizia; ogi ontatik jaten duana, betiko biziko da; eta Nik emango dedan ogia, munduaren bizirako Nere aragia da».

Judutarrak alkarrekin eztabaidan asi ziran, esanaz: «Onek nola eman dezaiguke Bere aragia jateko?»

Eta Jesus'ek esan zien: «Gizasemearen aragia jaten eta Aren odola edaten ez ba'dezute, ez dezuten zuengan bizitzarik izango. Nere Aragia jaten eta nere odola edaten duanak, betiko bizitza du; ta Nik berpiztuko det azken-egunean. Nere aragia benetan janaria, ta Nere odola benetan edaria da-ta. Nere aragia jaten eta nere odola edaten duana, Nigan dago ta Ni beragan (45).

(44) Is. 54, 13; Jer. 31, 33-34.

(45) Ogi au jaten duana, Kristo'rekin bat-bat egiten da, Arengandik jaungoizko bizia arturik.



Ni biali nauan Aita bizi dan bezela, ta Ni Aitagan bizi naizena bezela, Ni jaten nauana ere, Nigandik biziko da. Auxe da zerutik jetxitako ogia; ez zuen asabak basamortuan jan zuten mana bezelakoa, ta il egin ziran; ogi au jaten duana, betiko biziko da».

138.—*Itzaldiaren ondoreak* (Jn. 6. 60-72).

Itz auek Kaparnaun'en esan zituan, sinagogan erakusten ari zala. Bere ikasleetako askok, itz auek entzunda, esan zuten: «Onek diona gogorra da; ta nork entzun dezake?»

Baño, Jesus'ek, bere ikasleak onetzaz marmarrean ari zirala ezaguturik, esan zien: «Onetzaz gaizpidea artzen al dezute? Eta Gizasemea len zegoen tokira igotzen ikusiko ba'zenuteke? Bizia espirituak ematen du; aragia ez da ezertako. Nik esan dizkitzuedan itzak gogo ta bizitza dira. Baño, badira zuen artean, sinisten ez duten batzuk».

Jesus'ek asieratik bazekin sinisten etzutenak zein ziran, baita salduko zuana ere zein zan. Eta zion: «Onexegatik esan dizutet: Ezin etorri diteke Nigana inor, bidali nauan Aitak ekartzen ez ba'du».

Au ezkerro (46), ikasle asko atzeratu zitzaizkion; eta andik aurrera etziran Arekin ibilli.

Orduan, Jesus'ek amabiai esan zien: «Zuek ere alde egin nai al dezute?»

Eta Simon Pedro'k erantzun zion: «Jauna! Norengana joango gera? Zuk, betiko bizitzarako itzak dituzu: eta guk ezagutu ta sinistu degu Zu Jaungoikoaren Seme, Kristo'a zerala».

Jesus'ek erantzun zien: «Ez al zaituztet amabi aukuratu? Ta ala ere, zuetako bat deabru da».

Simon'en seme Judas Iskariotes'engatik zion: Jesus saldu zuan amabietako bat zand-a ura.

(46) Au ezkerro: ontxegatik eta une ontatik bertotik.

## Irugarren urtea

139.—*Iskribau ta pariseotarrakin eztabaidan.*

(Mt. 15, 1-9; Mk. 7, 1-13; Jon, 7, 1)

Arrezkerro Jesus Galilea'n zebillen; judutarrak Bera iltzeko asmoetan zeudelako, etzuan Jesus'ek Judea'ra jon nai-ta.

Orduan, pariseotarrak eta Jerusalem'dik etorritako iskribau batzuk, guztiak alkar artuta, etorri zitzaizkion. Eta Aren ikasleetako batzuek ogia eskuak garbitu gabe jaten zutela ikusirik, aurpegira bota zioten. Pariseotarrak eta beste judutar guztiak, aurrekoen oiturari eutsirik, ez dute jaten, eskuak urez askotan garbitu gabe; ta etxez kanpotik etorritakoan ere, ez dute jaten lenengo beren burua urez garbitu gabe. Onelako beste gauza asko ere egiten dituzte oituraz: edateko ontzien eta pitxarren eta aulkien garbiketak.

Beraz, pariseotarrak eta iskribauak galdetu zioten, esanaz: «Zure ikasleak, zer dala-ta, austen dituzte asaben oiturak? Ogia jaterakoan ez dute eskurik garbitzen!» (47).

Baño, Jesus'ek erantzunaz, esan zien: «Zuek, berriz, Jaungoikoaren agindua, zer dala-ta austen dezute zuen oituragatik? Azalutsok! Zuei buruz ederki iragarri zuan Isaias igarleak, idatzita dagoanez: «Erri onek ezpañez goratzen nau, baño bere biotza Nigandik urruti dauka;

(47) Eskuak garbitu gabe jatea, judutarrentzat pekatu aundia zan; baño, lege ori etzuan Jaungoikoak eman; berak asmatua zan. Beraz, ikasleak etzuten legea austen. Beste orrenbeste ontzien eta janarien garbiketari dagokionez ere.

alperrik goratzen naute, gizonen aginduak eta erakutsiak zabalitzen ari dira-ta» (48).

Jaungoikoaren agindua alde batera utzi, ta gizonen aginduari eusten diozute; pitxarrak eta ontziak garbitu, ta onelako beste gauza asko egiten dituzute».

Eta esaten zien: «Jaungoikoaren agindua austen dezute zuen oiturari eusteko. Jaungoikoak esana da Moises'en bidez: «Zure aita ta ama goretsi itzazu»; eta beste au: «Bere aitari naiz amari biraoa esaten diona, eriotzaz il bezate» (49). Zuek, berriz, diozute: «Norbaitek bere aitari naiz amari esaten ba'dio: Nigandik izan bear zenuken laguntza guztia *Korban* da (alegia: Jaungoikoari eskeñia dago), ez du besterik zor, ez du bere aita naiz ama geyago goretsi-bearrik (50); eta ez diozute uzten bere aitari edo amari besterik egiten. Eta orrela, Jaungoikoaren itza zuen oituraz austen dezute. Eta beste gauza asko ere, orrelaxe egiten dituzute».

140.—*Garbia, ta garbia ez dana.*

(Mt. 15, 10-20; Mk. 7, 14-23)

Eta Beragana jendeari dei egiñik, esan zien: «Entzun guztiok eta ulertu: Aotik sartzen danak ez du iñor zikintzen; aotik irteten danak baizik; onek bai, zikintzen du gizona. Entzuteko belarririk duanak, entzun beza» (51).

Eta jendetza utzi ta etxean sartu zanean, ikasleak inguratu ta esan zioten: «Zure itzok entzunda, pariseo-tarrak samindu dirala ba al dakizu?»

Baño, Arek erantzun zien: «Zeruko nere Aitak sartu ez duan landarea, zuztarretik aterako da. Utzi zayezute: itxuak dira ta itxumutil. Eta itxu batek beste itxua zuzentzen ba'du, biak eroriko dira zulora».

Orduan, Pedro'k itz egin eta esan zion: «Azaldu iguzu ipuin ori».

Eta Jesus'ek erantzun zion: «Zuek ere oraindiño adi-

(48) Is. 39, 13.

(49) Ex. 20, 12, eta 21, 17.

(50) Gurasoai bizitzeko bear zutena ukatu ta Jaungoikoari eskeintzea, etzan bide zuzena. Iskribauak zioten opari onek balio zuala; baño, berak ere etzuten betetzen.

(51) Eta ulertu beza.

men-gabe al zerate? Ez dezute ulertzen aotik sartzen danak gizona ezin dezakela zikindu? Ez da-ta biotzean sartzen; sabelera jetxi ta gero gorotzegira botatzen da. Janari guztiak orrelaxe garbitzen dira».

Ta zion: «Aotik irteten diranak, ordea, biotzetik irteten dira; auek bai zikintzen dute gizona: gogorapen gaiztoak, ezkontza-austeak, aragikeriak, gizon-iltzeak, lapurretak, gezurrezko testigutzak, zekenkeriak, gaiztake-riak, maltzurkeriak, lizunkeriak, bekaizkeriak, biraoak, arrokeria ta zorakeria, gizonen biotzetik irteten dira-ta. Gaitz guzti auek barrutik irteten dira, ta auetxek zikintzen dute gizona. Baño, eskuak garbitu gabe jateak, ez du gizonik zikintzen».

## I.—FENIZIA, DEKAPOLI TA ZESAREA'RA IBILLALDIA

141.—*Jesus'ek kanaandar emakumearen alaba sendatzen du* (Mt. 15, 21-28; Mk. 7, 24-30)

Andik irtenda, Tiro ta Sidon'go baztarretara alde egin zuan. Etxe batean sartu zan, eta etzuan nai Bera non zegoan iñork jakiterik. Baño, ezin gorde zitekean.

Alaba deabru zikiñez zeukan kanaandar emakume batek, Aren berri entzun zuanean, alde ayetatik irten, eta deadarrez esaten zion: «Jauna! Dabid'en Seme ori!, erruki zakizkit; nere alaba deabruak oñazetan dauka!»

Jesus'ek etzion itzik erantzun. Eta Aren ikasleak urreraturik, erreguz esan zioten: «Bialdu zazu amakume ori, ondotik ojuka datorkigu-ta».

Jesus'ek erantzun zien: «Israel-etxeko ardi galduakana bakarrik biali naute».

Baño, emakumea —atzerritarra zan bera, Sirofenizitarra— joan zitzaion eta Aren oñetan auzpezturik, gurtu egin zuan, esanaz: «Jauna! lagun zaidazu».

Ta bere alabagandik deabrua botatzeko eskatzen zion. Jesus'ek erantzun eta esaten dio: «Utzi aurrena semeak ase ditezen; ez da on umeai ogia kendu ta txakurrai botatzea-ta» (52).

(52) Jaungoikoaren etxeko umeak: judutarrak. Txakurrak, berriz, atze-



Emakumeak erantzun zion: «Bai, Jauna, bai; baño txakurkumeak ere, maipean etxeko jaunen eta umeen apurrak jaten dituzte».

Orduan Jesus'ek esan zion: «Emakume!, aundia da zure sinismena; egin dedilla zuk nai dezuna. Zoaz; irten du deabruak zure alabarengandik».

Ta alaba orduantxe sendatu zan. Etxera joanda, neskatxa oyezan etzanda arkitu zuan; eta deabruak utzita.

142.—*Jesus'ek gizon gor-mutua sendatzen du.*  
(Mk. 7, 31-37)

Gero, Tiro'ko alderdietatik irtenda, Sidon'en zear Galilea'ko itxas-aldera jo zuan, Dekapoli-mugetatik barrena (53). Eta gizon gorra ta mutua ekarri zioten, aren gañean eskuak ipintzeko Jesus'i eskatzen ziotela. Onek, gizona artu, ta jende-artetik alde egiñik, mutuaren belarrietan beatzak sartu ta mingaña txistuz igurtzi zion; gero, zerura begiraturik, eta antsi egiñaz, diotsa: «*Ephphata*, au da: zabaldu zaitezte».

Ta berealakoan aren belarriak zabaldu ta mingain-lokarria askaturik, garbi itz egiten asi zan. Eta iñori ez esateko agindu zien; baño, Jesus'ek gogorrago agindu, ta besteak geyago zabaltzen zuten. Arriturik zeuden, eta zioten: «Dana ondo egin du; gorrai entzutea ta mutuai itz egitea eman die».

143.—*Beste gaxo asko sendatzen ditu* (Mt. 15, 29-31).

Jesus, mendi batera igo, ta antxe eseri zan. Eta jendetza aundiak inguratu zitzaizkion, mutu, itsu, erren, elbarri ta beste gaxo asko berakin zeramazkitela, ta Aren oñetan ipiñi zituzten; eta Jesus'ek sendatu egin zituan. Jendetzak, berriz, arriturik zeuden, mutu ayek itz egiten, errenak bizkor ibiltzen eta itsu ayek ikusten somaturik; eta Israel'en Jaungoikoa goratzen zuten.

rritarrak. Eta emakume ori atzerritarra zan. Etorriko zan oyentzat ere sendatzeko ta salbatzeko ordua.

(53) Dekapolis: amar errik osatzen zuten.

144.—*Ogien eta arrayen bigarren ugaritzea.*  
(Mt. 15, 32-38; Mk. 8, 1-8)

Jendetza aundia zegon berriro ere egun artan, eta jatekorik etzuten. Eta Jesus'ek bere ikasleai dei egiñik, ala esan zien: «Erruki det jendetza au; iru egunotan Nerekin dabilta ta jatekorik ez dute. Ez ditut etxera baraurik bialdu nai, bidean ondoezik geldi ez ditezen, batzuek urrutitik etorri dira-ta».

Ikasleak erantzun zioten: «Nondik aterako degu basamortu ontan jendetza ori asetzeko ainbeste ogi?»

Jesus'ek galde egin zien: «Zenbat ogi daukazute?»

Eyeak erantzun zioten: «Zazpi, ta arrai txiki batzuk».

Eta jendetzari lurgañean esertzeko agindu zion. Gero zazpi ogiak eta arrayak artuta, eskerrak emanaz, zatitu ta bere ikasleai eman zizkien, eta ikasleak jendeari. Guztiak jan zuten eta ase ziran; eta gelditu ziran pusketakin zazpi otar zituzten. Jan zutenak lau milla-edo gizon ziran, umeak eta emakumeak zenbatu gabe. Eta bialdu egin zituan.

145.—*Pariseotarrak ezaugarri-eske.*

(Mt. 15, 39; 16, 14; Mk. 8, 10-13)

Eta jendetza bialduta, bereala bere ikasleekin ontzi batean sartu, ta Dalmanuta edo Magadan aldera joan zan.

Eta pariseotarrak eta sadukeotarrak Jesus'engana zirikatu-nayean urreratuta, Arekin eztabaidan asi ziran, zeruko mirari bat aspikeriz eskatzen ziotela.

Jesus'ek erantzun eta esan zien: «Arratsaldea etorri, ta ala diozute: Eguraldi ona izango da, ortzea gorri-gorri da-ta. Goizean, berriz: Gaur ekaitza degu, ortzia gorri-goibel da-ta (54). Beraz, ortzearen aurpegia ezagutzen ba-dakizute ta aldien ezaugarriarik ezin igarri dezute?»

Eta bere barruan antsi egiñaz, esan zuan: «Gizaldi au zergatik dabil mirari-eske? Benetan diotzutet: gizaldi gaizto ta galdu oni Jonas igarlearen ezaugarria besterik etzayo emango».

(54) Euskeraz: «Arrats gorri, biar ozkarbi; goiz gorri, arrats-euri». Goi-Naparroa'n: «Arrats gorri, eguraldi; goiz gorri, curilari». (Azkue'k, «Eukal. Yak.», III'gn. Idat., 113 orri.)

Eta ayengandik alde egin-da, berriro ontzira igo zan eta beste itxas-ertzera joan.

146.—*Pariseotarren legamia* (Mt. 16, 5-12; Mk. 8, 14-21).

Ikasleak ontzian sartu ziranean, ogiak artzea aztu zitzaizen, eta ogi bat besterik etzeukaten ontzian. Eta Jesus'ek burubide au esan zien: «Begira; arretaz ibilli zaitezte pariseotarren eta sadukeotarren legamiarekin eta Erodes'en legamiarekin».

Eta ayek, alkarren artean zioten: «Ez degu ogirik ekarri-ta...»

Jesus'ek, igarri, ta ala esan zien: «Zer ari zerate alkarrekin, sinismen otzekoak, ogirik ez dezutela-ta? Oraindik ez al dezute igarri ta ulertu? (55). Orren itxu al daukazute oraindik biotza? Begiak izan, eta ez dezute ikusten?; belarriak izan, eta ez dezute entzuten? Eta ez al dezute gogoan, bost milla gizonentzako bost ogi zatitu nituanean, zenbat otar bete ta jaso zenituzten kondarrez beteak?»

«Amabi», —diotsate.

«Eta zazpi milla gizonentzako zazpi ogiak zatitu nituanean, zenbat otar bete ta jaso zenituzten kondarrez beteak?»

«Zazpi», —diotsate.

Ta esan zien: «Nola etzerate konturatzen oraindik, «arretaz ibilli pariseotarren eta sadukeotarren legamiarekin» esatean, ez nizutela ogiaz itz egin?»

Orduan ezagutu zuten etziela ogi-legamitik alde egiteko esan, pariseotarren eta sadukeotarren ikasbideetatik baizik.

147.—*Betsaida'ko itxua* (Mk. 8, 22-26).

Eta Betsaida'ra joan ziran. Ta itxu bat dakarkiote, ikutu zezala eskatuaz. Eta itxua eskutik artuta, erritik kanpora atera zuan; eta aren begiak txistuz bete ondoren, eta bere eskuak aren gañean ipiñita, ea ezer ikusten zuan galdetu zion. Ark, begira egonda: «Gizonak ikusten ditut ibiltzen, esan zion; zugaitzak dirudite».

(55) Ikasleak lurreko gauzetan zeukaten gogoa, ta etziran konturatzen Mesias'en goi-indarrak; ogiak artzea aztu zitzaizen, eta zer eta nola jango zuten larri ta estu zeuden.

Gero, begietan eskuak ipiñi zizkion berriro; orduan ondo ikusten zuan, eta sendatuta, dana garbi ikusten zuan. Eta Jesus'ek etxera bialdu zuan, esanaz: «Errian iñori ere ez ezer esan».

148.—*Pedro'ren aitormena. Pedro, Elizaren oñarri ta buru.* (Mt. 16, 13-20; Mk. 8, 27-30; Lk. 9, 18-21)

Jesus, andik irtenda, Pilipo-Zesarea aldeko baztarretara joan zan. Eta aruzkoan, otoitzean bakarrik ari zala, ikasleak ere an zeuden. Eta galde egin zien: «Giza-Semea, nor dala diote gizonak?»

Ayek esan zioten: «Batzuek, Juan Batayatzallea; beste batzuek, Elias; beste batzuek, Jeremias edo igarleren bat, antziñako igarleren bat piztuta».

Jesus'ek esan zien: «Eta zuek, nor naizela diozute?»

Orduan, Pedro'k erantzun eta esan zion: «Zu, Kristo zera, Jaungoiko Biziaren Semea».

Jesus'ek erantzun zion: «Zorionsua zera, Simon, Jonas'en seme ori; ez bait-dizu ez aragiak ez odolak agertu ori, zeruko nere Aitak baizik. Ara Nik zer esaten dizudan: Kepa, —Arkaitza— zera zu, ta arkaitz orren gañean jasoko det nere Eliza; eta inpernuko ateak ez dira aren aurka gallenduko. Zeru-erreñuko giltzak zuri emango dizkitzut; eta zuk lurrean lotzen dezuna, zeruan ere lotua izango da; ta zuk lurrean askatzen dezuna, zeruan ere askatua izango da».

Orduan, bere ikasleai Bera Kristo zala iñori ez esateko agindu zien.

149.—*Bere Nekaldia ta Piztuera argi ta garbi iragartzten ditu* (Mt. 16, 21-23; Mk. 8, 31-33; Lk. 9, 22).

Orduan Jesus bere ikasleai argi ta garbi itzegiten asi zan: «Gizasemea Jerusalem'era joatea bearrezkoa da, ta an zar, iskribau ta apaiz-nagusien aldetik neke asko ta eriotza igaro bearko ditu, ta irugarren egunean piztuko da».

Orduan, Pedro'k, Jesus bakarka artu-ta, asarreturik ala esan zion: «Ez orixe, Jauna!; etzaizu orrelakorik gertatuko» (56).

(56) Kristo gurutzean il-bearra zala, etzuten iñolaz sinisten juduta



Baño, Jesus'ek, biurtu ta bere ikasleak ikusten zutela, Pedro'ri gogor egin zion, esanaz: «Oatik emendik, Satan-  
nas<sup>(57)</sup>. Jaungoikoaren burubiderik ez dezu-ta, gizonena  
baizik».

150.—*Norberaren burua ukatu-bearra.*  
(Mt. 16, 24-28; Lk. 9, 23-27; Mk. 8, 34-39)

Orduan Jesus'ek bere ikasleai ta jendeari dei egiñik, guztiai esan zien: «Nere ondotik iñork etorri nai ba'du, bere burua ukatu beza ta artu bere gurutzea, ta jarrai bekit. Bere bizia gorde nai duanak, galdu egingo du; baño, Nigatik eta Berri Onagatik galtzen duanak, gorde egingo du. Gizonari zertarako litzayoke, ba, lur osoa irabaztea, bere bizia galdu ezkeru? (58). Edota, zer eman dezake biziaren ordaiñez? Gizaldi oker eta galdu onetan norbait Nitzaz ta nere itzaz lotsatzen ba'da, Gizasemea ere artzaz lotsatu egingo da, Bere ospez eta Aitaren aintzaz bere Aingeruakin etorri dediñean. Izan ere, Gizasemea bere Aitaren aintzaz bere aingeruakin etorriko da; ta orduan, bakoitzari bere egiñen arabera ordainduko dio».

Ta esan zien: «Egiz diotzutet: emen daudenen artean ba-dira batzuk, Jaungoikoaren Erreiñua bere indarrez ta Gizasemea bere erreiñu-aintzaz etortzen ikusi arte, erio-tza ezagutuko ez dutenak» (59).

151.—*Jesus'en antzaldatzea.*  
(Mt. 17, 1-9; Lk. 9, 28-35; Mk. 9, 1-8)

Itz auek esanda, sei-zortzi egun ondoren, Pedro, Santiago ta onen anai Juan, irurak artu, ta mendi goi batera eramane zituan, otoitz egitera. Ta otoitz egitean, ayen aurrean antza aldatu zitzaion. Aren aurpegia eguzkia bezin dizdiratsu biurtu zan, eta Aren jantziak elurra bezin zuri, iñongo zuriketatzaliek ezin zuritu bezin zuri.

rrak; ezta apostoluak ere. Jesus piztu zan arte, etzituzten ulertu Aren Nekaldi ta Eriotza.

(57) Satanaz: etsaya, alegia.

(58) «Bere bizia galdu»: emen, betiko ondaztea edo inpernura joatea adierazten du.

(59) Ez da Kristo'ren azken-etorrera, lenengoa baizik: Jesus'en Berri Onaren zabaltzea atzerritarren artean, noski.

Gizon bi agertu zitzaizkien, eta Jesus'ekin izketan ari ziran. Moises ta Elias ziran, ospe aundiz inguratuta, eta Jesus'ek Jerusalem'en izango zuan eriotzaz itz egiten zuten.

Bitartean, Pedro ta bere lagunak loak arturik zeuden; eta esnatu ziranean, Jesus'en aintza ikusi zuten, baita Arekin zeuden bi gizonak ere. Eta ayek Jesus'engandik alde egin zutenean, Pedro'k Jesus'i esan zion: «Jauna, emen ederki egongo gera; Zuk nai ba'dezu, egin ditzagun emen iru txabola: Zuretzat bat, Moises'esentzat bestea ta Elias'entzat bestea».

Zer zion ere etzekin, oso ikaratuta zeuden-da. Oraindik itz egiten ari zala, odei argitsu batek estali zituan; eta odei artan sartzean, bildurto egin ziran. Eta odeitik aots batek ala zion: «Auxe da atsegin zaidan nere Seme kutuna; Berak diona entzun zayozute».

Eta ikasleak, aotsa entzunda, auzpez erori ziran eta guztiz ikaratu ziran.

Orduan, Jesus urreratu zitzaion, ikutu zituan eta esan zien: «Jaiki ta ez bildurrik izan».

Ayek, ordea, begiak jasorik, alde guztietara begiratu zuten; baño, etzuten Jesus'ek besterik, iñor ikusi. Gero, menditik jeisterakoan, Jesus'ek agindu au eman zien: «Ikusi dezutenik ez iñori esan, Gizasemea illen artetik piztu arte».

Eta ayek ixilik egon ziran, eta ikusitakorik etzioten iñori esan egun ayetan.

152.—*Elias'en etorreraz* (Mt. 17, 10-13; Mk. 9, 9-12).

Ta ikasleak galdetu zioten, esanaz: «Zergatik diote, bada, pariseotarrak eta iskribauak, lenengo Elias etorri bearra dala?»

Jesus'ek erantzunaz, esan zien: «Bai, lenengo Elias etorriko da; ta etortzen danean, dana zuzenduko du. Ta, ¿nola dago idatzita Gizasemeari buruz, neke asko igaro bear dituala ta gutxietsia izango dala? Baño, Nik Elias etorri dala diotzutet; baño, ez dute ezagutu, ta nai izan duten guztia egin zioten, idatzita dagoanez. Alaxe, Gizameak ere gorriak ikusiko ditu ayen aldetik».

Orduantxe ulertu zuten ikasleak, Juan Batayatzalleari buruz itz egin ziela.

153.—*Mutiko illargi-gaitzduna sendatzen du.*  
(Mt. 17, 14-17; Mk. 9, 13-26; 9, 37-43)

Biaramonean, ikasleengana biurtu zanean, ayen ondoan gizatalde aundia ikusi zuan, eta iskribau batzuk ayekin eztabaidan. Jesus ikusita bereala, gizataldeko guztiak ikaratu egin ziran eta Arengana joanda, agur egin zioten. Jesus'ek galdetu zien: «Zer dala-ta ari zerate eztabaidan?»

Eta ayetako batek, erantzunaz, ala esan zion: «Maixua, nere semea ekarri dizut: diabru mutu batek dauka artuta; ta artzen duan bakoitzean, lurrera botatzen du ta garraxi bizian asten da bereala, ta agotik lerdea dariola ta ortzak karrazka-erazten dizkio ta gogortuta uzten du; eta ez da irteten arengandik astin-astin egin gabe. Zure ikasleai ekarri ta deabrua kendu dezayoten eskatu diet; baño, ezin izan dute».

Eta belaunikaturik eta deadarka ala esan zion: «Jauna!, erruki zakizkio nere semeari, illargi-gaitza dauka ta mutua da. Maixua, erruki, arren; seme bakarra det-eta».

Jesus'ek erantzun eta esan zuan: «Au gizaldi sinisgabe ta biurria! (60). Noiz arte egon bear det zuekin? Noiz arte jasan eta aguanta bear zaituztet? Ekar zadazute onera mutiko ori».

Ta ekarri zioten. Inguratzean, deabru gaiztoak Jesus ikusi zuaneko, mutilla lurrera bota ta astintzen eta arratzen asi zan lerdea zeriola. Aren aitari galde egin zion Jesus'ek: «Noiz ezkerro gertatzen zayo ori?»

«Umetatik» —erantzun zion—. Sarritan bota du uretara ta sutara ere, an il zedin. Baño, Zuk ezer al ba'zeneza, erruki zaitetz gutzaz ta lagun zaiguzu».

Jesus'ek esan zion: «Zuk diozu: «Ezer al ba'zeneza!» (61). Sinisten ba'dezu, eziniik ez dago; guztia bete diteke».

(60) Naigabezko esaera da, bere ikasleak ere ain sinismen otza zutela ikustean. Ala ere, errukitu ta sendatu egin zuan deabruduna.

(61) Mutikoaren aitak «Zuk ezer al ba'zeneza», esaten du. Itxuraz, aitak etzuan sinisten ziur-ziur bere semea sendatuko zuanik. Eta Jesus'ek aren zalantza kentzen du lenen, eta gero, aitaren sinismenaren indarrez, mutikoa ere sendatu egiten du.

Bereala mutikoaren aitak, negarrez eta ojuka, ziotsan: «Jauna, sinisten det; lagun zayozu nere sinismen otzari». Orduan, Jesus'ek, gero ta jendetza audiago zetorkiola ikusirik, deabru zikiñari asarre agindu zion, esanaz: «Deabru gor ta mutu ori! Nik agintzen diat: irten adi orrengandik, eta berriro ez akio sartu».

Orduan, garraxika ta mutikoa astin-astin egiñik, arengandik irten zan; mutilla, berriz, ilda bezela gelditu zan, eta askok zioten: «Il da». Baño, Jesus'ek, eskutik eldu ta jaso zuan; eta zutitu zan mutilla; eta aitari eman zion. Eta ordutitxek sendatuta gelditu zan.

154.—*Otoitzaren eta barauaren indarra.*  
(Mt. 17, 18-21; Mk. 9, 27-28)

Gero, Jesus etxean sartu zanean, ikasleak urreratu zitzaizkion eta bakarrean ala galdetu zioten: «Guk zergatik ezin bota izan degu deabru ori?»

Jesus'ek esan zion: «Zuen sinismen otzagatik. Benetan diotzutet: Zerbaren azi txikia ainbesteko sinismena ba' zenute, mendi orri «ortik ara oa» esango zeniteke, ta aldatu egingo litzake, eta ez litzake zuentzat eziniik izango. Eta deabru-mueta ori botatzeko, berriz, otoitza ta baraua beste biderik ez dago».

155.—*Jesus Jerusalem-era igotzen da.*  
(Mk. 9, 29; Jon, 7, 2-10)

Bazetorren judutarren jai bat: Txabola-jaya (62). Ta Aren senitartekoak esan zioten: «Alde egin zazu emendik eta zoaz Judea'ra. Zuk egiten dituzunak ikasleak ikusi ditzaten. Bere burua erakutsi nai duan iñork ez du ezer ezkutuan egiten-da. Orrelakoak egiten ari zeran ezkerro, ager zaitetz guztien aurrean» (63).

Aren senitartekoak ere etzuten Argan sinisten-da. Beraz, Jesus'ek esaten die: «Ez da craindik nere ordua

(62) Txabola-jaya, zan guztietan alayena ta errikoyena. Udazkenean ospatzen zan, lurreko uztagatik Jaunari eskerrak emateko, ta azarorako curia eskatzeko. Egun oyetan, zugaitz-adarrez egindako txaboletan bizitzen ziran.

(63) Jesus'en senitartekoak, Jesus'ek mirari arrigarriak egin zitzaela nai zuten.



iritxi; zuen ordua, berriz, beti gertu dago. Gaiztoak ezin dizute zuei gorrotorik izan; Neri, berriz, gorroto didate, ayen egiñak txarrak dirala aitortzen bait-det. Zoazte zuek jai orretara; Ni ez nijoa jai orretara, nere garaya oraindik ez da bete-ta.

Au esanda, Bera Galilea'n gelditu zan. Baño, Aren senitartekoak igo ziranean, Bera ere jayetara igo zan, ez agirian, ezkutuan baizik. Eta Galilean zear zijoazela, etzuan nai iñork jakin zezan.

156.—*Jesus Eliza Nagusian erakusten* (Jon, 7, 11-29).

Judutarrak, berriz, Aren (Jesus'en) billa zebiltzan jai egun artan, esanaz: «Non da ori?». Ta zurrumuru aundia sortu zan Beratzaz errikoen artean. Eta batzuek zioten: «Ona da»; beste batzuek: «Ez, erria nastutzen dabil». Ala ere, judutarren bildurrez, iñork etzuan Artzaz agirian itz egiten <sup>(64)</sup>. Jayaren erdi-aldera, Jesus Eliza Nagusira igo zan ta erakusten asi zan. Eta judutarrak, arrituta, zioten: «Nolaz ote dakizki onek Liburu Santuak iñon ikasi gabe?»

Jesus'ek erantzun eta esan zien: «Nik erakusten dedana ez da nerea, Ni biali nauanarena baizik. Jaungoikoaren gogoa egiten duanak, nere erakuspena Jaungoikoagandik dan, ala nere buruz itz egiten dedan ezagutuko du. Bere buruaz itz egiten duanak, nor beraren aintza billatzen du; bidali duanaren aintza billatzen duana, ostera, egitia da, ta argan ez dago gaiztakeririk. Ez al dizute Moises'ek Legea eman? Ala ere, zuetako batek ere ez du Legea betetzen. Zergatik il nai nauzute?»

Jendeak erantzun eta esan zion: «Deabrua daukazu; nork il nai zaitu?»

Jesus'ek erantzun zien: «Mirari bat egin det <sup>(65)</sup> eta guztiak arriturik zaudete. Ala ere, erdinkuntza (circuncisión) Moises'ek eman zizuten (ez berak asmatua, aurrekoetatik artua baizik), eta zuek gizonaren erdinkuntza larunbatean egiten dezute. Moises'en legea ez austeko,

(64) Judutarren bildurrez, au da, judutar agintarien bildurrez, auek beti Jesus'en aurka bait-zebiltzan.  
(65) Elbarriaren sendaketa.

gizonaren erdinkuntza larunbatean ere egin ba-zenezate, larunbatean gizona sendatu dedalako asarre zatozkidate? Etzazutela itxuretatik iritzia eman, zuzenbidez baizik» <sup>(66)</sup>.

Eta Jerusalem'go batzuek zioten: «Ez al da au il nai dutena? Or ari da, ba, agirian itz egiten, eta ez dio iñork ezer esaten. Ala, gure nagusiak ezagutu ote dute egiz Mesias dala au? Baño, au nongoa dan ba-dakigu; Mesias, ordea, etorri dediñean, ez du iñork jakingo nongoa dan» <sup>(67)</sup>.

Eta Jesus'ek, Eliza Nagusian erakusten zuan, deadarka ziola: «Ni ezagutzen nauzute, ta nongoa naizen ba-dakizute <sup>(68)</sup>. Baño, Ni ez naiz nere buruz etorri; beste batek bialduta etorri naiz, ta Bera egitia da. Zuek ez dezute Ura (Jaungoiko Aita) ezagutzen; Nik bai, ezagutzen det, Argandik nator eta Ark biali nau».

157.—*Judutarrak arrapatu egin nai dute* (Jon, 7, 30-36)

Orregatik, Jesus arrapatu ta lotzeko asmoa zerabilkiten; baño, iñork etzion eskurik bota, Aren ordurik ez baitzan oraindik eldu. Baño, gizataldeko askok sinistu egin zuten Argan, eta zioten: «Mesias etorri dediñean, Onk baño mirari geyago egingo al ditu?»

Erriaren esamesa auek pariseotarrak entzunda, agintariakin bat eginda, morroyak bialdu zituzten Jesus lotzeko. Eta Jesus'ek esan zien: «Oraindik beste pixka batean zuekin nago, ta gero bialdu nauanarengana nijoa <sup>(69)</sup>. Nere billa ibilliko zerate, ta ez nauzute arkituko; eta ni nagoken tokira, zuek ezin etorri izango zerate».

Judutarrak alkarri esaten zioten: «Nora joango ote da, ba, au, guk ez arkitzeko? Atzerritarrengana joango ote zaigu, an erakustera? Zer da esan digun au: «Nere billa

(66) Jesus'ek larunbatean ere sendaketak egiten zituala-ta, judutarrak asarre ziran, eta Jesus'i aurpegira botatzen zioten ori.

(67) Mesias ezkutuka etorriko zala uste zuten, nondik jakin gabe.

(68) Jesus'ek dio: «Nere giza-jatorria ba-dakizute; baño, jaungoikozko beste jatorria ere ba-det: Ni Aitagandik nator».

(69) Bere eriotzaz zion ori. Geroago, judutarrak Aren billa ibilliko dira, bai; baño, ez maitasunez, etsipenez baizik.

ibilliko zerate, ta ez nauzute arkituko»; ta, «Ni egon nadin tokira, zuek ezin etorri zaitezket?»

158.—*Jaietako azken-eguna: Espiritu Santua agintzen du.*  
(Jon, 7, 37-39)

Jayetako azken-egunean, egunik aundienean, an ari zan Jesus, deadarka esaten: «Egarri dana, betor eta edan beza. Nere sinismena duanari, Liburu Santuak dionez, <sup>(70)</sup> ur bizizko ibayak jarioko zaizkio barrutik». Argan sinisten zutenak artu bear zuten Espiritu Santuagatik esan zuan au; Espiritu Santua etzitzayen oraindik eman, Jesus ez bait-zan oraindik goretsia izan <sup>(71)</sup>.

159.—*Jesus dala-ta, gizataldekoen artean eztabaida sortzen da* (Jon, 7, 40-44).

Gizataldeko batzuk, Jesus'en itz auek entzunda, ala zioten: «Auxe da benetan Igarlea». Beste batzuek, zioten: «Auxe da Mesias». Beste batzuk, berriz, zioten: «Baño, Mesias Galilea'tik etorriko al da? Ez al dio Liburu Santuak Dabid'en jatorritik eta Dabid'en sorterri Belen' dik etorriko dala Mesias?» <sup>(72)</sup>.

Beraz, jende-artean eztabaida sortu zan Ura zala-ta. Eta ayetako batzuek Jesus arrapatu egin nai zuten eta lotu; baño, iñork etzion eskurik erantsi.

160.—*Jesus dala-ta, batzar nagusikoak eztabaidan.*  
(Jon, 7, 45-53)

Beraz, morroyak apaiz nagusi ta pariseotarrengana biurtu ziran; eta ayek esan zieten: «Zer dala-ta, ez diguzute gizon ori ekarri?»

Morroyak erantzun zieten: «Iñoz ez da izan gizon onek bezela itz egin duan gizonik».

Pariseotarrak erantzun zieten: «Zer, zuek ere beraganatu al zaituzte? Agintari edo pariseotarren artean ba al dago bat ere sinisten dionik? Legea ez dakiten jendeak bai; madarikatuak bitez!»

(70) Is. 44, 3; 55, 1; 58, 11; Ezek. 47, 1.

(71) Geroago emango zitzaizen Espiritu Santua; Jesus piztuta gero.

(72) II Reg. 7, 12; Ps. 88, 3.

Ayetako batek, Nikodemo'k, bein batean gabaz Jesus' engana joan zanak, esaten die: «Gure Legeak iñor epaitzen al du, lenengo berari entzun gabe, ta zer egin duan jakin gabe?»

Erantzun eta esan zioten: «Zer, zu ere Galilea'tarra al zera? Liburu Santuak aztertu ta ikusiko dezu: Galilea'tik ez da Igarlerik sortu» <sup>(73)</sup>.

Eta bakoitza bere etxera biurtu zan.

161.—*Emazte lizuna* (Jon, 8, 1-11).

Jesus, berriz, Oliomendi'ra joan, eta biaramonean, goizean-goiz, Eliza Nagusira biurtu zan. Erri guztia Arengana bildu zan; eta Berak, eserita, erakutsi egiten zien. Ezkontza loitzen arkitu zuten emazte bat ekarri ta erdian ipiñita, iskribau ta pariseotarrak Jesus'i esaten diote: «Maixua, emakume ezkondu au berea ez dan gizonarekin arkitu dute oraintxe. Olako emakumeak arrika iltzeko agindu zigun legean Moises'ek. Zuk, zer diozu?»

Ori azpikeriz esan zioten, salatu al izateko. Baño, Jesus, makurtu, ta beatzakin lurrean idazten asi zan. Eta ayek galdezka asi zitzaizkionen eta Jesus'ek burua jasorik, esan zien: «Zuen artean pekaturik gabe dagonak bota bezayo lenengo arria».

Eta berriro makurtuta, lurrean idazten jarraitu zuan. Ayek, ostera, ori entzunda, banaka-banaka alde egin zuten, zaarrenetatik asita; eta bakarrik gelditu zan Jesus eta emakumea bere aurrean zutik. Orduan, Jesus'ek burua jasorik, esan zion: «Emakume, non dira zure salatzaileak? Iñork ere ez al zaitu gaitzetsi ta konde-natu?»

Emakumeak ezetz esan zion: «Iñork ere ez, Jauna».

Ta Jesus'ek esan zion: «Ezta Nik ere, etzaitu gaitzetsiko. Zoaz, ta ez egin berriro pekaturik» <sup>(74)</sup>.

(73) Oker zioten: Galilea'n ere igarleak izan ziran. Gañera, Jesus Judea'ko Belen'en jayo zan, baita Aren aurrekoak ere.

(74) Jesus'ek pekaturik gaitzetsen du; zuzena ba-da, baño bai erruki-tua ere.



162.—*Jesus munduko argia da* (Jon, 8, 12-20).

Berriz ere Jesus'ek itz egin zien, esanaz: «Ni naiz munduko argia; jarraitzen didana, ez da illunpetan ibilliko; bizitza-argia berekin izango du, ordea».

Pariseotarrak esan zioten: «Zuk zere buruaz aitormen egiten dezu. Zure aitormen orrek ez du indarrik».

Jesus'ek, erantzun eta esan zien: «Nik nere buruaz aitormen egin arren, nere aitormen onek ba-du indarra; nondik etorri naizen eta nora noan ba-dakit-eta; zuek, berriz, ez dakizute nondik natorren, ez nora noan. Zuek aragiaren senez epaitzen dezute; Nik ez det iñor epaitzen. Eta Nik epaituarren, epai au zuzena da; ez bait-nago Ni bakarrik; biali nauan Aita Nerekin dago-ta. Zuen legean idatzita dago bi gizonen aitormena egiazkoa dala. Nik, nere buruaz aitormen egiten det; baño, baita Ni biali nauan Aitak ere Nitzaz aitormen egiten du».

Orduan esan zioten: «Non da zure Aita?»

Jesus'ek erantzun zien: «Ez Ni, ez nere Aita ez dezute ezagutzen zuek; ezagutuko ba'ninduzute, nere Aita ere ezagutuko zenuteke».

Itz auek, diru-toki ondoan esan zituan Jesus'ek, Eliza Nagusian erakusten ari zan bitartean; eta etzuan iñork lotu, Aren ordua oraindik ez bait-zan etorri.

163.—*Ni noan tokira, zuek ezin etorri* (Jon, 8, 21-30).

Berriz ere Jesus'ek esan zien: «Ni ba-noa, ta nere bila ibilliko zerate, ta zuen pekatuetan ilko zerate. Ni nihoan tokira, zuek ezin etorri zindezteke».

Judutarrak zioten: «Onek bere burua ilko ote du?, «Ni noan tokira zuek ezin etorri zindezteke esateko?»

Jesus'ek esan zien: «Zuek, beekoak zerate; Ni goikoa naiz; zuek lur ontakoak zerate; Ni ez naiz lur ontakoa. Zuen pekatuetan ilko zeratela esan dizutet; nor naizen sinisten ez ba'dezute, zuen pekatuetan ilko zeratela-ko» (75).

Orregatik zioten: «Nor zera Zu?» (76).

(75) Ni naizela zuek itxaroten dezuten Salbatzalea.

(76) Lenago ere esan zien nor zan, eta sarritan esaten zien.

Jesus'ek erantzun zien: «Asieratik zuei esaten ari naizen uraxe naiz Ni. Zuetzaz esatekorik eta erabakitze-korik arko ba-det; baño, biali nauana (Aita) egi utsa da; ta Nik Ari entzuna bakarrik erakusten diot gizadiari» (77).

Ayek, ordea, etzuten ulertu Bere Aitari Jaungoikoa deitzen ziola. Orregatik, Jesus'ek esan zien: «Gizasemea gora jaso dezazutenean (78), orduantxe ezagutuko dezute Ni nor naizen, eta nere buruz ez dedala ezer egiten; nere Aitak erakutsi zidana diot, besterik ez. Eta bialdu nauana Nerekin dago; ta ez nau bakarrik utzi; Berak atsegin duana egiten bait-det beti Nik».

Itz auek esatean, lagun askok sinistu zuten Argan.

164.—*Jaungoikoaren semeak eta deabrukumeak.*

(Jon, 8, 31-47)

Sinistu zuten judutarrak Jesus'ek ala esan zien: «Nere esanetan irauten ba'dezute, benetan nere ikasleak izango zerate, ta egia ezagutuko dezute ta egiak askatuko zaituzte».

Erantzun zioten: «Abraan'en jatorrikoak gera, ta ez gera egundo iñoren mendeko izan; zer dala-ta diozu, bada, «askatuak izango zerate?» (79).

Jesus'ek erantzun zien: «Bene-benetan diotzutet: pekatu egiten duana, pekatuaren mendeko da. Morroya ez da etxean betiko egoten; semea, berriz, bai, betiko egoten da. Beraz, Semeak askatzen ba'zaituzte, betiko aske izango zerate. Ba-dakit Abraan'en jatorrikoak zeratela; baño, bizia kendu nai didazute, nere itza onartzen ez dezutelako. Nik, nere Aitagan ikusitakoa diot; zuek, berriz, zuen aitagan ikusitakoa egiten dezute».

Erantzun eta esan zioten: «Gure aita Abraan da».

Jesus'ek diotsate: «Abraan'en seme ba'zerate, Abraan'ek egiten zuana egin zazute; zuek, ordea, Jaungoikoari entzun nion egia esan dizutedalako, orain bizia kendu

(77) Asmatutako gauzak etziran, zuzenak baizik. Aita egi utsa danez, Ari entzundakoa bakarrik dio. Orain etzuan epaitzera bialdu, salbatzera baizik.

(78) Gurutzean jaso dezazutenean, alegia.

(79) Orrela erantzuten dute gizatalde-arteko Jesus'en etsayak; ayek etzuten Jesus'ek zionik beñere sinistu.

nai didazute. Abraan'ek etzuan ori egin. Zuek, zuen aitaren egiteak egiten dituzute».

Esan zioten: «Ez gera gu sasikumeak; ez degu Jaungoiko beste aitarik».

Eta Jesus'ek: «Jaungoikoa zuen Aita ba'litz, Ni ere maiteko ninduzuteke: Jaungoikoagandik sortu ta etorri naiz-ta. Ni ez naiz nere buruz etorri; Ark bialduta, baizik. Zergatik ez dezute ulertzen nere izkuntza? Nere itza ezin eramán dezutelako. Deabrua da zuen aita, ta zuen aita orren asmoak bete nai dituzute. Ori gizon-iltzalea zan asieratik, eta etzuan egian iráun, argan egirik ez dago-ta. Gezurra esatean, berak duanetik ari da, gezurra dalako ta gezurraren aita. Nik, ordeá, egia diotzutet, eta zuek ez didazute sinisten. Zuetako ñork artuko nau bidez pekaritzat? Egia esaten ba'dizutet, zergatik ez didazute sinisten? Jaungoikoagandik danak, Jaungoikoaren itza aditu egiten du; zuek, berriz, orregatik ez dezute aditzen: Jaungoikoarenak etzeratelako».

165.—«Abraan sortua izan baño len ba-naiz Ni».

(Jon, 8, 48-59)

Orduan, judutarrak erantzun eta esan zioten: «Ez ote degu ondo esaten guk, samaritarra zerala ta deabruak artua zaudela?»

Jesus'ek erantzun zien: «Deabrurik ez daukat Nik; Nik, nere Aita goratzen det, eta zuek laidotu ta desonratu egiten nauzute Ni. Nik ez det nere gorabidea billatzen; ba-da ori egingo duana ta nere alde aterako dana. Bene-benetan diotzutet: Nere itza gordetzen duanak, ez du eriotzarik iñoiz ikusiko» (80).

Judutarrak esan zioten: «Oraintxe bai ezagutzen degula deabrua daukazula. Abraan il zan, baita igarleak ere; ta zuk diozu: «Nere itza gordetzen duanak ez du eriotzarik ikusiko iñoiz». Gure aita Abraan baño aundiagoa al zera zu? Ura il zan, baita igarleak ere il ziran. Nor zeralakoan zaude?»

Jesus'ek erantzun zien: «Nik nere burua goratzen ba'

(80) Egiñak lagun dituala, Kristo'gan sinisten duanak, betiko bízitza izango du.

det, nere ospea ez da ezer; nere Aitak, zuen Jaungoikoa dala diozuten orrek, goersten nau Ni. Zuek ez dezute Aita ezagutzen; Nik bai, ezagutzen det. Eta, ezagutzen ez dedala esango ba'nu, zuek bezin gezurtia nintzake; baño, bai, Nik ezagutzen det, eta Aren itza betetzen det. Zuen aita Abraan, nere eguna ikusi naye, pozez beterik gelditu zan; ikusi zuan eta poztu zan».

Judutarrak esan zioten: «Berrogeitamar urte ez dituzu oraindiño, eta Abraan ikusi dezula?»

Jesus'ek erantzun zien: «Bene-benetan diotzutet: «Abraan sortua izan baño len ba-naiz Ni».

Orduan, ayek arriak artu zituzten Ari botatzeko; baño, Jesus ezkutatu ta Eliza Nagusitik irten egin zan.

166.—*Jayotzaz itxua*. (Jon, 9, 1-41).

Eta an zijoala, Jesus'ek jayotzaz itxu zan gizon bat ikusi zuan. Eta ikasleak galdetu zioten: «Maixua! ori itxu jayotzeko, norik egin du pekatu: orrek ala orren gurasoak?»

Jesus'ek erantzun zien: «Pekaturik ez du egin orrek, ezta orren gurasoak ere; Jaungoikoaren egintzak orren-gan ager ditezen gertatu da ori. Eguna dan artean (81), bialdu nauanaren lanak egin bear ditut; ba-dator gaua, ta orduan iñork ezin dezake lanik egin. Gizartean nagon artean gizargi naiz».

Au esanda, txistua lurrera bota zuan, eta loya eginda, loi arrekin itxu aren begiak igurtzi zituan; eta ala esan zion: «Zoaz Siloe'ko iturrira, ta garbitu zaitea» (Siloe itzak «Bialdua» esan nai du).

Joan zan, bada, itxua ta garbitu zan eta ikusten zuala biurtu zan. Orduan, auzokoak eta gizon ura len eskean ibiltzen ikusi zutenak, zioten: «Ez al da au, exerita, eskean egoten zana?». Eta batzuek zioten: «Bai, ala da». Besta batzuek, berriz: «Ez, aren antzeko bat da».

Baño, berak zion: «Bai, uraxe ber-bera naiz».

Galdetu zioten, bada: «Begiak nola zabaldu zaizkitzu?».

(81) Eguna: bízitza; gaua: eriotza.



Eta berak: «Jesus deritzan gizonak, loya egin, eta begiak igurtzi ta esan dit: «Zoaz Siloe'ko iturrira, ta garbitu zaitetz». Ta ara joan, eta garbitu ta ikusi egiten det».

Eta esan zioten: «Non da bera?».

Eta itxuak: «Ez dakit nik».

Itxu izandakoa pariseotarrengana eraman zuten. Jesus'ek loya eginda, begiak sendatu zizkion eguna larunbata zan, jaieguna. Berriro, ere, pariseotarrak galde egin zioten ea nola ikusi zuan; eta ark esan zien: «Begi-gañean loya ipiñi zidan, garbitu nintzan eta orain ikusi egiten det».

Pariseotar arteko batzuek zioten: «Gizon au ez dator Jaungoikoagandik, larunbata ez du jai egiten-da».

Baño, beste batzuek zioten: «Pekatarari batek, nola egin ditzake olako mirariak?».

Eta eztabaida aundiak sortu ziran ayen artean. Beraz, berriro diotzate itxuari: «Begiak zabaldu dizkitzun orretzaz, zer diozu zuk?».

Ark erantzun zien: «Igarlea dala».

Baño, judutarrak etzuten sinistu gizon ura ikustea iritxi zuana zanik, ikusten asi-berriaren gurasoai dei egin arte. Galdetu zieten, beraz: «Au al da itxu jayo zala diozuten zuen semea? Orain, nola ikusten du, bada?».

Aren gurasoak erantzun eta esan zieten: «Au gure semea dala ta itxu jayo zala, ba-dakigu. Baño, orain nola ikusten duan, ori ez dakigu, ezta begiak nork zabaldu dizkion ere. Berari galde egin zayozute; ba-du urterik asko; galde zayozute berari».

Beraz, itxu izandakoari berriz deitu, ta esan zioten: «Jaungoikoari aintza eman zayozu<sup>(82)</sup>. Guk ba-dakigu gizon ori pekatari dana».

Ark erantzun zien: «Pekatarari dan ala ez, nik ez dakit; auxe bakarrik dakit: len itxu izanik, orain ikusi egiten dedala».

Esan zioten: «Zer egin zizun? Begiak nola zabaldu zizkitzun?».

Ark erantzun zien: «Len ere esan nizuten eta entzun

zenidaten; zertarako entzun nai dezute berriz? Zuek ere Aren ikasle izan nai al dezute?».

Orduan, biraoka, esan zioten: «Zu izan zaitetz Aren ikasle; gu Moises'en ikasle gera. Guk ba-dakigu Moises'i Jaungoikoak itz egin ziola; au, ordea, ez dakigu nondik etorria dan».

Itxu izanak, erantzun eta esan zien: «Auxe bai dala arrigarria! Zuek ez dakizute ori nongoa dan, ta Berak nere begiok zabaldu egin dizkit. Ba-dakigu Jaungoikoak ez diela pekatariak entzuten; Ari bildur diotenai ta Aren naya egiten dutenai, berriz, entzun egiten diela<sup>(83)</sup>. Berriz ez da entzun itxu jayoari begiak inork argitu dizkionik. Bera Jaungoikoagandik ez ba'litz, ezin zezakean ezer egin».

Erantzun eta esan zioten: «Pekaturiz betea jayo zifian, eta guri erakustera al zatoz?».

Eta kanpora bota zuten.

Gizona kanpora bota zutela Jesus'ek entzun zuan, eta arkitu zuanean, ala esan zion: «Gizasemeagan sinisten al dezu?».

Ark esan zion: «Jauna!, nor da Ori, Beragan sinista dezadan?».

Jesus'ek esan zion: «Ikusi ere egin dezu zuk, eta zurekin izketan ari dana bera da».

Eta ark esan zuan: «Sinisten det, Jauna!».

Ta auzpezturik, gurtu egin zuan. Orduan, Jesus'ek esan zion: «Epaitzera etorri naiz Ni gizarte ontara; ikusten ez dutenak, ikusi dezaten; eta ikusten dutenak, itxutu ditezun».

Arekin zeuden pariseotar batzuk, au entzunda, esan zioten: «Gu ere itxuak al gera?».

Jesus'ek esan zien: «Itxu ba'zifiate, pekatariak etzenu-teke; orain, ordea, diozute: «Guk ikusten degu»; or, bada, zuen pekatuak jarraitu egiten du».

167.—*Artzai ona* (Jon, 10, 1-21).

«Bene-benetan diotzutet: arditegira atetik sartu-beurrean, beste nonbaitetik sartzen dana, lapurra da ta

(82) Au da: egia esan zazu.

(83) Jaungoikoagana dijoanari, dana dala, Ark arrera ona egiten dio.

arrapatzallea. Atetik sartzen dana, berriz, artzaya da. Oni atezayak atea ideki egiten dio, ta aren deya ardiak eza-gutzen dute, ta berak, bakoitzaren izenez, ardiak deitzen eta ateratzen ditu. Eta bere ardi guztiak ateratzean, ayen aurretik joaten da, ta ardiak jarraitu egiten diote, aren aotsa ezagutu egiten dute-ta. Arrotzari, ordea, ez diote jarraitzen; iges egiten diote, arrotzen deya ez bait-dute ezagutzen <sup>(84)</sup>.

Jesus'ek ipui au esan zien; baño, ayek etzuten ulertu, esan nai ziena.

Beraz, berriro Jesus'ek esan zien: «Bene-benetan diot-zutet: Ni naiz ardien atea. Nere aurretik etorri ziran guztiak lapurrak dira eta arrapatzalleak; eta ardiak ez diete entzun. Ni naiz atea. Nigandik sartzen dana, salba-tuko da; ta sartu ta irten egingo du, ta larreak arkituko ditu. Lapurra ez da etortzen ostutzera, iltzera ta onda-tzera baizik; Ni, ordea, *ardiak* bizia izan dezaten eta ugari izan dezaten etorri naiz.

Artzai ona Ni naiz. Artzai onak bizia bere ardien alde ematen du. Morroyak, berriz, ardien jabe ez danak, art-zai-morroyak, otsoa datorrela ikusitakoan, ardiak utzi, ta iges egiten du; ta otsoak artalde arrapatu ta saka-banatu egiten du. Artzai-morroyak iges egiten du, mo-rroya dalako, eta ardien ajolarik etzayolako. Artzai Ona Ni naiz, ta Nik ezagutzen ditut nereak, eta nereak ere ezagutzen naute Ni; Aitak Ni ezagutzen nauan bezela, ta Nik Aita ezagutzen dedan bezela; ta nere bizia ardien alde ematen det.

Artalde ontakoak ez diran beste ardi batzuk ere ba-ditut; auek ere artaldera ekarri egin bear ditut, eta nere deya entzungo dute, ta artalde bat eta artzai bat bakarra izango da. Onetxegatik ere Aitak maite nau; nere bizia ematen dedalako, naiz eta berriro artzako eman <sup>(85)</sup>. Ez dit neri iñork bizia kentzen; Nik, nere gogoz ematen det. Bizia emateko (galtzeko) eskubidea ba-det; baita berriro artzako ere. Agindu au nere Aitagandik artu det».

(84) Artaldea, judutar-erria da; artzai gaiztoak, igarleak dira, pariseo-tarrak; auek etziran artaldearen zaitzalleak, beren ondasunen zai-tzalleak baizik.

(85) Gizonagatik ematen du bizia, ta gizonen onerako berriro artzen.

Itz auek zirala-ta, berriro ere judutarren artean ez-tabaida sortu zan. Ayetako askok ala zioten: «Deabruak artuta dauka ta burutik eginda dago; zertarako entzu-ten diozute?». Beste batzuk zioten: «Itz auek ez dira deabrudunarenak; itxuen begiak deabruak argitu ote ditzake?».

168.—*Kristo'k bere Nekaldia ta Piztuera berriro aurrez iragartzen ditu.*

(Mt. 17, 21-22; Mk. 9, 30-31; Lk. 9, 44-45)

Galilea'n zear zebillen artean, eta Berak egindakoak ikusita, guztiak arriturik zeudela, Jesus'ek bere ikasleai erakusten jarraitzen zuan eta esaten zien: «Jaso itzazute itz auek zuen biotzetan: Gizasemea gizonen eskuetan utzia izango da, ta il egingo dute; ta ilda gero, irugarren egunean, piztu egingo da».

Baño, esaten zienik etzioten ulertzen ayek, illuna zan-da ayentzat; orretzaz gañera, Berari galdetzeko bildur ziran. Eta biziro atsekabetu ziran.

169.—*Kristo'k drakma biko txanpona ordaintzen du.*

(Mt. 17, 23-26)

Kaparnaun'era eldu ziranean, drakma biko biltzen zebiltzanak Pedro'rengana urreratu, ta esan zioten: «Zuen maixuk ez al du drakma bikorik ordaintzen?».

«Bai orixe!»—erantzun zien.

Eta, etxera joan zanean, Jesus'ek aurea artu zien, esanaz: «Simon, zer deritzazu? Lurreko erregeak noren-gandik jasotzen dituzte izenak eta petxak? Beren seme-egandik ala arrotzengandik?».

Arek erantzun zion: «Arrotzengandik».

Eta Jesus'ek: «Beraz, semeak aske ta libre daude. Ala ere, itzpiderik eman ez dezayegun, zoaz itxasora ta, amoa botata, atera dezazun lenengo arraya artu ta aren agoa zabaldurik, barruan estater diru bat arkituko dezu; artu, bada, ta Nere ta zure ordaintzat eman zayezu» <sup>(86)</sup>.

(86) Eliza Nagusirako petxa. Didrakma: 1'50 peseta. Estater: 3 peseta.



170.—*Zeru-erreñuan, nor da aundien?*

(Mt. 18, 1-5; Mk. 9, 32-36; Lk. 9, 46-48)

Aldi artan, Jesus etxean zegoala, bere ikasleak inguratu zitzaizkion, esanaz: «Zeru-erreñuan, nor da aundien?».

Beren artean aundien nor zan eztabaida izana zuten. Baño, Jesus'ek ayen biotzetako asmoak igarrita, galde egin zien: «Bidean, zertaz itz egin dezute?».

Eta ayek ixildu egin ziran; bidean, beretatik aundiena nor ote zan alkarrekin eztabaidan etorri ziran-da. Jesus exeri, ta amabiai dei egin, eta ala esan zien: «Norbaitek lenengoa izan nai ba'du, guztien azkenekoa ta guztien mendekoa bera izango da. Zuetan txikiena dana, orixe da-ta aundien».

Gero, Jesus'ek ume bati dei egini, artu ta bere ondoan, guztien erdian ipiñi zuan; ta laztandurik, guztiai esan zien: «Benetan diotzute: umetxoen antzeko egiten ez ba'zerate, etzerate zeru-erreñuan sartuko. Beraz, umetxo au bezin txiki biurtzen dana, orixe da zeru-erreñuan aundien. Eta onelako umetxoren bat nere izenean artzen duanak, Ni artzen nau (87). Ta Ni artzen nauanak, ez nau Ni artzen, Ni bialdu ninduana baizik».

171.—*Jesus'en izenean deabruak botatzen zituana.*

(Mk. 9, 37-40; Lk. 9, 49-50)

Jesus'ek esan zien: «Ez yazozute galerazi, nere izenean mirariak eginda bereala, Nitzaz gaizki esan dezakenik ez dago-ta. Zuen aurka ez dagoana zuen alde dago. Eta nere izenean, Kristo'renak zeratelako, ontzitxo bat ur edateko ematen ba'dizute, ez du bere saria galduko; benetan diotzute».

172.—*Gaizpiderik ez eman* (Mt. 18, 6-9; Mk. 9, 41-47).

«Eta nere sinismena duan txiki auetako bati gaizpidea ematen ba'dio (gaizki erakusten ba'dio), obe litzayoke astoak dabilkin errotarria lepotik lotu, ta itxasora bo-

(87) Jesus'en serbitzariak, txikienak ere, Aren izenean umetxo bat artzen ba'dute, aundiak dira. Beraz, ez izan ardurarik aundiagoa nor dan jakiteko, Jesus gero-ta geyago ta obekiago serbitzeko baizik.

tatzea (88). Munduaren zoritxarra bai aundia gaizpideak dirala-ta! Gaizpideak izatea, nai-ta-naiezko da (89); baño, bai negargarria gaizpidea dakarren gizona! Zure eskuak gaizpidea ematen ba'dizu, moztu ta bota zazu zuregandik urruti; obe dezu eskumotz bizitzan (zeruan) sartzea, bi eskuak dituzula, itzaliko ez dan betiko sutara botatzea baño; an ez bait-zaye arrik iltzen, ez surik itzaltzen ere (90).

Eta begiak gaizpidea ematen ba'dizu, atera begia ta bota zazu zuregandik urruti; obe dezu-ta Jaungoikoaren erreñuan begibakar sartu, inpernura, bi begiak dituzula, botatzea baño; an ez bait-zaye arra iltzen, ez su a itzaltzen» (91).

173.—*Gatzaren bearra* (Mt. 9, 48-49).

Gizaki guztiak sutan gazituko dira-ta, opari guztiak gatzez gazitzen diran bezela. Ona da gatza; baño, gatza gezatzen ba'da, zerekin gazituko dezute? Euki zazute gatza zuengan, eta pakea alkarrekin».

174.—*Ardi galduaren ipuya* (Mt. 18, 10-14).

«Kontu gero, txiki auetakoren bat gutxietsi (desprezaitu): auen aingeruak zeruan nere Aitaren aurpegia beti ikusten dutela diotzute-eta. Gizasemea, galdu zana salbartzera etorri da-ta. Zer derizkiotzute? Norbaitek eun ardi euki, ta ayetako bat galtzen ba'du, ez ote ditu larogei ta emeretziak mendian utziko, galdutakoaren billa joateko? Ta billatzen ba'du, benetan diotzute: galdu ez diran larogei ta emeretziakin baño poz aundiagoa artzen du bakar arekin. Olaxe, bada, zuen zeruko Aitak ere ez du txiki auetako bat ere galtzerik nai».

(88) Emen dion bezelako errotarriak astoak eragiten zieten.

(89) Bizitza onetan nai-ta naiezkoak dira gaizpide edo eskandaloak.

(90) Ikus 69'garren Ataleko 2'garren oarra.

(91) Esku gabe, ta begi gabe ta, zeruan sartzea ezin ditekene da; jakina, an dana egokia ta oso-osoa izango da-ta. Baño, onelaxe aialtzen du Jesus'ek adieratzai nai diena, obeto uler dezaten.

175.—*Lagun urkoaren pekatuak nola zuzendu, ta otoi-tzaren indarra* (Mt. 18, 15-20).

Zure anayak zuri pekatu egin ba'dizu, zoaz arengana, ta biok aurrez-aurre zaudetela, asarre egiozu. Entzuten ba'dizu, senidea irabazi dezu; entzuten ez ba'dizu, berriz, joan zakizkio beste lagun batekin edo birekin, «bi edo iru testiguren aitormenez auzia indartu dedin» (92). Ayei ere entzuten ez ba'die, esan zayozu Elizari; ta Elizari ere entzuten ez ba'dio, orduan arrotz eta zergalari bezela ar zazu.

Benetan diotzutet: zuek lurrean lotzen dezutena, zeruan ere lotua izango da; ta zuek lurrean askatzen dezutena, zeruan ere askatua izango da.

Ona zer esaten dizutedan: zuetako bi zerbait eskatze-ko lurrean elkartzen ba'dira, zeruko nere Aitak emango die. Bi edo iru lagun nere izenean bilduta dauden tokian, Ni ere ayen erdian nago-ta.

176.—*Gaizki esan-egiña barkatu; morroi biotz-gogorra.*  
(Mt. 18, 21-35)

Orduan Pedro'k, Arengana urreraturik, esan zion: «Jauna! senideak nere aurka pekatu egiten ba'du, zenbat aldiz barkatuko diot? Zazpi aldiz, bai?».

Jesus'ek diotsa: «Begira: zazpi aldiz bakarrik ez; baita, zazpi aldiz zazpi-amarretaraño ere (93). Onegatik zeru-erreñuak, bere morroyakin artu-emanak garbitu nai izan zituan erregea dirudi. Kontu-garbitzen asi zanean, amar milla talentu (60 milloi pezeta) zor zizkion morroi bat aurkeztu zioten. Zerekin ordaindu etzeukala-ta, nagusiak, morroya ta onen emaztea ta seme-alabak eta zuan guztia saldu ta ordaña berari emateko agindu zuan. Baño morroya, auzpezturik, erreguka asi zitayon: «Epe txiki bat emaidazu, ta dana ordainduko dizut». Eta nagusiak, morroyaz errukitu, ta zor guztia barkatu egin zion.

Baño, morroi ura andik irten ordukoxe, berari eun denario (100 pezeta inguru) zor zizkion morroikide bat

(92) Deut. 19, 15.

(93) Au da: beti.

aurkitu zuan; eta itobearrez, berari eldurik, ala esan zion: «Zor didakena, ordaindu akidak». Morroikideak, auzpezturik, erregu egin zion: «Pazientzi pixka bat ar zak, eta dana ordainduko diat». Baño, besteak etzuan nai izan; eta joanda, giltzapean sartu zuan, zorra ordaindu arte.

Gertatzen zana ikusirik, aren morroi-lagunak, atseka-bez beterik, nagusiarengana joan eta dana esan zioten. Orduan nagusiak deitu, ta esaten dio: «Morroi gaizto ori, zor guztia barkatu nikan, eskatu idakelako. Ez al ukan, ba, ik ere ire lagunarentzat errukia izan bear, nik iretzat izan nian bezela?».

Eta ,nagusiak, asarreturik, morroya zigortzalleen esku utzi zuan, zor guztia ordaindu arte.

Beste ainbeste egingo dizute zeruko nere Aitak ere, alkarri biotz-biotzez barkatzen ez ba'diozute».

## II.—JERUSALEN'ERAKO BIDEAN

177.—*Samaritarrak Jesus gaizki artzen dute* (Lk. 9, 51-56)

Lurretik zeruratzeke egunak aurreratzen ari zitzaizkion-da, Jesus'ek Jerusalem'eruntz joatea erabaki zuan; eta albistariak aurretik biali zituan. Ayek joan eta Samari'tarren erri txiki batera sartu ziran, Arentzat ostata prestatzeko. Baño, angoak etzieten ostaturik eman, Jerusalem-alderako bidea zeramatelako.

Aren ikasle Santiago'k eta Juan'ek, ori ikusirik, esan zioten: «Jauna, nai al dezu zerutik sua jetxiarazi ta oyek kixkaltzeko agindu dezagun?».

Baño, Jesus'ek, ayengana biurturik, errietan egin zien, esanaz: «Ez dakizute zer gogoren semeak zeraten: Giza-semea ez da etorri animak galtzera, salbatzera baizik». Gero, beste erri txiki batera joan ziran.

178.—*Iru jarraitzalle berri* (Mt. 8, 18-22; Lk. 57-62).

Eta bidean zijoazela, iskribau bat inguratu zitayen eta esan zion: «Maixua, noranai zoazela, jarraituko dizut» (94).

(94) Egokitasun bikaña iskribau onena! Jesus'en jarraitzalleak, ezere



Eta Jesus'ek erantzun zion: «Azeriak beren zuloak ba-dituzte, ta zeruko txoriak beren kabiak; Gizasemeak, ordea, ez du non burua etzanik».

Beste bati esan zion: «Jarraitu zadazu».

Ark erantzun zion: «Jauna, nere aita lurperatzera joateko baimena emaidazu lenengo».

Baño, Jesus'ek esan zion: «Illen lurperatzea, utzi za-yezu illai<sup>(95)</sup>; zu, zoaz Jaungoikoaren erreinua era-kustera».

Beste batek ere esan zion: «Jauna, jarraituko dizut; baño nere etxekoai azken-agurra egitera joaten utzidazu».

Jesus'ek erantzun zion: «Goldean eskua ipiñita gero atzera begira gelditzen dana, ez da Jaungoikoaren erre-iñurako diña».

179.—*Perea'n: irurogei ta amabi ikasle* (Lk. 10, 1-12).

Onen ondoren, Jaunak beste irurogei ta amabi ikasle aukeratu, ta bere aurretik biñaka bidali zituan, Berak joan bear zuan erri ta alde guztietara. Eta ala esan zien: «Uzta ugaria da; langilleak, ordea, gutxi. Eska zayozute, beraz, uzta-jabeari, langilleak bere uztara biali ditzan. Zoazte; bildotxak otso-artera bezela bialtzen zaituztet. Etzazute eramán ez zorrorik, ez zakutorik, ez oñetako-rik; eta bidean agurrik ez egin iñori<sup>(96)</sup>. Sartzen zeraten etxean, berriz, esan lenengo: «Pakea etxe onentzat»; eta an pake-semerik ba'litz, zuen pakea aren gañera jetxiko da; bestela, zuengana biurtuko da berriz<sup>(97)</sup>. Etxe artan bertan egon gaitezte, ematen dizutena jaten eta edaten; langilleari zor zayo-ta bere saria. Ez aldatu etxe batetik bestera. Ta sartzen zeraten edozein erritan ondo artzen ba'zaituzte, jartzen dizutena jan zazute, ta ango gaxoak

jabe ez izateko ere prest egon bear du; ta nayago izan bear du Jesukristoren lanetan ari, munduarenetan denbora alperrik galdu baño.

- (95) Jaungoikoaren lanetan ari danak, oyeak utzita, ez du ala-olako-  
tara jetxi bear.  
(96) Judutarrak alkar ikusten zutenean, alkarri agur luzeak egiten  
zizkioten, denbora alperrik galdurik. Agurketan luzaro ez ari-  
tzeko esan nai die.  
(97) «Pake-seme»: bake-zale ta pakearen diña dana.

senda itzazute, ta esan: «Jaungoikoaren erreinua aldean dezute».

Eta sartzen zeraten edozein erritan ez ba'zaituzte ondo artzen, ango enparantzetara irten zaitezte ta esan: «Gure oñai erri ontan erantsi zaien autsa ere, zuentzat astin-tzen degu; jakin zazute, ala ere, Jaungoikoaren erreinua aldean dala». Benetan diotzutet: egun artan<sup>(98)</sup>, Sodo-ma'ri bigunago egingo zayo erri orri baño».

180.—*Korozain, Betsaida ta Kaparnaun madarikatzen.*  
(Mt. 11, 20-24; Lk. 10, 13-15)

Orduan, mirari geyen egin zituan erriai asarre itze-giten asi zan, damutu etziralako: «Zoritxarrekoa zu, Ko-razain! Zoritxarrekoa zu, Betsaida! Zuenean egindako mirariak Tiro'n eta Sidon'en egin ba'lira, aspaldian zakuz eta autsez estalita, ta lurreean etzanda, damu izango ziran-da. Baño, Nik diotzutet: auzi-egunean, Tiro'ri ta Sidon'i zuei baño zigorkada arñagoak emango zaiz-kie»<sup>(99)</sup>.

Eta zu, Kaparnaun, zerurño ez ote zera goratu? In-  
pernuraño ondatuko zera. Zurean egindako mirariak Sodomá'n egin ba'lira, an nonbait gaur artean iraungo zukean. Baño, ara Nik esan: auzi-egunean, Sodomá-alde-koen zigorkadak, zuenak baño bigunagoak izango dira<sup>(1)</sup>

181.—*«Zuei entzuten dizutenak, Neri entzuten dit».*  
(Lk. 10, 16)

«Zuei entzuten dizutenak, Neri entzuten dit; eta zuek ezezten (despreziatzen) zaituztenak, Ni ezezten nau; Ni ezezten nauanak, berriz, ni bialdu nauana ezezten du».

182.—*Irurogei ta amabi ikasleen biurtzea* (Lk. 10, 17-22).

Irurogei ta amabiak pozez beterik biurtu ziran, esanaz: «Jauna! Zure izenean, deabruak ere menderatu egin ditugu».

(98) «Egun artan»: Azken-auzi-egunean.

(99) «Zakuz eta autsez»: antziñakoak beren biotzeko miña ta damua agertzeko, zakuz eta soñeko latzez jaxten ziran eta buruak sutako autsez estaltzen zituzten.

(1) Tiro, Sidon eta Sodomá, antziñako erri gaizto ta ustelak ziran. Sodomá, zeruko suaz ondatu zuan. Korozain, Betsaida ta Kapar-

Eta Ark esan zien: «Satanas, tximista bezela zerutik erortzen ikusi det. Begira: subeen eta lupuen gañean ibiltzeko eskubidea ta etsayen indar guztia zapaltzeko almena eman dizutet, eta ez dizute ezertxok kalterik egingo. Ala ere, deabruak zuen mendea daudela-ta, ez zaitzete arrotu; bai, ordea, zuen izenak zeruan idatzita daudelako».

183.—*Jesus'en esker-itzak bere Aitari.*

(Mt. 11, 25-30; 13, 16-17; Lk. 10, 21-24)

Une artan, Jesus'ek Espiritu Santuagan pozez beterik, ala esan zuan: «Gorutzen zaitut, ene Aita, zeru-lurren Jauna, gauza auek jakintsu ta zintzoai ezkutatu, ta txikiak erakutsi dizkiezulako (2). Bai, Aita, orrelaxe atsegin izan dezu-ta. Nere Aitak dana utzi du nere eskuetan; eta Semea nor danik, iñork ez daki, Aitak baizik; ezta Aita nor danik ere, iñork ez daki, Semeak, eta Semeak agertu nai dionak bestek. Atozte Neregana nekaturik eta atsekabeturik zaudeten guztiak, eta Nik pizkortuko zaituztet. Nere uztarria zuen gañean artu ta ikasi zazute Nigandik, gozo ta biotzez apalak bait-naiz; ta zuen animenzako pakea arkituko dezute: nere uztarria biguna da, ta nere zama ariña».

Gero ikasleengana biurtuta, esan zien: «Zoriontsuak zuek ikusten dezutena ikusten duten begiak. Nik diotzute, bada: Igarle ta errege askok ikusi nai izan zuten zuek ikusten dezutena, ta etzuten ikusi; zuek entzuten dezutena entzun nai, ta etzuten entzun».

184.—*Jeriko-ondoan: Samaritar zintzoaren ipuya.*

(Lk. 10, 25-37)

Onetan, lege-gizon bat inguratu zitzaion Jesus'i ta azpikeriz esan zion: «Maixua! Zer egin bear det betiko bizitza irabazteko?»

naun'en gaiztakeria ere aundia izan zala diotsate Jesus'ek: ainbeste mirari ta arrigarri ayen aurrean egin arren, Mesias'tzat artu etzutelako. Gaur, iru errien orma-ondarrak besterik ez da ikusten an, Jesus'ek iragarritako zigorkada adierazteko.

- (2) Arroak eta lurkoiak ez dituzte Jaungoikoaren jakingarriak ikusten; otzan eta apalai, berri, Jaungoikoak biozperaz agertzen dizkie.

Jesus'ek esan zion: «Zer dago Legean idatzita? Zer irakurtzen dezu an?»

Lege-gizonak erantzun zion eta esan: «Zure Jaungoiko Jauna biotz-biotzez, gogo-gogoz, alegin guztiaz eta adimen osoz maite zazu; eta zure lagun urkoa, zere burua aña» (3).

Jesus'ek esan zion: «Ederki erantzun dezu! Ori egin zazu ta biziko zera» (4).

Orduan ark, bere burua zuritu-nayez, Jesus'i esan zion: «Ta, nor da nere lagun urkoa?».

Eta Jesus'ek erantzun eta esan zion: «Gizon bat, Jerusalem'dik Jeriko'ra zijoala, lapurren eskuetan erori zan; eta ayek, erantzi ta zauriz bete ondoren, erdi illik utzirik joan egin ziran. Bide artatik apaiz bat igarotzea gertatu zan; eta gizona ala ikusiarren, aurrera igaro zan. Berdin, Lebitar bat ere, toki arren ondotik zijoala, ura (zauritua) ikusiarren, aurrera igaro zan.

Samaritar bat, ordea, andik igarotzean, inguratu egin zitzaion, eta ikusi zuaneko biyotza bigundu egin zitzaion. Eta arengana joanda, zauriak lotu zizkion, olio eta ardoz gozaturik; eta bere asto-gañean artu, ostatura eraman, eta bere ardurapean artu zuan. Eta bigaramonean, bi denario aterata ostalariari eman zizkion, esanaz. «Onen kontua izan zazu, ta diru geyago bear ba'litz, onuzkoan ordainduko dizut».

Iru oyetatik, nor izan zala esango zenuke, lapurren eskuetan erori zanaren lagun urko?»

Ark erantzun zion: «Aretzaz erruki izan zana» (5).

Eta Jesus'ek esan zion: «Zoaz, bada, ta zuk ere orrelaxe egin zazu».

185.—*Betania'n: Marta ta Maria* (Lk. 10, 38-42).

Bidean zijoazela, Jesus erri txiki batean sartu zan (6), eta Marta izeneko emakume batek bere etxean artu zuan. Onek, Maria zeritzan, ta aizpa bat zuan; eta au, Jaunaren

(3) Deut. 6, 5; Lev. 19, 18.

(4) Lev. 18, 5.

(5) Jesus'ek agirian ez esanarren, ondotox ulertu zuan Lege-gizonak lagun urkoa nor zan.

(6) Erri txiki ori, Jerusalem'dik bi kilometro ta erdira zegoen Betania zan.



oiñetara makurtuta, Aren itzak entzuten zegoan; Maria, berriz, alegin aundiz, etxeko lanak egiten ari zan. Eta Jesus'engana etorri, ta ala esan zion: «Jauna! Nere aizpak lan guztietan bakarrik utzi nau, ta zuri ajolarik ez! Esayozu, bada, lagun dezaidala».

Baño, Jaunak, erantzunaz, ala esan zion: «Marta, Marta! Arduratsu ta larri ari zera gauza askotan; baño, bat bakarra da bearrezkoa. Maria'k onena aukeratu du ta etzayo kenduko» (7).

186.—*Olia-mendia'n: nola otoitztu ta otoitzaren indarra.*  
(Lk. 11, 1-13)

Eta otoitz egiten ari zala, amaitu zuanean, ikasleetako batek esan zion: «Jauna, otoitz egiten erakutsi zaiguzu, Juan'ek bere ikasleai erakutsi zien bezela».

Jesus'ek esan zien: «Otoitz egitean, onela esan bear dezute: Aita! Bedeinkatua izan bedi zure izena; betor zure erreñua; eman iguzu gaur gure eguneroko ogia; barka zaizkiguzu gure pekatuak, guk ere gure zordunai barkatzen dizkiegun bezela; ta ez gaitzazu utzi zirikal-dian erortzen».

Gero esan zien: «Zuetako batek adiskide bat ba-du, ta arengana gaberdian joan eta diotsa: «Adiskide, emazkidak ordañetan iru ogi; nere adiskide bat, emendik zijoala, etxera etorri zaidak, eta zer emanik etzeukat». Baño, besteak, barrutik erantzuten dio: «Utzi zadak pakean! Atea itxita, zegok, eta nere semeak ere, ni bezela, oyezan zeudek; ezin jeiki gindezkek iri ogiak amatera».

Baño, besteak ate-joka jarraitzen ba'du, ara zer diotzutedan nik: «eskatutakoa ematera, adiskide bezela jeikitzen ez ba'da ere, nekegarri izan ez dakion, jeiki ta bear dituan ogi guztiak eman egingo dizkio. Eta Nik au diotzutet: Eska zazute, ta emango zaitzute; zabilzate billa, ta arkituko dezute; jo zazute atea, ta zabalduko ditzute; eskatzen duanak artu egiten du; billa dabillanak, arkitu egiten du; ta ate-joka ari danari, zabaldu egiten

(7) Martak aukerako egokiera zuan orduan Jesus'i entzuten egoteko; ta Jesus'ek une ori alperrik ez galtzeko adierazten dio. Maria'k, berriz, eginkizun ohea artu du, Jesus'en erakutsiak entzuten dago-ta.

zayo. Zuetako batek bere aitari ogia eskatzen ba'dio, arri bat emango ote dio? Edo arraya eskatuta, arrayaren ordeze sube bat emango ote dio?, edo arrautza ezkatuta, lupua emango ote dio?

Beraz, zuek, gaiztoak izanarren, zuen umeai gauza onak ematen ba'dizkiezute, geyago emango die gogo ona zuen Aitak eskatzen diotenai».

187.—*Jerusalen'en: Eliz-eskeintzearen jaya.* «Aita ta Ni bat gera» (Jon, 10, 22-42).

Eskeintza-jayak egiten ziran garaya zan (8). Negua. Jesus Eliza Nagusian zebillen, Salomon'en aterpean. Judutarrak inguratu ta esan zioten: «Noiz arte euki bear gaituzu zalantzan? Zu ba'zera Mesias, esan zaiguzu argi ta garbi».

Jesus'ek erantzun zien: «Esan dizutet, eta ez dezute sinisten. Nere Aitaren izenean egiten ditudanak, Nitzaz aitormen ematen dute. Baño, zuek ez dezute sinisten, nere ardietakoak etzeratelako (9). Nere ardiak, nere deya entzun egiten dute, ta Nik ezagutzen ditut, ta jarraitu egiten didate. Betiko bizia ematen diet; eta ez dira iñoiz galduko, iñork ez ditu nere eskutik kenduko-ta. Eman zizkidan nere Aita, ezer baño aundiagoa da, ta nere Aitaren eskutik ez ditu iñork kenduko. Aita ta Ni bat gera» (10).

Orduan, judutarrak arriak artu zituzten, Ari arrika emateko. Jesus'ek esan zien; «Egintza on asko egin dizkitzutet zuen aurrean nere Aitaren indarrez; egintza oye-tako zeñegatik arrika eman nai didazute?»

Judutarrak erantzun zioten: «Ez dizugu egintza onagatik arrika ematen, biraoagatik baizik: gizona izan, eta zere burua Jaungoiko egiten dezulako».

Jesus'ek esan zien: «Ez ote dago zuen Legean idatzita:

(8) Eskeintza-jaya: judutarrak urtero egiten zuten jaya zan. Bein batean, Antioko Epifanez gaiztoak, Jerusalem'go elizan sarturik, loitu ta zikindu egin zuan. Judas Makabeo'k, berriz, bere etsayak Jerusalem'dik bota ondoren, garbitu ta berriro bedeinkatu. Gertaera onen oroigarriz egiten zuten judutarrak urteroko jai au.

(9) Judutarrak nai ez dutelako ez dute sinisten.

(10) Zer-izanean, bat; nor-izanean, bi.

«*Nik esan det: Jaungoiko zerate?*» (11)». Beraz, Jaungoikoaren itza entzun zuten ayei, Jaungoiko-izena eman ba' zitzayen —eta Liburu Santuak ezin utsik egin dezateke—, Jaungoikoak bedeinkatu ta gizartera bialdu duanari zuek, «birao esaten dezu» aurpegira botatzen didazute, «Jaungoikoaren Seme naiz» esan dedalako? Nere Aitaren egi-terik egiten ez ba'det, ez Nigan sinistu; baño, egiten ba' ditut, eta Nigan sinistu nai ez dezuten ezkerro, egiñai sinistu zayezute; Aita Nigan dagoala ta Ni Aitagari nagoala, ezagutu ta sinistu dezazuten».

Orduan ere artu ta lotu nai izan zuten, baño ayen esku-artetik iges egin zuan (12).

Eta berriro Jordan igarota, len Juan batayatzan ari zan tokietara biurtu, ta an gelditu zan. Lagun asko etorri zitzaizkion, eta ala zioten: «Juan'ek etzuan mirari bat ere egin; baño, Juan'ek onetzaz esan zuan guztia, egia zan».

Eta asko Aren (Jesus'en) sinismenera etorri ziran.

188.—*Jesus'ek deabru mutu bat botatzen du.*  
(Lk. 11, 14-23)

Eta Jesus deabru mutu bat botatzen ari zan, Eta deabrua bota zuanean, mutuak itz egin zuan; eta jendeak arrituta gelditu ziran. Baño ayetako batzuek ala zioten: «Beelzebul deabru nagusiaren indarrez botatzen ditu deabruak».

Jesus'ek, ayen gogoetak igarrita, esan zien: «Bere aurka banandua dagon erreñua, ondatu egingo da, ta etxea etxearen gainera eroriko da. Beraz, Satanas'ek bere buruaren aurka egiten ba'du, nola iraungo du zutik aren erreñua? Beelzebul'en indarrez botatzen ditudala deabruak diozute-ta? Nik deabruak, Beelzebul'en indarrez botatzen ba'ditut, ordea, zuen semeak noren indarrez botatzen dituzte? Orregatik, ayek izango dira zuen epaille. Baño, deabruak Jaungoikoaren indarrez botatzen ba' ditut, Jaungoikoaren erreñua benetan iritxi zaizute.

Bere etxeko ataria gizon azkar eta armadun batek

(11) Ps. 81, 6.

(12) Oraindik etzitzayon iritxi etsayen eskuetan bere burua uzteko ordua.

zaintzen duanean, dauzkan guztiak ondo gordeta daude. Baño, gizon ura baño gogorragoren batek, etorrita, azpiratzen ba'du, armak kendu egingo dizkio —armetan zeukan ark bere uste osoa—, ta aren ondasunak zabaldu egingo ditu. Nerekin ez dagona, nere aurka dago; ta Nerekin biltzen ez duana, sakabanatzen ari da».

189.—*Geroa lengoa baño txarrago.*  
(Mt. 12, 43-45; Lk. 11, 24-26)

«Deabru zikiña gizonagandik irten danean, toki legorretan zear ibiltzen da atsedena-billa, ta ez du arkitzen. Orduan ala dio: «Irtzen nintzan nere etxera biurtuko naiz». Eta ara iritxi ta utsik, garbiturik eta apaindurik arkitzen du. Orduan, ba-dijoa, ta beste zazpi deabru bera baño gaiztoagoak berekin artzen ditu, ta etxean sartuta, bertan gelditzen dira (13); eta gizon arren geroa, lengoa baño txarrago da. Orixe gertatuko zayo gizaldi oni ere».

190.—*Zorionsua Jesus'en Ama!* (Lk. 11, 27-28).

Eta Jesus orrela itz egiten ari zala, jende-arteko emakume batek, deadarka ala esan zion: «Zorionsua Zu ekarri zinduan sabela, ta artu zenuan bularra!»

Baño, Jesus'ek erantzun zion: «Zorionsuagoak, ordea, Jaungoikoaren itza entzun eta betetzen dutenak!»

191.—*Jonas igarlearen ezaugarria.*  
(Mt. 12, 38-42; Lk. 16, 29-32)

Orduan, iskribau ta parisetiar batzuk, zirikatu nairik, ala esan zioten: «Maixua, Zuk egindako ezaugarri bat ikusi nai genuke».

Jesus'ek, jendea inguratu zitzaizkion, esan zion: «Gizaldi au gizaldi gaizto ta dollorra da; mirari bat eskatzen du, baño, etzayo ezaugarririk emango, Jonas igarlearena besterik. Ninibe'tarrentzat Jonas ezaugarri izan zan bezela, Gizasemea ere, Jonas arrayaren sabelean bezela iru egun eta iru gau lurraren biotzean egongo da. Ninibe'tarrak, auzi-egunean, gizaldi onen aurka altxako

(13) Deabruaren jokaera, bideetako lapurren antzekoa da: lapurra toki ezkutuan ixil-ixil egoten da, ostutzeko aukera etorri arte.



dira, ta gaitzetsi (kondenatu) egingo dute: Jonas'ek damu-deya egin zienean, damutu ziralako; ona emen, Jonas baño geyago dana.

Egoaldeko erregiña, auzi-egunean, gizaldi onen aurka jaikiko da, eta kondenatu egingo du: Salomon'en jakituria entzutera lurreko azken-baztarretik etorri zalako. Ona emen, berriz, Salomon baño geyago dana».

192.—*Begia da gorputzaren argi* (Lk. 11, 33-36).

Itzork ez du krisallua piztu-ta, toki ezkutuan ipintzen, argi-ontzi gañean baizik, sartzen diranak argia ikusi dezaten. Zure begia da zure gorputzaren argi. Zure begia garbia ba'da, zure gorputz guztia argitsu izango da; gaiztoa ba'da, berriz, zure gorputza ere illunpetan egongo da. Begira, bada, zuga dagon argia ez dedin itzali! Beraz, zure gorputz guztia argitan eta illun-unerik gabe egongo ba'litz, guzti-guztia argitsu izango da, ta argi-ontzi batek bere dizdizaz argitzen duan bezela argituko zaitu».

193.—*Pariseotar baten etxean: pariseotarraren zurikeria.* (Lk. 11, 54)

Jesus itz egiten ari zala, pariseotar batek bere etxean bazkaltzera joateko esan zion. Etxean sartuta, mayean exeri zan. Baño, Jesus jan-aurretik garbitu etzalako, pariseotarra arriturik gelditu zan. Eta Jaunak esan zion: «Zuek, pariseotarrok, ontziaren kanpokaldea garbitzen dezute; zuen barrua, berriz, lapurkeriz eta gaiztakeriz betea dago. Zoroak! Kanpokoa egin duanak berak ez al du, ba, egin barrukoa ere? Ala ere, dezutenetik limosna eman zazute, ta orrela guztia garbi izango zazute» (14).

Baño, zoritxarrekoak zuek, pariseotarrok!, belarraren eta erruraren eta beste belar guztien amarrenak emanaz, zuzenbidea ta Jaungoiko-maitasuna alde batera uzten dezutenok! Auek egin bear ziran; baño, beste ayek utzi gabe. Zoritxarrekoak zuek, pariseotarrok, sinagogetan lenengo eserlekuak billatu ta enparantzan agur egin

dezaizuten nai dezutenok! Zoritxarrekoak, zuek, agiri ez diran, eta gizonak, jakin gabe, ayen gañean ibiltzen diran illobiak dirudizutenok».

Orduan, lege-jakintsu batek esaten dio: «Maixua! orrela itz egiñaz, guri ere irain egin eta min ematen diguzu».

Jesus'ek erantzun zion: «Zoritxarrekoak, zuek ere, lege-jakintsuok! ezin jaso alako sortak gizonen gañean ipintzen dituzute-ta; zuek, berriz, beatz batekin ere ez dituzute sorta oyek ikuitzen (15).

Zoritxarrekoak zuek!, zuen aurrekoak ildako igarle-entzat illobiak egiten dituzutenok! Orrela, zuen aurrekoak egiñak aitortu ta onartu egiten dituzute; ayek igarleak il, eta zuek auentzat illobiak egiten dituzute-ta. Orregatik esan zuan Jaungoikoaren Jakintzak: «Igarleak eta Apostoluak bialiko dizkiet; eta ayek, auetako batzuk il egingo dituzte ta beste batzuk gaizki artuko; gizaldi onek, lurraren asieratik ixuri duan igarle guztien odolaz erantzun dezan: Abel'en odoletik asita, opari-aldare ta elizaren artean ildako Zakarias'en odoleraño». Bai, Nik diotzutet: odol orren erantzuna gizaldi oni eskatuko zayo.

Zoritxarrekoak zuek, lege-jakintsuok!, jakite-giltza artu dezutenok; zuek etzerate sartu, ta sartu nai zutenai galerazi egin zenizuten» (16).

Jesus'ek gauza auek esatean, pariseotarrak eta lege-jakintsuak Ari, (Jesus'i) gogor egiten asi zitzaizkion, eta gauza askotaz galderak egiten, Aren atok irtendako itzen bat jaso nayaz, gero Ura salatze.

194.—*Pariseotar zuri-utsen legamia* (Lk. 12, 1-12).

Onetan, gizatalde aundiak bildu ziran, alkar zapaltzeko ainbeste; Jesus ikasleai esaten asi zan: «Kontu pariseotarren legamiarekin, itxurakeria da-ta. Ez dago gordeta ezertxo ere, agertuko ez danik; ezta ixilpean ere, jakingo ez danik. Illunpetan esaten dezutena, argitan esango da; ta belarrira, gela-barruan esandakoa, etxe-gañetik deadarka esango da. Zuei, berriz, nere adiskide

(14) Barrango zizkutik limosna egin dezatela esaten die, maitasun-egintzak egiteko: orrela, barruz garbi geldituko ziralata-ta.

(15) Ikasi dezagun Jesus'engandik gure artekoen utsegiteak zuzentzen, eta bear danean, asarre egiten ere bai, gizonen bildurrik eta lotsik izan gabe.

(16) Benetako Jakintza, Jesus zan.



oyei, esaten dizutet: gorputza il besterik ezin dezatekenen bildur ez izan. Nik erakutsiko dizutet nori bildur izan bear diozuten: gorputza il-ondoren, inpernura bota dezatenaren bildur izan bear dezute. Bai, Nik diotzutet: orren bildur izan zaitezte.

Ez ote dira bost txori bi txanponetan saltzen? Ala ere, ayetako bakar bat ere ez dauko Jaungoikoak aztuta. Zuen buruko ille guztiak ere zenbatuta daude. Ez bildurrrik izan, bada; txori askok baño geyago balio dezute zuek. Baita ere esan bear dizutet: gizonen aurrean Ni aitortzen nauana, Jaungoikoaren aingeruen aurrean Gizasemeak ere aitortu egingo du; gizonen aurrean ukatzen nauana, berriz, Jaungoikoaren aingeruen aurrean ukatua izango da. Ta Gizasemearen aurka itzegiten duanari, barkatuko zayo; baño, Espiritu Santuaren aurka itzegiten duanari, etzayo barkatuko. Sinagogetara ta agintarien ta nagusien aurrera eraman bezaitzateanean, berriz, ez larritu nola ta zer erantzungo edo esango dezuten; une artan bertan Espiritu Santuak erakutsiko dizute-ta».

195.—*Ondasun-goserik ez izan: aberats burugabearen ipuya* (Lk. 12, 13-21).

Jende arteko batek esan zion: «Maixua! esan zayozu nere anayari, bere ondarea (erentzia) nerekin erdibanatu dezala».

Baño, Jesus'ek esan zion: «Gizona, nork ipiñi nau Ni zuen arteko epaille edo banatzalle?»

Ta guztiak esan zien: «Kontu izan eta edozein ondasun-gosetik zaindu arduraz zuen buruak; norbaitek gañezka euki arren, gizonaren bizitza ez dago-ta ondasun asko izatean».

Eta ipui au esan zien: «Gizon aberats baten sorok uza ugaria ekarri zuan. Eta ala zion berekiko: «Zer egingo det, nere uzta sartzeko tokirik ez daukat-eta? Auxe egingo det—esan zuan—; nere mandioak bota ta aundiagoak egin, ta nere uzta ta ondasun guztiak ayetan-txe bilduko ditut. Gero, nere gogoari esango diot: «Ene anima!, urte askotarako ondasunak bilduta daukazuz; atsenden artu, jan, edan, lasai bizi».

Baño, Jaungoikoak esan zion: «Zoro ori! gaur bertan eskatuko dizute bizi; ta bildu dezuna norena izango da?»

Orixe gertatzen zayo Jaungoikoarentzat aberats izan bearrean, norberarentzako ondasunak biltzen dituanari» (17).

196.—*Lurreko ondasunen kezkarik ez izan* (Lk. 12, 22-34).

Ta bere ikasleak esan zien: «Onetxegatik diotzutet: ez ibilli kezketan bizitzeko zer jango dezuten, ezta gozputza nola jantziko ote dezuten ere. Janariak baño geyago balio du biziak, eta jantziak baño geyago gorputzak. Orra or beleak: ez dute ereiten, ez biltzen; ez dute mandiorik, ezta aletagirik ere; ta Jaungoikoak janaritzen ditu. Ez ote dezute zuek ayek baño askoz geyago balio? Nor da zuen ertean, bere alegin guztiaz ere, ukalondo bat azi ditekunik? (18). Beraz, gauzarik txikiena ere ezin dezuten ezkerro, gañerakoetzaz zergatik kezketan bizi? Ara, zelaye-tako loreak; begira nola azitzen diran. Ez dute lanik egiten, ez iruten. Ala ere, ona Nik esan: «Salomon ere, bere aundian, etzan oyetako bat bezin eder jantzi. Beraz, gaur zelayean bizi ta biar labera botatzen dan belarra Jaungoikoak orrela jazten ba'du, zenbat obekiago jantziko zaituzte zuek, sinismen otzeko gizonok?»

Beraz, ez ibilli jatekoaren eta edatekoaren kezketan; ta ez larritu; guzti oyen billa sinismen gabekoak ibilli oi dira-ta; zuen Aitak, ordea, ba-daki guzti oyen bearrean zaudetela. Beraz, billa zazute lenengo Jaungoikoaren erreñua ta beste guzti oyek gañez emango zaizkitzute. Ez bildur izan, nere artaldetxo, Aitak atsegiñez emango bait-dizute erreñua. Zuen ondasunak saldu ta eman zazute limosna; egin itzazute zerurako zaartzen ez diran zorroak eta galtzen ez diran ondasunak; an, (zeruan) ez da lapurrik, ezta sitsik ere. Zuen ondasunak daukazuten tokian, bait-daukazute zuen biotza ere».

197. *Morroí pizkorraren ipuya* (Lk. 12, 35-42).

«Beude zuen gerriak loturik eta krisalluak zuen eskuetan piztuta; eta zuek, nagusia eztayetatik noiz biur-

(17) Aberats arren gaiztakeria ondasunak beretzat bakarrik biltzea izan zan; ez Jaungoikoa, ez beartsuak gogoan euki gabe.

(18) Bizitzarekin ere beste orrenbeste gertatzen da: eriotza datorrean, nork luzatu bizitza egun bat ere?



tuko dan zai, gizon zintzoak egon oi diran bezela; etorri ta atea jo-orduko berari zabaltzeko. Zoriontsuak benetan, nagusiak, etortzen danean, zai billatzen dituan morroyak! Egia esan: gerria loturik, mayean eseri-eraziko ditu ta, banan-banan, jaten emango die. Ta bigarren gau-aldian, naiz irugarrenean, etortzen ba'da, ta orrela arkitzen ba' ditu, zorionekoak morroi ayek!

Eta auxe jakin bear dezute: lapurra zer ordutan etorriko zayon ba'leki etxeko jaunak, zai egongo litzake, ta ez luke bere etxea zulatzen utziko. Zuek, beraz, zaudete gertu; gutxien uste dezutenean etorriko da-ta Gizasemea».

198.—*Etxezai zintzoaren eta morroi gaiztoaren ipuya.*  
(Lk. 12, 41-48)

Orduan, Pedrok ala esan zion: «Jauna! ipui ori guretzat esan al dezu, ala beste guztientzat ere bai?» (19).

Jaunak esan zuan: «Nor dala uste dezute etxezai zintzo ta burutsua, nagusiak morroi-buru ipiñia, etxekoai bear danean jatekoa emateko? Zoriontsua, nagusiak etxeratzean, lan artan billatzen duan morroya! Benetan diotzutet: bere ondasun guztien zaitzalle ipiñiko du.

Baño, morroi ark bere barruan esango ba'lu: «Nere nagusia oraïndik ez da etorriko», ta morroi-neskameak astintzen, eta jan-edanetan eta moskortzen asiko ba'litz, berak uste ez duan egunean ta ez dakin orduan etorriko zayo nagusia, ta bereziko du besteetatik eta gaiztoai zor zayen zoria emango dio. Bere nagusiaren gogoia jakinda ere, gertu egon bearrean, aren naya egin etzuan morroi ark zigorkada asko artu bearko ditu. Baño, nagusiaren gogorik jakin gabe astintzea merezi duan zerbait egiten ba'du, zigorkada gutxi artuko ditu. Asko eman zayonari asko eskatuko zayo; ta gordetzeko asko utzi zitzaionari, geyago eskatuko diote».

(19) Ipui au guztioi dagokiela agertuaz, erantzuten du Jesus'ek.

199.—*Esaera batzuk. Aldien ezaugarriak* (Lk. 12, 49-59).

Lurrari sua ematera etorri naiz; ta zer nai det erre dedilla baizik? (20). Batayoz batayatu bearra naiz; eta ori gerta dedin arte, au da nere ezin-egona! (21).

Lurrera pakea ekartzera etorri naizela uste al dezute? Ez orixe, banaketa baizik (22). Oraïndanik, etxe batean bost lagun egongo dira banatuta; iru biren aurka, ta bi iruren aurka. Aita semearen aurka altxako da ta semea aitaren aurka; ama alabaren aurka ta alaba amaren aurka; amagiarreba errañaren aurka ta eraña amagiarrebaren aurka».

Gero, jendeari esan zion: «Eguzki-sartaldetik odei bat sortzen ikusita, bereala esaten dezute: «Euria dator», ta alaxe da; ta ego-aizea dabilela somatzean, diozute: «Sargori egingo du». Zuriak ez bestena! Zeru-lurren aurpegia ezagutzen ba-dakizute; oraingo aldi au, berriz, zergatik ez dezute ezagutzen? (23). Zergatik ez dezute zuek zuen senaz zuzena zer dan ezagutzen? Zure aurka dagonarekin agintariarengana zoazenean, bidean arengandik askatze-ko egiñalak egin itzazu; epaillearen eskuetan ipiñi ez zaitzan, eta epailleak, ertzañarenetan, eta ertzañak gilzapean sartu ez zaitzan. Benetan diotzutet: Etzerate andik aterako azken-zentimorañokoa ordaindu arte».

200.—*Perea'n: damutu egin bear dala.—Piko alperra.*  
(Lk. 13, 1-9)

Aldi artantxe norbaitzuk etorri ziran, eta Pilatos'ek Galilea'n batzuen-batzuen odola ixuri zuala adierazi zioten, ayek beren opariak eskeintzen ari ziran bitartean (24). Eta erantzunaz, ala esan zien: «Galileatar oyek

(20) Su ori, Espiritu Santuaren sua da, ta lurbira osoa erre dezan nai du.

(21) Jesus'ek gogo biziz artu nai duan batayo ori, bere nekaldi ta eriotza dira.

(22) Burruka ta banaketa ori, Kristo'ren jarraitzaileen eta Aren etsayen artekoa da.

(23) Ainbeste ezaugarri ikusi zituzten Mesias'en aldia ezagutzeko. Baño, etzituzten ezagutu nai, gaiztoz eta zentzugabekeriz.

(24) Judutarrak erromatarren mendean zeuden, ta, jakiña, gogo txarrez egon ere. Noizean bein matxinadak eta zalapartak ere izan oi ziran. Onelakoren bat egin zuten Jerusalem'en, itxuraz, Jaun-

beste Galileatarrak baño gaiztoagoak zirala uste al dezute, orrelako ezbearra izan dutelako? Ezetz diotzutet Nik: damutzen ez ba'zerate, ordea, guztiak orrelaxe galduko zerate. Silo'ko torrea erori ta il zituan emezortzi ayek ere, Jerusalem'go beste bizilagunak baño pekatariago zirala uste al dezute? (25). Nik ezetz diotzutet; eta damutzen ez ba'zerate, guztiok orrelaxe galduko zerate».

Gero, ipui bat esan zien: «Batek, bere maastian piko bat zeukan aldatuta; ta aren frutu billa etorrita, etzion bat ere arkitu. Orduan, ala esan zion maasti-zaitzalleari: «Iru urte auetan etorri naiz piko-billa pikondo ontara, ta ez det bat ere arkitu. Moztu zazu, bada, lurrean alpe-rrik zertarako euki?» Baño, ark erantzun eta esan zion: «Jauna! Utzi zayozu aurtengoagatik; nik inguruan atxur-tu ta ongarria botako diot; orrela, bear bada, frutua emango du; ta bestela, urrengo urtean moztuko dezu».

201.—*Emakume gaxo bat larunbatez sendatzen du.*  
(Lk. 13, 10-17)

Larunbat batean, Jesus ayen sinagoga batean erakusten ari zan. Eta emezortzi urte ayetan deabruak gaxorik zeukan emakume bat zan an; makur-makur eginda zegoan, eta ezin zuan inolaz bururik jaso. Jesus'ek gaxoa ikusirik, dei egin eta ala esan zion: «Emakume!, zure gaitz ortatik askatuta zaude».

Ta eskuak ipiñirik, emakumea beingoan zuzendu ta Jaungoikoa goratzen asi zan.

Jesus'ek emakume ura larunbatez sendatu zualako, asarreturik, sinagoga-buruak jendeari esaten zieten: «Sei egun dira astean lana egiteko; etorri zaitzte egun oyetan sendatu zaitzeten eta ez larunbatean».

Baño, Jaunak erantzun eta esan zien: «Azalutsok!, ez al du zuetako nornaik bere idia edo astoa larunbatez askatik askatzen eta edatera eramaten? Eta Satanas'ek emezortzi urte auetan lotuta zeukan Abraan'en alaba oni, lokarria larunbatean askatzea ez ote zan egoki?»

goikoari opariak eskeitzera joan ziranean; eta Erromatar agintariak, Pilatos'ek, bere gudariak bialdu ta il egin zituzten.

(25) Jerusalem'go torre aundia erori ta emezortzi lagun artu zituan azpian eta il.

Onela itz egiten ari zala, bere etsai guztiak lotsez zeuden; erri guztia, berriz, Ark egiten zituan mirari goragarriagatik pozez beterik zegoan».

202.—*Mostaza-aziaren eta legamiaren ipuyak.*  
(Lk. 13, 18-21)

Beste ipui bat ere esan zien: «Zer dirudi Jaungoikoa-aren Erreiñuak? Eta zeren antzeko dala esango det? Gizon batek artu ta bere baratzen erein zuan mostaza-aziaren antzeko da; azi ta zugaitz aundi egin zan, eta bere adarretan zeruko txoriak gelditzen dira».

Eta beste au ere esan zien: «Zerekin berdinduko det Jaungoikoa-aren Erreiñua? Emakume batek artu ta, ore guztia jaiki arte, iru neurri-irifietan sartu zuan legamiaren antzeko da».

203.—*Zenbat dira zerurako aukeratuak?* (Lk. 13, 22-35).

Eta Jerusalem-aldera zijoala, uri ta erri txikietan erakusten ari zan. Eta norbaitek galde egin zion: «Jauna, gutxi al dira zerua irixten dutenak?»

Jesus'ek erantzun zion: «Ate estutik sartzeko egiñalak egin itzazute; Nik esaten dizutet, sartu nai ta ezin sartu asko ibilliko dirala. Etxeko nagusia sartu, ta atea itxi ondoren, atarian gelditzen ba'zerate, naiz-ta, «Jauna, idiki zaiguzu» esanaz ate-joka asi, ark erantzungo dizute: «Ez dakit nongoak zeraten». Orduan, zuek esango dezute, «Zure aurrean jan eta edan genduan eta gure enparantzetan erakutsi zenuan». Eta esango dizute: «Nik ez dakit nongoak zeraten; alde Nigandik gaizkille guztiok!». An izango da negarra ta ortz-karraska, Abraan, Isaak, Jakob eta igarle guztiak Jaungoikoa-aren erreiñuan ikusiko dituztenean, eta zuek andik kanpora geldituko zeratenean. Eta Eguzki-sortzaldetik, Sartzaldetik, Iparraldetik eta Egoaldetik etorriko dira, ta Jaungoikoa-aren erreiñuan maikide exeriko dira. Ta azkenengo diranak, lenengo izango dira; ta lenengo diranak, azkenengo izango dira».



204.—*Judea-ondoan; Erodes'en zemaketak. Jerusalem! Jerusalem!* (Lk. 13, 31-35).

Egun artan bertan, pariseotar batzuk urreratu zitzaizkion, esanaz: «Zoaz ta alde egizu emendik Erodes'ek il egin nai zaitu-ta» (26).

Baño Jesus'ek erantzun zien: «Zoazte ta esan zayozute azari orri: Begira; Nik gaur eta biar deabruak botatzen eta gaxoak sendatzen ari naiz; eta etzi amaituko det. Eta aurrera jarraituko det, igarlea Jerusalem'dik kanpora iltzea ez bait-da egoki. Jerusalem!, Jerusalem! Igarleak il eta zuregana bialdutakoai arrika ematen diezun orri! Amaika aldiz bildu nai izan ditut zure semeak, olloak bere txitak egapean bezela; ta zuk ez dezu nai izan! Ara! Bertan bera itxirik geldituko da zure etxea (27). Ta Nik diotzutet: ez nauzute berriro ikusiko, «gora Jaunaren izenean datorrena» zuek oju egiteko eguna iritxi arte».

205.—*Gizon urmindun bat sendatzen du* (Lk. 14, 1-8).

Jesus pariseotar baten etxean bazkaltzera larunbatez sartu zan batean, zaitzen jarri zitzaizkion. Eta ara!, gizon urmindun bat Aren aurrean zegon. Jesus'ek, bada, legejakintu ta pariseotarrengana biurturik, itz egin eta esan zien: «Zillegi (libre) al da larunbatez sendatzea; bai ala ez?».

Baño, ayek ixillik gelditu ziran. Eta Jesus'ek gaxoa eskutik artuta, sendatu ta bialdu egin zuan. Eta ayengana biurtuta, ala esan zien: «Zuetako bati, astoa naiz idia zulara erortzen ba-zayo, ez al du andik berealaxe aterako, naiz-ta larunbata izan?»

Eta ayek etzioten onetzaz ezertxo erantzun.

206.—*Apaltasunerako ta maitasunerako burubidea.* (Lk. 14, 7-14)

Bazkaldarrak lenengo tokien billa zebiltzala ikusita, ipui au esan zien: «Eztayetara deitzen zaituztenean, ez zaitetz lenengo tokian jarri; ba-diteke zu baño aundiago-

(26) Bildurra sartzearren asmatu zioten kontu ori. Baño, Jesus ez da ikaratzten, ta bere bideari jarraituko dio: Aitak erabakitako orduan ilko da Jerusalem'en.

(27) Eliza Nagusia ondatuta geldituko dala agertzen du; ta orrela, berak ere utziak bide onera biurtzen ez diran bitartean.

ren bat deitua izatea-ta; orduan bioi dei egin dizutena etorri, ta esan dezaizuke: «Toki au utzi zayozu oni»; orduan, lotsaz azken-tokia artu bearko zenuke-ta. Deya artzen dezunean, ordea, zoaz eta jarri zaitetz azken-tokian, deitzallea etorri dediñean, esan dezaizun: «Adiskide!, igo zaitetz gorago!» Orduan maikideen aurrean ospe aundia izango dezu. Goratzen dana beeratu egingo bait-dute; ta beeratzen dana goratu».

Bazkal-deya egin zionari, berriz, esan zion: «Bazkari naiz apari bat ematen dezunean, ez dei egin zure adiskideai ta zure anayai, ez senideai, ezta zure auzoko aberatsai ere; bestela, ayek zuri atzera dei egiñaz, ordainduko dizute-ta. Oturuntza gertatzen dezunean, ordea, dei egin zayezute beartsu, maingu, erren eta itxuai; eta oyek ez dute ordainbiderik, eta zoriontsu izango zera, zintzoen piztueran saria artuko bait-dezu».

207.—*Apai aundiaren ipuya* (Lk. 14, 15-24).

Bazkaldarretako batek au entzunda, ala esan zion: «Zoriontsua Jaungoikoaren erreñuan maikide izango dana».

Jesus'ek esan zion: «Gizon batek apari aundi bat gertatu zuan, eta lagun askoi dei egin zien jatera. Ordua etorri zanean, bere morroya bialdu zien guztiai etortzeko esatera, aparria gertu zegoala-ta. Baño, guztiak aitzakiak ipiñi zizkioten. Lenengoak esan zion: «Basetxe bat erosi det, eta ikustera joan bear det; arren barka zadazu». Beste batek esan zion: «Bost idi-pare erosi ditut, eta ayek proatzera joan bear det; arren barka zadazu. Ta beste batek: «Ezkondut egin naiz, ta ezin joan niteke».

Morroya etxera biurtu zan, eta nagusiari dana azaldu zion. Orduan, etxeko jaunak, asarretuta, morroyari esan zion: «Zoaz aguro erriko enparantza ta kaleetara, ta beartsu, ta maingu, ta itxu ta errenak sarrerazi itzazu».

Eta morroyak esan zion: «Jauna, zure agindua egin det eta oraindik tokia dago».

Eta nagusiak orduan morroyari: «Bide ta esi-barrue-tara zoaz eta, gogorrean ba'da ere, sarrerazi itzazu guztiak, etxea bete dedin. Ona zer esaten dozutedan: deitutako gizon ayetako batek ere ez du nere aparirik jango».



208.—*Jesus'i nola jarraitu? Torrearen eta erregearen ipuyak* (Lk. 14, 25-33).

Gizatalde aundia zebillen Arekin; ta ayengana biurturik, ala esan zien: «Neregana norbait ba'datorkit, eta bere aita, ama, emazte, seme-alabak, eta anai-arrebak, baita bere burua ere iguintzen ez ba'ditu, (28), ezin izan diteke nere ikasle. Ta gurutzeta sorbaldan artuta, nere ondotik etortzen ez dana, ezin izan diteke nere ikasle. Zuetako batek torre bat egin nai ba'du, ez al du lenago eralgi bear duanaren kontua ateratzen, bere lana amaitzeko naiko ba'daukan ala ez? Oñarriak ipiñita gero, ezin amaitu ba'leza, ikusten duten guztiak asi ez ditezen isekaz esaten: gizon au etxea egiten asi zan, eta ezin bukatu izan du».

Edo ta errege batek beste errege baten aurka guda egin nai ba'du, ez al du lenago astiro ikusten amar milla gizonekin gogor egin ote dezayoken, ogei milla gizonekin gañera datorkionari? Bestela, ura oraindik urruti dala, albistariak bialdu ta pakea eskatzen dio. Orrela, bada; zuetako iñor ezin izan diteke nere ikasle, dituan guztiak uko egiten ez ba'die».

209. *Gatzaren ipuya* (Lk. 14, 34-35).

Gatza ona da; baño gatza gezatzen ba'da, zerekin gazituko da? Ez lurrarentzat, ez simaurtegirako ez du balio; ta kanpora botako dute. Aditzeko belarririk duenak, entzun beza».

210.—*Ardi galdua. Drakma galdua* (Lk. 15, 1-10).

Zerga-biltzalleak eta pekatariak inguratu zitzaizkion entzutera. Pariseotarrak eta iskribauak, berriz, marmar ari ziran, esanaz: «Orrek pekatariak onartu egiten ditu ta orrelakoakin jan ere bai».

Orduan, Jesus'ek ipui au esan zien: «Zuetako batek eun ardi izan eta bat galtzen ba'zayo, ez al da, larogei ta emeretzia mendian utzita, galdu duanaren billa joaten, billatu arte? Eta, billatutakoan, lepoan pozik artzen du; ta etxera joanda, adiskide ta auzokoak biltzen ditu,

(28) Ni baño gutxiago maite ez ba'ditu. (Ikus 126 atala).

esanaz: «Poztu zaitezte nerekin, galdu zitzaidan ardia billatu det-eta». Nik diotzutet: orrelaxe, zeruan ere poz aundiagoa izango da damutu ta ontzen dan pekatari bategatik, damu-bearrik ez duten larogei ta emeretzigatik baño».

Edo-ta, zein emakumek amar drakma izan eta bat galtzen ba'du, ez du krisallua piztutzen eta etxea garbitzen eta arduraz billatzen, drakma arkitzen duan arte? Eta arkitutakoan, adiskide ta auzokoak biltzen ditu, ta esaten die: «Poztu zaitezte nerekin, galdu nuan drakma billatu det-eta». Eta, Nik diotzutet: orrelaxe poz aundia izaten da Jaungoikoaren Aingeruen artean, damutzen dan pekatari bategatik».

211.—*Seme galdua* (Lk. 15, 11-32).

Eta esan zien: «Gizon batek bi seme zituan. Eta aye-tako gazteenak ala esan zion bere aitari: «Aita, eman zadazu ondasunetatik neri dagokidana». Ta aitak ondasunaren partiketa egin zien. Andik egun batzuetara, seme gazteena, guztiak artuta, urrutiko lurralde batera joan zan, eta an, lasaikerian bizirik, bere ondasun guztiak ondatu egin zituan. Baño, guztia galdu zuanean, gosete ikaragarria sortu zan an ayetan, eta bear gorrian arkitu zan. Joan zan, bada, ta ango erritar baten morroi jarri zan; ta onek, bere larretara bialdu zuan txerri-zai. Txerriak jaten zituzten lekaz sabela bete nai zukean; baño, iñork ere etzizkion ematen.

Eta bere senera biurturik, ala esan zuan: «Amaika morroik ba-daukate ogirik asko nere aitaren etxean; eta ni emen goseak iltzen. Altxa ta aitarengana joango naiz, ta auxe esango diot: «Aita!, zeruaren aurka ta zure aurka pekatu egin det; arrezkero, ez naiz nor zure seme-izena eramateko; baño, arren, ar nazazu zure morroyetako bat bezela».

Esan eta egin, altxa ta aitarengana joan zan. Bera oraindik urruti zala, aitak ikusi zuan, eta errukiz beterik, semeagana bidera irten zan arin, eta besarkaturik, laztandu egin zuan. Orduan semeak esan zion: «Aita, zeruaren eta zure aurka pekatu egin det; arrezkero, ez naiz nor zure seme-izena eramateko».



Baño, aitak bere morroyai esan zien: «Ekarri azkar soñekorik onena, ta jantzi zayozute; ipiñi zaizkiotzute erastuna eskuan eta oñetakoak; zekor gizendua ekarri, ta il, jan eta jai aundi bat pozik egin dezagun; nere seme au ilda zegoan eta berriro piztu egin bait-da, galduta zegon eta billatu egin bait-degu». Eta pesta aundia asi zan.

Bitartean, seme nagusia soroan zan lanean; eta etxerakoan, inguratu zanean, soñu ta dantzak entzun zituan; eta morroi bati deituta, ea ura zer izan zeitekean galdetu zion. Ark erantzun zion: «Zure anaya etorri da, ta aitak zekor gizendua il-erazi du, semea berriro onik eta osasunez etorri zayolako».

Orduan, asarreturik, etzuan sartu nai; aita, ordea, ir-tenda, erreguka asi zitzayon. Baño, aitari ala erantzun zion: «Ainbeste urtetan zuretzat ari naiz lanean; beñere zure agindurik ez det autsi; ala ere, ez didazu inoiz arkume bat ere eman, nere adiskideakin jateko. Ta emakume galduakin ondasunak eralgi dizkizun seme orrentzat, etorri danekoxe, zekor gizendua il dezu».

Baño, aitak esan zion: «Seme, zu beti nerekin egon zera, ta nere gauza guztiak zureak dituzu. Bidezkoa zan, ordea, oraingo jai au, zure anaya ilda egon, eta berriro piztu dalako eta galduta ibilli, ta arkitu degulako».

#### 212.—*Etkezai gaiztoa* (Lk. 16, 1-13).

Eta bere ikasleai esan zien: «Gizon aberats batek etkezai bat zuan; eta ondasunak jan zizkiola-ta, nagusiari salatu egin zioten. Eta beragana deituta, ala esan zion: «Zer esan didate zutzaz? Etkezaitza-kontuak eman zaizkidazu. Emendik aurrera ezin izan zindezke nere etkezai».

Orduan, etkezayak ala esan zuan berekiko: «Zer egin bear det nik orain, nagusiak etkezaitza kentzen didan ezkerro? Atxurrean? Ezin det. Eskean ibilli? Lotsatu egin naiz. Ba-dakit zer egin, etkezaitza kentzen didanean, beste batzuek etxean ar nazaten».

Beraz, banan-banan, bere nagusiaren zordunai dei egiñik, lenegoari esan zion: «Zenbat zor diozu nere nagusiari?»

Ark erantzun zion: «Eun barril olio» (29). Ta etkezayak esan zion: «Artu zure agiria ta ipiñi berrogei ta amar».

Gero, beste bati galdetu zion: «Eta zuk zenbat zor diozu?»

Ark erantzun zion: «Eun anega gari» (30). Ta etkezayak esan zion: «Artu zure agiria ta idatzi «larogeti».

Eta nagusiak etkezai maltzur ura goratu egin zuan, zur jokatu zualako (31); gizaldi ontako semeak, beren alkar arteko artu-emanetan, argiaren semeak baño burutsuagoak diralako. Ara zer diotzutedan: ondasun txarren bidez adiskideak bildu itzazute, iltzen zeratenean, zoriotan ar zaitzaten.

Gauza txikietan zintzoa dana, aundietan ere zintzoa da; ta gauza txikietan okerra dana, aundietan ere okerra da. Beraz, ondasun txarretan zintzoak izan ez ba'zerate, egiango ondasunak nork utziko dizkizute zuen gain? Ta besterenakin zintzoek ez ba'zerate, zeuona, nork emango dizute?

Ezin zindezke izan bi nagusiren morroi: edo batari gorroto izango diozute ta besteari maitasun; edo baten-tzat esaneko izango zerate ta bestearentzat ajolakabe. Jaungoikoaren eta aberastasunen morroi ezin izan zindezke».

#### 213.—*Pariseotarren zekenkeria* (Lk. 16, 14-18).

Pariseotar diruzaleak guzti ori entzun zuten, eta Jesus'i parra egiten zioten. Baño, Ark ala esaten zien: «Zuek gizonen aurrean zuzen antzekoak zeratela agertzen dezute; baño, zuen biotzak ondo ezagutzen ditu Jaungoikoak; gizonentzat goragarri dana, Jaungoikoarentzat iguingarri da-ta. Legearen eta Igarleen denbora, Juan'engan bukatzen da; arrezkero, Jaungoiko-Erreiñuaren Berri Ona erakusten da, ta indar egiten dutenak sartzen dira

(29) Ontzi oyetako batek 40'renbat litro artzen zituan. Beraz, 4.000 litro olio ziran guztiak.

(30) Neurri bakoitzak 400 kilo. Beraz, 40.000 kilo guztitara.

(31) Nagusiak (Jesus'ek ez) etxazai aren zurtasun burutusa goratzen du, baño, etzun egin bidebagekeri edo lapurretarik. Olaxe erabilli bear dira ondasunak zerua irabazteko; bide okerre-z egindakoak, atzera emanda, ta erruki-egintzak eginda, Zako'ren antzera.

an <sup>(32)</sup>. Baño, zerua ta lurra igaroko dira; legearen izpitxo bat ere ez da eroriko, ordea.

Bere emaztea utzi ta beste bat artzen duanak, ezkontza loitzen du; ta senarrak utzitakoa artzen duanak, ezkontza loitzen du».

314.—*Aberats jatuna ta Lazaro eskekoa* (Lk. 16, 19-31).

«Gizon aberats bat zan; purpura ta liñu zuriz jantzi ta egunero jan-edanaldi ederrak egiten zituan. Eta Lazaro izeneko eskale bat ere ba-zan, aberats aren ate-ondoan zauriz beterik etzanda egoten zana. Aberatsaren mai-gañetik erortzen ziran ogi-papurrak janda ase nai zuan eta iñork etzizkio ematen; eta txakurrak etorri ta zauriak miazkatzen zizkioten <sup>(33)</sup>. Il zan eskekoa, eta aingeruak Abraan'en altzora eramane zuten. Aberatsa ere il zan eta inpernuan obiratu zuten. An oñazetan zegoala, begiak jaso, ta urrutian Abraan ikusi zuan, eta Lazaro aren altzoan. Eta deadarka esan zion: «Aita Abraan!, erruki zakizkit, eta bialdu zadazu Lazaro, bere beatz-muturra uretan busti ta nere mingaña prexkatu dezaidan, sugar ontan kixkaltzen nago-ta».

Baño, Abraan'ek erantzun zion: «Seme, gogora ezazu zure bizitzan ondasunak izan zenituala; Lazaro'k, berriz, atsekabeak. Orain, ordea, bera atsegiñetan dago ta zu oñazetan. Gañera, gure ta zuen artean leize aundi bat dago; ta nai izanda ere, ezin diteke iñor emendik zuengana joan, ezta ortik onera etorri ere».

Eta besteak esan zion: «Arren Aita!; Lazaro ori bidali ezazu nere aitaren etxera, bost anai ditut-eta; emengo berri eman dezayela, ayek ere oñaze-leku ontara etorri ez ditezen».

Abraan'ek erantzun zion: «Moises eta Igarleak ba-dituzte; entzun dezayetela».

Eta ark: «Ez, aita Abraan!; ildakoren bat ayengana joaten ba'da, damutuko zaye-ta».

Abraan'ek erantzun zion: «Moises'i ta Igarleai entzu-

(32) «Indar eginda»: Jaungoikoaren laguntzaren bitartez, indar eginda, edo-ta nork bere burua ukatuz.

(33) Judutarren artean, txakurrak miazkatzea zoritxarrik aundienetakoa zan.

ten ez ba'diete, illen artetik moribait piztuko ba'litz ere, ez luteke sinistuko».

215.—*Lazaro'ren eriotza* (Jn. 11, 1-6).

Lazaro izeneko Betaniar bat, Maria ta bere aizpa Marta'ren auzokoa, gaxorik zegon. Maria Jauna usai gozoz igurtzi ta ille-adatsez Aren oñak legortu zizkiona zan; onen anai Lazaro orain gaxorik zegoan. Eta bere arrebak Jesus'i albiste au bialdu zioten: «Jauna! Zuk maite dezuna gaxorik dago».

Jesus'ek, au entzunda, esan zuan: «Ez da eriotzarako gaitza, Jaungoikoaren aintzarako baizik; orren bidez Jaungoikoaren Semea goretsia izan dedin».

Jesus'ek Marta ta onen aizpa Maria ta Lazaro maite zituan. Eta au gaxorik zegola entzun zuanean, oraindik bi egunetan gelditu zan toki berean. Gero, bere ikasleai esan zion: «Goazen berriro Judea'ra».

Ikasleak diotsate: «Maixua! Judutarrek oraindik-orain arrika eman nai zizuten, eta berriro ara zoaz?»

Jesus'ek erantzun zion: «Egunaren orduak ez al dira amabi? Egunez dabilena ez dabil eztropozuka, lur ontako argia ikusten du-ta; gaez dabilena, ordea, eztropozuka dabil, arentzat ez bait-dago argirik».

Onela itz egin ondoren, esan zion: «Lazaro, gure adiskidea loak artu du; ta lotatik esnatzera joan bear det».

Ikasleak esan zioten: «Jauna, lo ba'dago, sendatuko da».

Jesus'ek aren eriotzaz esan zuan; baño, ayek loaz ari zala uste izan zuten. Orduan, Jesus'ek argi ta garbi esan zion: «Lazaro il da; ta zuengatik poztutzen naiz, an ez nitzala; sinistra dezazuten. Goazen arengana!»

Didimo zeritzan Tomas'ek ala esan zion ikasle-lagunai: «Goazen gu ere, Onekin batean il gaitezen».

216.—*Marta ta Maria'ren negarra* (Jn. 11, 17-37).

Ara iritxi zanean, Jesus'ek, Lazaro lau egun aurretik illobiratua zegola arkitu zuan. Betania Jerusalem'dik gertu zegon, amabosten bat estadio-bidean <sup>(34)</sup>. Judutar asko

(34) Amabost estadi: iru kilometro baño gutxiago.



etorri ziran Marta ta Mariarengana, anayarengatik zeukaten naigabea ayei arintzera. Marta, Jesus zetorrela entzun zuaneko, bidera irten zitzayon; Maria, berriz, etxean gelditu zan. Eta Marta'k Jesus'i esan zion: «Jauna!, emen izan ba'ziña, nere anaya etzan ilko. Orain, ordea, badakit, Jaungoikoari eskatzen diozun guztia, Jaungoikoak eman egingo dizula».

Jesus'ek diotsa: «Piztuko da zure anaya».

Eta Marta'k: «Bai, ba-dakit azken-egunean piztuko dala».

Jesus'ek diotsa: «Piztuera ta Bizia Ni naiz: Nigan sinisten duana, ilda ere, biziko da; ta Nigan sinistuaz bizi dana, ez da sekulan ilko. Sinisten al dezu au?»

Erantzun zion: «Bai, Jauna! Sinisten det Zu Mesias, lur ontara etorritako Jaungoiko biziaren Semea zerala».

Au esanda, joan eta bere aizpa Maria'ri ixilka dei egiñik, esan zion: «Maixua dago or, ta Arengana joateko».

Maria, au entzun ordukoxe, altxa ta azkar joan zitzayon. Jesus etzan oraindik auzora iritxi, ta Marta'k arkitu zuan tokian zegon. Maria, beingo batean jeiki zala ikusirik, etxean ari samiña arintzearren zeuden judutarrek jarraitu egin zioten, negar egitera illobira zijo-alakoan.

Maria, bada, Jesus zegon tokira iritxi zanean, oñetan auzpeztu zitzayon, esanaz: «Jauna! emen izan ba'ziña, nere anaya etzan ilko».

Maria negarrez, eta onekin etorritako judutarrak ere negarrez ikustean, barrua samurtu egin zitzayon Jesus'i; ta biotza erdibiturik, ala galdetu zien: «Non jarri de-zute?»

Esan zioten: «Jauna, atoz eta ikusi zazu».

Jesus'ek negar egin zuan. Eta judutarrak zioten: «Bentan maite zuan, gero!»

Baño, beste batzuk ala zioten: «Itxuaren begiak argitu zituan Onek, ez ote zezakean onen eriotza galerazi?»

217.—*Lazaro'ren piztuera* (Jn. 11, 38-46).

Beraz, Jesus berriro bere barruan dardaraka, illobira inguratu zan. Illobi au arri-zulo bat zan, gañean arri zabal bat zuala. Jesus'ek dio: «Kendu arri ori».

Ildakoaren arreba Marta'k diotsa: «Jauna! Onezkero kiratsa dario, lau egun ba-dira il zala-ta».

Eta Jesus'ek: «Ez al dizut esan, bada, sinisten ba'dezu, Jaungoikoaren aintza ikusiko dezula?»

Beraz, kendu zuten arria. Jesus'ek begiak zerurontz jasorik, esan zuan: «Aita! Eskerrak Zuri entzun didazulako. Ba-nekin, bai, beti entzuten didazula; baño, inguruan baudenagatik esan det, Zuk biali nauzula sinista dezaten».

Au esanda, deadar aundiz esan zuan: «Lazaro!, irten ortik!»

Eta bereala, ildakoa irten egin zan, oin-eskuak lotuta, eta bere arpegia izaraz estalita. Jesus'ek esan zuan: «Aska zazute ta dabillela».

Arrezkero, Maria'rengana etorritako judutar askok, Jesus'ek egin zuana ikusita, Argan sinistu egin zuten. Baño, ayetako batzuek, pariseotarrengana joanda, Jesus'ek egin zuana salatu egin zieten.

218.—*Judutarren nagusiak Jesus il nai* (Jn. 11, 47-53).

Orduan, Apaiz nagusi ta pariseotarrak batzarrean bildu ziran, eta zioten: «Zer ari gera? Gizon orrek mirari asko egiten ditu! Onela uzten ba'diogu, guztiak sinistuko dute Argan ta erromatarrak etorri, ta eliza ta erria ondatuko dizkigute».

Baño, ayetako batek, urte artan apaiz nagusi zan Kaipas'ek, ala esan zuan: «Zuek ez dakizute ezer; ta etzaizute bururatzen obe dezutela gizon bat bakarrik erriagatik iltzea ta ez erri guztia galtzea».

Baño, au etzuan ark berez esan; urte artan apaiz nagusia zan-da, erri osoaren onerako Jesus il bearra zala aurrez iragarri zuan; eta erriaren alde bakarrik ez, baita Jaungoikoaren seme sakabanatutakoak bil zitezten ere.

Beraz, egun artatik Ura (Jesus) iltzea erabaki zuten.

219.—*Jesus Epren'era ezkututzen da* (Jn. 11, 54-56).

Beraz, arrezkero Jesus etzan judutarren artean agerian ibiltzen; eta andik basamortu-ondoko aldera, Epren deritzan errira alde egin zuan, eta bere ikasleakin an egon zan.

Judutarren Pazko-jaya lazter zan, eta alderdi artako lagun asko Pazko-aurrean Jerusalem'era beren garbiketak egitera igo ziran. Eta Jesus'en billa zebiltzan eliza nagusian, alkarrri galdezka: «Zer derizkiozute? Jayetara ez ote da etorri?»

Apaiz nagusiak eta pariseotarrak agindu au eman zuten: Jesus non egon zitekean iñork ba'leki, ager zezala, atzitu (preso artu) zezaten.

220.—*Gaizpiderik ez ipiñi. Zuri gaizki-egiñak barkatu.*  
(Lk. 17, 1-4)

Eta bere ikasleai ala esan zien: «Gaizpideak beti izango dira munduan; baño, zer zoritxarra gaizpidea sorrazten duanarena! Obe luke errotarria lepotik lotu, ta itxasora botako ba'luteke, txiki auetako bati gaizpidea ipiñi baño. Zeon buruen arreta izan zazute. Zure anayak utsegiteren bat egiten ba'dizu, eskatu kontuak; ta damutzen ba'da, barka zayozu. Eta egunean zazpi bider zure aurka pekatu egiten ba'du, ta zazpitan zuregana biurten ba'da, «damuz natorkizu» esanaz, barka zayozu.»

221.—*Sinismenaren indarra. «Morroi ezerezak gera».*  
(Lk. 17, 5-10)

Eta apostoluak Jaunari esan zioten: «Sinismena geitu zaiguzu.»

Jaunak erantzun zien: «Mostaza-azia ainbesteko sinismena ba'zenute, masustondo orri, «zuztarretik atera ta itxasora oa» esan ezkeru, esana egingo lizuteke. Morroya nekazaritzan edo artzaintzan izanda, etxera biurten danean, zuetako nork esaten dio: «Ator onera azkar eta mayean eseri adi?»; ta ez: «Aparia ipiñi zadak, eta gerrikoa lotu akidak eta jan-edanak ekarri izkidak; eta gero jango ta edango dek ik?»<sup>(35)</sup>. Morroyari zorrik ba'al zayo, agindu diona egin dualako? Nik ez det uste. Orrelaxe zuek ere, agindu zaizuten guztia egin-ondoren, esan zazute: «Morroi ezerezak gera; gure eginbearra besterik ez degu egin.»

(35) Jesus'ek orduko gizarteko oituraz itz egiten du; baño ontzat eman gabe.

### III.—JERUSALEN'ERA AZKEN-ALDIZ

222.—*Amar legenardunak* (Lk. 17, 11-19).

Eta Jerusalem'era, Samaria ta Galilea zear joan zan Jesus.

Eta erri txiki batean sartzerakoan, amar gizon legenardun irten zitzaizkion bidera; eta urruti geldituta, deadar egin zioten, esanaz: «Jesus, Maixua! Erruki zalkizkigu!»

Ikusi zituztenean, Jesus'ek esan zien: «Zoazte, ta apaizengana ager zaitzte.»

Eta, ara! bidean zijoazela, garbitu egin ziran. Ayetako batek, sendatu zala ikusi zuanean, atzera biurtu zan, Jaungoikoa deadarka goratzen. Eta Jesus'en oñetan auzpezturik, eskerrak eman zizkion. Gizon ura Samariatarra zan.

Orduan, Jesus'ek itz egin eta esan zuan: «Ez al dira amarrak sendatu? Non dira, bada, beste bederatzia? Arrotz au besterik ez al da biurtu Jaungoikoa goastera?» Eta esan zion: «Altxa zaitz eta zoaz; zure sinismenak sendatu zaitu.»

223.—*Jaungoikoaren Erreiñuaren etorrera* (Lk. 17, 20-37).

Pariseotar batzuek galde egin zioten: «Jaungoikoaren Erreiñua noiz dator?»

Jesus'ek crantzun eta esan zien: «Jaungoikoaren Erreiñua ez dator agerian; «ona emen», edo «Ara an», ere ez dute esango; begira: Jaungoikoaren Erreiñua zeon barruan dezute»<sup>(36)</sup>.

Ta bere ikasleai esan zien: «Gizasemearen egun bat bederik ikusi nai izango dezuten garaya etorriko da; ta *egun ori* ez dezute ikusiko. Ta esango dizute: «Emen da; an da». Zuek ez iñora joan; ez ibilli aren billa. Tximistak diz-diz egitean, ortzi (zeru) guztia alde batetik bestera bere argiz igarotzen duan bezela, bere egunean Gizase-

(36) Jaungoikoaren Erreiñua, lenengo etorreran, ez da zalapartaka agertzen; gure barruan dago, gure animan. Bigarren etorreran, ordea, azken-egunean, zalapartaka ta agirian etorriko da. Baño, orduan ere, Noe'ren eta Lot'en egunetan bezela, bizi izaten arkituko ditu Jesukristo'k gizonak.



mea ere alaxe agertuko da. Baño, lenengo neke asko igaro bear ditu (Gizasemeak, Jesus'ek), eta gizaldi onek gaitzetsi egin bear du. Ta Noe'ren egunetan gertatu zana gertatuko da Gizasemearen egunetan ere: jaten, eta edaten, eta ezkontzen eta eztaetan bizi ziran, Noe kutxan sartu zan egunerarte; orduan ugoldea etorri zan eta guztiak irentsi zituan. Auxe berau gertatu zan Lot'en egunetan ere; jan, edan, saldu, erosi, aldatu, ta etxeak egiten bizi ziran; sua ta azuprea zerutik jetxi ziran eta guztiak galdu zituzten. Auxe berau gertatuko da Gizasemea agertu dedin egunean ere.

Egun artan, etxe-gañean dagoana, ez bedi jetxi etxebarruan daudenak ateratzera; zelayean dana, ez bedi etxera etorri. Gogora ezazute Lot'en emaztea. Bere bizia gorde nai duanak, galdu egingo du; ta galtzen duanak, gorde egingo du. Nik diotzutet: gau artan bi lagun egongo dira oe batean; bat artu ta bestea utzi egingo dute; emakume bi joango dira alkarrekin errotara irin-billa; bat artu egingo dute ta bestea utzi; bi lagun izango dira soroan; bat artu ta bestea utzi egingo dute».

Orduan ayek diotsate: «Ori nun, Jauna?»

Ta Ark erantzun zien: «Gorputza non dagon, arranoak ere an bilduko dira».

224.—*Epaille lotsagabea ta emakume alarguna.*  
(Lk. 18, 1-8)

Otoitzketan beti ta eten gabe ari bear zutela erakusteko, ipui bat ekarri zien, esanaz: «Erri batean, ez Jaungoikoari bildurrik, ez gizoni lotsarik etzien epaille bat zan. Errian bertan, emakume alargun bat ere ba-zan; eta epailleagana joan, eta ala esan zion: «Zuzenbidea egin zadazu, nere etsayarekin dedan auzian».

Baño, luzaroan etzion egin nai izan. Gero, berriz, berekiko ala esan zuan: «Ez Jaungoikoari bildurrik, ez gizonai lotsik ez diotedan arren, alargun oni, orratik, zuzenbidea egingo diot, gogaikarri zait-eta; bestela, etorri, ta muturreko bat, urrean, emango dit-eta».

Jaunak esan zien: «Entzun epaille gaiztoak diona. Eta Jaungoikoak ez die zuzenbidea egingo, Berari, gau ta egun, deadarka ari zaizkion bere aukeratuai? Ara Nik

esan: bereala egingo die zuzenbidea. Baño, Gizasemeak, etorri dedinean, ez ote du lurrean sinismenik arkituko?»

225.—*Pariseotarra ta zerga-biltzallea* (Lk. 18, 9-14).

Beren buruak zintzotzat eta besteak gaiztotzat zeuzkaten batzuei, Jesus'ek auxe esan zien: «Gizon bi igo ziran Jaunaren etxera otoitz egitera; bata pariseotarra ta bestea zerga-biltzallea. Pariseotarrak, zutik, bere artean onela zion: «Ene Jaungoikoa! eskerrak ematen dizkitzut beste gizonak bezelakoa ez naizelako ezta orko zerga-biltzalle ori bezelakoa ere: lapur, oker ta ezkontzastaille ez naizelako. Astean bitan barau egiten det, eta nere ondasunen amarrenak ematen ditut».

Zerga-biltzallea, berriz, an urrutian zegola, begiak zerura jasotzen ere etzan ausartzen; eta bular-joka ala zion: «Ene Jaungoikoa!; erruki zakizkit, pekataria naizta».

Nik diotzutet: au bere etxera zintzotuta biurtu zan; baño, bestea ez. Goratzen dana, beeratu egingo dute-ta; beeratzen dana, berriz, goratu egingo dute».

226.—*Perea'n: Ezkontza, ausi-eziña.*  
(Mt. 19, 1-12; Mk. 10, 1-2)

Guzti auek esan zituanean, Jesus altxa ta Galilea'tik alde egin, eta Judea'ko lurraldetara joan zan, Jordan beste aldera. Berriz ere, jendetza aundia bildu zitzyon eta jarraitu egiten zion: eta berriz ere, oi zuanez, erakusten asi zan eta gaxoak sendatzen.

Orduan, pariseotar batzuk inguratu zitzaizkion, azpikeriz onela mintzatzera: «Zillegi (libre) al zayo senarrari edozergatik emaztea uztea?»

Jesus'ek erantzun zien: «Moises'ek zer agindu zizuten?»

Ayek esan zioten: «Zapuzte-agiria emanda, emaztea uzteko agindu zuan Moises'ek».

Baño, Jesus'ek erantzun zien: «Ez al dezute irakurri Egilleak *asieran gizon eta emakume egin zituala*, ta ala esan zuala: «Onegatik, gizonak aita ta ama utzi, ta bere emaztearekin batuko da, ta biak aragi bat izango

dira?» (37). Beraz, arrezkero ez dira bi, aragi bat baizik. Beraz, Jaungoikoak bat egindakoa, ez beza gizonak banatu».

Orduan ayek: «Zergatik agindu zuan, bada, Moises'ek zapuzte-agiria emanda bialtzeko?»

Jesus'ek esaten die: «Zuen biotz gogorragatik eman zizuten Moises'ek zuen emaztea uzteko baimen ori; asieran, ordea, etzan orrela izan. Nik esaten dizutet: emaztea beste batekin ibilli dalako izan ezik, norbaitek utzi ta beste bat artzen ba'du, ezkontza loitzen du; ta besteak utzitakoarekin ezkontzen ba'da ere, ezkontza loitzen du».

Eta esan zien: «Bere emaztea utzi ta beste bat artzen duanak, lenengoaren aurka ezkontza loitzen du; ta bere senarra utzi, ta beste batekin ezkontzen dan emazteak ezkontza loitzen du».

Ikasleak esan zioten: «Senar-emazteen arteko auzia orrela izatekotan, ezkontzeak ez dakar irabazirik!» (38).

Jesus'ek diotse: «Au ez dute guztiak ulertzen, ontarako argia eman zayenak bakarrik baizik. Ba-dira amaren sabeletik iren (39) jayoak; baita gizonen eskuz iren diranak ere; baita zeru-erreiñuagatik beren buruak iren utzi dituztenak ere. Ulertu al dezakenak, uler dezala!»

227.—*Jesus'ek aurtxoak bedeinkatzen ditu.*

(Mt. 19, 13-15; Mk. 10, 13-16; Lk. 18, 15-17)

Orduan aurtxo batzuk ekarri zizkioten, eskuak gañean ipiñirik, ikutu zitzaiz eta otoitz egin zezan. Ikasleak, ordea, ori ikusita, aurrai ta aurrak zekarzkitenai asarre egiten zieten. Jesus'ek, ori ikusita, asarretu, ta ala esan zien: «Utzi aurtxoai Neregana etortzen; ez galerazi; Jaungoikoaren erreñua orrelakoena da-ta. Benetan diotzutet: Jaungoikoaren erreñua aurtxo baten antzera artzen ez duanik, ez da an sartuko».

Ta ayek laztandurik, eta eskuak gañean ipiñirik, bedeinkatu egiten zituan. Eta andik alde egin zuan.

(37) Gen. 2, 24.

(38) Birtutearen maitasunez ezkondu gabe gelditzea, ezkontzea baño baliotsuago da.

(39) Iren: gorputza ezkontza-lanetarako gauza ez dutena.

228.—*Gazte aberatsa.*

(Mt. 19, 16-22; Mk. 10, 17-22; Lk. 18, 18-23)

Eta bidera irten zanean, gazte aundiki bat inguratu zitzaion bizi-bizi; eta Aren aurrean belaunikaturik, galde-tu zion: «Maixu ona!, zer egin bear det betiko bizitza irabazteko».

Jesus'ek esan zion: «Zergatik galdetzen didazu Neri ona zer dan? Zergatik esaten didazu ona? Ona, bat bakarra da, Jaungoikoa (40). Baño betiko bizitzan sartu nai ba'dezu, aginduak bete itzazu».

Ark diotsa: «Zein?»

Jesus'ek: «Aginduak ba-dakizkizu: iñor ez dezu ilko; ezkontza ez dezu loituko; ez dezu ostuko; gezurrezko testigutzarik ez dezu egingo; bidegabekeririk ez dezu egingo; zure aitari ta amari begirunea izan zayezu ta lagun urkoa zere burua bezela izango dezu».

Gazteak erantzun eta esan zion: «Maixua, oyek guztiak txikitatik bete ditut; zer egin bear det besterik?»

Ori entzunda, ari begira-begira, maiteki esan zion: «Gauza bat ez dezu oraindañoan egin: zoaz, aberan guztia saldu, beartsuai eman zayezu ta zeruan dezas-tasun-pilla izango dezu; gero, etorri ta jarraitu zadazu».

Gazteak, itz auek entzun zituanean, arpegi illuna ipiñi ta alde egin zuan; ondasun aundien jabe zan-da».

229.—*Aberatsak nekez sartzen dira zeruan.*

(Mt. 19, 23-30; Mk. 10, 23-31; Lk. 18, 24-30)

Ala atsekabetu zala Jesus'ek ikusirik, ingurura begirata, ala esan zien bere ikasleai: «Benetan diotzutet: Jaungoikoaren erreñuan aberatsak bai nekez sartuko dirala!»

Itz auek entzunda, ikasleak arriturik zeuden. Baño, Jesus'ek berriz itz egiñaz, dio: «Ene semeok!, berriz ere esango dizuet: Bai nekez sartuko dirala Jaungoikoaren erreñuan beren ustea ondasunetan daukatena! Errezago da orratz-zulotik gamelua sartzea aberatsa zeruko erreñuan baño».

(40) Ori, apaltasunez esan zuan; edo-ta jaungoikotasuna ez agertzeko.



Ikasleak orduan arrituagorik, alkarri ziotsaten: «Nor zeruratu diteke, beraz?»

Jesus'ek ayengana begiratuta, esaten die: «Gizonentzat ori eziña da; Jaungoikoarentzat ez, ordea; Jaungoikoak guztia dezake-ta».

Orduan Pedro'k, itz egiñaz, esan zion: «Ona guk, genituan guztiak utzita, Zuri jarraitu dizugu; zer izango degu, bada, ordaintzat?»

Jesus'ek erantzun zien: «Benetan diotzutet: «Neri jarraika etorri zeratenok, illak piztu ditezenezan, Giza-semea bere aintzazko aulkian eseri dediñean, zuek ere amabi aulkietan eseriko zerate, Israel'go amabi senitar-teak epaitzeko. Ta etxe, naiz anai-arreba, naiz guraso, naiz emazte, naiz seme-alaba, naiz soro, nere Izenagatik eta Berri Onagatik utzi dituanak askozaz geyago, bateko eun artuko ditu bizitza onetan ere; ta bestean, betiko bizitza. Ta orain lenengo diran asko, azkenengo izango dira; ta azkenengoak, lenengo».

230.—*Maastiko langilleak* (Mt. 20, 1-16).

Zeruko erreñua, goizean-goiz, bere maastirako langille-billa irten zan etxe-jabearen antzeko da. Eta eguneko amarreko bana aginduta, bialdu zituan langille batzuk. Irugarren orduan berriz irten zanean, enparantzan alperkerian beste batzuk arkitu zituan; eta esan zien: zoazte zuek ere nere maastira ta bidezko dana emango dizutet. Joan ziran, bada. Seigarren eta bederatzigarren orduan ere irtenda, beste ainbeste egin zuan. Azkenik, amaikagarren orduan irten zan, eta banaka batzuk lanik gabe ikusirik, esan zien: «Zertan zaudete or egun guztian ezer egin gabe?» Ayek esan zioten: «Iñork ez digu lanik eman-da...»

Eta Ark: «Zoazte zuek ere nere maastira».

Illunabarrean, nagusiak langilleen buru zeukanari ala esan zion: «Langilleai deitu ta eman zayezute lan-saria, azkenekoetatik asi ta aurrenekoetaraño».

Agertu ziran, bada, amaikagarren orduan etorriak, eta denario bana artu zuten. Lenengoak ere etorri ziran, zerbait geyago artuko zutelakoan; baño, ayek ere denario bana besterik etzuten artu. Eta artutakoan, nagusiaren

aurka mar-marka asi ziran, esanaz: «Egun osoko nekea ta beroa igaro ditugu guk; eta ordu bete besterik egin ez dutenakin berdintzen gaituzu?»

Baño, ark, ayetako bati erantzunaz, esan zion: «Adis-kide; ez dizut bidegabekeririk egiten. Ez al nizun amarreko (denario) bat agindu? Ar zazu, bada, zurea ta zoaz; azkeneko orri ere zuri aña eman nai diot; ala, ez al nezake nai dedanik egin? Ala, ni ona naizelako, zure begiak gaiztoa izan bear al du?»

Ala berean, azkenekoak aurreneko izango dira ta aurrenekoak azken <sup>(41)</sup>. Deituak asko bait-dira; aukeratuak, ordea, gutxi».

231.—*Judea-aldean. Jesus'ek Bere Nekaldia irugarren aldiz iragartzen du.*

(Mt. 20, 17-19; Mk. 10, 32-34; Lk. 18, 31-34)

Jerusalem'erako bidea igotzean, Jesus aurretik zijoakien; eta ayek arriturik jarraitzen zioten, bildurrez beteta. Eta berriro amabi ikasleak ixillean Beragana arturik, gertatuko zitzaizkionak esaten asi zan: «Begira: Jerusalem'era goaz, eta Gizasemeaz igarleak idatzi duten guztia beteko da. Apaiz nagusi ta lege-jakintsu ta zaarren mendeen jarriko dute, eriotzarako galduko dute, ta atzeritarren eskuetan utziko dute, parra egin eta txistua botako diote, iraindu ta zigorrez astinduko dute, ta astindu-ondoren, gurutzean ilko dute; baño, irugarren egunean piztu egingo da».

Ayek, ordea, etzuten ezertxo ere ulertu; ta izkera au ayentzat illuna zan eta etzioten zer esaten ari zan igartzen.

232.—*Zebedeo'ren emaztea ta semeak.*

(Mt. 20, 20-28; Mk. 10, 35-45)

Artan, Zebedeo'ren semeen ama inguratu zitzaion, bere seme Santiago'rekin eta Juan'ekin; eta Jesus'i agur egin-ondoren, zerbait eskatu-naya agertu zion. Orduan, semeak esan zioten: «Maixua, guk eskatu dezakizugun guztia eman dezakiguzula nai dogu».

(41) Lenengo deituak, Israel'go agintari ta nagusi izan ziran; baño, deya etzuten onartu.



Jesus'ek esan zien: «Ta zer nai dezute egin dezakizu zuedan?»

Ayek erantzun zioten: «Egiguzu, zure erreñuan, bata zure eskui-aldean eta bestea zure ezker-aldean exeri gaitzela».

Amak ere orixe bera esan zuan: «Nere bi semeak, zure erreñuan, bata zure eskui-aldean eta bestea zure ezker-aldean exeri ditezela esan zazu».

Baño, Jesus'ek erantzun eta esan zien: «Ez dakizute zer eskatzen dezuten. Nik edango dedan ontzikoa zuek edan al zenezateke?, edo Nik artu bear dedan batayoaz batayatu al zindezteke?»

Ayek: «Bai, Jauna!»

Eta Jesus'ek esan zien: «Nere ontzikoa, bai, edango dezute; ta Nik artu bear dedan batayoaz batayatu zaituzte; baño, nere eskui-aldean naiz ezker-aldean exerie-razteko eskubiderik ez det Nik; nere Aitak gerturik dauzkatenat izango dira toki ayek».

Beste amarrak, au entzunda, Santiago ta Juan, bi anayentzat asarretzen asi ziran. Baño, Jesus'ek, Beragana deituta, ala esan zien: «Ba-dakizute atzerriko buruzagiak (agintariak) erria beren mendean eukitzen dutela; ta aundikiak errian nagusikeria agertzen dutela. Zuen artean ez dedilla orrela izan, bestela baizik: zuen artean aundien izan nai duana, izan bedi zuen morroi; ta zuen artean buru izan nai duana, izan bedi guztien mendeko. Gizasemea ere ez bait-zan etorri Bera serbi zezaten, Berak serbitzera ta bere bizia askoren salbaziorako ordain ematera baizik».

233.—*Jeriko'n: Timoteo'ren seme itxua. Zakeo'ren etxean.*  
(Lk. 18, 35-43; 19, 1-10; Mk. 10, 46)

Eta Jerusalem-ondora iristean, itxu bat arkitu zuan bide-baztarrean exerita, eskean. Eta andik barrena zijoan jendearen otsa entzun zuanean, ura zer zan galdetu zuan. Eta Jesus Nazaretarra andik igarotzen zala esan zioten. Orduan, deadarka, esan zuan: «Jesus, Dabid'en Seme ori! Erruki zakizkit!»

Aurretik zijoazenak ixillik egoteko esaten zioten; baño, ark gero ta deadar aundiagoz, zion: «Dabid'en Seme ori, erruki zakizkit».

Ta Jesus gelditu egin zan, eta itxua bere aurrera ekartzeko agindu zuan. Alderatu zitayonean, ala galdetu zion: «Zer nai dezu Nik egin dezakizudan?»

Eta ark erantzun: «Jauna, ikusi dezadala».

Eta Jesus'ek orduan: «Ikus zazu, bada; zure sinis-menak sendatu zaitu».

Ta berealaxe ikusten asi zan, eta Jesus'i jarraitu zion, Jaungoikoa goratuz. Eta erri guztiak ere, au ikusita, Jauna goratu zuan.

Eta Jeriko'ra iritxi ziran. Eta an sartuta, errian zear zijoan. Eta Zakeo zeritzan gizon bat ba-zan an, zerga-biltzaleen buru ta aberatsa, ta Jesus nor zan ikusi nai zuan; baño, txikia zan, eta ezin zuan jendetzarengatik. Eta, korrika aurrea arturik, astigar batera igo zan, Jesus ikusteko, andik igaro bear zuan-da.

Jesus'ek, toki artara iritxi zanean, begiak jaso ta ikusi egin zuan eta ala esan zion: «Zakeo, jetxi zaitez; gaur zure etxean gelditu bear det-eta».

Berealako batean jetxi zan, bada, ta pozik artu zuan etxean. Au ikusirik, guztiak mar-marka ari ziran gizon pekatori baten etxean gelditu zalako.

Baño, Zakeo'k, Jesus'en aurrean zutik, ala esan zion: «Jauna, nik nere ondasunen erdia beartsuai ematen diet; eta norbaiti zerbait bidegabez kendu ba'diot, lau alako biurtzen dizkiot».

Eta Jesus'ek esan zion orduan: «Gaur sartu da osasuna etxe ontan; au ere Abraan'en semea da-ta. Gizasemea galdutakoa billatzera ta sendatzera etorri bait-da».

234.—*Amar ontzakoak* (Lk. 19, 11-28).

Jerusalem'dik bertan zegola, eta entzuleak Jaungoikoaren erreñua laxter agertzekoa zalakoan zeudelako, Jesus itz egiten asi zan, ipui au esanaz: «Aundiki bat urrutietako lurralde batera joan zan, ango lurren jabe egin eta berriro etortzekotan. Eta amar morroi dei egiñik, amarna ontzako eman zizkien, esanaz: «Jarri irabazbidean ni etorri arte».

Baño, erritarrak gorroto zioten, eta albistariak biali zizkioten ondotik esanaz: «Ez degu nai gizon ori jaun-tzat».



Ark, ordea, erriaz jabetu zanean biurtuta, dirua eman zien morroyak deitu zituan, bakoitzak zenbat irabazi zuan jakiteko. Lenengoa etorri zitzaion, eta ala esan zion: «Jauna, zure ontzakoak amar ontzako irabazi ditu».

Jaunak esan zion: «Ori ondo, morroi zintzoa! Gutxian zintzo izan zakizkidalako, amar errietako nagusi egingo zaitut».

Bigarrena ere etorri zan, esanaz: «Jauna, zure ontzakoak bost ontzako irabazi ditu».

Oni ere ala esan zion: «Zu ere bost errietako nagusi izan zaitez».

Beste ere etorri zan, esanaz: «Jauna, ona emen zure ontzako; zapi batean bilduta euki det. Bildur nizun, gizon zorrotza zeralako; ipiñi ez dezuna artzen bait-dezu zuk eta erein ez dezuna biltzen».

Jaunak diotsa, orduan: «Zure aoz galdu zera, morroi gaizto ori. Ba-zenekian ni zorrotza nintzala; ipiñi ez nuana artu, ta erein ez nuana biltzen dedana. Zergatik ez dezu, bada, nere dirua irabazian ipiñi, ta nik, etortzean, irabaziarekin jasoko nuan?» Eta aurrean zeudenai esan zien: «Ken zayozute ontzako ori, ta amar ontzako dauzkanari eman». Eta ayek esan zioten: «Jauna, len ere ba-dauzka amar ontzako!»

«Ara Nik diotzutedana: daukanari, eman egingo zayo; ta ugariago eukiko du; ez daukanari, ostera, daukana ere kendu egingo zayo. Ta, jauntzat nai ez nauten etsayak, berriz, onera ekarri ta il itzazute nere aurrean».

Itz auek esanda, aurrera jarraitu zuan berriz, Jerusalem'go bidean gora.

235.—*Jesus'ek Bartimeo ta beste itxu bat sendatzen ditu.*  
(Mt. 20, 29-34; Mk. 10, 46-52; Lk. 18, 38-43)

Eta Jeriko'tik ikasleakin irteteterakoan, Jesus'i jendetza aundiak jarraitu zion. Bartimeo, Timeo'ren semea, ta beste bat, itxuak biak, bide-barrenean exerita zeuden, eskean. Eta Jesus Nazaretarra andik igarotzen zala entzunik, dedarka asi ziran, esanaz: «Jauna, Jesus, Dabid'en Seme ori, erruki zakizkigu!»

Ta aurretik zijoazenetako askok ixillik egoteko esaten zieten; baño, ayek, gero ta deadar aundiagoak egiñaz,

ala zioten: «Jauna, Dabid'en Seme ori, erruki zakizkigu».

Jesus'ek gelditu ta ala esan zuan: «Dei egin zayezute».

Eta itxuak dei egiten diete, esanaz: «Ea, bada!: altxa ta joan zaitez; dei egiten dizuete-ta».

Bartimeo, bere soingañekoa botata, berealako batean altxa ta beste itxuarekin batean Jesus'engana joan zan. Inguratu zitzaizkionean, Jesus'ek, itz egiñaz, galdetu zien: «Zer nai dezute egin dezakizuedan?»

Itxuak erantzun zioten: «Jauna, begiak argitu ta ikusi dezagula».

Jesus'ek, ayetzaz errukiturik, begiak ikutu ta esan zien: «Ikusi zazute; zoazte, zuen sinismenak sendatu zaituzte».

Ta berealaxe ikusten asi ziran, eta Jesus'i jarraitu zioten, Jaungoikoa goratuaz. Eta erri guztiak, gertaera au ikusita, Jaungoikoa goratu zuan.

236.—*Betania'n: Maria'k Jesus'i oñak garbitzen dizkio.*  
(Mt. 26, 6-12; Mk. 14, 3-9; Jon, 12, 1-11)

Pazko-jaya baño sei egun lenago, Jesus Betania'ra joan zan, Jesus'ek piztutako Lazaro bizi zan tokira. Ta apari bat ipiñi zioten, Simon legenardunaren etxean<sup>(42)</sup>. Marta maya serbitzen ari zan, eta Jesus'ekin bazkaldar bat Lazaro zan. Maria'k, bada, arri-txurizko ontzi batean libra bat nardo-usai onenetakoa artuta, Jesus'i oñak igurtzi ta bere ille-adatsez legortu zizkion; eta, ontzia autsirik, Jesus'en buru-gañera ixuri zuan. Eta etxea usai gozoz bete zan.

Beraz, ikasleetako batek, salduko zuan Judas Iskariote'k, ala esan zuan: «Usai gozo au zergatik ez da irureun denariotan saldu<sup>(43)</sup>, ordaña beartsuai emateko?»

Ori, ordea, etzuan beartsuen onagatik esan, lapurra zalako baizik; berak eukitzen zuan diru-zorroa, ta an sartzen zana beretzat artzen zuan. Ontan, Maria'k egin zuana beste ikasle batek ikusita, asarretuta ala zion:

(42) Simon, Jesus'ek sendatutakoa zan; Maria, Ark piztu zuan Lazaro'ren arreba.

(43) Irureun denario: 240 urrezko pezeta.



«Usaigarri au zergatik galdu alperrik?» Eta Maria'ren aurka gogor asi ziran. Baño, Jesus'ek esan zien: «Utzi zayozute! Zergatik naigabetzen dezute emakume au? Benetan gauza ona egin du nere alde. Beartsuak beti dituzute zuekin <sup>(44)</sup>, ta nai dezutenean on egin dezayezuteke; Ni, berriz, ez naukazute beti zuekin. Al izan duana egin du; usai au nere gorputz-gañera ixuriaz, nere gorputza illobirako aurrez igurtzi du-ta. Benetan diotzute: mundu guztian, Berri On au erakutsiko dan tokietan, emakume onek egin duana ere agertuko dute, beronen oroigarritzat».

Ontan, judutar askok, Jesus an zala jakiñik, ara jo zuten, Jesus'engatik bakarrik ez, illen artetik piztu zuan Lazaro ikusteko ere bai. Apaiz nagusiak, berriz, Lazaro iltzea erabaki zuten: au zala-ta, judutar askok ayengan-dik alde egin eta Jesus'engan sinisten zuten-da.

#### IV.—ASTE SANTUAN GERTATUTAKOAK: ERRAMU-IGANDEAN

237.—*Jesus aintzaz beterik sartzen da Jerusalem'en.*  
(Mt. 21, 1-9; Mk. 11, 1-10; Lk. 19, 29-40; Jon, 12, 12-19)

Biamaronean, Jerusalem'era inguraturik, Oliamendi aldeko Betfage'ra iritxi ziranean, Jesus'ek bere ikasleetako bi bidali zituan, esanaz: «Zoazte or aurreko erri txiki ortara; or sartuaz batera, astama bat arkituko dezute lotuta, eta arekin astakume bat, gaurdaño gañean iñor jarri etzayona bera; askatu ta ekarri zadazute. Ta norbaitek galdetzen ba'dizute: «Zer ari zerate? Zergatik

(44) Aldi artan, beintzat, beartsuak ba-ziran; baño, ez dio gero ere izango ziranik. Eta guk alegin guztiak egin bear ditugu gutxitu ditezen, zuzentasuna, errukia ta maitasuna agertuaz. Izan ere, Elizaren lenengo aldictan, Apostoluen denboran, kristautasuna oso-osorik eta zeatz betetzen zanean, etzan beartsurik. Ala dio, beintzat, Paulo doneak «Apostoluen Egiñak» liburuan: «Beartsurik ayen artean batere etzan; gauza-jabe guztiak, beren soro ta etxeak saldu-ta, ordaña ekarri ta apostoluen oñetan uzten zutelako; ta andik bakoitzari bear aña ematen zitzaion» (4, 34-35). Ikasbide ederra gure lenengo kristauak ematen digutena!

askatzen dezute?», au esango diozute: «Jaunak bear ditu; baño, berealaxe ekarriko dizkitzugu».

Joan ziran, bada, bialdutako ikasleak, eta guztia Jesus'ek esan bezela arkitu zuten; astakumea atearrean lotuta, bide-gurutze batean. Astakumea askatzen ari zirala, an zegon jabeak esan zien: «Astakumea zergatik askatzen dezute?»

Ayek erantzun zioten: «Jaunak bear dualako».

Eta angoak, utzi egin zien eramaten.

Orduan astama ta astakumea Jesus'i eraman zizkioten. Eta soñekoak astakumeari ezarririk, Jesus gañean exeri zuten. Guzti au Igarleak esandakoa bete zedin gertatu zan: «Esan zayozute Sion'go alabari: Ez bildurto. Or datorkizu zure erregea, astama-gañean, uztarpeko aberearen astakume-gañean eserita» <sup>(45)</sup>.

Aren ikasleak etzuten, lenengo, au ulertu; baño, gero, Jesus goratua izan zanean, Arentzat idatzita zegoala ta berak bete zutela gogoratu zitzaion.

Eta Jesus aurrera zijoala, jendetza aundiak bere soñekoak Jesus zijoan bidean zabaltzen zituzten; beste batzuek zugaitzetatik adarrak ebaki ta bidean botatzen zizkioten. Eta Oliamendi-barren aldera inguraturik, ikasle-taldeko guztiak, eta aurretik eta atzetik zijoan jendeak, pozaren pozez Jaungoikoa goratzen asi ziran, ikusitako mirari guztiagatik, eta deadar egiten zuten: «Gora Dabid'en Semea! Bedeinkatua Jaunaren izenean errege datorrena! Bedeinkatua gure aita Dabid'en Erreiñua! Pakea zeruan; gora ta gora goyetan!»

Jayetara etorri ziran jendetza aundiak, Jesus Jerusalem'era zijoala jakin zutenean, ereñotz-adarrak artu ta bidera irten zitzaizkion deadarka: «Hosanna! Gora Jaunaren izenean datorkigun Israel'go Errege!»

Lazaro illobitik deitu ta illen artetik piztu zuanean, Jesus'ekin zegon gizataldeak, orrela goratzen zuan orain Jesus; eta arengatik miraria egin zuala entzun zutelako, jendea bidera irten zitzaion.

Pariseotarrak, berriz, alkarri esan zioten: «Ez al

(45) Zak. 9, 9-10.



dezute ikusten? Ez degu ezer aurreratzen. Ikusi bestela! Guztiak atzetik dijoazkio».

Eta jende-arteko pariseotar batzuk ala esaten zioten Jesus'i: «Maixua! Zure ikasleai gogor egin zayezu ta ixil erazi itzazu».

Baño, Ark erantzun zien: «Ara Nik esan: Auek ixilduko ba'lira, arriak berak deadar egingo luteke».

238.—*Jesus negarrez* (Lk. 19, 41-44).

Alderatu ta Jerusalem ikusi zuanean, arengatik negar egin zuan, esanaz: «Zuk ere <sup>(46)</sup>, ezagutuko ba'zenu, zure egun ontan beintzat, pakerako litzaizukena! Orain, ordea, zure begientzat estalduta dago. Zure etsayak lubakiz inguratu, barruan artu ta alde guztietatik estutuko zaituzten egunak etorriko zaizkitzu-ta; zu ta zugaran diran zure semeak hurreraño ondatuko zaituzte, ta arririk ez dute utziko arri-gañean, zu ikustera etorri zanaren eguna ezagutu ez dezulako».

239.—*Jesus urian eta Eliza nagusian sartzen da.*  
(Mt. 21, 10-17; Mk. 11, 11)

Eta Jerusalem'era sartu zanean, erri guztia deadarka asi zan, esanaz: «Nor da au?»

Baño, jendeak zion: «Jesus Igarlea da au, Galilea'ko Nazaretarra».

Ta Jesus Jaungoikoaren etxean sartu zan. Eta itxuak eta errenak urreratu zitzaizkion elizan, eta sendatu egin zituan. Baño, apaiz nagusiak eta iskribauak, Ark egin-dako mirariak ikusirik, eta Elizan «Gora Dabid'en semea» umeak deadarka ari zirala entzunik, asarre ziran; eta esan zioten: «Entzuten al dezu oyeke diotena?»

Ta Jesus'ek esaten die: «Bai; ez al dezute beñere irakurri: «Umetxoek eta bularrekoen aotik atera dezu zure gorapena»? <sup>(47)</sup>.

## ASTELENA

240.—*Pikondo igartua* (Mt. 21, 18-19; Mk. 11, 12-14).

Biaramon goizean, Betania'tik irten eta errira zijoa-zela, Jesus gosetu egin zan. Eta, an inguruan, bide-baztarrean pikondo ostoz bete bat ikusirik, bertara jo zuan, zerbait arkituko ziolakoan; baño, bertaratu zanean, ostoa besterik etzion arkitu: ez bait-zan piko-den-bora <sup>(48)</sup>.

Eta itz egiñaz, ala esan zion: «Etzak beñere piko-alerik eman! Emendik aurrera ez dezala iñork ire pikorik jan!»

Eta ikasleak entzun zuten Ark esana. Eta pikondoa bat-batean igartu egin zan.

241.—*Elizatik salerosleak botatzen ditu.*

(Mt. 21, 12-13; Mk. 11, 15-19; Lk. 19, 45-48)

Eta Jerusalem'era iritxi ziran. Eta Jaungoikoaren etxean sarturik, an salerosketan ari ziranak botatzen asi zan, eta diru-kanbiatzaldeen mayak eta uso-saltzaldeen aulkiak irauli zituan. Eta etzion iñori utzi gauzak elizan batetik bestera eramaten. Eta erakusten asi zan esanaz: «Ez al dago idatzita: «Nere etxea erri guztietan otoitz-etxe izango da? <sup>(49)</sup>. Baño zuek lapur-zulo biurtu dezute» <sup>(50)</sup>.

Au entzunda, apaiz nagusiak eta iskribauak, erri-agin-tariakin batera, Jesus nola galdu asmatzen zebiltzan. Aren bildur ziran-da; etzekiten Arekin zer egin, erri guztia Aren erakutsiaz arriturik zegoan-da.

Eta Jesus egunero Elizan erakusten aritzen zan. Eta berandutzen zanean, erriatik irten giten zan.

242.—*Atzerritarrek Jesus'ekin* (Jon, 12, 20-36).

Jayetan Jaungoikoa gurtzera igo ziranen artean, baziran atzerritar batzuk. Eta oyeke, Galilea'ko Betsaida

(48) Jesus'ek etzituan pikoak billatu nai, judutarren sinisogorkeria ikasleai agertu baizik, irudi-bizitzat pikondoa arturik; orriak bai, alerik ez, ordea.

(49) Is. 56, 7.

(50) Jer. 7, 11.

(46) Zuk ere: Jesus'i goraka ari zaizkion beste oyeke bezela.

(47) Ps. 8, 3.

errikoa zan Pelipe'rengana joan eta erreguz esan zioten: «Jauna!, Jesus ikusi nai degu».

Pelipe joan eta Andres'i esan zion; ta biok Jesus'i esan zioten. Jesus'ek erantzun zien esanaz: «Gizasemea goratua izateko garaya etorri da. Bene-benetan diotzutet: Gari-alea lurrera erori ta iltzen ez ba'da, bakarra gelditzen da; iltzen ba'da, ordea, ale asko ematen ditu. Bere bizia maite duanak, galdu egingo du; ta bere bizia lurralde ontan galtzen duanak, betiko bizitzarako gordeko du. Norbaitek nere morroi izan nai ba'du, jarrai bekit; eta ni egongo naizen tokian, nere morroya ere egongo da. Nere morroi izaten dana, nere Aitak goratu egingo du. Orain larri det nere anima, eta zer esango det? Aita, une ontatik atera nazazu. Baño, une onetxegatik etorria naiz. Aita! Gora zazu zure izena!»

Orduan, zerutik abots au jetxi zan: «Goratu det; eta goratu det!»

An zegoan jendeak abots au entzunda, trumoi bat izan zala zion. Beste batzuk ala zioten: «Aingeru batek itz egin dio».

Jesus'ek erantzun eta esan zuan: «Abots ori ez da Nigatik etorri, zuengatik baizik. Oraintxe da munduaren auzia; mundu onen Nagusia<sup>(51)</sup> orain kanpora botako dute; ta Ni lurretik gora jasoko nautenean, guztiak Neregana erakarriko ditut».

Nolako eriotzaz ilko zan adierazteko esan zuan au. Jendeak erantzun zion: «Mesias betiko bizi izango dala ikasi degu guk Legean; nola diozu, bada, zuk: Lurretik jaso bear<sup>(52)</sup> dutela Gizasemea? Nor da Gizaseme ori?»

Jesus'ek erantzun zien: «Oraindik pixka baterako argia zuekin daukazute. Ibilli zaiteze argia dezuten bitartean, illunak artu ez zaitzaten; illunpean dabillenak, ez daki nora dijoan. Argia dezuten artean, argiari sinista zayozute, argiaren seme izan zaitezten».

Au esanda, Jesus, andik alde egiñik, ayengandik ezkutatatu egin zan.

## ASTEARTEA

243.—*Pikondo igartua. Sinismenaren eta otoitzaren indarra* (Mt. 21, 20-22; Mk. 11, 20-26).

Goizean goiz, pikondoaren ondotik igarotzean, zuztarraño igartu zala ikusi zuten. Eta ikasleak ori ikusita, arriturik ala zioten: «Bai azkar igartu dala!» Eta Pedro'k, gogoraturik, esan zion: «Maixua! Begira: Zuk madarikatu dezun pikondoa, igartu egin da».

Jesus'ek erantzun eta esan zion: «Izan zazute Jaungoikoaren sinismena. Benetan diotzutet: sinisten ba'dezute ta zuen biotzetan zalantzarik ez ba'darabiltzute, ez dezute pikondo orri gertatu zayona bakarrik egingo; baita mendi orri «ken adi ortik eta amildu adi itxasora» esaten ba'diozute ere, alaxe gertatuko da. Ta berak esandakoa gertatuko dala sinisten duanari, alaxe gertatuko zayo. Onetxegatik diotzutet: sinista zazute zuen otoitzean eskatzen dezutena artuko dezutela, ta iritxiko dezute. Ta otoitz egitean, norbaiten aurka zerbait ba'dezute, barka zayozute, zeruko zuen Aitak ere zuen pekatuak barka dezaizkitzuten. Zuek barkatzen ez ba'diozute, ordea, zeruko zuen Aitak ere ez dizkitzute zuen pekatuak barkatuko».

244.—*Jesus'en eskubidea.*

(Mt. 21, 23-27; Mk. 11, 27-33; Lk. 20, 1-8)

Berrero ere Jerusalem'era datoz. Eta elizan sartuta, erriari erakusten eta Berri Ona azaltzen ari zala, apaiz nagusi, iskribau ta erriko zaarrak, alkar artuta, inguratu zitzaizkion eta esan zioten: «Esan zaiguzu: zer eskubidez egiten dituzu gauza oyeak? Ta eskubide ori nork eman dizu?».

Jesus'ek erantzun eta esan zien: «Nik ere galdera bat egin bear dizutet: erantzuten ba'didazute, Nik ere esango dizutet zer eskubidez egiten dedan au. Juan'en batayoa nondik zan: zerutik ala gizonengandik? Erantzun zaidazute».

Ayek alkarrekin onela ari ziran: «Zer esango diogu? «Zerutik» dala esaten ba'diogu, erantzungo digu: «Zer-gatik etzenduten, bada, sinistu?»; «gizonengandik» zala

(51) «Mundu onen nagusia»: emen, deabruari buruz dago esana.

(52) Gurutzean jaso, gurutzean il.



erantzuten ba'diogu, berriz, jendearen bildur gera ta erri guztiak arrika emango liguke, Juan Igarletzat daukate-ta».

Izan ere, Juan, igarle jatortzat zeukaten guztiak. Eta Jesus'i erantzunaz, ala esan zioten: «Ez dakigu nondik dan».

Orduan, Jesus'ek ere ala esan zien: «Nik ere ez ditutet esango au zer eskubidez egiten dedan».

245.—*Maastira bialdutako bi semeak* (Mt. 21, 28-32).

«Eta zer derizkiozute? Aita batek bi seme zituan, eta lenengoarengana inguraturik, ala esan zion: «Seme, zoaz gaur nere maastira lanera».

Ark erantzun zion: «Ez det nai». Baño, gero damuririk, joan egin zan.

Eta bestearengana inguraturik, beste arrenbeste esan zion. Ark, berriz, ala erantzun zion: «Ba-nijoa, Jauna!». Baño, etzan joan. Auetatik bietatik, nork egin zuan aitarien naya?».

«Lenengoak» —erantzun zioten.

Orduan, Jesus'ek esan zien: «Benetan diotzutet: zergabiltzalleak eta emagalduek, berriz, sinistu egin zuten; eta zuek ori ikusita ere, etziñaten damu izan, argan sinisteko».

246.—*Maastiko langille gaiztoak.*

(Mt. 21, 33-46; Mk. 12, 1-12; Lk. 20, 9-19)

Eta erriari ipuin au esaten asi zan: «Entzun zazute beste ipui bat. Etxejaun batek maasti bat landu zuan, esiz inguratu, tolare bat egin eta torre-etxe bat jaso zuan. Gero nekazari batzuei, oinbesteko batean utzi zien, eta bera urrutira joan zan luzarorako.

Maats-denbora etorri zanean, nekazariengana morroi bat biali zuan bere maatsaren irabazia jasotzera. Baño, nekazariak, morroiari eldu, astindu ta esku-utsik bialdu zuten.

Orduan, beste morroi bat bialdu zien. Au ere astindu, burutik bera ebain-ebain egin eta irañez bete ondoren, esku-utsik bialdu zuten.

Irugarren morroi bat ere bialdu zien. Au ere zauritu zuten, eta maastitik bota ta il egin zuten.

Berriro ere beste morroi batzuk bialdu zizkien, len-goak baño geyago. Baño, guztiai berdin egin zieten; bata zauritu, bestea il, besteari arrika eman.

Nagusiak ba-zuan beste bat oraindño: bere seme kutuna; azkenez, axe bera bialdu zien, esanaz: «Zer egingo det? Nere seme kutuna bialduko diet; au ikusita, lotsa izango diote, noski». Eta alaxe egin zuan.

Baño, nekazariak, semea ikusirik, alkarri ala esan zioten: «Auxe da maasti-jabearen oñordekoa; atozte, il dezagun eta onen ondasunak guretzat izango dira». Artu zuten, bada, ta lotu ta maastitik bota, ta il egin zuten.

Beraz, maasti-jabea etorri dedñean, zer egingo die nekazari ayei?».

Batzuk esaten diote: «Gaizto ayek gogor galduko ditu, ta bere maastiaren irabazia sasoiz ordaindu dezayoten, beste nekazari batzuei utziko die landu dezaten». Beste batzuek, au entzunik, esan zuten: «Ez al da orrelakorik sekulan gertatuko!».

Baño, Jesus'ek begiratu ta esan zien: Bai ba; orrelaxe gertatuko da. Ez al dezute idaztietan beñere irakurri: «Etxegilleak baztartutako arria bera oñarri egin da? Jaunak egindakoa da ori, ta arrigarria da gure begietan?»<sup>(53)</sup> Orretxegatik diotzutet: Jaungoikoaren Erreiñua zuei kendu ta bere uzta ekarriko duan erriari emango zayo. Ta arri onen gañera erortzen dana, zatitu egingo da; ta arri ori gañera erortzen zayona, austuta geldituko da».

Apaiz nagusiak, pariseotarrak eta iskribauak aren ipui auek entzunda, berentzat esan zituala igarri zioten. Eta une artan Jesus artu ta lotu nai izan arren, erriari bildur zioten, Igarletzat bait-zeukaten. Eta Ura alde batera utzirik, alde egin zuten<sup>(54)</sup>.

(53) Ps. 117, 22-23.

(54) Ipui ontan daude labur-labur Israel erriak Jaungoikoarekin izan zituan artu-emanak. Ondotxo ulertu zuten entzuleak Jesus'ek esan nai ziena. Moises'en aurka ibilli ziran basamortuan; Igarleak il egin zituzten eta Mesias, Jaungoikoaren Semea ere il egin nai dute. Beraz, Israel'en etorkizuna ere pikondoarena bezelakoa izango da.

247.—*Errege-etzayak* (Mt. 22, 1-14).

Eta Jesus'ek itz egiñaz, berriro ipuien bidez ekin zion, esanaz: «Zeruko Erreñua, bere semearen etzayak egin zituan erregearen antzekoa da. Bere morroyak bialdu zituan ezta-lagunai dei egitera; baño, ayek etzuten etorri nai izan. Berriro beste morroi batzuk bialdu zituan, esanaz: «Ezta-lagunai esan zayezute: Bazkaria gertu dago, idi ta abere gizenduak ilda dauzkat, ta gutzia prest dago; atozte etzayetara». Baño, ayek etzioten erantzun; eta bata bere lurretara, bestea sal-erosketetara joan ziran. Besteak, berriz, erregearen morroyak lotu, irañez bete ta il egin zituzten. Au jakitean, erregea asarretu egin zan; eta bere guda-mutillak bialduta, odolzale ayek ondatu egin zituzten, eta ayen erria erre ta kixkali. Orduan, bere morroyai esan zien: «Eztayak gertu daude; baño, deituak ez ziran gai izan (55). Zoazte, bada, bidegurutzetara, ta arkitu ditzazuten gutziai dei egin zayezute etzayetara».

Morroyak, bideetara irten, eta arkitu zituzten guztiak, on eta gaizto, bildu zituzten (56); eta ezta-maya bazkaldarrez bete zan. Bazkaldarrak ikustera erregea sartu zanean, ezta-jantzirik etzeukan gizon bat ikusi zuan; eta esan zion: «Adiskide, ezta-jantzirik gabe, nolatan sartu zera emen?». Eta ark itzik ere ez. Orduan, erregeak bere laguntzailleai esan zien: «Esku-oiñak loturik, bota zazute kanpoko illunetara; an izango da negarra ta ortz-karraska!». Deituak asko; aukeratuak, ordea, gutxi dira-ta» (57).

248.—*Zesar'entzako zerga-ordainketa*.

(Mt. 22, 15-22; Mk. 12, 13-17; Lk. 20, 2-26)

Orduan, pariseotarrak joan, eta alkar artu zuten, Jesus izketan arrapatu ondoren, agintarien eta jaurriaren eskuetan jartzeko. Onetarako, berak zelataka geldituta, ikasle batzuk biali zizkioten Erodestarrakin, zintzo-antzean, itzen bat jaso zezayoten. Eta galdera au

(55) Beren erruz diña izan etzirako, ezetsiak izan ziran.

(56) Guztirakoak daude: onak eta gaiztoak. Gaiztoak bide onera biurtu bear dute, ezetsiak ez izateko.

(57) Deituak asko; judatar guztiak izan ziran; baño, ayetatik gutxi izan ziran aukeratuak.

egin zioten: «Maixua! Ba-dakigu egizale zerala ta Jaungoikoaren bidea egiz erakusten dezula, ta iñoren bildurrik ez dezula, ez bait-dezu zuk nor nor dan ajolarik. Esan zaiguzu: zer deritzazu? Zesar'i, kontribuzio-petxak ordaintzea bidezko al da, ala ez?».

Baño, Jesus'ek, ayen maltzurkeria ta gaiztakeria ezaguturik, ala esan zien: «Zer dala-ta, zirikatzen nauzute, zuri-jende orrek? Ekatzute txanpon bat ikusteko» (58).

Ta denario bat erakutsi zioten. Eta orduan Jesus'ek: «Irudia ta gañeko itzok, norenak dira?» (59).

«Zesar'enak» —erantzun zioten.

Orduan, Jesus'ek erantzun eta esan zien: «Beraz, eman zayozute Zesar'i Zesar'ena; ta Jaungoikoari Jaungoikoarena» (60).

Ta ezin izan zuten itz batean ere arrapatu erriaren aurrean, eta Aren erantzunaz arriturik, ixildu egin ziran. Eta Jesus an utzita, alde egin zuten.

249.—*Sadukeotarrak eta piztuera*.

(Mt. 22-33; Mk. 12, 18-27; Lk. 20, 27-40)

Eta egun artan bertan, piztuerarik ez dala uste duten sadukeotar batzuek inguratuta, galdetu zioten, esanaz: «Maixua! Moises'ek auxe utzi zigun idatzita: «Semerik gabeko anai ezkondua norbaiti iltzen ba'zayo, aren anayak beretzat alarguna artu, ta anai zanari ondorengoa sortu bezayo» (61). Ba-ziran, bada, gure artean zazpi anai; lenengoa ezkondu zan, baño semerik gabe il zan; eta bere emaztea bere anayari utzi zion. Alargunarekin ezkondu,

(58) Txanpona eskatzen du, erantzuna arengan indartzeko. Arrixku aundiko erantzuna: bayetzkoa esan ezkeru, judatar erri osoa aurka jarriko zitzaion; ezetzkoa esaten ba'du, berriz, erromatar agintariak eskua erantsiko diote... Ala zioten pariseotar ayek.

(59) Dirua erabiltzea, mesede bat zan; eta zeraman irudiak, mesede ori egin zuan agintaria agertzen zuan.

(60) Erantzun onetan, erri-agintaritzak eta eliz-agintaritzak, bakoitzak bere eskubideak dituztela erakutsi zuan Jesus'ek. «Erri-agintariai ta aberriari diogun zorrak edo eginbearrak, Yainkoarekiko ditugun betebear estuak ez dizkigu kentzen, ez gutxitzen, ez eta Aren aginduak gutxiesteko eskubiderik ematen ere» (Olabide, «Idazteuna», 2.138 orr.).

(61) Deut. 25, 5-6.



ta bigarrena ere semerik gabe il zan. Alaxe, zazpiak etzuten ondorengorik utzi. Azkenean, alarguna ere il zan. Beraz, berrito piztu ditezenean, zazpiak emaztetzat izan zuten ezkerro, ayetako norena izango da emazte?».

Jesus'ek esan zien: «Oker zabiltzate, Idaztiak eta Jaungoikoaren indarra ezagutzen ez dituzutelako. Gizaldi ontako gizakumeak, emaztea artzen dute batzuk eta besteak senarra; baño, beste gizaldia ta illen piztuera irixteko diña izan diranak, ez dute ez emazterik, ez senarrrik artuko, ezin il izango dira-ta.

Jaungoikoaren aingeru bezela izango dira-ta zeruan: piztuerearen seme izanik, Jaungoikoaren seme dira-ta. Illak berrito piztutzen dirala, ordea, Moises'ek berak adierazten digu, «SASIA» deritzan su-artetik Jaungoikoari, «Abraan'en Jaungoikoa ta Jakob'en Jaungoikoa» deitzen dionean. Ez al dezute irakurri Jaungoikoak an esan ziena: «Abraan'en Jaungoikoa naiz Nik?» (62). Ez da, ordea, illen Jaungoikoa, biziena baizik, Arentzat guztiak bizi dira-ta. Beraz, oso oker zabiltzate».

Jendea, au entzunda, Aren erakustearekin arrituta zegon. Orduan, ixkribau batzuk itz egin eta esan zioten: «Maixua!, ederki itz egin dezu».

250.—*Legearen agindurik nagusia.*  
(Mt. 22, 34-40; Mk. 12, 28-34)

Pariseotarrak, Sadukeotarrak isillera zi zitala jakiñik, batzarra egin zuten. Eta ayen arteko lege-maixu batek, Jesus'ek sadukeotarrakin izan zuan eztabaida entzun zuan batek, inguratu ta ayei ondo erantzun ziela ikusirik, azpikeriz onala galdetu zion: «Maixua! zein da Legean agindurik nagusia ta lenena?».

Jesus'ek erantzun zion: «Gustietan agindurik nagusia auxe da: *Entzun, Israel! Jauna, zure Jaungoikoa, Jaungoiko bakarra da*; ta *zure Jaungoiko Jauna biotz-biotzez, gogo-gogoz, adimen guztiz ta indar guztiz maite izango dezu*» (63).

Auxe da agindurik nagusia ta lenengoa. Bigarrena,

(62) Ex. 3, 6.

(63) Deut. 6, 4-5.

berriz, onen antzekoa da: «*Zure lagun urkoa zere burua bezela maite izango dezu*» (64). Auek baño agindu aundiagorik ez dago. Bi agindu auetan biltzen da Lege guztia, baita Igarleak ere» (65).

Lege-maixuak esan zion: «Ederki, Maixu; benetan esan dezu: «Jaungoiko bat bakarra dala, ta Ura besterik ez dagola; ta biotz-biotzez, gogo-gogoz, adimen guztiz eta indar guztiz Bera maite izatea, ta lagun urkoa norbere burua bezela, erre-opari (erreta eskeintzen ziran opariak) ta beste opari guztiak baño obe dala».

Jesus'ek, ark ondo erantzun zuala ikusirik, esan zion: «Jaungoikoaren Erreiñutik etzaude urruti».

Ta arrezkero, iñork etzuan Ari galdetzeko arpegirik izan.

251.—*Kristo Dabid'en Semea ta Jauna.*  
(Mt. 22, 41-46; Mk. 12, 35-37; Lk. 20, 41-44)

Eta pariseotarrak alkarekin bilduta zeudela, Jesus'ek galdetu zion, elizan erakusten ari zala, esanaz: «Kristo nor dala deritzazute? Noren semea ote da?».

Eta pariseotarrak: «Dabid'ena».

Ark esaten die: «Nola, bada, Dabid'ek berak Espiritu Santuaren argiz, *Jauna* deitzen dio «Eresi-Idaztitan», onela: «Jaunak nere Jaunari esan zion: Nere eskui-aldean eseri zaitetz, zure etsai guztiak oinperatzen dizkitzudan arte?» (66). Beraz, Dabid'ek *Jauna* deitzen ba'dio, nolatan izan diteke Dabid'en seme?».

Eta iñork ezin zion itzik erantzun; arrezkero, etzitza-yon iñor ausartzen galdera berririk egiten. Eta jendetza aundia pozik zegon Aren (Jesus'en) itzak entzuten.

252.—*Kontuz ibilli Lege-maixu ta Pariseotarrakin!*  
(Mt. 23, 1-36; Mk. 12, 38-40; Lk. 20, 45-47)

Orduan, Jesus'ek jendeari ta bere ikasleai itz egin zien esanaz: «Moises'en erakustegian, ixkribau ta pariseotarrak eseri dira. Esaten dizuten guztia egin zazute

(64) Lev. 19, 18.

(65) Igarleak ere: au da, Igarleak idatzitakoa ere.

(66) Ps. 109, 1.



ta bete, bada; baño, egiten dutenik, ez egin; esan bai, ta egiñ ez, egiten dute-ta. Sorta astunak eta eraman-eziñ-alakoak lotu ta besteen bizkarrean ipintzen dituzte-ta; berak, ordea, beatz batekin ere ez diete lagundu nai. Egiten duten guztia, gizonak ikusi dezaten egiten dute; bekokian larru-zirrinda zabalak eta soñekoan parpail aundiak erabiltzen dituzte-ta. Bazkarietan eta sinagogetan lenengo tokiak nai izaten dituzte; enparantzetan agurtu ditzatela, ta jendeak maixu-izena eman dezayetela nai izaten dute.

Zuek, ostera, ez artu maixu-izenik; bat bakarra da-ta zuen Maixua; zuek anayak zerate guztiok.

Eta ez dei egin lurrean iñori aita; bat bakarra da-ta zuen aita: zerukoa. Maixu-izenik ere ez artu, bat bakarra da-ta zuen Maixua: Kristo. Zuetako nagusiena, izan bedi zuen morroi; goratzen dana, beeratu egingo dute-ta; beeratzen dana, berriz, goratu egingo dute.

Zoritarrekoak zuek, ixkribau ta pariseotar zuri oye! Gizasemeari zeruko erreñua itxi egiten diozute-ta; zeurok etzerate sartzen, eta sartu nai dutenai galerazi egiten diezute. Zoritarrekoak zuek, ixkribau ta pariseotar zuri oye! Emakume alargunen etxeak, itxuraz otoitz luzeak egiñaz, ustu egiten dituzute-ta; orregatik, auzi zorrotzagoa izango dezute.

Zoritarrekoak zuek, ixkribau ta pariseotar zuri oye! Jarraitzalle bat irabazteko itxaso ta legorra goikozberatzen dituzute-ta; irabazitakoan, berriz, inpernurako zuek alako bi egokiago biurtzen dezute.

Zoritarrekoak zuek, bide-erakusle itxu oye! «Elizarengatik egindako ziña ezer ez da» diozute-ta; baño, «elizako urrearengatik ziñ egiten ba'du, bete egin bear du». Zoro ta itxuak! Zer da, bada, aundiago: urrea, ala urre ori santutzen duan eliza? «Elizarengatik egindako ziña ezer ez da; baño, aldare-gañean dagon opariagatik zin egiten ba'du, bete egin bear du», diozute gañera. Itxuak, alenak! Zer da, bada, aundiago; oparia, ala oparia santutzen duan oparimaya? Beraz, Aldarearengatik zin egiten duanak, arengatik eta aren gañeko guztiengatik egiten du ziñ; eta, elizarengatik zin egiten ba'du, arengatik eta an dagoanagatik egiten du zin; ta zeruarengatik

zin egiten duanak, Jaungoikoaren jarlekuagatik eta an eserita dagoanarengatik zin egiten du.

Zoritarrekoak zuek, ixkribau ta pariseotar zuri oye! Belar-onaren, eta anixaren eta txarpoillaren (comino-belarra) amarrenak ordaindurik, Legea eginkizunik aundienak diran zuzentasuna ta errukia ta sinismena alde batera uzten dituzutenok! Auek egitekoak ziran; eta ayek, ez uztekoak! Bide-erakusle itxuok!, eltxoa utzi ta kame-lua irentsi egiten dezutenok!

Zoritarrekoak zuek, ixkribau ta pariseotar zuri oye! Edontziaren eta plateraren kanpokaldea garbitzen dezute-ta; barrualdetik, berriz, lapurretaz eta lizunkeriz beteak zaudete. Pariseotar itxuok! Garbi zazute aurrena edontziaren eta plateraren barrukaldea, gero kanpokaldea ere garbia gelditu dedin.

Zoritarrekoak zuek, ixkribau ta pariseotar zuri oye!, illobi zirituak dirudizute-ta; illobi oye kanpotik eder ematen dute; barrutik, ordea, illen ezurrez eta nolanaiko loikeriz beterik daude. Orrelaxe zuek ere: azaletik zuzen-itxuraz agertzen zerate gizonen aurrean, eta barrutik saldakeriz eta gaiztakeriz beteak zaudete.

Zoritarrekoak zuek, ixkribau ta pariseotar zuri oye!, igarleen illobiak egin eta zintzo ziranen arri-oroigarriak apaintzen dituzute-ta, esanaz: «Gure aurrekoen denboran bizi izan ba'giña, ez gendukean ayekin bat egingo Igarleen odola ixuri zutenean. Orrela, Igarleak il zituztenen seme zeratela zeurok aitortzen dezute. Bete zazute, bada, zuen aurrekoen neurria! Subetzar eta subegorrikumeok! Inpernuko suari nola iges egingo diozute?»

Orregatik, begira: Igarle, ikasle ta jakitun bialtzen dizkitzutet Nik <sup>(67)</sup>; eta zuek, ayetako batzuk il eta gurutzean josiko dituzute; ta beste batzuk zuen sinagogetan zigorkadaz astindu ta erriz-erri erasoko diezute; lurraren gañean ixuri dan odol zintzo guztia zuen gañera erori dedin. Abel zintzoaren odoletik asi, ta elizatik opari-mai bitartean il zenuten Barakias'en seme zan Zakarias'en odoleraño. Benetan diotzutet: gizaldi oni guztiak gañera etorriko zaizkio».

(67) Oye! Jesus'en ikasleak ziran.



253.—*Jerusalen'en ondamentia aurrez iragartzen du.*

Jerusalen, Jerusalem! Igarleak il eta zuregana bialdu-takoi arrika ematen diezun ori! Amaika aldiz bildu nai izan ditut zure semeak, oloak bere txitak egapean biltzen dituan bezela; ta zuk ez dezu nai izan. Orra, bada; etxea utsik geldituko zaizute. Ara Nik esan: «Ez nazute berriz ikusiko, «gora Jaunaren izenean datorrena» esango dezuten eguna arte» (68).

254.—*Emakume alargunaren limosnatxoa.*

(Mk. 12, 41-44; Lk. 21, 1-4)

Eta diru-kutxaren aurrean eserita, atabakan txanponak botatzen zituztenai begira zegon (69). Aberats askok dirua ugari botatzen zuten; eta emakume alargun beartsu bat etorri, ta txanpon-erdi bat balio zuten bi ardit bota zituan atabakara. Eta Jesus'ek bere ikasleai dei eginda, ala esan zien: «Benetan diotzutet: emakume alargun beartsu orrek, beste guztiak baño geyago bota du atabakara. Jaungoikoaren oparietarako, beste guztiak gañezka dutenetik bota dute-ta; onek, ordea, bere gutxi-tik, bizitzeko zeukan gutzia bota du».

255.—*Judutarren sinisogorkeria* (Jon, 12, 37-50).

Ainbesteko mirariak Ark ayen aurrean egin zituan arren, etzuten sinisten. Isaias Igarleak esan zuan itza bete zedin: «Jauna!, guk esandakoa nork sinistu du?, ta Jaunaren besoa nori agertu zayo?» (70).

Orregatik, ezin sinistu zuten, geyago ere esan zuan-da Isaias'ek: «Ayen begiak itxutu egin ditu ta ayen biotzak gogortu, begiak in ikusi ez dezaten, ezta biotzez ulertu ere, bide onera biurtu ez ditezen, eta Nik sendatu ez ditzadan» (71). Isaias'ek Aren aintza ikusi zuanean eta Aretzaz itz egin zuanean, esan zuan au.

(68) Ps. 117, 26. Goratze ortan, judutar-erria geroenean biurtuko dala adierazten du.

(69) Jerusalem'go eliza nagusian diru-kutxa bat zan, emakumeen atadian, amairu atabakaduna. An botatzen zuten dirua, Jaunaren etxeko bearretarako izaten zan.

(70) Is. 53, 1.

(71) Is. 6, 9-10. — Jaungoikoak ez du gizona itxutzen: itxutzen utzi egiten dio bakarrik; gizonak bere naye itxutzen du bere burua.

Ala ere, nagusietako askok Argan sinistu zuten, baño pariseotarrak zieten bildurragatik etzuten agirian aitor-tzen, sinagogatik bota etzitzaten: Jaungoikoaren aintza baño gizonena nayago zuten-da.

Jesus'ek, berriz, deadar egin eta esan zuan: «Nigan sinisten duanak, ez dit Neri sinisten, Ni bialdu nauanari baizik. Eta Ni ikusten nauanak, bialdu nauana ikusten du. Ni lurrera argi-antzera etorri naiz, Nigan sinisten duanik bat ere illunpetan ibilli ez dedin. Eta nere itzak entzun ondoren, gordetzen ez ba'ditu, Nik ez det epaituko, Ni ez naiz lurrera epaitzera etorri-ta; ba-du bere epaillea: Nik esandako itzak berak, azken-egunean, epaituko dute, nere buruz ez bait-det itzegiten; bialdu nauan Aitak ber-berak agindu dit esan eta azaldu bear dedana. Ta ba-dakit Aren agindua betiko bizitza dana. Beraz, Nik diodana, Aitak agindu bezela diot».

256.—*Jerusalem'go Eliza Nagusiaren ondamentia: Jesus'en iragarkizunak eta apostoluen galderak.*

(Mt. 24, 1-3; Mk. 13, 1-4; Lk. 21, 5-7)

Eliza Nagusitik irteterakoan, eliza arri ederrez eta opariz apainduta zegoala zioten batzuek. Eta Jesus'egana inguratuaz, bere ikasleetako batek diotsa: «Maixual! Begira eliza orrek dauzkan arri ta lan ederrak».

Jesus'ek erantzun eta esan zion: «Ormatzar oyek guztiak ikusten dituzute? Benetan esaten diotuzet: ez da or arri bat bestearen gañean geldituko, lur jo gabe».

Eta, Oliamendira iritxita, elizaren aurrez-aurre zegoala, Pedro'k, Santiago'k eta Joan'ek eta Ander'ek aopean galdetu zioten: «Maixua! Esan zaiguzu: noiz gertatuko da ori? Eta guzti ori betetko dan ezaugarria zein izango da? Ta zein zure etorreraren eta azken-egunaren ezaupidea?».

257.—*Jerusalem'go elizaren eta erriaren ondamenti-ezaupideak* (Mt. 24, 4-14; Mk. 12, 5-13; Lk. 21, 8-19).

Eta Jesus'ek, erantzunaz, esan zien: «Begira, gerol: iñork etzaitzatala okerbidera eraman. Nere izena artuta asko etorriko dira-ta: «ni naiz Kristoa; denbora iritxi da» esanaz; eta amaika lilluratu ta zoratuko dituzte. Ez joan, beraz, ayen atzetik. Guda, gerrate ta matxi-



nada-otsak entzuten dituzutenean, ez ikaratu. Guzti oyek gerta bearrak dira; baño, ez dator oraindik azken-eguna».

Ta esan zien: «Enda (edo arraza) batekoak bestearen aurka, ta erri bat bestearen aurka, izurriteak eta goseteak non-naiz izango dira, ta gertaera izugarriak eta ezaupide aundiak zeruan. Guzti oyek, ordea, nekeen asierak izango dira. Orduan, zuen buruak gorde itzazute. Baño, guzti oyen aurretik, lotu egingo zaituzte ta eraso; auzitegieta-  
ra ta sinagogetara eramango zaituzte ta espetxeetan sartu ta zigorkadaz astinduko; eta errege ta agintarien aurrera eramango zaituzte nere Izenegatik. Guztiok, ordea, ayen aurrean aitormena eman dezazuten, gerta-  
tuko zaikituzte.

Lotu ta auzitegira eramango zaituztenean, ez larritu eta ez ibilli zer esan edo erantzungo dezuten gogoratzen; une artan burura etorriko zaizutena, uraxe esan bear dezute; zuen etsai guztiak erantzunik gabe utziko dituz-  
ten itzak eta sena amango dizkitzute-eta Nik orduan. Etzerate zuek izango itzegingo dezutenak, Espiritu San-  
tua baizik.

Guraso ta anai, senide ta adiskide izango dituzute sal-  
zalle ta erasozalle; eta zuetako asko il egingo dituzte; ta nere Izenegatik, guztien gorrotagarri agertuko zerate; ala ere, ordea, zuen buruko ille bakar bat ere ez da  
galduko.

Orduan, askok okerbidera joko dute, alkar salatu ta  
batak besteari gorroto izango dio; anayak anaya eriotze-  
rako salatuko du, ta aitak semea; ta gurasoen urka  
semeak altxata, il egingo dituzte. Ta sasi-igarle asko  
agertuko dira, ta lagun asko okerbidez eramango dituz-  
te. Ta gaiztakeria ugarituko danez, maitasuna oztu egin-  
go da. Baño, azkeneraño irauten duana, uraxe salbatuko  
da. Zuen animak eramanpenez salbatuko dituzute.

Baño, lenago, Berri On au erri guztiai azaldu bear  
zaye; ta Erreñuaren Berri On au lurbira osoan zabal-  
duko da, erri guztien agirizat. Eta orduantxe etorriko  
da amaya.

258.—*Jerusalen'go Elizaren eta erriaren ondamendia ira-  
gartzen du.* (Mt. 24, 15-22; Mk. 13, 14-20; Lk. 21, 20-24).

«Jerusalen gudari-taldez inguratuta ikusi dezazutenean  
bere ondamendia gañean dala jakin zazute. Ta Daniel  
igarleak aitatutako ondamendi lotsagarria toki donean  
—egon bear ez lukean tokian— ikusi dezazutenean, (ira-  
kurleak uler beza), orduan, Judea'n daudenak iges bezate  
mendietara, ta erri-barrukoak kanpora irten bitez; ta  
sapayean dagona ez bedi jetxi etxera barrutik zerbait  
artzera; ta soroan dagona, ez bedi biurtu soñeko-billa;  
mengantza-egunak dira-ta ayek, idatzitako guztia bete  
dedin. Zoritxarra, egun ayetan aurra egiteko dagona edo  
ta aurra azitzen ari dana! Otoitz egizute zuen igesi-  
bearra neguan edo larunbatez gerta ez dedin; izan ere  
larrialdi aundia izango da; ura bezelakorik, Jaungoikoak  
mundua sortu zuanetik gaur arte ez da izan, ezta izan-  
go ere.

Lur osoan larrialdi gogorra ta erri onen aurka asarrea  
izango da-ta. Batzuek ezpata-agoz ilko dira; beste batzuk  
atzerri guztietara morroi eramango dituzte. Ta egun  
ayek Jaunak laburtuko ez ba'litu, ez litzake iñor bizirik  
geldituko; baño, Berak aukeratu zituanagatik, laburtuko  
ditu Jaunak egun ayek».

259.—*Gizasemearen bigarren etorreraren ezaugarriak.*  
(Mt. 24, 23-28; Mk. 13, 21-25; Lk. 21, 25-28)

«Norbaitek «ona emen Kristo edo ara an» esaten ba'  
dizute, ez sinistu. Sasi-kristoak eta sasi-igarleak atera, ta  
al ba'litz, aukeratuak berak ere okertzeraño mirari  
ta ezaugarriak egingo dituzte-ta. Gogora zazute, bada,  
Nik aurretik esan dizutet dana. Beraz, esaten ba'dizute:  
«Begira, basamortuan dago», ez irten; «Ara an etxe-  
barruan», ez sinistu. Tximista eguzki-sortaldetik irten  
eta sartalderaño agiri dan bezela, Gizasemearen etorrera  
ere alaxe izango da-ta (72). Gorputz illa dagon tokian, an  
egongo dira arranoak ere.

(72) Kristoren bigarren etorrera, guztiak ezagutuko dute iñork esan  
gabe.



Egun ayetako larrialdia igaroko danean, berriz, eguzki, illargi ta izarretan ezaugarriak agertuko dira; eguzkia illundu egingo da, illargiak ez du argirik egingo, izarrek zerutik erori egingo dira. Ta lurrean guztiak larri ta estu ibilliko dira itxasoko orro ta olatuagatik; ta lur guztiari gertatu bear zaizkionai begira, bildurrez eta zalantzaz gizonak igartuta geldituko dira; zeruko indarrak (73) kolokaka asiko dira-ta».

260.—*Kristo'ren bigarren etorrera.*  
(Mt. 23, 30-31; Mk. 13, 26-27; Lk. 21, 27)

«Eta orduan, Gizasemearen ezaugarria zeruan agertuko da (74), ta lureko erri guztiak bular-joka asiko dira, ta Gizasemea odeyetan etortzen ikusiko dute, gallen eta ospe aundiz. Eta bere aingeruak turuta-otsez bialduko ditu, ta Aren aukeratuak lau aldeetatik bilduko ditu, zeru-mugatik mugaraño» (75).

261.—*Jerusalen'go ondamendia, noiz?*  
(Mt. 24, 32-35; Mk. 13, 28-31; Lk. 21, 28-33)

«Guzti auk gertatzen asiko diranean, altxa ta burua jaso zazute, zuen askatasuna gertu dago-ta».

Eta ipui au esan zien: «Ikasi zazute pikondo ta beste zugaitzetatik. Pikondoari adarrak guritzen eta orriak sortzen zaizkionean, baita zugaitzak ere beren frutua ekartzen dutenean, udara laxter dala ezagutzen dezute.

Zuek ere orrelaxe: guzti auk ikusten dituzutenean, jakin zazute Jaungoikoaren Erreñua ate-aurrean, bertan dala. Benetan diotzutet: ez da gizaldi au igaroko, guzti auk bete arte (76). Zeru-lurrak igaroko dira; baño, nere itzak ez dira igaroko».

(73) Zeruko indarrak: izarrek.

(74) Jesukristo'ren ezaugarri ori, Gurutzea da.

(75) Jerusalem'en eta munduaren ondamendi-gayak naastuta daude emen.

(76) Olaxe bete zan Jerusalem erriaren ondamendia; ordutik 40 urtera gertatu ere, 70'garren urtean.

262.—*Kristo'ren bigarren etorrera noiz?*  
(Mt. 24, 36-41; Mk. 13, 32)

«Egun eta ordu ayetzaz iñork ez daki ezer, ez zeruko Aingeruak, ez Semeak, Aitak bakarrik, baizik (77). Noe'ren egunetan bezela gertatuko da Gizasemearen etorreran ere. Ugolde-aurreko egunetan, guztiak jan-edanean eta ezkontzen eta ezkoneraizten zebiltzan, Noe kutxan sartu zan egunerarte; ta ugaldeak etorri ta guztiak eraman arte, etziran konturatu; orrelaxe izango da Gizasemearen etorreran ere.

Orduan, soroan bi lagun egongo dira; bata artu ta bestea utzi egingo dute; emakume bi errotan egotzen ariko dira; bata artu ta bestea utzi egingo dute.

263.—*«Erne egon!». Sarearen eta lapurraren ipuyak.*  
(Mt. 24, 42-44; Mk. 13, 33; Lk. 21, 34-36)

«Zeuron kontua izan zazute, jan-edan eta mozkorkerietan eta bizitza ontako gora-beretan narrastu ez zaitetzen, eta egun ura bat-batean etorri ez dakizuten; sarea bezela, mundu osoan bizi diran guztiak etorriko zaye-ta. Begira, bada; erne egon eta otoitz egin, ez bait-dakizute zuen Jauna zein ordutan etorriko dan.

Eta jakin!: lapurra zein ordutan etorriko dan etxeko jaunak ba'leki, erne egongo litzake, noski, ta ez luke bere etxea zulatzen utziko. Zuek ere prest egon, bada, uste ez dezuten garayean etorriko zaizute-ta Gizasemea.

Beraz, erne egon zaitetze beti, otoitzketan, ustegabe-ko etorkizunai iges egin dezayezuten eta Gizasemearen aurrean agertzeko gai izan zaitetzten».

264.—*Esna dauden morroyak: morroi zintzoa ta morroi gaiztoak* (Mt. 24, 45-51; Mk. 13, 34-37).

«Urrutira joateko bere etxetik alde egin zuan gizon batek bezela, eskubide osoa bere morroyai eman, eta ba-koitzari eginbearra agertuta, atezayari erne egoteko agindu zion. Erne egon, bada, illunabarrean ala gauerdian, oillaritean (78) ala goizaldean, etxeko jauna noiz

(77) Jesus'ek ez daki besteai esateko, ori ez da orduan esatekoa-ta.

(78) Oillaritea: goizaldean, ollarrak kukurruku jotzen duan ordua.

datorren ez dakizute-ta; bat-batean etorririk, lotan arkitu ez zaitzaten. Eta zuei diotzutedana, guztiai esaten diet: erne egon!

Nor ote da morroi zintzo ta zuurra, bere janak etxe-ko morroi guztien buru ipiñi duana, bear dan orduan jatekoa eman dezayen? Zorionsua benetan, nagusiak, etortzean, orrela egiten arkitu dezan morroya! Benetan diotzutet: bere ondasun guztien buru egingo du.

Baño, alako beste morroi gaiztoak, bere barruan esaten ba'du; «Nere nagusia oraindik ez dator», eta morroi-neskameak astintzen eta mozkorrakin jan-edanetan asten ba'da, berak uste ez duan egunean eta ez dakin orduan morroyaren nagusia etorriko da, ta astinduko du ta burugabeai zor zayen saria emango dio: an izango da negarra ta ortz-karraska».

265.—*Neska zoroak eta burutsuak* (Mt. 25, 1-13).

«Orduan zeruko erreñua, krisalluak artuta, senar-emazteengana bidera irten ziran amar nesken antzeko izango da. Ayetako bost zoroak ziran, eta beste bostak burutsuak. Bost zoroak, beren krisalluak artuta, etzuten oliorik artu; burutsuak, ordea, olio ere artu egin zuten beren ontzietan.

Ontan, senargayak etortzea luzatzen zuala-ta, guztiak lo-zorian eta lo-zorroan gelditu ziran. Baño, gaberdian deadar bat entzun zan: «Ara; senargaya ba-dator; irten zaitetze bere bidera».

Neska guztiak, orduan, krisalluak prestatu zituzten. Eta zoroak burutsuai esan zieten: «Eman zaiguzute zuen oliotik gure krisalluak ia itzali dira-ta».

Burutsuak erantzun zieten: «Agian, guretzat eta zuentzat ez da naikoa izango, ta obe dezute saltzalleengana joan eta erosi».

Baño, ayek eroatera zijoazela, senargaya etorri zan, eta gertu zeudenak arekin ezta yetara sartu ziran, eta atea itxita gelditu zan. Geroago beste neskak ere etorri ziran, esanaz: «Jauna, Jauna, idiki zaiguzu».

Baño, Ark erantzun zien: «Benetan diotzutet: etzautzuet ezagutzen».

Erne egon, bada, eguna ta ordua ez-ezagunak dira-ta».

266.—*Talentuen ipuya* (Mt. 25, 14-30).

«Gizon batek, urrutira joaterakoan, bere morroyai dei egiñik, bere ondasunak utzi zizkien. Bati bost talentu<sup>(79)</sup> eman zizkion; beste bati, bi; beste bati bat bakarra, bakoitzari bere trebetasunari zegokionez, eta joan zan bereala.

Bost talentu artu zituanak, irabazitan ipiñirik, beste bost aurreratu zituan. Talentu bi artu zituanak ere, beste bi aurreratu zituan. Talentu bat artu zuanak, berriz, joan eta nagusiaren dirua atxurraz lurpean gorde zuan.

Andik luzarora, morroi ayen nagusia etorrita, kon-tuak garbitzen asi zitzaizen. Eta bost talentu artu zituanak arengana joan, eta beste bost talentu eraman zizkion, esanaz: «Jauna! Bost talentu utzi zenizkidan: ona emen nik irabazitako beste bost». Jaunak esan zion: «Aupa! Morroi on ta zintzo; gutxian zintzo izan zakizkidalako, askoren gaiñ ipiñiko zaitut; sartu zaitetz zure nagusiaren pozetan».

Eta bi talentu artu zituanak ere, etorri ta esan zion: «Jauna! Bi talentu utzi zenizkidan; ona nik irabazitako beste bi». Nagusiak esan zion «Aupa! Morroi on eta zintzoa! Gutxian zintzo izan zeralako, askoren gain ipiñiko zaitut. Sar zaitetz zure nagusiaren pozetan!».

Baño, talentu bat artu zuanak, inguraturik, esan zion: «Jauna! Ba-dakit gizon gogorra zerana; erein ez zenduan tokian biltzen dezuna, ta zabaldu ez zenduan tokian batzen dezuna. Beraz, bildurrez joan nintzan eta zure talentua lurpean gorde nuan; emen dezu zerea».

Aren nagusiak, erantzunik, esan zion: «Morroi gaizto ta alper orrek, ba-zenekin nik erein ez dedan tokian artu, ta zabaldu ez dedan tokian biltzen dedana? Orre-txegatik nere dirua irabazitan ipiñi bear zenduan, etortzean nik irabazi ta guzti jaso nezan. Ken zayozute, bada, talentu ori, ta eman amar talentu dauzkanari. Euki daukanari, eman egingo zayo, ta geyago eukiko du-ta; ez daukanari, berriz, daukala dirudiena ere kendu egingo zayo. Ta morroi alper ori bota zazute kanpoko illunpetara; an izango da negarra ta ortz-karraska».

(79) Talentu bakoitza: sei milla peseta urrezko.



267.—Azken-auzia (Mt. 25, 31-46).

Gizasemea bere ospetan Aingeru guztien erdian etorriko danean, bere aulki ospetsuan eseriko da, ta erri guztiak Aren aurrean bilduko dira, ta alkarrengandik bereziko ditu, ardiak akerrengandik artzayak bereizten dituan bezela. Ta ardiak bere eskuialdean, eta akerrak bere ezker aldean ipiñiko ditu. Orduan, Erregek bere eskuialdekoai esango die: «Zatozte, nere Aitak bedein-katuok!; munduaren asieratik zuentzan gertu dagon erreñuaren jabe egin zaitezte; gose izan nintzan, eta jaten eman zenidaten-eta; egarri nintzan, eta edaten eman zenidaten-eta; billutsik nengoan, eta jantzi egin ninduzuten; gaixorik, eta ikustera etorri zifiaten; espetxean nengoan, eta Nigana etorri egin zifiaten».

Orduan, zintzoak erantzungo diote, esanaz: «Jauna!; noiz ikusi zindugun goserik eta jaten eman genizun; edo egarririk, eta edaten eman genizun? Noiz arrotz, eta etxean artu zindugun? Edo noiz gaxorik naiz espetxean Zu ikusita, Zugana joan giñan?»

Eta Erregeak, erantzunik, esango die: «Benetan diotzutet: nere anai auetako txikienari egin zeniotena, neri egin zenidaten».

Orduan, ezker aldekoai ere esango die: «alde Nigandik, madarikatuok!; deabruarentzat eta aren aingeruentzat prest dagon betiko sutara. Gose nintzan, eta etzenidaten jatekorik eman-da; egarri nintzan, eta etzenidaten edatekorik eman-da; arrotz nintzan, eta ez ninduzuten etxean artu; billutsik nengoan, eta ez ninduzuten jantzi; gaxorik eta espetxean, eta ez zenidaten ikustaldirik egin». Orduan, ayek ere erantzungo diote; esanaz: «Jauna! noiz ikusi zindugun goserik eta egarririk eta arrotz eta billutsik eta gaxorik edo espetxean, eta ez giñan zuri laguntzera joan?».

Eta Ark erantzungo die: «Benetan diotzutet: auetako txiki bati egin etzeniotena, Neri ere etzenidaten egin».

Eta auek betiko ofizetara joango dira; zintzoak, berriz, betiko bizitzara».

268.—Jesus'en arazoak azken-egunetan (Lk. 21, 37-38).

Eta egunez elizan erakusten ari oi zan; gabaz, berriz, alde egin eta Oliamendi'n gelditzen zan. Eta goizean goiz, erri guztia elizan biltzen zan Ari entzuteko.

### AZTEAZKEN SANTU

269.—Batzar nagusiaren erabakia. Judas'en saldukeria. (Mt. 26, 1-5; Mk. 14, 1-2; Lk. 22, 1-6)

Egun bi barru Pazko deritzan ogi-il jaya ospatzen zan. Jesus'ek itzaldi guzti auek bukatu zituanean, bere ikasleai esan zien: «Ba-dakizute Pazko-eguna etzidamu dana, ta Gizasemea etsayen eskuetan ipiñiko dute guturtean josteko».

Orduan apaiz nagusi ta ixkribau ta erriko zaarrak, Kaipas zeritzan apaiz nagusiaren etxe-atadain bildu ziran, eta Jesus maltzurkeriz atxitu, lotu ta iltzea erabaki zuten. «Jaiegunean ez, ordea», zioten; erriaren bildur ziran-da, matxinadaren bat sortu etzedin.

Baño, amabietako bategan, Judas'engan —Iskariotes izen ordez—, Satanas sartu zan; eta apaiz nagusi ta ertzain nagusiarengana joan zan, Jesus ayei saltzeko asmoz. Eta esan zien: «Zer emango didazute, ta nik eskuratuko dizutet?».

Ayek, au entzunda, poztu egin ziran, eta ogeitamar diru zillar eskeñi zizkioten. Eta ark bayetzkoa eman zien. Arrezkero, jendearen ixilka, Jesus ayei emateko aukera-billa zebillen.

### OSTEGUN SANTU

270.—Azken-aparirako prestaerak. (Mt. 26, 17-19; Mk. 14, 12-16; Lk. 22, 7-13)

Pazko-Bildotsa iltzeko Ogi-il eguna etorri zanean, ikasleak Jesus'engana inguratu ta esan zioten: «Non nai dezu Pazko-aparia presta dezaizugun?».

Eta bere ikasleetako bi, Pedro ta Juan bialdu zituan, eta esan zien: «Zoazte errira, ta bertara sartzean, gizon bat irtengo zaizute bidera, ur-suilla bat daramala; jarrai

zayozute sartzen dan etxeraño, ta bertako nagusiari esan zayozute: «Maixuak dio: nere ordua laxter da; non dago nere jantokia, nere ikasleakin Pazkoakoa jan dezadan?». Eta jan-gela aundi ta apaindu bat erakutsiko dizute; ta antxe gerta ezazute bear dana».

Ikasleak joan ziran, eta errira iritxirik, dana esan zien bezela arkitu zuten, eta an gertatu zuten Pazkoa.

271.—*Pazko-apariaren asiera.*

(Mt. 26, 20; Mk. 14, 17; L. 22, 14-18)

Illunabarrean, amabiakin joaten da; ta aparitakoan, mayean eseri zan, eta amabi apostoluak Arekin. Ta esan zien: «Gogo bizia neukan Nekaldia baño len, Pazko au zuekin jateko. Ara Nik esan: Ez det beste bein jango, Jaungoikoaren Erreñuan oso bete arte».

Ta ardo-ontzia arturik, eskerrak emanda, esan zuan: «Artu ta zuen artean banatu zazute; eta esaten dizutet: ez det maats-ardorik edango Jaungoikoaren Erreñua etorri arte».

272.—*Apostoluen eztabaida (Lk. 22, 24-30).*

Eztabaida sortu zan ayen artean, beren artean aundien nor ote zitekean <sup>(80)</sup>.

Baño, Jesus'ek esan zien: «Errien erregeak jabe agertzen zaizkie, eta ayen artean aginpidea dutenai, Ongille izena ematen zaye. Baño, zuen artean ez bedi orrela izan, bestela baizik; zuetako aundiena, txikien bezela ager bedi, ta nagusia morroi bezela. Nor da, bada, aundiena? Aparitan dagoana ala mai-morroya? Ez ote da mayean eserita dagoana? Ala ere, Ni zuen artean morroi bezela nago ta zuek nere naigabe-aldietan Nerekin egon zerate; ta Nik Erreñua prestatu dizutet, Neri Aitak prestatu zidan bezela, Nere Erreñuan Nere mayean jan eta edan dezazuten, eta Israel'go amabi leiñu ta tribuak epaitzeko auzi-aulkietan eseri zaitezten».

(80) Eztabaida ori, mayean jarrita berealaxe izan zan, itxuraz. Ziztrin-keri oyeak, Espiritu Santuaren etorreraz zearo bukatu ziran.

273.—*Jesus'ek bere ikasleen oñak garbitzen ditu.*

(Jon, 13, 1-17)

Pazko-jai aurrean, Jesus'ek gizarte ontatik Aitagana biurtzeko ordua ba-zetorkiola jakiñik, lurrean zeuden bereak maite izanik, azken-azkeneraño maite izan zituan. Eta apaltzen asi ziran. Orduko, deabruak Simon Iskariotes'en seme Judas'en biotzean Jesus saltzeko asmoa sartuta zeukan. Jesus'ek ba-zekin Aitak gauza guztiak eskuetan ipiñi zizkiona, ta Jaungoikoagandik sortu zana, ta berriro Jaungoikoagana zijoana; eta aparti-mayetik altxa, bere soñekoa erantzi <sup>(81)</sup>, ta esku-zapi bat arturik, gerrian lotu zuan. Gero ontzi batera ura botata, ikasleen oñak garbitzen asi zan, eta gerrian zeukan zapiak legortzen <sup>(82)</sup>.

Simon Pedro'rengana iritxi zanean, onek diotsa: «Jauna! Zuk neri oñak garbitu?»

Jesus'ek erantzun eta esan zion: «Ni egiten ari naizena, zuk ez dakizu orain zer dan; gero jakingo dezu».

Pedro'k diotsa: «Ez dizkidazu egundaño oñak garbituko!»

Jesus'ek erantzun zion: «Garbitzen ez ba-zaitut, ez dezu Nerekin artu-emanik izango».

Eta Simon Pedro'k: «Jauna!, ez oñak bakarrik, baita eskuak eta burua ere!»

Jesus'ek diotsa: «Garbi dagonak, oñak garbitzea beste-rik ez du bear; beste guztia garbia dago-ta. Ta zuek garbi zaudete, baño, ez guztiak».

Ba-zekin nor salduko zuan-ta; orregatik esan zuan «etzaudete guztiok garbi».

Oñak garbitu zizkienean, berriro bere soñekoak jantzi zituan, eta mayean berriz eseririk, ala esan zien: «Ba-al dakizute zer egin dizuetedan? «Maixua» ta «Jauna» deitzen didazute, ta zuzen deitua, izan ere, ba-naiz-ta. Baño, Nik, zuen Maixu ta Jaun naizen onek, oñak garbitu ba' dizkitzutet, zuek ere alkarri garbitu egin bear dizkiozute, bada, Nik zuei egin dizutedan bezela, zuek ere egin dezazuten. Bene-benetan diotzutet: morroya ez da bere

(81) Au da: gañeko soñekoa kendu.

(82) Nagusiari oñak garbitzea morroyen lana zan.



nagusia baño aundiago, ezta bialdua ere bialdu duana baño. Au ulertu ta egiten ba'dezute, zoriontsu izango zerate».

274.—*Jesus'ek Judas'en azpikeria agertzen du.*  
(Mt. 26, 21-25; Mk. 14, 18-21; Lk. 22, 21-23; Jon, 13, 18-30)

«Ez diot au guztiagatik; ba-dakit nortzuk aukeratu nituan; baño, Idazkian dakarren au bete bear zan: «Nere ogia Nerekin jaten duanak bere orpoa nere aurka jasoko du» (83). Orainditxek diotzutet, gertatu baño len; gero, gertatu dediñean, ori Ni naizela sinistu dezazuten. Bene-benetan diotzutet: Nik bialtzen dedana onartzen duanak, Ni onartzen nau; ta Ni onartzen nauanak, bialdu nauana onartzen du».

Au esanda, Jesus bere barruan larri batean jarri zan, eta argi ta garbi esan zuan: «Bene-benetan diotzutet: Nerekin jaten ari dan zuetako batek, etsayen eskuetan utziko nau; nere saltzallearen eskua, Nerekin mayean dago».

Ta oso naigabeturik, bakoitza bata bestearen ondoren, esaten asi zan: «Ni ote naiz, Jauna?»

Ark, erantzunik, esan zien: «Amabietako batek, Nerekin eskua plateran sartzen duanak, orretxek salduko nau. Gizasemea ba-dijoa, Artzaz erabaki eta idatzita dagon bezela; baño, Gizasemea salduko duanaren errukarria! Obe litzayoke jayo ez ba'litz!»

Ikasleak, bada, alkarri begira asi ziran, norengatik zion etzekitela; ta alkarri galdezka asi ziran, nor ote zan orrelakorik egin zezakeana.

Ta ikasleetako batek, Jesus'ek maite zuanak, bere burua Jesus'en bular-gañean etzanda zeukan. Simon Pedro'k keñu eginda, diotsa: «Norengatik dio ori?»

Orduan ark, Jesus'en bular-gañean etzanik, diotsa: «Jauna! Nor da?»

Jesus'ek erantzun zion: «Nik ogia bustita emango diodana; orixe da» (84).

(83) Ps. 40, 10.

(84) Egitada xamurra ere xamurra Jesus'ek Judas'i egin diona: ogi zati bat saldatan busti ta eman. Judas'ek nai ba'lu, Jesus'en adiskidetasunean iraungo luke.

Eta ogia bustirik, Simon Iskariotes'en seme Judas'i eman zion. Eta otamen-ondoren, deabrua sartu zitzaion. Eta Judas'ek, saltzalleak, galdetu ta esan zion: «Maixua! Ni al naiz?»

Eta Jesus'ek ari: «Zuk esan dezu» (85). Ta Jesus'ek esan zion: «Egin bear dezuna, egin zazu azkar» (86).

Maikide batek ere etzuan ulertu, au zertarako esan zion. Diru-zaya Judas izanik, batzuek uste izan zuten Jesus'ek auxe esan ziola: «Erosi zazu jai-egunerako bear deguna»; edo bestela, beartsuai zerbait emateko.

Beraz, Judas'ek otamena artu ondoren, berealaxe alde egin zuan. Eta gaba zan.

275.—*Eukaristi donea.*  
(Mt. 26, 26-29; Mk. 14, 22-25; Lk. 22, 19-20; 1 Kor. 11, 23-26)

Eta apaltzen ari zirala, saldu zuten gabeen, Jesus'ek ogia artu, bedeinkatu ta eskerrak emanda, zatitu ta bere ikasleai eman zien, esanaz: «Artu ta jan, au Nere Gorpuzta da, zuengatik ematen dana. Egizute au Nere oroiz».

Eta era berean, edontzia arturik, apalondoan, eta eskerrak emanda, eman zien esanaz: «Edan zate ontatik guztiok, au Nere Odola da-ta, Itun Berriko Odola, pekatuen barkamenerako zuentzat eta askorentzat isuriko dana. Au edan dezazuten bakoitzean, nere oroiz egin zazute. Eta auxe esaten dizuet: ez det berriz mats-ardo ontatik edango, nere Aitaren Erreñuan ardo berria zuekin edan dezadan egunerarte».

Eta guztiak artatik edan zuten.

## APARITAKO ITZALDIA ASIERA

276.—*Jesus, goratua. Agindu berria: alkar-maite.*  
(Jon, 13, 31-35)

Judas'ek alde egin zuanean, bada, Jesus'ek esan zuan: «Gizasemea oraintxe goratua izan da, ta Jaungoikoa

(85) *Zuk esan dezu*: au da: orrelaxe da, zuk esan dezun bezela. Baño, ori Jesus'ek ixilka erantzun zion; eta etzuten beste ikasleak entzun.

(86) Jesus eriotzarako gertu dago.

Arengan. Jaungoikoa Arengan goratua izan ba'da, Jaungoikoak ere Beragan goratuko du; ta laster goratuko ere.

Semetxoak, denbora gutxirako naukazute zuekin. Bilatuko nauzute; ta judutarrak esan niena, orain zuei ere esaten dizutet: «Ni noan tokira, zuek ezin etorri zindez-teke» (87). Agindu berri bat ematen dizutet: «ALKAR MAITE ZAZUTE» (88). Nik maite zaituztedan bezela, zuek ere alkar maite dezazutela. Ontan ezagutuko dute guztiak Nere ikasle zeratela, zuen alkarganako maitasunean».

277.—*Pedro'ren ukatzeak aurrez agertzen ditu.*  
(Mt. 26, 31-35; Mk. 14, 27-31; Lk. 22, 31-38; Jon, 13, 36-38)

Simon Pedro'k esaten dio: «Jauna, nora zoaz?»

Jesus'ek erantzun: «Ni noan tokira, zuk ezin jarrai zenizaidake; geroago jarraituko didazu».

Pedro'k diotsa: «Jauna, zergatik orain ezin jarraitu nezaizuke? Nere bizia emango det Zuregatik».

Jesus'ek erantzun zion: «Zure bizia emango dezula Neregatik? Bene-benetan diotzut: «Gau ontan guztientzat beaztopa izango naiz; idatzita dago: «Joko det artzaya, ta artaldeko ardiak sakabanatu egingo dira» (89). Baño, piztu nadiñean, Galilea'ra joaten aurrea artuko dizutet».

Pedro'k erantzunaz, esan zion: «Zutzaz guztiak lotsatzen ba'dira ere, ni ez naiz lotsatuko».

Jesus'ek esan zion: «Benetan diotzut, Pedro; gaur gabea, ollarrak bi bider kukurruku jo baño len, iru bider ukatuko nauzu. Simon, Simon, begira: garia bezela, zuek bayean astintzeko eskubidea eskatu du deabruak; baño, Nik zure alde otoitz egingo det, zure sinismenak uts eman ez dezan (90); eta zuk, noizbait indarberrituta, zure anayak sendotu itzazu».

(87) Jon 7, 33; 8, 21.

(88) Agindu au ba-zan len ere, baño aurrerantzean indar aundiagoa izango du; gizon guztiak artuko ditu; ala bear izan ezkerro, bizia emateraño maitasuna izan bear da, Jesus'ek egin zuan antzera; eta au, Jaungoikoaganako maitasunarren.

(89) Zak. 13, 17.

(90) Guztien alde otoitz egiten du, baño, Apostoluen Buru danaren alde, batez ere. Pedro'ren ukatzeak eta damua iragartzen ditu.

Baño, Pedro gero ta geyago ari zitzayon, esanaz: «Jauna, Zurekin espetxera ta eriotzera joateko ere prest nago. Zurekin batean il bear-ta ere, etzaitut ukatuko».

Beste ikasleak ere, beste onenbeste zioten.

Gero esan zien: «Zakuto, bide-zorro ta oñetakorik gabe biali zinduztedanean, zerbaiten utsik izan al zenu-ten?»

Ayek erantzun zioten: «Ezerenik ere ez!»

Eta Jesus'ek: «Orain, ordea, zakutoa duanak, artu beza; ta berdin bide-zorroa ere; ta ezpatarik ez duanak, bere soñekoa saldu ta ezpata erosi dezala (91). Egia esan, Nigan bete bear da idatzitako au: «Gaizkilletzat artuko dute» (92). Izan ere, Nitzaz idatzitakoa, laxter bete bear da».

Ayek esan zioten: «Jauna, ona emen bi ezpata».

Eta Jesus'ek: «Naikoa da!»

278.—*Itz pozgarriak: Zerua agintzen die* (Jon, 14, 1-4).

«Ez bekizute biotza larritul; Jaungoikoagan sinisten dezute, Neregan ere sinista zazute. Nere Aitaren etxean jarleku asko dira; ala ez ba'litz, esango nizuten; zuentzako tokia gertatzera nijoa. Joan, eta tokiak prestatu-ondoren, berriro etorriko naiz eta Nerekin artuko zaituztet, Ni nagon tokian, zuek ere egon zaitezten. Ni nora noan, berriz, ba-dakizute, ta arako bidea ere ba-dakizute».

279.—*Tomas'en eta Felipe'ren galderak* (Jon, 14, 5-12).

Tomas'ek esaten dio: «Jauna, nora zoazen ez dakigu, ta bidea nola jakin dezakegu?»

Jesus'ek diotsa: «Ni naiz bidea, ta egia, ta bizia. Aitarengana ifior ezin etorri diteke, nere bitartez baizik. Ni ezagutuko ba'ninduzute, nere Aita ere ezagutuko zenu-teke; eta geroenean ezagutuko dezute; ta ikusi ere egin dezute».

Felipe'k diotsa: «Jauna, erakutsi zaiguzu Aita ta naikoa degu».

(91) Jesus ayekin bizi zan artean, etzuan ezerean bearririk; baño, orain Jesus ba-dijoa, ta erasoaldietarako prest egon bear dute. Ala ere, ordea, geroago —piztu-ondoren— Jesus'ek bere laguntza beti izango zutela agindu zien.

(92) Is. 53, 12.



Jesus'ek orduan: «Onenbeste denboran zuekin egon naiz, eta ez nauzute ezagutu? Felipe, Ni ikusten nuanak Aita ere ikusten du. Nola diozu: «erakutsi zaiguzu Aita?» Ez al dezute sinisten Ni Aitagan eta Aita Nigan dagonik? Esaten dizutedana, ez dizutet Nik nerez esaten: Nigan dagon Aitak Berak egin ditu nere lanak. Ez al dezute sinisten Aita Nigan dagonik? Bestela, berriz, egintzai sinista zayezute».

280.—*Sinismenaren indarra* (Jon, 14, 12-14).

«Bene-benetan diotzutet: Nigan sinisten duanak, Nik egindakoak eta aundiagoak ere egingo ditu, Ni Aitaren-gana nijoa-ta. Nere Izenean Aitari eskatzen diozuten edozer, orixe emango dizutet, Aita Semearengan goretsi dedin. Eta nere Izenean zerbait eskatzen ba'didazute, emango dizutet».

281.—*Beste poz-emalle bat* (Jon, 14, 15-17).

«Maite ba'nauzute, nere aginduak bete itzazute; ta Nik eskatuko diot Aitari ta beste Poz-emalle bat bialiko dizute, beti zuekin egon dedin; Egiaren Espiritua, lurko-yak artu ezin dezatekena: ez dute ez ikusten, ez eza-gutzen-eta<sup>(93)</sup>; baño, zuek ezagutuko dezute, zuenean eta zuekin egongo da-ta».

282.—*«Etzaituztet umezurtz utziko* (Jon, 14, 18-24).

«Etzaituztet umezurtz utziko; etorriko natzazute. Laxter, eta ez nau gizadiak ikusiko; zuek, ordea, ikusten nauzute, Ni bizi naiz-ta; zuek ere biziko zerate. Egun artan ezagutuko dezute Ni Aitagan nagola, ta zuek Nigan eta Ni zuengan. Nere aginduak artu ta gordetzen ditua-nak, aretxek maite nau. Ni maite nauanak, berriz, nere Aita maite izango du; ta Nik ere maite izango det, eta agertuko natzayo».

Judas'ek —Iskariotes'ek ez, besteak— diotsa: «Jauna, zer dala-ta guri agertu ta beste gizonai ez?»

Jesus'ek erantzun eta esan zion: «Norbaitek maite ba'nau, nere itza gordeko du, ta nere Aitak maite izango

du; ta etorriko gatzazkio, ta arengan egotez egongo gera. Maite ez nauanak, berriz, ez ditu nere itzak gordetzen. Eta entzun dizkidazuten itz auek, ez dira Nereak, bialdu nauan Aitarenak baizik».

283.—*Berriro ere Poz-emallea agintzen die.*

(Mt. 26, 30; Mk. 14, 26; Lk. 22, 39; Jon, 14, 25-31)

«Itz auek, zuekin nagola, esan dizkitzutet. Baño, nere Izenean Aitak bialduko duan Espiritu Santu Poz-emalleak erakutsiko dizute guztia, ta Nik zuei esandako guztia gogoraziko dizute. Pakea uzten dizutet, nere pakea ematen dizutet, ez munduarena. Etzaitzete larritu ez kokildu. Entzun zenidaten Nik esana: «Ba-nijoa, ta ba-natorki-zute». Maite ba'ninduzute, poztu egingo ziñateke ziur Ni Aitarengana joateaz, Aita Ni baño aundiagoa da-ta<sup>(94)</sup>. Eta orain, gertatu aurretik esan dizutet, gertatzen danean, sinistu dezazuten. Onezkero ez dizutet askorik itz egingo, mundu ontako nagusia ba-dator-eta<sup>(95)</sup>; baño, Nigan ikustekorik ez du. Ala ere, Aita maite dedala ta Aitak agindu zidana egiten dedala, munduak jakin bear du<sup>(96)</sup>. Altxa zaitzete ta goazen emendik».

Eta ereserkia (imnoa) esanda<sup>(97)</sup>. Oliamendi'rutz irten ziran; eta ikasleak ere Arekin joan ziran.

284.—*Oliomendirutz. Matsondoa ta ayenak* (Jon, 15, 1-10).

Orduan Jesus'k esaten die: (98) «Ni egiazko matsondoa naiz, eta nere Aita maastizaya. Neregan maatsik ematen ez duan ayena, ebaki egingo du; ta maatsa ematen duana, berriz, iñausi, maats ugariago eman dezan. Ontara ezker, zuek garbi zaudete, esan dizutedan itzaz. Zaudete beti Neregan, eta Ni zuengan. Matsondoan egon gabe, ayenak, berez, alerik ezin dezateke eman, ezta zuek ere Neregan iraun ezik. Ni matsondoa naiz; zuek ayenak.

(94) Semea, Aita baño txikiagoa da *gizona danez*.

(95) Deabrua, bere jarraitzaileak morroi biurtzen ditu-ta. Baño, Jesus'i ezin ezer egin dezayoke, pekatu-gabea da-ta; Jaungoikoa, gañera.

(96) Aitari dion maitasunarren dijoo eriotzara.

(97) Apalondoan judutarrak esker-ereserki batzuk esaten zituzten.

(98) Emendik aurrerako itzaldi-zatia, Jetsemani'rako bidean esan zuan Jesus'ek.

(93) Lurkoyak, gogozko begirik ez dutelako.



Neregan irauten duanak, eta Nik argan, ale ugari ematen du; Ni gabe, ezertxo ere ezin egin dezakezute-ta. Norbait Neregan ez ba'dago, ayena bezela, kanpora botako dute, igartu egingo da, ta bildu ta sutara botako dute ta erre egingo da. Neregan egoten ba'zerate, ta Nere itzak zuengan, nai dezutena eska zazute, ta emango zaizute. Zuek frutu asko eman ezkerro ta nere ikasle izan, nere Aita goratua da. Aitak maite izan nauen bezela maite zaituztet Nik ere. Nere aginduak gordetzen ba'dituzute, nere maitasunean iraungo dezute; Nik ere nere Aitaren aginduak bete ta Aren maitasunean irauten dedan bezela. Guzti au, nere poza zuengan izan dezazuten esan dizutet, eta zuen poza bete-betea izan dedin» (99).

285.—*Lagun urkoaganako maitasun-agindua.*  
(Jon, 15, 12-17)

«Nere agindua auxe da: ALKAR MAITE EZAZUTELA, Nik maite izan zaituztedan bezela. Bere adiskidearengatik bizia ematen duanak baño maitasun aundiagorik ez du iñork. Zuek nere adiskide izango zerate, nere aginduak gordetzen ba'dituzute. Emendik aurrera, ez dizutet morroi-izenez dei egingo; morroyak ez daki nagusiak egiten duana-ta. Baño, zuei adiskide esan dizutet, nere Aitari entzun nion guztia agertu dizutedalako. Ez nauzute zuek aukeratu; eta Nik bai zuek; joan eta frutua eman dezazuten, eta zuen frutua iraunkorra izan dedin aukeratu zaituztet; eta nere Izenean Aitari eskatuko diozuten edozer, amango dizute. Auxe agintzen dizutet: ALKAR MAITE EZAZUTE».

286.—*Lurkoyen gorrotoa* (Jon, 15, 18-27; 16, 1-4).

«Lurkoyak gorroto ba'dizute, jakin bear dezute, zuei baño len Neri izan didala gorroto. Lurkoi ba'zifñateke, lurkoyak berena maite izango luteke; baño, zuek etzerate lurkoi, Nik lurkoyen artetik aukeratu zaituztet-eta; orretxegatik gorroto dizute lurkoyak.

Gogoan artu esan nizutena: «morroya ez da nagusia baño geyago». Neri eraso ba'didate, zuei ere erasoko

(99) Poza, maitasunaren ondorena da.

dizute; nere itza artu ba'dute, zuena ere artuko dute. Baño, guzti au nere Izenagatik egingo dizute, bialdu nauana ez dute ezagutzen-da. Ni etorri izan ez ba'nintz, eta itzik egin ez ba'nie, pekatuik ez luteke; orain, ordea, ez dute beren pekatuaren aitzakirik. Neri gorroto didanak, nere Aitari gorroto dio. Beste iñork egin ez dituan gauzak ayen artean egin ez ba'nitu, pekatuik ez luteke; orain, ordea, nere egintzak ikusi dituzte, ta Aitari ta biyoi gorroto digute. Bete bearra zan, noski, ayen legean idatzita dagon au: «Arrazoibiderik gabe gorroto izan zidaten» (1).

Baño, Aitarengandik dan Egi-Espiritua Aitarengandik bialdu dezakizuedanean, Berak emango du Nitzaz aitormen (2). Baita zuek ere aitormen emango dezute, asieratik Nerekin zabiltzate-ta. Gauza auk, gaitzpiderik izan ez dezazuten esan dizkitzutet. Sinagogetatik bota egingo zaituzte; eta etorriko da, zuek iltzen zaituztena, ortan Jaungoikoa gurtzen ari dala uste izango duan aldia ere. Ta ori, ez nere Aita ta ez Ni ezagutzen ez gaituztelako egingo dute. Baño, gauza auk, denbora etorriko danean, Nik aurrez agertu nizkitzutela gogora dezazuten esaten dizkitzutet. Eta ez nizkitzuten asieratik esan, Ni zuekin nengoan-da».

287.—*Espiritu Santuaren lana* (Jon, 16, 5-15).

«Eta orain, biali ninduanarengana nijoa, ta iñork ere ez didazute «Nora zoaz» galdetzen? Baño itz auk esan dizkitzutedalako biotza naigabez bete zaizute. Baño, egia diotzutet: ondo datorkizute Ni joatea; Ni joango ez ba'nitz, Pozemallea elitzaizuteke etorriko-ta; joaten ba'naiz, ordea, Nik bialiko dizutet. Eta etortzen danean, Berak salatuko du munduan pekatua, zuzena ta epaya. Pekatua, sinistu ez didatelako; zuzena, Aitagana nijoala-ta, aurre-rantzean ikusiko ez nauzutelako; epaya, mundu ontako nagusia onezkero epaitua dagolako. Beste gauza asko ditut oraindik zuei esateko; baño, orain ezin ulertu zenitzateke. Baño, Egiaren Espiritua etorri dedinean,

(1) Ps. 34, 19; 68, 5.

(2) Aitarengandik eta Semearengandik datorren Espiritu Santuak betekoko du gure animetan gure santutasunaren lana.



Berak erakutsiko dizkitzute egi guztiak; bere buruz ez du itzegingo, baño, entzun duan guztia esango dizute, ta etorkizun guztia argituko dizute. Ark goratuko nau, Neretik artuta adieraziko dizute-ta. Aitak duan guztia nerea da; onegatik esan dizutet: Neretik artuta adiera-ziko dizute».

288.—«*Berriro ikusiko nauzute*» (Jon, 16, 16-24).

«Oraindik pixka bat, eta ez nauzute ikusiko; ta berriz beste pixka bat, eta ikusiko nauzute, Aitarengana nijoa-ta» (3).

Aren ikasleetako batzuk alkarri esaten zioten: «Zer esan ote digu itz oyekin: laxter ez nauzute ikusiko, ta berriz pixka bat eta ikusiko nauzute, Aitarengana nijoa-ta?»

Eta ala zioten: «Zer ote da «pixka bat» ori? Ez dakigu zer dion».

Jesus'ek zerbait galdetu nai ziotela igarrita, ala esan zien: «Oraindik pixka bat, eta ikusiko nauzute» esan dizutedalako, alkarri galdezka ari zerate. Bene-benetan esaten dizutet: negarrez eta naigabez ibilliko zerate, ta lurkoyak poztu egingo dira; zuek atsekabetu egingo zerate, baño zuen atsekabea poz biurtuko da. Emakumea, aurra izateko dagonean, larri egoten da, denborak etorri zaizkiolako; baño, aurra izan ondoren, lengo larritasunaz ez da gogoratzen, umea bizitzara jayo dalako pozez dago-ta. Orrela zuek ere, orain goibel zaudete; baño, berriro ikusiko zaituztet, eta biotza poztuko zaitzute; ta zuen poz ori ez dizute iñork kenduko. Egun artan ez didazute ezer galdetuko. Bene-benetan diotzutet: Aitari nere Ize-nean zerbait eskatzen ba'diozute, emango dizute. Orain arte ez dezute ezer eskatu nere Izenean; eska zazute, ta artuko dezute, zuen poza bete-betea izan dedin».

289.—*Itzaldiaren azken-zatia* (Jon, 16, 25-33).

«Gauza auek ipuyetan esan dizkitzutet; denbora ba-dator, eta emendik aurrera ez dizutet ipuyen bidez itz egingo; argi ta garbi emango dizutet Aitaren berri. Egun

(3) Apur bat geroxeago, ez dute ikusiko, eriotzara dijoa-ta; gero-xeago, ordea, berriz ikusiko dute, piztu egingo da-ta.

artan, nere Izenean eskatuko dezute; ta ez dizutet esaten Nik Aitari zuen alde eskatuko diodanik; Aitak berak maite zaituzte-ta, zuek Ni maite izan nauzelako ta Jaungoikoagandik etorri naizela sinistu dezutelako. Aita-gandik irten eta gizartera etorri naiz; berriro gizartea utzi, ta Aitarengana nijoa».

Ikasleak diotsate: «Orain argi itz egiten dezu, ta ipui-rik ez dezu esaten. Orain ba-dakigu Zuk dana dakizula, ta iñork Zuri galdetu-bearrik ez dagola. Orregatik sinis-ten degu Jaungoikoagandik sortua zerala».

Jesus'ek erantzun zien: «Orain sinisten al dezute? Ara: Ni bakarrik utzi, ta bakoitza bere aldera banatzeko denbora ba-dator—eta etorri da—. Baño, ez nago baka-rrik; Aita Nerekin dago-ta. Gauza auek, Neregan pakea izan dezazuten esan dizkitzutet. Gizartean estualdiak izango dituzute; baño, izan uste on!, giza-indarra Nik azpiratu det».

## JESUS'EN APAIZ-OTOITZA

290.—*Bere buruaren alde* (Jon, 17, 1-5).

Gauza auek esan-ondoren, Jesus'ek begiak zerurontz jatorik, ala esan zuan: (4) «Aita! ordua eldu da; gora zazu Semea, Semeak Zu goratu zaitzan; eta gizon guztien gañeko jabetasuna eman zenion ezker, Aren esku utzi dizkiotzun guztiai betiko bizitza eman dezayen. Eta betiko bizitza auxe da: egiazko Jaungoiko bakarra zeran ori, ta Zuk bialdutako Jesu-Kristo ezagutzea. Goratu zaitut Nik lurrean; eman zenidan egitekoa bete det. Orain, bada, goratu nazazu Zuk, lurra asi baño len Zugan nuan aintzarekin».

291.—*Bere ikasleen alde* (Jon, 17, 6-19).

«Erakutsi diet zure Izena gizartetik eman dizkidazun gizonai; zureak ziran eta Neretzat eman dizkidazu; ta

(4) Ona emen Joan Donearen Ebanjelioaren laburpena: Batasuna, maitasuna, egia, argia, ezaguera, bizitza, Kristo'k lurrekoai dakarkien Berria. Benetako Jaungoikoa danez, munduari agertu dezayola eskatzen dio Jesus'ek Aitari; eta ori, eriotzaren eta piztueraren eta zeruratzearen bitartez.

Zure Itza onartu dute. Eman didazun guztia Zeregandik datorrela ezagutu dute orain; Zuk emandako itzak eman dizkiet-eta; eta onartu dituzte; ta Zuregandik sortu naitzela benetan ezagutu dute, ta Zuk bialdu nauzula sinistu. Ayen alde otoiitz egiten det; lurkoyen alde ez det otoiitzik egiten, eman dizkidazunen alde baizik, Zureak dira-ta; nere guztiak zureak dira, ta zureak, nereak; eta ayengan goratua izan naiz. Onez gero ez nago gizonen artean; auek, berriz, gizonen artean daude, ta Ni Zuregana nijoa.

Aita Donea!, eman dizkidazunak zaitu itzazu, gu bezela, bat izan ditezen. Auekin nintzan artean, eman zenizkidanak zure izenean zaitzen nituan; ba-neukan Nik auen kontua, ta ayetako bat ere ez det galdu, ondamendiaren semea besterik, Idatzitakoa bete zedin. Orain, ordea, Zuregana nator; ta gauza auek, oraindik gizartean nagola esaten ditut, nere poza berengan bete-betea dezaten. Zure itza eman diet; eta lurkoyak gorroto izan diete, ez bait-dira lur ontakoak; Ni ere lur ontakoa ez naizen bezela. Ez dizut eskatzen gizartetik ateratzeko, Gaiztoarengandik gordetzeko baizik. Ez dira munduarenak, ni ere lurterra ez naizen bezela. Bedeinka itzazu egitan; Zure Itza Egia da-ta. Ni gizartera bialdu nauzun bezela, Nik ere gizartera bialdu ditut. Eta auematik nere burua bedeinkatzen det, auek ere egitan bedeinkatuak izan ditezen» (5).


292.—*Geroko Elizaren alde* (Jon, 17, 20-26).

«Baño, ez det auen alde bakarrik otoiitz egiten; auen itzaren bidez Neregan sinistuko dutenen alde ere erre gutzen dizut. Guztiak bat izan ditezela: Zu, Aita, Nigan eta Ni Zuan bat geran bezela; orrela bat izan bitez, Zuk biali nauzula munduak sinista dezan. Eta Zuk emandako aintza ayei eman diet, Gu bat geran bezela, ayeke ere bat izan ditezen, Ni ayengan eta Zu Nigan, oso bat izan ditezen, gizon guztiak ezagutu dezaten Zuk bialdu

(5) Jesus'ek bere burua oparizat eskeintzen eta donetzen du, bereak ere santu biur ditezan.

nauzula, ta Zuk Ni bezela, auek maite izan dituzula. Aita, Zuk Neri emandakoak, Nerekin batean, Ni nagon tokian egon ditezela nai det, Zuk eman zenidan aintza ikusi dezaten, lur au sortu baño len maite nauzu-ta.

Aita zuzen oril, lurkoyak etzaituzte ezagutu; Nik, ordea, ezagutu zaitut, eta auek ere ezagutu dute Zuk biali nauzula. Zure izena erakutsi diet, eta berriz ere erakutsiko diet; maite izan nauzun maitasuna auekin izan dedin, eta Ni ere auekin izan nadin».





# Irugarren zatia

## NEKALDI SANTUA

### I.—JETSEMANI-BARATZAKO OTOITZA

293.—*Baratzara iristen da.*

(Mt. 26, 30-36; Mk. 14, 26-32; Lk. 22, 39-40; Jon, 18, 1-2)

Itz auek esanda, Jesus bere ikasleakin Kedron erre-karen beste aldera igaro, ta, oi zuanez, Oliamendi'ra joan zan. Eta Getsemani zeritzan baratz batera iritxita, bertako esiz barrena sartu zan ikasleakin. Judas saltzalleak ere ba-zekin toki ura, Jesus bere ikasleakin an askotan izaten zan-da. Ara iritxita, bada, bere ikasleai esan zien: «Eseri emen, Ni arutzago otoitz egitera ni joan bitartean. Otoitz egizute zuek ere, tentazioan sartu etzaitzten».

294.—*Otoitza* (Mt. 26, 27-44; Mk. 14, 33-40; Lk. 22, 41-43).

Eta Pedro ta Zebedeo'ren bi semeak, Santiago ta Juan berekin arturik, ikarutzen eta larritzen asi zan (6) Orduan esaten die: «Iltzeko zorian larri daukat biotza; geldi zaitzete emen eta egon erne nerekin».

Eta pixka bat aurreratuta, arrikada baten neurrian edo, lurrean auzpeztu, ta otoitzean ari zan, esanaz: «Abba, Aita!, Zuk dana dezakezu; beraz, al ba'litz, Zuk nai ba'dezu, ontzi au urrutira zadazu; ala ere, ordea, ez bedi nere naya egin, zurea baizik».

(6) Jesus'en irudi-aldatzean ere, iru Apostolu auek egon ziran Jesus'ekin.

Eta ikasleengana bihurturik, lo arkitu zituan, eta Pedro'ri esaten dio: «Simon, lo al zaude? Ordu bete ezin egon izan zera Nerekin esna? Zaudete erne ta egizute otoitz, zirikaldian sartu etzaitzeten. Gogo gertu dago, baño aragia makal».

Eta berriro alde egiñik, bigarren aldiz otoitz egin zuan, itz berdiñak esanaz: «Ene Aita!, ontzi au Nik edan gabe ezin igaro ba'da, egin bedi zure naya». Ta bihurturik, berriro ere lo arkitu zituan, ayen begiak astunduta zeuden-da, eta etzekiten zer erantzun.

Eta ayek utzita, berriz ere joan eta irugarren aldiz otoitz egin zuan, itz ber-berak esanaz. Orduan, zerutik Aingeru bat agertu zitzaion, eta kemena eman zion. Eta larri gorritan jarrita, otoitz egiten jarraitu zuan gero ta gogorrago, izerdia lurreraño odol-tantoka zeriola.

295.—*Judas'i itxedoten.*

(Mt. 26, 45-46; Mk. 14, 41-42; Lk. 22, 45-46)

Eta otoitzetik altxata, ikasleengana etorririk, lo arkitu zituan. Eta esan zien: «Orain bai lo egin zazute ta atsedean artu... Lotan al zaudete? Naikoa da; iritxi da ordua, ta Gizonaren Semea pekatarien esku geldituko da. Altxa zaitzete, goazen; begira, bertan dator nere saltzallea».

296.—*Jesus etsayen mende.*

(Mt. 26, 47-48; Mk. 14, 43-44; Lk. 22, 47; Jon, 18, 3)

Jesus'ek izketan jarraitzen zuala, Judas Iskariote, amabietako bat, iritxi zan. Arekin batera, gudari-talde bat zetorren, apaiz nagusien eta pariseotarren morroyak artuta; jendetza aundia zan, krisallu ta argi-zuziak, ez-pata ta makillakin, apaiz-buru, ixkribau ta erriko zaarrak bialduta. Guztien buru, Judas.

Eta saltzalleak ezaupide au eman zien, esanaz: «Nik laztandu dezadan gizona, uraxe izango da; lotu ta kontuz eraman zazute».

297.—*Saltzallearen laztana.*

(Mt. 26, 49-50; Mk. 14, 45; Lk. 22, 47-48)

Eta Judas bereala etorrira, Jesus'engana urreratu zan, esanaz: «Agur, Rabi» (Agur Maixu!). Ta musu eman

zion. Jesus'ek erantzun zion: «Adiskide, zertara etorri zera? Judas!, laztan batekin saltzen al dezue Gizasemea?»

298.—*Jesus'en almena* (Jon, 18, 4-9).

Jesus'ek, bada, gañera zetorkion guztia jakiniñik, aurreratu, ta esan zien: «Noren billa zatozte?».

Erantzun zioten: «Jesus Nazaretarraren billa».

Eta Jesus'ek: «Ni naiz».

Judas, Jesus saldu zuana ere ayekin zan. «Ni naiz», Jesus'ek esan zienean, guztiak atzekaldera erori ta lurra jo zuten. Berriz ere galdetu zien: «Noren billa etorri zerate?».

Ta ayek erantzun zioten: «Jesus Nazaretarraren billa». Orduan, Jesus'ek esan zien: «Esan dizutet Ni naizela. Nere billa ba'zatozte, utzi auei alde egiten» (7).

Len esan zuana bete zedin: «Zuk neri emandako bat ere ez det galdu».

299.—*Pedro'ren gizonkeria*.

(Mt. 26, 50-54; Mt. 14, 47; Lk. 22, 50-51; Jon, 10-11)

Orduan, batzuek beraganatuta, eskuak ezarri ta lotu egin zuten. Arekin ziranak, gertatutakoa ikusita, ala esan zioten: «Jauna!, ezpataz joko al ditugu?».

Eta Simon Pedro'k, eskua luzatu, ta ezpata atera zuan eta apaiz nagusiaren morroi bat zauriturik, eskuiko belarria moztu zion. Morroyaren izena, Malko zan. Baño, Jesus'ek itz egiñaz, ala esan zuan: «Geldi orain; naikoa da».

Eta morroyaren belarria ikuturik, sendatu egin zion. Eta Jesus'ek Pedro'ri esan zion: «Sartu ezpata ori zorroan; ezpata dabilkiten guztiak, ezpataz ilko dira-ta. Uste al dezue, bada, nere Aitari eskatu ezkeru, ez lizkidakela berealako batean amabi aingeru-talde baño geyago bialduko? Aitak eman didan ontzia ez al det, bada, edango? Ta onela gertatu bear duala idatzita dagon au, nola beteko litzake, bestela?».

(7) Emen Jesus'ek bere ikasleai zien ardura ta maitasun aundia erakusten dizkigu.

300.—*Gizatalde ari Jesus'ek esaten diona*.

(Mt. 26, 55-56; Mk. 14, 48-50; Lk. 22, 52-53)

Gero, Jesus'ek, billa zetozkion apaiz-buru, elizako gudari-buru ta zaarrai esan zien: «Lapur-billa bezela irten zerate ezpataz eta makillaz Ni artu ta eramatera. Egunero zuen aurrean egoten nintzan elizan erakusten, eta ez ninduzuten baitu. Baño, guzti au, Igarleak idatzitakoa bete dedin, gertatu da. Baño... auxe da zuen ordua ta illunpekoen indarra».

301.—*Jesus lotu zutenekoa*.

(Mt. 26, 57; Mk. 14, 51-53; Lk. 22, 54; Jon, 18, 12-13)

Orduan, gudari-sallekoak eta judutarren morroyak, Jesus artu ta lotu egin zuten. Eta bere ikasle guztiak, Jesus utzi, ta igesi joan ziran.

Orratik, mutil batek jarraitu zion jantzi-gabe, soña izaraz bakarrik eztairik, eta ari ere eldu nai izan zioten. Baño, ark, izara utzita, iges egin zien (8).

## JESUS AUZITEGIAN

302.—*Jesus, Anas apaiz nagusiaren aurrean*.

(Jon, 18, 12-14; 19-24)

Anas, urte artako apaiz nagusi Kaipas'en aitagiarrereba zan-da, Jesus arengana eraman zuten lenengo. Kaipaz, berriz, «Erri osoaren orde z gizon bat bakarrik iltzea obe da», kontsejua judutarrai eman ziena zan. Beraz, apaiz nagusiak Jesus'i bere ikasleen eta erakutsien berri galdetu zion. Jesus'ek erantzun zion: «Nik guztiak agirian itz egin diet; judutar guztiak biltzen diran sinagogan eta elizan erakutsi det Nik beti, ta ixillean ez det ezer esan. Zertarako Neri galdetu? Galde zayezu entzun didatenai, ea zer esan nien: Nik esan dedana oyek ba-dakite-ta».

Ori esan ondoren, ango morroi batek matralleko bat eman zion Jesus'i esanaz: «Apaiz nagusiari orrela erantzuten al diozu?».

(8) Ba-diteke gazte au Markos donea izatea, Markos Ebanjelaria: lauetatik onek bakarrik agertzen du gertaera au.



Jesus'ek erantzun zion: «Oker itz egin ba'det, esan zadazu zertan; zuzen itz egin ba'det, berriz, zergatik jotzen nauzu?».

Eta Anas'ek Jesus Kaipas apaiz nagusiarengana bialdu zuan, lotuta.

303.—*Jesus, Kaipas'en aurrean.*

(Mt. 26, 57-66; Mk. 14, 53-64)

Eta Jesus apaiz nagusi Kaipas'en etxera eraman zuten, apaiz guztiak, ixkribauak eta zarrak antxe bildurik zeudela (9).

Apaiz-buruak eta batzar osoa Jesus'en aurka gezurbilla zebiltzan, eriotzara eramateko asmoz. Baño gezurrezko testigu asko etorri arren, etzuten ezer arkitu, ayen esanak ez bait-zetozen batera. Azkenez, beste bi etorri ziran, esanaz: «Onek esan zuan: «Jaungoikoaren eliza lurrera bota nezake, ta iru egun barru berriz jaso». Guk entzun diogu berak esana: «Eskuz egindako eliza au, Nik lurrera botako det, eta iru egunen buruan eskuz egindakoa ez dan beste bat jasoko det».

Baño, ala ere, ayen esanak etzetozen batera.

Beraz, apaiz nagusiak, altxa ta erdirutz aurreraturik, Jesus'i galdera au egin zion: «Ez al diozu ezer erantzuten auek zure aurka diotenari?»

Baño Jesus ixillik gelditu zan, eta etzuan ezer erantzun.

Berriz ere, apaiz nagusiak galdetu ta esan zion: «Jaungoiko biziaren izenean agintzen dizut: esan zaiguzu Zu, Kristo Jaungoiko bedeinkatuaren Semea zeran?».

Jesus'ek diotsa: «Zuk esan dezut: Ni naiz; ta auxe ere esaten dizut: laxter ikusiko dezute Gizasemea Jaungoiko Indartsuaren eskui-aldean exerita, eta odei-gañean etortzen».

Orduan apaiz nagusiak bere soñekoa urratu, ta esan zuan: «Biraio esan du; zertarako testigurik onezkero? Zeok entzun dezute biraioa: zer deritzazute?».

Eta guztiak erantzunaz, esan zuten: «Ba-du iltzeko errua!».

(9) Kaipas, batzar Nagusiko buru zan. Gabaz egiten dute batzarra, legez kontra. Urrengo goizerako auzi guztia prest euki nai zuten.

304.—*Irañak; burlak eta parrak.*

(Mt. 26, 67-68; Mk. 14, 65; Lk. 22, 63-65)

Orduan, batzuek arpegira txistua botatzen, ukabilka ta matrallekoak ematen asi zitzaizkion. Eta zapiaz arpegia estalita, matrallekoak eman eta ixekaz eta parrez ala esaten zioten: «Igarri zaiguzu, Kristo, nork jo zaituan».

Eta beste gaiztakeri ta birao asko esaten zizkioten.

305.—*Pedro'ren lenengo ukatzea.*

(Mt. 26, 58 ta 69-70; Mk. 14, 15 ta 66-68; Lk. 22, 54-57; Jon, 18, 15-18)

Simon Pedro'k Jesus'i urrutitik jarraitu zion, apaiz nagusiaren etxe-atadiraño; baita beste ikasle batek ere. Ikasle au apaiz nagusiaren ezaguna zan, eta Jesus'ekin batera Apaiz nagusiaren atadian sartu zan. Pedro, berriz, ate-aurrean gelditu zan. Baño, Apaiz nagusiaren ezaguna zan ikasleak, irten eta neskame atezayari itz egin zion, eta Pedro sarrerazi zuan. Eta neskame atezayak Pedro'ri diotsa: «Ez ote zera zu ere gizon orren ikasleetakoa?».

Eta Pedro'k: «Ez naiz».

Otz zan, eta mirabe-morroyak atadian sua piztu zuten, eta aren inguruan ezeri-ta, berotzen zeuden, eta ayekin Pedro ere bai. Orduan, aurreratu zitzaion neskame atezaya, ta Pedro sutondoan ikusirik, eta ari begira-begira jarririk, esan zion: «Zu ere Jesus Nazaretarrarekin zebiltzan».

Eta Pedro'k guztien aurrean ukatu egin zuan, esanaz: «Emakume! Ez dakit zer diozun ere; ez det ezagutzen gizon ori».

Eta atearrera irten zan, eta ollarak kukurruku jo zuan.

306.—*Bigarren ukatzea.*

(Mt. 26, 71-72; Mk. 14, 69-70; Lk. 22, 58; Jon, 19, 18)

An ate-aurrean, geroxeago beste neskame batek ikusi ta an zeudenai esan zien: «Au ere Jesus Nazaretarrarekin zebillen».

Neskame atezayak, ura ikusirik, an zeudenai berriz esaten asi zan; «Au ere oyetakoa da».

Baño, Pedro'k berriz ere ukatu. Eta berriz atadian sartu zan, eta an zutik, berotzen jarri zan. Esan zioten, bada: «Zu ere ez al zera orren ikasleetakoa?».

Pedro'k, berriz ere zin eginda, ukatu egin zuan eta esan: «Ez naiz; ezta ezagutu ere ez det egiten gizon ori».

Beste batek, berriz ere ura ikusita, esan zuan: «Zu ere oyetakoa zera».

Baño, Pedro'k erantzun zion: «Ez, gizona, ez».

307.—*Irugarren ukatzea.*

(Mt. 26, 73-75; Mk. 14, 70-72; Lk. 22, 59-62; Jon, 18, 26-27)

Eta andik ordu betera-edo, an zeudenak urreraturik, Pedro'ri esan zioten: «Egiz, zu ere oyetakoa zera, gali-leatarra zera-ta; zure izkerak ere salatzen zaitu».

Orduan, Pedro biraoka ta zin egiten asi zan, esanaz: «Ez det ezagutzen zuek esaten dezuten gizon ori».

Apaiz nagusiaren morroyetako batek, Pedro'k belarria ebaki zionaren senide batek, diotsa: «Etzaitut, ba, neronek baratzan Arekin ikusi?».

Pedro'k berriro ere ukatu. Ta berealaxe, Pedro oraindik izketan ari zala, ollarrak bigarren aldiz kukurruku jo zuan. Eta Jaunak, Pedro'rengana biurturik, begiratu egin zion. Eta Pedro'k, Jaunak esan zizkion itz auek gogoratu zituan: «Ollarrak bi aldiz kukurruku jo baño len, iru bider ukatuko nauzu».

Eta negarrez asi zan, eta andik irtenda, atsekabez negar egin zuan.

308.—*Jesus bigarren aldiz batzar nagusian.*

Eta gero, goizean, erriko zaarrak, apaiz-buruak eta ikribauak batzarrean bildurik, Jesus eriotzara eramateko erabakia artu zuten. Eta beren batzarrera eraman-da, esan zioten: «Esan zaiguzu Zu Kristo zeran?».

Eta Jesus'ek esan zien: «Esaten ba'dizutet ez didazute sinistuko; ta zerbait galdetzen ba'dizutet, ez didazute erantzungo; askatu ere, ez nauzute askatuko. Baño, emendik aurrera, Gizasemea eseririk egongo da Jaungoiko Altsuaren eskui-aldean».

Orduan, guztiak esan zuten: «Beraz, Zu Jaungoikoaren Semea zera?».

Ark esan zien: «Zeok diozute: Ni naiz».

Ayek orduan: «Zertarako beste aitormenik onta ez-kero? Bere aotik entzun diogu».

Eta batzarreko guzti ayek altxa, ta Jesus Pontzio Pilatos erri-buruarengana eraman eta bere esku utzi zuten (10).

309.—*Judas'en azkena* (Mt. 27, 3-6).

Orduan Judas'ek, saldu zuanak, Jesus'i eriotzarako epaya eman ziotela ikustean, damaturik, ogeitaamar zillar-diruak apaiz nagusi ta zarrai biurtu zizkien, esanaz: «Pekatu egin det zuzen baten odola salduta».

Baño, ayek esan zioten: «Eta guri zer? Zuk ikusiko dezu!».

Eta zillar-diruak elizan botata, andik alde egin eta joan zan, eta lokarriz bere burua urkatu zuan».

Apaiz nagusiak, diruak artuta, esan zuten: «Ez da bidezkoa diru auek atabakan sartzea, odol-sari dira-ta (11).

310.—*Odol-zelaya* (Mt. 27, 7-10).

Eta alkar arturik, ontzigille baten zelaya erostea erabaki zuten, arrotzen illobitarako. Orregatik, gaur arte zelai arri Hakeldama edo odol-zelaya deitzen diote. Orduantxe bete zan Jeremias igarleak esandakoa: «Ogeita-amar zillarrezko diru artu dituzte, salduaren saneurritz, Israel'go semeak ontzat emandako ordaña. Ta ontzigille baten zelai-saritzat eman dituzte, Jaungoikoak agindu zidanez» (12).

311.—*Jesus, Pilatos'enean* (Jon, 18, 28-32).

Jesus Kaipas'enetik auzitegira eraman zuten. Egunsentia zan. Ayek etziran auzitegian sartu, zikindu etzitezzen, gero Pazkoazkoa jateko. Beraz, Pilatos'ek, ayengana irtenda, esan zien: «Zer dakarzute gizon onen aurka?».

Erantzun eta esan zioten: «Gaizkillea ez ba'litz, ez genizuke ekarriko».

(10) Erri-buruaren baimenik gabe, Batzar Nagusiak emandako eriotz-epayak etzuan indarrrik, etzuan balio.

(11) Bide txarrez artutako diruak etziran elizarako gordetzen.

(12) Jer. 32, 6-9; Zak. 11, 13.



Pilatos'ek esan zien: «Zeok artu ta zeon legez epaitu zazute».

Judutarrak erantzun zioten: «Guk ez degu iñor iltzeko eskubiderik».

Onela bete bear zan Jesus'ek esan zuana; zein eriotzaz ilko zan adierazirik.

312.—*Salaketak* (Lk. 23, 2).

Eta salatzen asi zitzaizkion, esanaz: «Erria naastutzen arkitu degu au, eta Zesar'entzako petxak ematea galezarzen eta bera Kristo Errege dala esaten».

313.—*Bakarrean galdezka*.

(Mt. 27, 11; Mk. 15, 2; Lk. 23, 3; Jon, 18, 33-38)

Orduan Pilatos'ek, berriz auzitegian saruta, Jesus'i dei egin zion. Eta Jesus erri-buruaren aurrera eraman zuten, eta onek galde egin zion, esanaz: «Judutarren Errege al zera zu?».

Eta Jesus'ek erantzun: «Ori zuk zerez al diozu, ala besteren batzuek esan dizutelako?».

Pilatos'ek erantzun zion: «Judutarra al naiz, ba, ni? Zure erritarrak eta apaiz-buruak ipiñi zaituzte nere eskuetan. Zer egin dezu?».

Jesus'ek erantzun zion: «Nere Erreiñua ez da lur ontakoa. Nere erreñua lur ontakoa ba'litz, nere mendekoak burruka egingo zuten, judutarren eskuetan erori ez nendin. Nere Erreiñua, ordea, ez da emengoa».

Orduan Pilatos'ek esan zion: «Beraz, Errege zera zu?».

Jesus'ek erantzun zion: «Zuk diozu: Errege naiz. Ontarako jayo, ta ontarakoxe etorri naiz gizartera; egiaren alde aitortzeko. Egizale danak, nere itza entzun egiten du».

Pilatos'ek diotsa: «Zer da egia?».

314.—*Salaketa berriak*.

(Mt. 27, 12-14; Mk. 15, 3-5; Lk. 23-4-7; Jon, 18, 38)

Eta au esanda, berriro judutarrengana irten zan Pilatos eta apaiz nagusiai ta jendeari esaten die: «Ez det nik gizon onengan auzigairik billatzen».

Eta apaiz nagusiak eta zarrak salatzen zutenarren, Jesus'ek etzien itzik ere erantzuten. Pilatos'ek berriz ere

galdetu zion, esanaz: «Ez al dezu ezer erantzuten? Ikusi zenbat gauzetan salatzen zaituzten».

Baño, Jesus'ek etzion geyago ezer erantzun, Pilatos guztiz arrituta gelditzeraño. Ayek, ostera, gogorrago ari ziran, esanaz: «Erria nastutzen ari da, Galilea'tik asi ta oneraño, Judean zear erakutsi eta erakutsi».

Pilatos'ek Galilea izena entzun zuanean, gizon ura galileatarra zan galdetu zuan. Eta Erodes'en mendekoa zala jakinda, Erodes'engana bializ zuan, au ere egun ayetan Jerusalem'en zan-da.

315.—*Jesus, Erodes'en aurrean* (Lk. 23, 8-17).

Jesus ikusirik, Erodes poz-pozez jarri zan; aspaldian Jesus ikusi-nayez zegoan-da, Artzaz gauza aundiak entzun zituan ezker, ta mirariren bat egiten ikusiko zualakoan. Eta ainbat galdera egin zizkion. Baño, Jesus'ek etzion ezer erantzun. An ari ziran apaiz-buruak eta ixkribauak Aren aurka salaketan. Eta Erodes'ek bere gudariakin zoro-etsi ta parra eginda gero, soingañeko zuri bat jantzierazi zion, eta berriz Pilatos'i bializ zion. Egun artan Erodes eta Pilatos adiskidetu egin ziran, len alkarren etsai ziran-da.

316.—*Berriz ere Pilatos'en aurrean* (Lk. 23, 13-16).

Pilatos'ek, apaiz-buru, agintari ta erria bildurik, esan zien: «Gizon au erri-nastalle dala-ta ekarri didazute. Baño, zeon aurrean galdetuta, gizon onen kontra dizkiotzen salaketa guztietan, ez det auzigairik arkitzen. Ezta Erodes'ek ere: arengana bialdu zaituztet, eta ez dio eriotza merezi duanik ezer arkitu-ta. Beraz, zigorrez astindu, ta askatu egingo det».

317.—*Jesus ala Barrabas?*

Pazko-jayetan erriburuak giltzapeko bat askatu oi zuan, erriak nai zuana. Aldi artan, ba-zeukan espetxean Barrabas zeritzan ots aundiko gaizkille bat; lapurra zan, eta erriko matxinadan norbait il zuala-ta, beste gaizkilleekin espetxean zegan.

Beraz, errikoak, Pilatos'engana etorririk, beti egiten ziena eskatzen asi zitzaizkion. Bildu ziranean, bada, Pilatos'ek erantzun zien: «Oitura dezute Pazko-egunez, nik

espetxekoren bat askatzekoa. Nai al dezute judutarren Erregea askatu dezaizutedan?»

Ondamuz eta bekaizkeriz saldu zutela ba-zekian-da.

318.—*Pilatos'en emaztea* (Mt. 27, 19).

Eta auzi-tokian exerita zegoala, bere emazteak albiste au biali zion, esanaz: «Ez naastu zintzo orren gora-bere-tan; gaur ametsetan, ori dala-ta, atsekabe aundiak izan ditut-eta» (13).

319.—*Jesus baño Barrabas nayago.*

(Mt. 27, 22-23; Mk. 15, 12-14; Lk. 23, 20-23)

Baño apaiz-nagusiak eta zarrak, erria axaxatu egin zuten, Barrabas askatu ta Jesus galdu zezaten. Eta erri-buruak, erantzunaz, esan zien: «Bietatik nor nai dezute askatu dezaizuedan: Barrabas ala Jesus, Kristo derit-zana?».

Eta guztiak batera, deadarka esan zuten: «Ken ori!; ta askatu zaizguzu Barrabas».

320.—«*Zer egingo diot, bada, Jesus'i?*».

(Mt. 27, 22-23; Mk. 15, 12-14; Lk. 23, 20-23)

Pilatos'ek, Jesus askatu-nayean, berriz ere esan zien: «Zer egingo diot, bada, Jesus'i Judutarren Erregeari?».

Berriz ere guzti ayek deadar egin zuten: «Gurutzera ori, gurutzera!».

Pilatos'ek irugarren aldiz, esaten die: «Zer gaiztakeri egin du, bada? Nik ez diot iltzeko errurik arkitzen; beraz, zigortu-ondoren, askatu egingo det».

Baño, ayek, deadar aundiagoz, esaten zuten: «Guru-tzera biali zazu ori, gurutzera».

Ta ayen deadarrak gero-ta aundiagoak ziran.

321.—*Lapurra askatuta.*

(Mt. 27, 26; Mk. 15, 15; Lk. 23, 24-25)

Pilatos'ek erria losintxatu nairik, ayen eskaria egitea erabaki zuan. Eta nastaille ta gizon- iltzallea espetxetik askatu egin zuan.

322.—*Arantzazko koroya.*

(Mt. 27, 26-30; Mk. 15, 15-18; Jon, 19, 1-3)

Orduan, Pilatos'ek Jesus artu ta zigorrez astindu zuan. Eta erri-buruaren gudariak, Jesus arturik, jauregi-barru-ra edo gudari-etxera eraman zuten, eta gudari-talde osoa bildu zuten Aren inguruan. Eta Jesus'i jantziak erantzita, soñeko gorri bat jantzi zioten. Eta arantzazko koro bat eginda, buruan ipiñi zioten, eta kañabera bat eskuiko eskuan.

Gero, Arengana etorri ta aurrean belaunikaturik, agur-ka makurtu ta irri ta parra egiten zioten esanaz: «Agur, judutarren errege orri». Ta matrallekoak ematen zizkio-ten, eta txistua botatzen zioten; eta kañabera arturik buruan jotzen zuten.

323.—«*Ona emen gizona!*» (Jon, 19, 4-7).

Pilatos'ek berriz kanpora irtenda, esaten die: «Emen dakarkizutet kanpora, errurik arkitzen ez diodala jakin dezazuten».

Jesus, bada, arantzazko koroia ta soñeko gorria ga-ñean zituala, irten zan: Eta Pilatos'ek diotse: «Ona emen Gizona!».

Ikusi zutenean, apaiz nagusiak eta morroyak ojuka zioten: «Gurutzera ori; gurutzean josi zazu».

Pilatos'ek esaten die: «Zeok artu ta gurutzeratu za-zute, nik ez diot errurik arkitzen-da».

Judutarrak erantzun zioten: «Guk ba-degu legea, ta gure legez, eriotza eman bear zayo, bere burua Jaungoi-koaren Seme egin du-ta».

324.—*Jaungoikoaren Seme?* (Jon, 19, 8-11).

Itz auek entzunda, Pilatos geyago bildurtu zan. Eta berriz auzitegira sarturik, Jesus'i diotsa: «Nongoa zera zu?».

Jesus'ek etzion erantzunik eman. Beraz, Pilatos'ek dio-tsa: «Neri ere itzik ez? Ez al dakizu Zu gurutzeratzeko naiz askatzeko eskubidea ba-dedala?».

Jesus'ek erantzun zion: «Etzenuke eskubiderik Nere

(13) Gertaera onek Jesus errugabea dala aitortzen du; baita saltzaleen gaiztakeria ere.



aurka, goitik emanda ez ba'zenu (14). Orregatik Ni zure eskuetan utzi nautenak pekatu aundiagoa dute».

325.—*Pilatos'en azken-alegiñak Jesus askatzeko.*  
(Jon, 19, 12-15)

Arrezkero, Pilatos'ek Jesus askatu nayez, egiñalak egin zituan. Baño judutarrak deadak esaten zioten: «Ori askatzen ba'dezu, etzera Zesar'en adiskide: bere burua errege egiten duana, Zesar'en kontra ari da-ta».

Itz auek entzunda, Pilatos'ek Jesus kanpora atera zuan, eta auzi-alkian eseri zan, Litrostotos edo ebreoz Gabbata deritzan tokian.

Pazko-aurreguna zan; eta seigarren ordu-aldean judutarrai esaten die: «Ona emen zuen Erregea!».

Ayek, ordea, oju egin zioten: «Ken ortik! Alde ortik! Josi ori gurutzean!».

Pilatos'ek orduan: «Zuen Erregea nik gurutzeratu?».

Apaiz nagusiak erantzun zioten: «Zesar beste erregerik ez degu guk!».

326.—*Gurutzeko epaya.*

(Mt. 27, 24-26; Mk. 15, 15; Lk. 24, 25-26; Jon, 19, 16)

Pilatos'ek, bada, ezer iristen etzuala, ta gero ta zala-parta aundiagoa sortzen zala ikusirik, ura ekarriazita, erriaren aurrean eskuak garbitu zituan, esanaz: «Nik ez det ikustekorik zintzo onen odolarekin; zuek ikusi!».

Eta erri guztiak, erantzun zion, eta esan: «Betor orren odola gure gain eta gure semeen gain».

Orduan Pilatos'ek, erria losintxatu-nayaz, ayen eskaria egitea erabaki zuan. Eta ayen nayetara eman zien, gurutzeratu zezaten.

## GURUTZITZALTZEA

327.—*Zirene'ko Simon.*

(Mt. 27, 31-32; Mk. 15, 20-21; Lk. 23, 26; Jon, 19, 17)

Eta gudariak, irri ta parra egin-ondoren, soingañeko gorria kendu ta bere jantziak jarri zizkioten eta gurutzean josteko atera zuten.

(14) Agintaritza Jaungoikoarengandik dator erriarengana, ta erriaren-

Eta gurutzea sorbaldan zeramala, Buruezurtegira, griegoz Golgota deritzan tokira irten zan.

Erritik irtetean, sorotik zetorren Zirene'ko gizon bat arkitu zuten, une artan, bertatik zijoala; Simon zeritzan, Alejandro'ren eta Errupo'ren aita; eta Gurutzea Jesus'en atzetik eramateko beartu zuten.

328.—*Jerusalen'go alabak* (Lk. 23, 27-32).

Erriko jendetza aundiak jarraitzen zion, baita emakumeak ere, negarrez eta intzirika. Eta Jesus'ek, ayengana bihurturik, esan zien: «Jerusalen'go alabok! Nigatik ez negarrik egin; zeongatik eta zuen semeagatik, baizik. Begira! Etorriko dira egunak eta orduan esango dute: «Zorionsuak antzuak, eta aurrik sortu ez duten sabelak, eta esnerik eman ez duten bularrak!». Orduan, mendiai esaten asiko dira: «Atozkiguzute gañera!»; ta mendi-bizkarrai: «Estali gaitzazute!». Egur ezean au egiten ba'dute, igarrean, zer izango ote da?».

Ba-zeramazkiten beste bi ere Arekin batean; gaizki-leak biak, eriotzera.

329.—*Jesus gurutzean.*

(Mt. 27, 33-34; 38; Mk. 15, 22-23, 27-28; Lk. 23, 33-34;  
Jon, 19, 7-18)

Eta Golgota, au da, buruezurtegi deritzan tokira iritxi ziran. Eta beartzunez nastutako ardoa (15) eman zioten edari; baño, ezpañetan ikutu, ta etzuan edan nai izan.

Jaso zuten, bada, gurutzean, eta Arekin batera, lapur biak, bata eskui-aldean, bestea ezker-aldean, eta erdian Jesus. Irugarren ordua zan gurutzeratu zutenean. Orrela bete zan idatzita zegon au: «Eta gaizkilleakin berdindu zuten» (16).

Jesus'ek zion: «Aita!, barka zayezu, ez dakite-ta zer ari diran!».

gandik gizonagana; ta artzaz zuzen jokutzen ez duanak, kontu gogorra eman bearko dio Jaungoikoari.

(15) Markos doneak «mirraz nastuta» dio. Baño, berdin da: Mateo deunak itz zabalagoa (genericum) dabilki; Markos doneak, berriz, itz bereki ta motakia (proprium et specificum).

(16) Is. 53, 12.

330.—*Gurutze-buruko itzak.*

(Mt. 27, 37; Mk. 15, 26; Lk. 23, 38; Jon, 19, 19-22)

Pilatos'ek agiri bat ere idatzi zuan, Jesus'en epai agiria adierazteko, ta Gurutze-gañean ipiñi zuten, Aren burua baño gorago. Ta auxe zan idatzitakoa: «Jesus Nazaretarra, Judutarren Erregea». Agiri au judutar askok irakurri zuten, Jesus gurutziltzatutako tokia erri-inguruan zegonda. Agiria, berriz, ebreoz, griegoz eta latinez zegon idatzita.

Orduan, judutarren apaiz-buruak Pilatos'i esan zioten: «Ez idatzi «Judutarren Erregea»; ark, «Judutarren Errege naiz» esan zuala baizik».

Pilatos'ek erantzun zien: «Idatzitakoa, idatzita dago».

331.—*Soñekoak zotz egin, zer norentzat.*

(Mt. 27, 35-36; Mk. 15, 24; Lk. 23, 34; Jon, 19, 23-24)

Gudariak, berriz, Jesus gurutzatu zutenean, Aren jantziak artu ta lau sailletan berezi zituzten, bakoitzaren tzako bana; ta zotz egin zuten, nork zer eramango. Soingañekoa ere artu zuten. Soingañeko au, berriz, josturagabekoa zan, goitik beerañona dana eunduta. Alkarri esan zioten, bada: «Ez dezagun urratu, zotz egin baizik, norentzat izango dan».

Igarleak esandako au bete zedin: «Nere soñekoak beren artean banatu dituzte, ta nere soingañekoa zotzetara egin dute (17)».

Gudariak, bada, auxe egin zuten. Eta eseririk, Jesus zaintzen egon ziran.

332.—*Jesus'i ixeka ta parra egiten.*

(Mt. 27, 39-44; Mk. 15, 29-32; Lk. 23, 35-39)

Erri guztia begira zegon. Eta aurretik igarotzen ziranak, buruari eraginda, biraok botatzen zizkieten eta esaten: «Jaungoikoaren etxea lurrera bota ta iru egunetan berriro jasotzen dezun orrek; zere burua askatu zazu. Jaungoikoaren Semea ba'zera, jetxi gurutzetik».

Berdin esaten zioten apaiz nagusi, agintari ta erriko zaarrak ere, parrez alkarri ziotela: «Besteak askatu ditu,

(17) Ps. 21, 9.

ta bere burua ezin askatu. Kristo, Israel'ko Errege, Jaungoikoaren aukeratua, jetxi bedi orain gurutzetik, ikusi ta sinista dezagun. Jaungoikoa bere alde zeukala?... Lagun dezayola orain, maite ba'du; «Jaungoikoaren Semea naiz» esaten zuan-da».

Gudariak ere parra egiten zioten, urreratu ta ozpiña eskeñiaz, eta esaten ziotela: «Judutarren Errege ba'zera, zere burua salba zazu».

Ta Arekin batean gurutzean zintzilik zeuden lapurretako batek ere, parra egiten zion, esanaz: «Kristo ba'zera, zere burua ta gureak ere salba itzazu».

333.—*«Gaur Nerekin zeruan izango zera»* (Lk. 23, 40-43).

Baño beste lapurrak, erantzun, eta asarre egin zion, esanaz: «Zu ere orren oñaze berdiñetan egonda, ez al zera bildur? Guri bidez dagozkigu oñaze auek, gure gaiztakerien ordaña artzen degu-ta; onek, ordea, ez du okerrik egin».

Eta Jesus'i esaten zion: «Jauna! Oroitu zaitez nitzaz, zure Erreiñura iritxi zaitezenean».

Eta Jesus'ek diotsa: «Benetan diotzut: gaur Nerekin izango zera zeruan».

334.—*Jesus'en Ama ta gure Ama* (Jon. 19, 25-27).

Jesus'en gurutze-ondoan, Aren Ama Maria, ta onen aizpa Maria Kleofa'rena, ta Maria Madalen zeuden. Jesus'ek bere Ama ta ikasle maitea an ikusita, diotsa bere Amari: «Andrea! Orra or zure semea».

Gero ikasleari: «Orra or zure Ama».

Ta arrezkero, ikasleak bere etxean artu zuan.

335.—*Azken-itzak.*

(Mt. 27, 45-49; Mk. 15, 35-36; Lk. 23, 44-45; Jon, 15, 28-29)

Seigarren ordutik bederatzigarren ordurarte (18), lur osoa illunpetan gelditu zan; eta eguzkia illundu egin zan. Eta bederatzigarren ordu-aldean (19), Jesus'ek deadar aundiz esan zuan: «Eli, Eli, lamma sabachtani»; au da:

(18) Eguerdiko irurak arte.

(19) Gure irurak.



«Ene Jaungoikoa, ene Jaungoikoa!, zergatik utzi nauzu?» (20).

Itza auek entzunda, an zeuden batzuek zioten: «Elias'i deika ari da».

Gero Jesus'ek, guztia bete zala jakiñik, Idatzitakoa bete zedin, esan zuan: «Egarri naiz».

Ba-zan an ontzi bat ozpiñez betea. Eta ayetako batek, bereala joanda, belaki (esponja) bat artu zuan, eta ozpiñetan busti, kañabera baten muturrean ipiñi, ta aora luzaturik, edaten eman zion.

Besteak esan zioten: «Ago! Ikusi dezagun ea Elias etortzen zayon».

Besteak, berriz, ala zion: «Egon! Ikusi dezagun jeixtera Elias ote datorkion».

336.—*Bukatu da.*

(Mt. 27, 50; Mk. 17, 37; Lk. 23, 46; Jon, 19, 30)

Eta Jesus'ek, ozpiña artu zuanean, esan zuan: «Guztia bete da» (21). Ta berrero deadar aundi bat eginda, esan zuan: «Aita! Zure eskuetan uzten det nere anima».

Au esanda, ta burua makurturik, azken-arnasa eman zuan.

337.—*Izadia naigabez* (Mt. 27, 51; Mk. 15, 38; Lk. 23, 45).

Orduan, eliza nagusiko oyala goitik beera bi zatitan puskatu zan. Eta lurra ikaraz asi zan, arriak zatitu, illobiak zabaldu ta ildako zintzoen gorputz asko, lurperatuta zeudenak, piztu egin ziran (22); eta Jesus piztu zanean, illobietatik irtenda, erri deunera etorri ta askoi agertu zitzaizkien.

(20) Ps. 21, 2.

(21) Bere eginkizun guztia, Aitak emandako eginbear guztia bete zuala, bukatu zuala adierazi zuan Jesus'ek. Baita Mesias'i buruz Igarleak idatzitako guztia ere eginez bete zuala.

(22) Mateo Ebanjelariak aurrez dio ildako zintzoen piztuera; Jesus piztu ondoren gertatu zan mirari arrigarri ori, ta Jesus'ek eriotzaren aurka irabazi zuan garaitzaren ezaugarri da.

338.—*Gurutze-ondoan zeudenak damuz beterik.*

(Mt. 27, 54; Mk. 15, 39; Lk. 23, 47-48)

Eunburua eta arekin Jesus zaitzen zeudenak, lurikarak eta gertatutakoak, eta Jesus alako deadarra eginda il zala ikusirik, oso ikaratuta gelditu ziran, eta Jaungoikoa goratuaz, zioten: «Egiz, gizon au zintzoa zan, Jaungoikoaren Semea zan».

Eta ikuskizun ontarako bildu ziran guztiak, gertatutakoa ikusita, bular-joka biurtu ziran.

339.—*Jesus'en adiskideak.*

(Mt. 27, 55-56; Mk. 15, 40-41; Lk. 23, 23-49)

An zeuden, urrutitik begira, Aren ezagun guztiak eta Jesus Galilea'n zanean, neskame-lanetan lagun egiañaz jarraitzen ziotenak; ayen artean, Maria Madalen, eta Maria, Santiago gaztearen eta Jose'ren ama, ta Salome, Zebedeo'ren semeen ama arkitzen ziran; baita beste emakume asko ere, Arekin Jerusalem'era igo ziranak.

340.—*Jesus'i sayetsa zulatu* (Jon, 19, 31-37).

Paraskebe-eguna zan (23); eta gorputzak larunbatez gurutzean gelditu etztezen —larunbat ura egun aundia zanda—, ayen belaunak ausi ta gorputzak kendu zitzatela eskatu zioten Pilatos'i judutarrak. Etorri ziran, bada, gudariak, eta lenengoari belaun-ezurrak ausi zizkion; baita arekin gurutziltzatua izan zan besteari ere.

Jesus'engana iritxi ziranean, ordea, il zala ikusirik, etzizkioten belaunak ausi; baño, gudari batek aztamakillaz sayetsa zulatu zion, eta bereala odola ta ura irten ziran. Eta ikusi zuanak aitortu du, ta aren aitormena egiazkoa da; ta ark ba-daki egia diola, zuek ere sinista dezazuten. Guzti auek, idatzitakoa bete zedin egin ziran: «Ezurrak ez dizkiozute ausiko» (24). Ta beste idatzki batek dio: «Zulatu zutena ikusi dute» (25).

(23) *Paraskebe-eguna*: prestaera-eguna: ostirala. Larunbata judutarrentzat jai-eguna zanez, ostiralean prestatzen zuten larunbaterako bear zuten guztia.

(24) Ex. 12, 46. Num. 9, 12.

(25) Zak. 12, 10.

341.—*Gureztetik jexten dute.*

(Mt. 27, 57-59; Mk. 15, 42-46; Lk. 23, 50-53; Jon, 19, 38-40)

Illunabarrean, Paraskebe edo larunbat-aurreko eguna zala-ta, Jose izeneko gizon aberats bat etorri zan: Batzar Nagusiko gizon zintzo ta ona, Judea'ko Arimatea errikoa zan, eta Jaungoikoaren Erreñuaren zai zegon; Jesus'en ikasle ere ba-zan, naiz-ta judutarren bildurrez ikasle ixilleko izan; orregatik ayen (beste judutarren) erabaki ta egintzak etzituan onartu.

Onek, bada, Pilatos'engana aurkezturik, Jesus'en gorputza eskatu zion. Pilatos'ek, Jesus ain azkar il zalako arritu-ta, eunburuari dei eginda, ea il zan galdetu zion. Eta, bayetz jakiñik, Pilatos'ek Jesus'en gorputza Jose'ri eman zion. Etorri zan, bada, ta artu zuan Jesus'en gorputza.

Nikodemo ere etorri zan, bein Jesus'engana gabaz etorri zana, eunen bat libra mirra ta aloe naste bat ekarriaz.

Eta Jesus'en gorputza gurutzetik eratsita, zapiz lotu zuten; eta usai gozoz igurtzirik <sup>(26)</sup> Jose'k erositako izara garbiaz bildu zuten, judutarrak illobiratzekoan egin oi duten bezela.

342.—*Illobia.*

(Mt. 27, 60; Mk. 15, 46; Lk. 23, 53-54; Jon, 19, 41-42)

Gurutzetua izan zan tokian, baratza bat zan, eta baratzan, Jose'k berak arri bizian egindako illobi bat zegon; iñor etzan oraindik an illobiratu. Beraz, judutarren Parazkebe <sup>(27)</sup> zala-ta, antxe eortzi zuten Jesus, illobia bertan zegon-da. Eta illobi-sarreran arritzar bat ipiñita, joan zan. Larunbateko argi-urratzea zan.

343.—*Emakumeak usayak prestatzen.*

(Mt. 27, 61; Mk. 15, 47; Lk. 23, 55-56)

Galilea'tik Arekin (Jesus'ekin) etorritako emakumeak, Jesus illobiratu zutenai laguntzen ibilli ziran. Maria Madalen, berriz, eta beste Maria ura, illobi-aurrean eseri-ta, gorputza nun eta nola ipiñi zuten eta nola gelditzen zan

(26) Judutarren oitura zan, gorputzak illobiratzean, usai gozoz eta ukenduz igurtzi edo gantzutzea ta oyaletan biltzea.

(27) Prestatze-eguna: Pazko-bespera.


begira zeuden. Eta etxera biurturik, usai ta ukenduak prestatu zituzten <sup>(28)</sup>; baño, larunbatean, legezko atsedena artu zuten <sup>(29)</sup>.

344.—*Judutarrak Jesus'en illobia zaitzen* (Mt. 27, 62-66).

Biaramonean, Paraskebe-urrengoan <sup>(30)</sup> apaiz nagusiak eta pariseotarrak Pilatos'engana joan ziran, esanaz: «Jau-na, gogoan degu, gezurti ark, oraindik bizi zala, esan zuana: «Iru egun barru piztuko naiz». Agindu zazu, bada, illobia zaitu dezatela irugarren egunerarte; bestela, bear bada, Aren ikasleak etorri, gorputza ostu ta erriari esango diote: «illen artetik piztu da»; ta azken-maltzurkeri au, lenengoa baño kaltegarriago litzake.

Pilatos'ek erantzun zien: «Txinelak ba-dituzute; zoazte ta zaitu zazute, dakizuten bezela».

Joan ziran, bada, ta illobi-arriari silluak ipiñirik, illobia zaitzallean kontu utzi zuten.




(28) Larunbata, jai-eguna, igaro-ondoren, berriz illobira joan eta usai ta ukenduz Jesus obeto igurtzitzeko asmoz.

(29) Lege-arauz etzuan iñork jai-egunez, larunbatez, lanik egiten.

(30) Astecaren lenengo egunean: igandean.





## Laugarren zatia

### JESUS'EN AINTZA

345.—*Emakumeak illobira dijoaz.*

(Mt. 28, 1-4; Mk. 16, 1-4; Lk. 24, 1-2; Jon, 20, 1-2)

Eta larunbata igaro zanean, Maria Madalen'ek eta Santiago'ren Maria'k eta Salome'k ukenduak erosi zituzten Jesus igurtzitzera joateko. Ta astearen lenengo eguna urratzean, goizean-goiz, argitu baño len, illobira joan ziran, prestatutako usayak-eta zeramazkitela. Ta alkarri ala esaten zioten: «Nork kenduko digu arria illobi-atetik?

Ontan, lur-ikara aundia sortu zan <sup>(31)</sup>; Jaunaren aingerua zerutik jetxi zan, eta illobira iritxita, arria irauli zuten, eta aren gañean exeri zan.

Aren arpegiak tximista zirudin, eta aren soñekoa elurra bezin zuria zan. Eta aren bildurrez, zaitzalleak ikaratuta ta ilda bezela gelditu ziran.

Bitartean, emakumeak illobira iritxi ziran, eguzkia aterata gero. Ta begiak jasorik, arria illobitik kenduta zegola ikusi zuten, oso aundia zan-da.

Maria Madalen'ek arria illobitik kenduta ikusirik, Simon Pedro'rengana ta Jesus'ek maite zuan beste aren-gana korrika joanda, esaten die: «Jauna illobitik kendu egin dute, ta ez dakigu nun ipiñi duten».

(31) Lurrikara ori emakumeak illobira iritxi aurretik izan zan.

346.—*Aingeruak illobi-ondoan*

(Mt. 28, 5-8; Mk. 16, 5-8; Lk. 24, 3-9)

Emakumeak, illobian sartuta, etzuten Jesus Jaunaren gorputza arkitu. Au zala-ta, berengan kezketan zeudela, bat-batean bi gazte aurkeztu zitzaizkien, soñeko luze, zuri argitsuz jantziak; eta ikaratuta gelditu ziran. Emakumeak bildurrez lurrera begira zeudela, eskuian eserita zegoan aingeruak esan zien: «Ez ikaratu; ba-dakit gurtziltzatua izan dan Jesus Nazaretarraren billa zatoztela. Zergatik billaten dezute illen artean, bizirik dagona? Ez dago emen; piztu da, Berak esan bezela. Gogora zazute oraindik Galilea'n zegola, esan zizutena: «Gizasemea gizon gaiztoen eskuetan utziko dute ta gurutzean josia izango da; baño, irugarren egunean piztuko da».

Ta Aren itzak gogora ekarri zituzten.

«Etorri ta ikusi Jauna ipiñi zuten tokia. Zoazte, bada, azkar eta esan zayezute ikasleai ta Pedro'ri, «piztu dala, ta Galilea'ra aurretik joango zaitutela; antxe ikusiko dezute, esan zizuten bezela». Or, bada, nik aurrez esan».

347.—*Emakumeak ikasleengana joan.*

(Mt. 28, 8; Mk. 16, 8; Lk. 20, 9)

Eta ayek (emakumeak) illobitik bereala irten eta iges egin zuten, bildur-ikaraz zeuden-da. Lenengoetan etzioten iñori ezer esan<sup>(32)</sup>; baño, bildurra kenduta gero, poz aundiz ikasleai berria ematera azkar joan ziran».

348.—*Pedro ta Juan illobira* (Lk. 24, 12; Jn. 20, 3-10).

Irten ziran, bada, Pedro ta beste ikaslea, ta illobira zuzendu ziran. Biak batera korrika zijoazen; baño beste ura Pedro baño pizkorrago ibillirik, lenago iritxi zan illobira. Ta barrura makurtuaz, zapiak lurrean utziak ikusi zituan; baita Jesus'en buru-gañean egondako oyala ere; au etzegon beste zapiakin batera, alde batean tolestatua baizik.

Orduan, lenbizi iritxi zan ikasle ura ere illobian sartu zan; eta ikusi ta sinistu egin zuan: «Jesus illen artetik

(32) «Iñori etzioten ezer esan»: bidean eta arrotzai, alegia.

piztu bearra zala» zion Idatzitakoa oraindik etzuten ulertu-ta.

Gero, ikasleak etxera biurtu ziran, gertatutakoaz arrituta.

349.—*Maria Madalen'i agertzen zayo.*

(Mk. 16, 9-11; Jn. 20, 11-18)

Astearen lenego egunaren goizaldean, Jesus piztu zala, Maria Madalen'i agertu zitzaion lenen, zazpi deabrutatik askatu zuanari berari.

Maria illobi-ondoan zegoen negarrez, kanpo-aldetik. Eta negarrez zegola, makurtu ta illobi-barrura begiratu zuan; eta Jesus'en gorputza ipiñia izan zan, tokian, Aingeru bi soñeko zuriz jantzita ikusi zituan; bata, barru-aldean; bestea, oiñ-aldean exerita. Ayek esaten diote: «Emakume, zergatik zaude negarrez?»

Mariak erantzun zien: «Nere Jauna eraman dute ta ez dakit non ipiñi duten».

Au esanaz batera, atzera begiraturik, Jesus zutik ikusi zuan; baño, etzekin Jesus zanik. Jesus'ek diotsa: «Emakume, zergatik zaude negarrez? Noren billa zabiltza?»

Maria'k baratz-zaya zalakoan, diotsa: «Jauna, zuk eraman ba'dezu, esan zaidazu non ipiñi dezun; eta nik eramango det».

Jesus'ek orduan: «Maria!»

Onak, biurtuta, ebreoz diotsa: «Rabboni!, —au da, «Maixua!»

Jesus'ek esaten dio: «Ez nazazu ikutu; Aitarengana ez naiz oraindiño igo-ta. Baño, zoaz nere anayengana ta esan zayezu: «Nere Aitarengana noa ta zuen Aitarengana; nere Jaungoikoarengana ta zuen Jaungoikoarengana».

Maria Madalen, atsekabez eta negarrez zeuden ikasleengana joan zan berri aukeratu ematera, esanaz: «Jauna ikusi det, eta auxe esan dit».

Baño ayek, Jesus bizi zala ta Maria'k ikusi zuala entzunda ere etzuten sinistu.



350.—*Jesus, beste emakumeai agertzen zaye.*

(Mt. 28, 8-10; Mk. 16, 8-11; Lk. 24, 9-11)

Maria Madalen, eta Juan eta Santiago'ren Maria ta aukien zijoazenak, illobitik zetozen. Ontan, Jesus'ek bidera irtenda, esaten die: «Agur!»

Ayek, urreraturik, oñak laztandu, ta gurtu egin zuten. Orduan, Jesus'ek esaten die: «Ez bildur izan; zoazte ta esan zayezute nere anayai: «Galilea'ra joan ditezela; antxe ikusiko naute».

Berri auek, amaikai (Apostolui) ta beste ikasle guztiai ematera joan ziran. Apostoluak, ordea, ayen itzak ameskerizat artu zituten, eta etzien sinisten.

351.—*Illobi-zaitzalleak eta apaiz-buruak* (Mt. 28, 11-15).

Emakumeak ba-zijoazela, illobi-zaitzalleetako batzuk errira etorri ziran ta gertatutakoa apaiz-buruai azaldu zieten. Ayek, berriz, zaarrakin bildu ta gauza aztertu-ondoren, gudari ayei diru-pilla aundia eman zieten, esanaz: «Esan zazute: «Aren ikasleak gabaz etorri ta ostu egin dute, gu lo geunden artean». Eta erri-buruak ori entzuten ba'du, guk legunduko dizutegu, ta ez dizute iñork gogaitik egingo».

Ta ayek, diruak jasota, esan zietenez egin zuten. Eta gaurko egunerarte zurrumuru ori zabaldua dago judutarren artean.

352.—*Jesus Emaus'ko ikasleengana*

(Mk. 16, 12-13; Lk. 24, 13-35)

Onen ondoren, egun artan bertan, Jesus'en bi ikasle, Jerusalem'dik irurogei estadiko <sup>(33)</sup> bidean dagon Emaus izeneko erri txikira zijoazen. Gertatu ziranai buruz alkarrekin itz egiten ari ziran. Eta gertatutako guztiak azaltzen ari ziran artean, Jesus Bera, beste antz-irudiz, inguratu ta ayekin zijoan bidean. Baño ayen begiak illunduak zeuden, eta etzuten ezagutu. Esan zien: «Zer da bidean ari dezuten izketa ori? Ta triste zaudete».

Ta Kleopas zeritzan batek, itz egiñaz, esan zion: «Zu

bakarrik al zaitugu arrotz, Jerusalem'en, egun auetan gertatu diranak ez jakiteko».

Jesus'ek esan zion: «Zer, gero?»

Ayek esan zioten: «Jesus Nazaretar orrena. Igarle zan, Jaungoikoaren eta erri guztiaren aurrean egiñez eta itzez gizon altsua; baño gure apaiz-buruak eta nagusiak, Arentzat eriotz-epaya iritxi ta gurutzean josi zuten. Guk, ordea, uste genduan Israel salbatuko zuana Bera zala; baño, gaur da irugarren eguna oyek gertatu ziranetik. Egia esan, gure arteko emakume batzuek arrituta utzi gaituzte: goizean goiz illobira joanda, Jesus'en gorputza arkitu gabe biurtu dira, Aingeru batzuek agertuta, Ura bizi dala esan dietela esanaz. Eta guretar batzuek, illobira joanda, guztia emakumeak esan bezela arkitu dute; baño, ez dute Bera arkitu».

Orduan Jesus'ek esan zien: «Bai gero zoroak zeratela zuek eta igarleen itzak sinisteko motelak! Kristo'k ez al zituan oyek igaro bear, eta gero bere zorionean sartu bear?»

Eta Moises'engandik asita, igarlerik-igarle, Idazti Deunetan artzaz idatzitako guztia azaldu zien. Eta zijoazen erri txikira iritxi ziranean, aurrera zijoalakoa egin zuan. Baño, ayek arren-da-arren esan zioten: «Gelditu zaitz gurekin, arrats-bera da-ta, eguna ba-dijoa-ta».

Ta ayekin gelditzeko sartu zan. Gero ayekin batera apaltzen ari zala, ogia artu zuan, bedeinkatu, zatitu ta banatu egin zien. Orduantxe zabaldu ziran ayen begiak, eta nor zan ezagutu zuten. Baño, Bera ayen begien aurretik ezkutatu egin zan. Eta alkarri esaten zioten: «Ez al genitun biotzak sutan, Idazti Doneak azalduaz bidean itz egiten zigunean?»

Ta bereala altxata, Jerusalem'era biurtu ziran. An arkitu zituzten Amaiak (Apostoluak) beren lagunakin elkartuta, eta ala zioten: «Egiz, Jauna piztu da, ta Simon'i agertu zayo».

Ayek ere, bidean gertatu zitayena azaldu zieten, eta ogia zatitzerakoan ezagutu zutela. Baño bi ayei ere etzieten sinistu.

(33) Irurogei estadi: 11 kilometro.

353.—*Jesus, Apostolui ta ikasleai agertzen zaye.*  
(Mk. 16, 14; Lk. 24, 35-45; Jn. 20, 19-23)

Izketa auetan ari zirala, egun artantxe, astearen le-  
nengo egunaren illuntzean, Amaiak eta beste ikasleak  
mai-ondoan zeudela, ta judutarren bildurrez ateak itxita  
zeuzkatela, Jesus etorri ta ayen erdian gelditu zitzayen  
esanaz: «Pakea zuei. Ni naiz, ez bildurtu».

Larri ta ikaratuta, mamuren bat ikusten zutela uste  
zuten. Eta esan zien: «Zergatik zaudete larri, ta zer dala-  
ta bururatzten zaizkitzute orrelako asmakeriak? Begira  
nere esku-oñak. Ni naiz. Ikutu ta ikusi nazazute; ma-  
muak ez du aragirik ez ezurrik, Neri ikusten didazuten  
bezela».

Eta au esanda, eskuak eta oñak eta sayetsa erakutsi  
zizkien; eta ayen sinismen otz eta biotz-gogorragatik, asa-  
rre itz egin zien, Bera piztuta ikusi zutenai sinistu etzie-  
telako (34).

Baño, pozaren-pozaz ikaratuta, ayek oraindik etzuten  
sinisten, eta esan zien: «Ba al daukazute emen jate-  
korik?»

Ayek arrai erre pixka bat eta ezti-aberaska bat eskeñi  
zizkioten. Berak artu, ta ayen aurrean jan-ondoren, kon-  
darrak bildu ta guztiai eman zizkien. Poztu ziran, bada,  
ikasleak Jauna ikusteaz. Ta esan zien: «Auxe da esan ni-  
zutena, zuekin negola esaten nizutenean: «Moises'en  
legean, Igarleen Idaztietan eta Eresietan (Salmoetan)  
Nitzaz idatzitako guztiak bete-bearrak dira».

Orduan adimena argitu zien, Idaztiak ulertzeko. Ta  
berriz esan zien: «Pakea zuei. Aitak bidali nindun bezela,  
bialtzen zaituztet Nik ere».

Eta au esanda, arnasa bota zien, esanaz: «Artu zazute  
Espiritu Santua; zuek barkatzen dizkiezutenan pekatuak,  
barkatuak izango dira; ta zuek lotzen dizkiezutenai, lo-  
tuta geldituko zaizkie».

(34) Ikusten denez, ikasleak etzuten berealakoan sinistu Jesus'en  
piztuera; eta ori dala-ta, Jesus'ek asarre itz egiten die.

354.—*Apostolui agertu, Tomas aurrean dala.*  
(Jn. 20, 24-29)

Baño Tomas, amabi ayetako bat, Didimo zeritzana,  
etzegon ayekin Jesus etorri zanean. Eta beste ikasleak  
esan zioten: «Jauna ikusi degu».

Baño ark erantzun zien: «Iltze-zuloak Aren eskuetan  
ikusten ez ba'ditut, eta nere eskua iltze-zuloetan sartzen  
ez ba'det, eta nere eskua Aren sayetsean, ez det si-  
nistuko».

Andik zortzi egunera, ikasleak berriz barruan zeuden,  
eta Tomas ere bai ayekin batean. Eta ateak itxita zeu-  
dela, Jesus etorri zan eta erdian jarri zitzayen, esanaz:  
«Pakea zuei».

Gero Tomas'i diotsa: «Sartu emen zure esku ori, ta  
ikusi nere eskuak; ekatzu zure esku ori, ta sartu nere sa-  
yetsean; eta etzaitetz sinisgogor izan, sinismendun baizik».

Tomas'ek erantzun zion: «Ene Jauna ta ene Jaun-  
goikoa!»

Jesus'ek esan zion: «Ikusi nauzulako, Tomas, sinistu  
dezu. Zorionekoak ikusi gabe sinisten dutenak!»

355.—*Tiberiades'ko itxas-ertzean* (Jn. 21, 1-14).

Arrezkero, Jesus ikasleai Tiberiades itxas-ertzean ager-  
tu zitzayen. Eta onelaxe agertu zitzayen.

Simon Pedro ta Didimo zeritzan Tomas eta Natanael,  
Galilea'ko kanatarra, ta Zebedeo'ren semeak eta Aren  
ikasleetako beste bi, alkarrekin zeudela, Pedro'k esan  
zien: «Arrantzara nijo».

«Gu ere ba-goaz zurekin», erantzun zioten.

Goiza eldu zanean, Jesus ur-ertzean aurkeztu zan; ba-  
ño ikasleak etzuten igarri Jesus zanik. Eta Jesus'ek esan  
zien: «Mutillak!, ba al dezute jatekorik?»

Erantzun zioten: «Ezer ere ez».

Eta Ark: «Bota sarea eskuialdera ta aterako dezute».

Bota zuten, bada, ta ezin atera zuten alako arrantzaz.  
Orduan, Jesus'ek maite zuan ikasle ark, Pedro'ri esan  
zion: «Jauna da».

Simon Pedro'k Jauna zala aditu zuaneko, soingañekoa  
jantzi zuan, —beste jantzirik etzeraman-da—, eta ixasora  
zapart egin zuan. Beste ikasleak ontzian etorri ziran, sa-



rea ondotik zekartela, legorretik berreunen bat ukalondo-ko bidea baño urrutiago etzeuden-da.

Legorrera atera ziranean, su-gañean arrai bat ikusi zuten, eta ogia. Jesus'ek esaten die: «Ekarri itzazute onera arrai artu-berriak».

Simon Pedro ontzira igo zan, eta sarea legorreraño ekarri zuan, eun da berrogei ta amairu arrai aundiz be-tea. Eta ainbeste izanarren, etzan urratu sarea. Jesus'ek esaten die: «Atozte, jan zazute».

Ta ikasleetako bat ere etzan ausartu Ari «Zu nor zera?» galdetzen; ba-zekiten Jauna zala-ta.

Orduan Jesus'ek, urreraturik, ogia artu ta eman egin zien; baita arraya ere.

Illen artetik piztu ondoren, auxe izan zan Jesus'ek ikasleai egindako irugarren agerraldia.

356.—*Pedro, Elizaren buru* (Jn. 21, 15-23).

Jan zutenean, Jesus'ek Simon Pedro'ri diotsa: «Simon, Juan'en semea; maite al nauzu auek baño geyago?» (35).

«Bai, Jauna —diotsa—; Zuk ba-dakizu maite zaitu-dala».

Jesus'ek diotsa: «Zaitu itzazu nere bildotsak».

Bigarren aldiz Jesus'ek: «Simon, Juan'en semea: maite al nauzu?»

Eta Pedro'k: «Bai, Jauna; Zuk ba-dakizu maite zai-tudala».

Jesus'ek diotsa: «Zaitu nere ardiak».

Irugarren aldiz *Jesus'ek* diotsa: «Simon, Juan'en seme: maite al nauzu?»

«Maite al nauzu», iru aldiz Jesus'ek esan zion-da, Pe-dro itun (triste) gelditu zan, eta esan zion: «Jauna, Zuk dana dakizu; Zuk ondo dakizu nik maite zaitudala».

Jesus'ek diotsa: «Zaitu nere ardiak. Bene-benetan esa-ten dizut: gazte ziñanean, zerorrek lotzen zenduan zure gerria, ta nai zenduan tokira joaten ziñan. Baño, zaartu-takoan, zure eskuak zabalduko dituzu, ta beste norbaitek

(35) Jesus'en iru galdera, eta Pedro'ren iru erantzun; Jesus'i iru maitasun-agiri egiten dizkio, apalatasun zintzo, iru ukatzen or-dain. Ta orrela, Jesus'ek Elizaren Buru jartzen du.

lotuko dizu gerria, ta nai ez dezun tokira eramango zaitu» (36).

Jaungoikoa nolako eriotzaz aitortuko zuan adierazteko esan zion ori. Au esanda gero, Jesus'ek esaten dio: «Jarraitu zadazu».

Pedro'k biurtuta, Jesus'ek maite zuan ikasle ura atze-tik zetorrela ikusi zuan, aparitan Jesus'en bular-gañean etzanda zegola, «Jauna, nork salduko zaitu?», galdetu ziona.

Pedro'k, bada, ori ikusirik, Jesus'i diotsa: «Jauna! Ta ori, zer?»

Jesus'ek diotsa: «Ni etorri arte ori orrela egotea nai ba'det, zuri zer? Zuk jarraitu zadazu».

Arrezkero, anayen artean ikasle ura etzala ilko zurrurrua sartu zan! Baño Jesus'ek etzuan «Ez da ilko», esan; «Ni etorri arte ori orrela egotea nai ba'det, zuri zer?» baizik.

357.—*Jesus, amaika apostoluai Galilea'ko mendi batean agertzen zaye* (Mt. 28, 16-20; Mk. 16, 15-18).

Eta amaika ikasleak Galilea'ra joan ziran, Jaunak aurrez esan zien mendira. Ta ikusi zutenean, gur egin zioten: naiz-ta batzuk, lenengotan, zalantzan gelditu. Ta Jesus'ek, ayengana urreraturik, itz egin zien, esanaz: «Agintaritza oso-oso eman zait Neri zeru-lurretan. Zoazte lurbira osoan zear, eta gizon guztiai Berri Ona erakutsi zayezute; erri guztiai erakutsi, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean batayatuaz; ta agindu dizu-tedan guztia agertuaz».

«Sinisturik batayatzen dana, zeruratuko da; baño, si-nistu nai ez duana, galdu egingo da. Sinisten dutenai, berriz, mirari auek jarraituko diete: Nere izenean dea-bruak botako dituzte, izkuntza berriak erabilliko, subeak eskuan artzeko aña izango; eta ilgarriren bat edaten ba'dute ere, ez die kalterik egingo; gaxoai eskuak ipiñiko dizkiete, ta sendatuta geldituko dira. Ta begira: Ni zue-kin egongo naiz egun oro gizaldi guztiak bukatu arte».

(36) Gurutzeko eriotzeaz ilgo dutela iragartzen dio Jesus'ek Pedro'ri.

358.—*Jesus'en azken-itzak* (Lk. 24. 46-49).

Eta esan zien: «Orrelaxe dago idatzita, eta orrelaxe Kristo, nekeak igaro ondoren, irugarren egunean illen artetik piztu-bearra zan. Eta onela nere izenean erri guztiai, Jerusalem'dik asita, damua ta pekatuen barkamena agertu bear zaye. Guztien aitor-emalleak, berriz, zuek zerate. Begira: Nik bialduko dizutet nere Aitak agindu dizutena <sup>(37)</sup>. Bitartean, zaudete errian <sup>(38)</sup>, Goi-indarrez jantzi zaitezen arte».

359.—*Jauna'ren zerura igotzea.*

(Mk. 16, 19-20; Lk. 24, 50-53)

Jesus Jaunak, ayei ala itz egin ondoren, Betania'rako bidera atera zituan, eta eskuak jasorik, bedeinkatu egin zituan. Eta bedainkatzen ari zala, avengandik alde egin eta zerura igo zan, eta Jaungoikoaren eskuialdean dago eserita.

Ayek, berriz, joanda, alde guztietan Berri Ona zabalitzen, zuten, Jauna laguntzalle zutela, ta ayen itzak mirariz egiztatzen eta sendotzen zituala.

360.—*Apostoluak nun-nai Berri Ona zabaltzen.*

(Mk. 16, 20)

Ayek, berriz, joan ziran, eta alde guztietan Berri Ona zabaltzen zuten, Jauna laguntzalle zutela, ta ayen itzak mirariz egiztatzen eta sendotzen zituala.

361.—*Azkena* (Jn. 20, 30-31; 21, 24-25).

Idazti onetan idatzi ez diran beste mirari asko, ere, egin zituan Jesus'ek bere Apostoluen aurrean. Azaldutako auk, berriz, Kristo, Jaungoikoaren Semea dala sinistu dezazuten idatzi dira, ta sinistuz, Aren izenean bizitza izan dezazuten.

Auxe da idatzitakoen aitormena ematen duan ikaslea, baita idatzi dituan ere: ta ba-dakigu beronen aitormena benetakoa dala.

Beste gauza asko ere egin zituan Jesus'ek. Baño, guztiak bana-banaka idatzi ezkeru, ez det uste mundu guztian ere tokirik izango litzakenik, artarako idatzi bearko liraken liburuak jartzeko.

(37) Espiritu Santua.

(38) Errian: Jerusalem'en.

**Berri Oneko  
atzalburuak eta atalak  
liburu onetako txataletan bananduta**

		Mt.		
1,	1-17 10 18-25 9	43-48 73	18-19 117 20-22 118	
2,	1-12 19 13-15 20 16-18 21 19-23 22	6, 1- 4 74 5- 8 75 9-15 76 16-18 77 19-21 78 22-23 79	23-26 119 27-31 120 32-34 121 35-38 123	
3,	1- 6 24 7-10 25 11-12 27 13-17 28	24 80 25-34 81 7, 1- 6 82 7-11 83 12 84 13-14 85 15-20 86 21-23 87 24-29 88	10, 1 123 1- 4 63 5-15 124 16-23 125 24-42 126	
4,	1-11 29 12 41 13-17 46 18-22 47 23 52 24-25 62	12 84 13-14 85 15-20 86 21-23 87 24-29 88	11, 1 127 2- 6 91 7-15 92 16-19 93 20-24 180 25-30 183	
5,	1 63 1- 2 64 3-12 65 13-16 66 17-20 67 21-26 68 27-30 69 31-32 70 33-37 71 38-42 72	8, 1- 4 53 5-13 89 14-15 49 16-17 50 18-22 178 23-27 115 28-34 116	12, 1- 8 59 9-13 60 14 61 15-21 62 22-23 97 24-30 98 31-32 99 33-37 100 38-42 191	
		9, 1- 8 54 9-13 55 14-17 56		



	43-45	189		23-30	229		45-46	295
	46-50	101		1-16	230		47-48	296
13,	1- 9	102	20,	17-19	231		49-50	297
	10-17	103		20-28	232		50-54	299
	18-23	104		29-34	235		55-56	300
	24-30	107	21,	1- 9	237		56	301
	31-32	108		10-12	239		57	303
	33	109		12-13	241		58	305
	34-35	110		14-17	239		59-66	303
	36-43	111		18-19	240		67-68	304
	44-46	112		20-22	243		69-70	305
	47-50	113		23-27	244		71-72	306
	51-52	114		28-32	245		73-75	307
	53-58	122		33-46	246	27,	1- 2	308
14,	1- 2	128	22,	1-14	247		3- 6	309
	3-12	129		15-22	248		7-10	310
	13	130		23-33	249		11	313
	13-23	131		34-40	250		12-14	314
	24-33	132		41-46	251		15-18	317
	34-36	133	23,	1-36	252		19	318
15,	1- 9	139		37-39	253		20-21	319
	10-20	140	24,	1- 3	256		22-23	320
	21-28	141		4-14	257		24-26	326
	29-31	143		15-22	258		26	321
	32-38	144		23-29	259		26-30	322
	39	145		30-31	260		31-32	327
16,	1- 4	145		32-35	261		33-34	329
	5-12	146		36-41	262		35-36	331
	13-20	148		42-44	263		37	330
	21-23	149		45-51	264		38	329
	24-28	150	25,	1-13	265		39-44	332
17,	1- 9	151		14-30	266		45-49	335
	10-13	152		31-46	267		50	336
	14-17	153	26,	1- 5	269		51-53	337
	18-20	154		6-13	236		54	338
	21-22	168		14-16	269		55-56	339
	23-26	169		17-19	270		57-59	341
18,	1- 5	170		20	271		60	342
	6- 9	172		21-25	274		61	343
	10-14	174		26-29	275		62-66	344
	15-20	175		30	283	28,	1- 4	345
	21-35	175		31	284		5- 7	346
19,	1-12	226		31-35	277		8	347
	13-15	227		36	293		8-10	350
	16-22	228		37-44	294		11-15	351
							16-20	357

			Mk.				
			30-32	130	35-37	251	
			33-46	131	38-40	252	
			47-52	132	41-44	254	
			53-56	133	13,	1- 4	256
			1-13	139		5-13	257
			14-23	140		14-20	258
			24-30	141		21-25	259
			31-37	142		26-27	260
			1- 9	144		28-31	261
			10-13	145		32	262
			14-21	146		33	263
			22-26	147		34-37	264
			27-30	148	14,	1- 2	269
			31-33	149		3- 9	236
			34-39	150		10-11	269
			1- 8	151		12-16	270
			9-12	152		17	271
			13-26	153		18-21	274
			27-28	154		22-25	275
			29	155		26	283
			30-31	168		27	284
			32-36	170		27-31	277
			37-40	171		32	293
			41-47	172		33-40	294
			48-49	173		41-42	295
			1-12	226		43-44	296
			13-16	227		45	297
			17-22	228		46-47	299
			23-31	229		48-49	300
			32-34	231		50-52	301
			35-45	232		53	303
			46	233		54	305
			46-52	235		55-64	303
			1-10	237		65	304
			11	239		66-68	305
			12-14	240		69-70	306
			15-19	241		70-72	307
			20-26	243		1	308
			27-33	244		2	313
			1-12	246		3- 5	314
			13-17	248		6-10	317
			18-27	249		11	319
			28-34	250		12-14	320
1,	1- 6	24					
	6- 8	27					
	9-11	28					
	12-13	29					
	14	41					
	14-15	46					
	16-20	47					
	21-28	48					
	29-31	49					
	32-34	50					
	35-38	51					
	39	52					
	40-45	53					
2,	1-12	54					
	13-17	55					
	18-22	56					
	23-28	59					
3,	1- 5	60					
	6	61					
	7-12	62					
	13-19	63					
	20-21	96					
	22-27	98					
	28-30	99					
	31-35	101					
4,	1- 9	102					
	10-12	103					
	13-20	104					
	21-25	105					
	26-29	106					
	30-32	108					
	33-34	110					
	35-40	115					
5,	1-20	116					
	21-24	117					
	24-34	118					
	35-43	119					
6,	1- 6	122					
	6- 7	123					
	8-11	124					
	12-13	127					
	14-16	128					
	17-29	129					

15 { 321  
 16-19 322  
 20-21 327  
 22-23 329  
 24 331  
 25 329  
 26 330

27-28 329  
 29-32 332  
 33-36 335  
 37 336  
 38 337  
 39 338  
 40-41 339  
 42-46 341  
 46 342

16, 47 343  
 1- 4 345  
 5- 7 346  
 8 347  
 9-11 349  
 12-13 352  
 14 353  
 15-18 357  
 19-20 360

Lk.

1, 1- 4 345  
 5-25 3  
 26-38 4  
 39-45 5  
 46-55 6  
 56-66 7  
 67-80 8  
 2, 1- 7 11  
 8-14 12  
 15-20 13  
 21 14  
 22-24 15  
 25-28 16  
 29-35 17  
 36-38 18  
 40-52 23  
 3, 1- 6 24  
 7- 9 25  
 10-14 26  
 15-18 27  
 19-20 41  
 21-22 28  
 23-38 10  
 4, 1-13 29  
 14 41  
 14-15 46  
 16-30 122  
 31-37 48  
 38-39 49  
 40-41 50  
 42-43 51

5, 44 52  
 1-11 47  
 12-16 53  
 17-26 54  
 27-32 55  
 33-39 56  
 6, 1- 5 59  
 6-10 60  
 11 61  
 12-16 63  
 17-19 62  
 17-19 64  
 20-26 65  
 27-28 73  
 29-30 72  
 31-36 73  
 37-42 82  
 43-45 86  
 46 87  
 47-49 88  
 7, 1-10 89  
 11-17 90  
 18-23 91  
 24-30 92  
 31-35 93  
 36-50 94  
 8, 1- 3 95  
 4- 8 102  
 9-10 103  
 11-15 104  
 16-18 105

19-21 101  
 22-25 115  
 26-39 116  
 40-42 117  
 42-48 118  
 49-56 119  
 9, 1- 2 123  
 3- 5 124  
 6 127  
 7- 9 128  
 10 130  
 11-17 131  
 18-21 148  
 22 149  
 23-27 150  
 28-36 151  
 37-43 153  
 44-45 168  
 46-48 170  
 49-50 171  
 51-56 177  
 57-62 178  
 10, 1-12 179  
 13-15 180  
 16 181  
 17-20 182  
 21-24 183  
 25-37 184  
 38-42 185  
 11, 1-13 186  
 14-15 188

16 191  
 17-23 188  
 24-26 189  
 27-28 190  
 29-32 191  
 33-36 192  
 37-54 193  
 12, 1-12 194  
 13-21 195  
 22-34 196  
 35-40 197  
 41-48 198  
 49-59 199  
 13, 1- 9 200  
 10-17 201  
 18-21 202  
 22-30 203  
 31-35 204  
 14, 1- 6 205  
 7-14 206  
 15-24 207  
 25-33 208  
 34-35 209  
 15, 1-10 210  
 11-32 211  
 16, 1-13 212  
 14-18 213  
 19-31 214  
 17, 1- 4 220  
 5-10 221  
 11-19 222  
 20-37 223  
 18, 1- 8 224  
 9-14 225  
 15-17 227  
 18-23 228  
 24-30 229  
 31-34 231

35-37 233  
 38-43 235  
 19, 1-10 233  
 11-28 234  
 29-40 237  
 41-44 238  
 45-48 241  
 20, 1- 8 244  
 9-19 246  
 20-26 248  
 27-40 249  
 41-44 251  
 45-47 252  
 21, 1- 4 254  
 5- 7 256  
 8-19 257  
 20-24 258  
 25-26 259  
 27 260  
 28-33 261  
 34-36 263  
 37-38 268  
 22, 1- 6 269  
 7-13 270  
 14-18 271  
 19-20 275  
 21-23 274  
 24-30 272  
 31-38 277  
 39 283  
 39-40 293  
 41-44 294  
 45-46 295  
 47 296  
 47-48 297  
 49-51 299  
 52-53 300  
 54-57 305

Jn.

1, 1-18 2  
 19-28 30  
 29-34 31  
 35-40 32

2, 1-11 35  
 12 36

58 306  
 59-62 307  
 63-65 304  
 66-71 308  
 23, 1 308  
 2 312  
 3 313  
 4- 7 314  
 8-12 315  
 13-16 316  
 17 317  
 18-19 319  
 20-23 320  
 24-25 321  
 25 326  
 26 327  
 27-32 328  
 33-34 329  
 34 331  
 35-37 332  
 38 330  
 39-43 333  
 44-45 335  
 45 337  
 46 336  
 47-48 338  
 49 339  
 50-53 341  
 53-54 342  
 55-56 343  
 24, 1- 2 345  
 3- 8 346  
 9-11 347  
 12 348  
 13-35 352  
 36-45 353  
 46-49 359  
 50-53 360

13-22 37  
 23-25 38  
 3, 1-21 39  
 22-36 40



4,	1- 3	41	47-53	218	15-17	305			
	4-26	42	54-56	219	18	306			
	27-42	43	12,	1-11	236	19-24	302		
	43-45	44		12-19	237	25	306		
	46-54	45		20-36	242	26-27	307		
5,	1-18	57		37-50	255	28-32	311		
	19-47	58	13,	1-17	273	33-38	313		
6,	1	130		18-30	274	38	314		
	2-15	131		31-35	276	39-40	317		
	16-21	132		36-38	277	40	319		
	22-24	134	14,	1- 4	278	19,	1- 3	322	
	25-33	135		5-11	279		4- 7	323	
	34-47	136		12-14	280		8-11	324	
	48-59	137		15-17	281		12-15	325	
	60-72	138		18-24	282		16	326	
7,	1	139		25-31	283		17	327	
	2-10	155	15,	1-11	284		18	329	
	11-29	156		12-17	285		19-22	330	
	30-36	157		18-27	286		23-24	331	
	37-39	158	16,	1- 4	286		25-27	334	
	40-44	159		5-15	287		28-29	335	
	45-53	160		16-24	288		30	336	
8,	1-11	161		25-33	289		31-37	340	
	12-20	162		17,	1- 5	290	38-40	341	
	21-30	163			6-19	291	41-42	342	
	31-47	164		18,	20-26	292	20,	1-10	348
	48-59	165			1	293		11-18	349
9,	1-41	166			2- 3	296		19-23	353
10,	1-21	167			4- 9	298		24-29	354
	22-42	187			10-11	299		30-31	361
11,	1-16	215			12	301	21,	1-14	355
	17-37	216			13-14	302		15-23	356
	38-46	217						24-25	361



1965'GARREN URTEKO  
 URRILLEAN  
 AMAITU ZAN  
 «ENCUADERNACIONES BELC IS»  
 IRARKOLAN  
 BILBAO